

Etxarri Aranatz

Aurkibidea

Udalerria: Etxarri Aranatz

Sarrera



Sakanako ingururik euskaldunena. XX. mendean jasandako hizkuntzaren ordezkatzeko prozesua iraultzea lortu du eskualdeak. Hala ere, euskaldunen kopuruak behera egin du azken hamarkadetan. Euskal hiztunen portzentaje esanguratsua dela-eta UEMAko kidea da.

- **Biztanleak:** 2.519
- **Euskaldunak:** %73,6

Ahotsak.eus-eko datu orokorrak

- **Hizlariak:** 36
- **Zintak:** 46

- Pasarteak: **1.551**
- Transkribatutakoak: **13**
- Audioak: **4**
- Bideoak: **1.547**

Proiektuak

- Antzin eta Urdirozko udalekuen historia
- Dialektologia-EHU
- Etxarri-Aranazko ahozko ondarea
- Euskal Herriko Ahotsak
- Euskalkiak.eus
- Gazte gara gazte
- Gipuzkoako zuhaizti motzak
- Koldo Artola: Ziorditik Uztarrozeraino
- Solstizioen inguruko ospakizunak Nafarroako zenbait hizkeratan emanak

Hizlariak



Susana Agerre

Susana Agerre, Lizarragabengoako (Etxarri Aranatz) sokatiralaria da. Lagun talde batekin sokatiran jokatzeko hasi zen denbora pasa bezala lagun-talde batekin. Ondoren, talde ofiziala sortu zuten eta hainbat txapelketetan ibili izan da. Etxarri-Aranatzeko eskolan irakaslea ere bada.

Jose Miguel Arbizu Lizarraga (1932)

Jose Miguel 1932ko urriaren 3an jaio zen.

Bautista Barandalla Beltza (1933)




10 urtetarako lanean zebilen Bautista, aita gazte hil zitzaion eta bost senide ziren, ama eta aitonaekin bizi izan ziren orduan. Oraindik ere abeltzantzan lanean jarraitzen du semeekin laguntzen.

Antonina Barricarte Zolina (1934)

Antonina Iruñeko Inklusako alaba da. Bi urterekin Etxarriko Montte etxera ekarri zuten. Berak zortzi urte zituelarik ama hil zitzaion eta 14 urterekin aita. Antonina Plentzian, Iruñean... aritu zen lanean etxea aurrera ateratzeko.

Joseba Beltza Bengoetxea (1983)



1983 urteko apirilaren 8an jaio zen Iruñean, baina Etxarri-Aranazkoa da eta bertan bizi izan da beti. Aita ere Etxarrikoa du eta ama, aldiz, Lizarragakoa. Hiru senidetan gazteena da eta euskara teknikari modura aritzen da lanean. Bertso eskolarekin harremana du Josebak, eta bertsoan ere badabil. Anaitz Igoa herrikidearekin egin genion elkarrizketa eta gaztetxeei, Etxarriko azken gazte asanbladari, herri mugimenduari eta euskararen jirako hainbat konturi buruz hitz egiten du.

Manolo Campos Castresana Campos (1935)

Manolo Etxarri Aranatzeko jaioa da, sei senidetatik bera zen nagusia. Berak 11 urte zituelarik aita hil zitzaion. Aita hil ondoren amak lan handia egin behar izan zuen familia aurrera ateratzeko, anaietako bik miseriak zuten denboraldi luze bat. Manolo lanbide ezberdinetan aritu bada ere, gehienbat kamioilari aritu da. Horretaz gain herriko alkatea izana da, intsumituak laguntzeagatik zigortu zuten lehenengo alkatea hain zuzen ere.

Ambrosio Erdozia Beltza (1920)

Etxarri Aranatzeko jaioa 1920an. Gurasoak ere bertakoak zuten.

Euskal Udalekuak: Etxarri-Aranazko topaketa



"Euskal Udalekuak" taldeak Urdiritzen etxea alokatu zuenean, Sakanako talde batek jardun zuen luzaroan etxea atontze lanetan. Etxarri-Aranazkoak ziren asko. Langintza horretan eta beste batzuetan ibilitako bost pertsona bildu ziren Etxarrin 2013ko martxoaren 21ean. Bideoan ezkerretik eskuinera: Patxi Auzmendi Sanzol, Txomin Garziandia Goñi, Fermin Ijurko Igoa, Paulo Zabala eta Patxi Maiza Barandalla.

Angelita Ezkerra Beltza Xantubuana (1923)

Angelita haur zelarik bederatzi urtetan eraman zuten Mugiroko modistaren etxera haurtzain lanetara. 12 urtetan gerra aurretik Ibarrara joan zen zapatari baten etxera lanera. Handik Donostiara. 1943. urtean ezkondu zen. Argentinan hiru aldiz egon da senideen etxean.

Jose Mari Fernandino Jaka (1936)

Ama eta amona emaginak izan zituen. Esne-behiak ere oraindik familiaren sostengu dira, egun Robot bidez ustiatzen dituzte behiak.

Juan Flores Galarza (1926)

Mildonia.- Lizerrengora bizitzera joandako etxearen izena, orain hartu duen izena Eugeniانتxia. Domingontxia.- Arbizuko jaiotetxearen izena.

Karmen Goñi Insausti *Inhaustina* (1921)

Aitona-amonak, gurasoak eta anai-arrebak bizi ziren jaiotetxean. Gurasoek etxea zatika erosi zuten.

Gregorio Goñi Lazkano *Urdizale* (1940)

Gregorio Etxarri Aranatzan jaioa da, bost senidetatik bera hirugarrena zen. Aitona nekazaria zen, aita etxeko lanetan eta fabrikan aritzen zen, eta anaia-arreba guztiak nekazaritza alboratu eta soldatapean aritu dira. Aita herriko urde-hiltzaileetako bat zen, eta hortik datorkio *Urdizale* ezizena.

Juan Igoa Beltza (1907)

Etxarri Aranatzan jaioa 1907an. Gurasoak ere bertakoak zituen.

Felix Igoa Garziandia (1916)

Ezkilajolea. Zerratokiko langilea Raimundo Urmeneta eta Juan Ijurko jabe ziren garaian. Soldata igoera eskatu eta ukatzean, Cementosera joan zen lanera.

Anaitz Igoa Goñi (1984)



Iruñean jaio zen 1984ko maiatzaren 6an. Gurasoak Etxarri-aranazkoak ditu, eta bera ere Etxarrin-Aranazen bertan bizi izan da beti. Bi senidetan zaharrena da. DBHko irakaslea da Etxarrin bertan, marraztea eta sorkuntza lanetan jardutea gustatzen zaio eta gaztetxeei, Etxarriko azken gazte asanbladari eta euskararen jirako hainbat konturi buruz hitz egiten du Joseba Beltza herrikidearekin batera egin genion elkarrizketan.

Rafaela Ijurra Ganboa (1928)

Aita etxarriarra eta ama arruazuarra zituen. Zazpi senide izan ziren. Etxekoandrea. Semea soldaduskan hilik agertu zen eta haren gorpua ekartzeko eta gertatutakoa argitzeko sekulako lanak egin izan ditu urteetan. Felipe Gonzalez berarekin gutun bidezko harremanetan ibili zen semearen aferarekin.

Natividad Jauregi Ezkurdia *Berronekua* (1936)

Gurasoak eta zazpi seme-alaba izan ziren. Nekazariak, sei esne-behi eta idi-pareak. Esnea saltzen zuten etxez etxe.

Jesus Amado Larraza Lizarraga *Argiñenekua* (1918)



Ergoienako Dorrao herrian jaio zen, baina Etxarri-Aranatzen bataiatua izan zen. Aita eta ama ere Dorraokoak zituen, eta Axentxiana izeneko etxean izan zituzten sei senideetan gazteena zen Amado. Hiru urte zituela, Etxarri-Aranazko Argiñenea etxera joan ziren bizitzera eta han, zapata tailerra jarrita, aitaren ofizioan lan egin izan zuen gaztetatik. Zazpi urte pasatu zituen soldadu, eta Irungo zapata tailer batean ere aritu zen ejertzitoarentzat zapatak egiten. Ezkondu ere Etxarri-Aranatzera egin zen, eta bertan bizi izan da beti.



Xanti Lizarraga Larraza

Xanti Lizarraga Larraza etxarriarra da. Elkarrizketa egin zitzaionean 72 urte zituen.

Hilaria Lizarraga Razkin *Belokintxekua* (1924)

1924ko otsailaren 12an jaio zen. Nekazari etxekoa.

Margarita Maiza Auzmendi (1938)

Margarita Etxarri Aranatzeko Artxulo baserrian jaioa da, 10 senidetako familian. Aitona, aita eta osabaren bat bertsolariak ziren, aita erromerietan bertsoetan aritu izan da.

Juani Maiza Mañeru *Carlosentxekue* (1942)

Nekazal etxekoa hiru ahizpa jaio ziren, baina bat jaio eta berehala hil zen, eta bestea, berriz, lau urte zituelarik ibaian ito zen.

Esther Mañeru Igoa (1929)

Amari laguntzen eta etxeko andre ibili da beti. 19 urtetan ezkondu eta gazte alargundu zen. Gaztetan Vicente Bacaicoaren etxean zerbitzari aritu zen.

Inocencia Markotegi Razkin (1931)

Aita maiki gelditzean jostuna egin zen. Jende asko pasatzen zen beraien etxetik aitaren lana zela eta. Bai eta guardia zibila kapak konpontzera ere.

Javier Mauleon Ijurra (1937)

1977ko ilbeltzaren 16a. Hiru hamarkadako debekuei aurre eginez, Etxarri Aranazko udaletxean leku berezia hartu zuen ikurrinak. Udalbatzak adierazpen gogoangarria iragarri behar zuen. Haren oinarriak: Amnistia orokorra, foruak eta euskara. Euskal Herriko 175 bat udalek bat egin zuten adierazpen harekin. Javier, Etxarriko alkate zen egun haietan.

Angela Mendiola (1923)

Zelestina Mendiola (1919)

Antonia Mendiola Larrañaga (1921)

Guraso etxarriarrak. Sei senide izan dira. Ama bera jaio eta denbora gutxira hil zen. Dorraoko parienteek eraman zuten Antonia hazitzeko baina ez zutenez ongi zaintzen berriz ere Etxarrira ekarri zuten etxeok. Patxi Huizi preso politikoaren ama, bidaia asko egin ditu 20 urtez Espainian barrena kartzeletan semea bisitatuz.

Vicente Miranda Mundiñano *Xakona* (1927)

Gurasoak eta sei anai-arreba bizi ziren nekazal-etxean.

Manuel Mundiñano Ezkutari (1918)



Etxarri Aranatzeko herri erdian dagoen "Materan-etxia"-n jaio zen. Zazpi senidetan hirugarrena izan zen bera, eta 15 urtera arte haurtzain ibili behar izan zuen. Gurasoak Etxarri Aranazkoak zituen biak eta artzain etxea zen beraiena. Manueli, ordea, ez zitzaion artzain lana gustatzen eta askoz nahiago zuen soroan lanean ibili. 15 urte bete zituenean hasi zen lan horietan. 18 urterekin soldadu joan zen, eta hainbat lekutan borrokatu behar izan zuen. Etxarri Aranatzeko bizi izan da beti.

Esteban Mundiñano Fernandez *Xakonan Juanena* (1929)

Bere emaztea Maria Luisa Flores Mendinueta zen eta duela hiru urte hil zen. Bederatzi urte dituenetik bizi da gaur egungo etxean. Zurezko tresnak egiten ditu: txokolaterak, karrakak... Nekazariak izan dira etxean.

Pedro Nazabal Goñi *Martin Julianena / Nazabalena* (1936)

Nekazari etxe handian jaioa hiru anaia eta bi arreba izan ziren. Kamioi gidaria izan da urtetan, bai eta aizkolari ona ere. Floren Nazabal aizkolari etxarriarraren osaba.

Jose Mari Razkin Agirre *Joseangelena* (1932)

Jose Mari Etxarri-Aranatzeko jaioa da, lau senidetatik bera bigarrena zen. Gurasoak herrikoak ziren. Aita kisuskile eta etxeko lanetan aritzen zen.

Asuncion Razkin Imaz *Jose karteroarena* (1926)

Etxean gurasoak eta bost anai-arreba bizi ziren. Aita postaria zen, baina nekazaritzatik bizi ziren. Asuncionen etxean ez zen inoiz ezer falta. Nekazari etxe ona ziren, eta beti zuten jatekoa.

Katalina Tabar Juanche

Inklusako alaba. Unanuko familia batek hartu zuen zaintzarako. Urte gogorak igaro zituen bertan, lan eta lan. Lakuntzan ezkondu eta handik urte batzuetara Etxarrira joan ziren bizitzera. 61 urterekin topatu zuen bere benetako ama. Bizitza gogorra izan du.

Pasarteak gaika

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

1. Ohiturak eta bizimodua

1.1. Sorginak

- **Hizlaria(k):** Igoa Garziandia, Felix
- **Elkarrizketatzailea(k):** Labrit Multimedia
- **Erref:** ETX-006/037
- **Iraupena:** 0:02:08. **Hasi:** 00:42:44. **Bukatu:** 00:44:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Ipuinak, mitoak eta istorioak
- **Laburpena:** Aiton-amonek kontatzen omen zuten bi sorginen kontua. Sasi guztien gainetik laino guztien azpitik joan behar omen zen, eta bat sasi guztien azpitik sartuta guztiz txikituta joan omen zen.

Transkripzioa

- Sorgiñen kontuba.
- Nik ez dakit /eztait/ ze izenen /izaan/ zien, beye, sorgiñek geiztotako, ordub. Bakarren bat fan emen zan, sorgiñek esan zeena, fateko leiñuen geiñeti, eta iruzkiyan azpitti. Fan emen zan oso ongi, primeran. Ta bestie ba emen zan esan zeena, ekibokatuta ta, sasi guzien azpitti, sasi guzien azpitti ta...
- Eta sasi tartien fan ber, hura.
- Eta gio, sasi guzien azpitti atzamarkatuik fan biher! Ekibokatu emen zan esaten, sasi guzien azpitti, esto...
- Leiñuen azpiti, leiñuen azpitti...
- Esan ber emen zeen, sasi guzien geiñeti. Beye, sasi guzien azpitti eta... Sasi guzien azpitti, ta leiño guzien geiñeti, beye aldrebes esan emen zen. Sasi guzien geiñeti ta leiño guzien azpitti. Ekibokatuta, atzamarkatuik allatu emen zan bat sorginlekue. Ta esan emen zon: "Nun habil ba hi? Nun habil ba?"
- Sasi guzien azpitti!

- Harrek, karo! Harrek dena atzamarkatuik ta degolletuik allaatu.
- Eta esan duzu aittunek eta amiñek, amiñek kontatzen zizubiela kontubek?
- Bai, kontubek.

1.2. Ama Birjinaren aparizioa

- **Hizlaria(k):** Mendiola Larrañaga, Antonia
- **Elkarrizketatzailea(k):** Labrit Multimedia
- **Erref:** ETX-009/050
- **Iraupena:** 0:03:21. **Hasi:** 01:20:35. **Bukatu:** 01:23:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
 - Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Ipuinak, mitoak eta istorioak
 - Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren indarra
- **Laburpena:** Ama Birjina agertu omen zen Etxarrin. Batek baino gehiagok ikusi omen zuten. Aldare bat egin zuten, eta jende asko etortzen zen. Apaizek moztu zuten kontu hori.

Transkripzioa

- Eta Ama Birjiñaan apariziyue? Ta Ama Birjiñe ikusi zela?
- A, hemen bei. Hor, Felixi fan za? Igoa? Harrengana?
- Bei.
- Hor, horren aurrekaldeko baatze hoi /baatzioi/, soro hoi /soruoi/, exkinka eitten den hoi? Hor sortu zan, lehendabizikue. Bartolona zan. Karrike estuben bizitzen zien. [Iturriotz...] guai etxe hure /etxiure/. Amerjiñe ikus zeela. Hil zan, Alsasue ezkondu zan. Felisa zazkiyon. Ni beiño urteen bat zaharreo. Han sortu, han ikusten zela, Amerjiñe ikus zeela ta Amerjiñek esan zoola hau, ta Amerjiñek esan zola [...]. Gio bestie, bizitzen da, guai etxe berri bet, denda nola do, haurran katxarruek saltzen ttubie? Han bizitzen da bestie. Harrek'e bei, hure harrekin, biyek, biyek zien. Amerjiñe ikusten zebiel, eta Amerjiñek esan zobiela astuei jana emateko estarbiyen. Ta Bartoloon etxia astuekin. Oii! Ta guk arto txuitzen, ta gui ez zugubien uzten. Gu aittunek esaten: "Ze uste dezubiela Amerjiñe atiatzen dala? Amerjiñe han zion bei eta Jangoikue de geldi! "Pasa de tiempos!". Ta haik ez zebien siñistetzen. Ta arrazoye zakabien! Eta gio askok ikusten zebien! Gero asko, batek ikusi... Faten giñen, Bakeikueño dee! Hor, Opoon daka alderdi hortan, hor atiatzen zala poste batien ta. Bazkal ondorien bero guzikin, ta guk ikusten ez beye! Ez yootietis, sorua ez fatietis iguel da. "Ez zarie fan?" Ta "sorua ez fatietis faten zarie ta!". Bei hori da. Hori de bei e, beye gio, hara, total eze ez ez zan izendu. [...] Gio, hemen atia zan. Aldarie ein zebien e!
- Bei?
- Bei, aldare eder bat ein zebien, guai "pescatera" don hontan? Hor larreiñek izeten zien, auntziyek eitten zien. Ta hor ein zebien, aldare bat, eta horrutze denak, jende asko etortzen zan. Demontrien aldare ederra ein zebien. Gio, horti, aldarie ein zebienien, Jangoikue hure, Jangoikue hure, ta apez hok hasi zien "con"... Elizen pum! Botatzen zien elizen. Ta han neskato hok /neskatuok/, oyus hasi zien eta "que no, era un cuento, que Dios no sale así, ni la Virgen ni nada" eta aldiaatu zien. Orduben sendatu zien denak. Orduben biyertien geizki, orduben bota eitten zien geizki ta, saarmiñe beño goorro eitten ziela esaten zebien. "Que era un cuento" ta

aborrittu zen.

- Gios apezak eman zizubien kontu hura?

- Bei, bei, bei, bei. Hoik, esaten duuzuten apez hok, Don Juan eta Don José María hoik. Eta gero etor zienak gaztiookuek, Don Pedro yondu zan beste bat /bestiat/ gazteena, meza emanda “Don Pedro y Don José María”. Bei biyek yondu zien. Bakien eman zebien meza eta Etxarrie tokatu zakiyobien. Ta haik esaten zebien: “¡Si eso es un cuento! ¡Si no sale Dios ya! ¡Cada uno está en su sitio!”. Ta jendie aburrittu zan sobre´re eta.

2. Itsasoa

2.1. Itsasoa ikusi zuen lehen aldia

- **Hizlaria(k)**: Razkin Imaz, Asuncion
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Labrit Multimedia
- **Erref**: ETX-019/004
- **Iraupena**: 0:00:57. **Hasi**: 00:02:47. **Bukatu**: 00:03:44
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Itsasoa
- **Laburpena**: Itsasoa ikusi zuen lehenengo aldian izugarria iruditu zitzaion. Gaur egun gazteak gehiago mugitzen dira, baina garai hartan berezia zen.

Transkripzioa

-Itxesue ikusik ziñakan ordureko? O lehendaziko aldiya zen?

-Ez, allatuik nengon. Ikusik nengon. Ikusik nengon.

-Ze iruittu zakizun? “Hombre”! Oso politte! Pufff! Fije zettez e, hemendi ikusita ze, “qué cambio es”.

-Haundiya?

-“Hombre”! Libertade hure /libertadiure/. Huuuure! Libertade hure / libertadiure/ dena. Lehen sorue besteik ez giñuken! Soruen ibiltzen giñen! Soruen ta soruen! Guai bezela ez da /ezta/, guaiko gaztiek [...]. Ibiltzen die ta biyejiek eta ixtoye geyo. “Ha cambiado mucho esto”.

-“Es que” itxesuan hoi bertan, guk ez dakiu /eztakiu/, ez diu /eztiu/ harritzen itxesua, beti ikusi duu.

-Klaro!

-Beye zubek akordatu eitten zaie noiz ikus ziñubien itxesua.

-Bei. Orduben, orduben! Nik orduben! Orduben ta beste, behiñ o bi aldis, ikusi! Besteik ez. Nik gutxi. Guai, guai, guai, e... Haurretati hasi ta biyejiek eitten die ta. Ez da, guai ez da...

2.2. Langostak arrantzatzen

- **Hizlaria(k)**: Fernandino Jaka, Jose Mari
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Labrit Multimedia
- **Erref**: ETX-036/016
- **Iraupena**: 0:01:48. **Hasi**: 00:26:17. **Bukatu**: 00:28:05
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Itsasoa » Arrantza-kanpainak » Mariskoa

- **Laburpena:** Langostak arrantzatzen ibiltzen ziren eta bijilantzia jartzen zuten guardiak ez harrapatzeko.

Transkripzioa

-Geyo, guardaki ta? Pues, peskan, o harrapatzen baziñubien...

-Ez, ez. Ez giñen... Gu ibiltzen giñen... Gui harrapatzeko zeille zan. Zengati, bijilanziye jartzen giñuben ta. Langostak harrapatzen giñuzkiyen “además” suelto, hola. Ze uste dezu /ustezu/, arbizuarrak bezela? Arbizuko, hoik e, Harrautseko Migel. Haundi bet zan. Hure, ta, beste bi o hiru emen zien. Ta haik ai emen zien sarieekin, peskan. Hori beiño behero, ze da, Lixarrengo beiño behero. Han lehen gerrietu bet ein zan, ta han ai emen zien. Eta, Argiñaana esaten genon, Argiñaan hoina, zan, zer da, Luis! Ikus omen zittuben, aittun hoi da bastante... hure de... Hori, beye gazte hure /gaztiure/ gaztio beye bestiek eta: “ze, libre da peskan?”, ta “baai”, “zengati esaten duk?” eta, “hor heldu die zibillek!”, buano! Ya zahar-zaharrak e, aittunek. Utzi zauzkien arreyek eta denak sasiten, eskapatu emen zien, ta gezurra! Basurdiek bezela, sasiyen sartu emen zien. Eta, gero, nik esana banakiyen ta, horri, Migel horri [esan noon]. Zengati Migel hoi etortzen zan Etxarrie ta ibiltzen zan beti tratuen, ta ibiltzen zien ta, patata yaman ta holako gauz hoiten ta: “Migel, eiñ emen zuuzubien ba zuei hoi?” da “Gazte mutu zikiñ harrek! Gu larri! Ze uste duk ba? /zustuupa/”. Arbizuko legia: “ze uste duk ba /zustuupa/”. Harrek hori esan da, sasiyen [...] basurdiek bezela fan emen zien!

-Migel Haundi ezta? Es[aten duzu].

-Migel Haundi, bei. Bai bai. Aldi betien holako reportaje bat /reportajiat/ ein zebienien, e, Amalur?

-Bei.

-Han atiatzen zan. Hure ikusi[k] balin baakazu!

-Bei, itxien dakat!

-Ba han, han atiatzen zan. Hure, baai.

2.3. Itsasoa lehen aldikoz

- **Hizlaria(k):** Maiza Mañeru, Juani
- **Elkarrizketatzailea(k):** Labrit Multimedia
- **Erref:** ETX-037/021
- **Iraupena:** 0:00:39. **Hasi:** 00:11:05. **Bukatu:** 00:11:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Itsasoa
- **Laburpena:** Itsasoa lehen aldikoz ikusi zueneko gogoratzen du. Donostiara maiz joaten da: estropadak ikustera,...

Transkripzioa

-Eta, itxesue ikus ziñuben lehendaaziko aldiye?

-Ba, pf. Eee... ikus nittuben regatak, eta bueno. Ikus nen, e, atiatzen, olak, e, olatubek! Egueldi txarrakin etorri eta nee, ne izeban etxie, zon em, karrike batien /karrikatien/ itxesube jaisten zala handi. Eta olatubek, jasotzen zien da faten zan utse beherakan karrike bihia. Eta, iruittu zakiten, bueno, “impresionante”. Bei. Ta gero regatetan de bei yondu neiz /nes/, zengati ni faten nitzen dexente Donostira, eta... Bei.

3. Iritziak

3.1. Ama lurperatzeko kojina

- **Hizlaria(k):** Goñi Insausti, Karmen
- **Elkarrizketatzailea(k):** Labrit Multimedia
- **Erref:** ETX-031/029
- **Iraupena:** 0:00:34. **Hasi:** 00:23:54. **Bukatu:** 00:24:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Hiletak
- **Laburpena:** Ama hil zenean Karmenek egindako kojinekin batera lurperatu zuten.

Transkripzioa

- Beste kuadrante bat /kuadrantiat/, bi giñuzken ta, hil zaniene ama, zera esaten zuzun Kattolikok, ibiltzen zanak.
- Eskatu zen...?
- Hala, Karmen, iye bakazun kojiñen bat o... ta, kojine bat ekar zeen amak, jarri zon kojine hura, jarri zebien, ta ya harrekin fan zan kojine harrekin.
- Kajan?
- Bei, kajan.

4. Familia eta harremanak

4.1. Jose Miguelen jaiotze data

- **Hizlaria(k):** Arbizu Lizarraga, Jose Miguel
- **Elkarrizketatzailea(k):** Labrit Multimedia
- **Erref:** ETX-035/001
- **Iraupena:** 0:00:38. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:00:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- **Laburpena:** Jose Miguel 1932ko urriaren 3an jaio zen.

Transkripzioa

- Jaiotetxa...
- Hemen jeyo ni, ni e, hemen e "el año treinta y dos". "Mil novecientos treinta y dos" jeyo ni.
- Ze egunetan?
- "Octubre", nola esaten da ba "octubre" eztakit esaten.
- Lasei, lasei, urria.
- e?
- Urrie, urri.
- "Tres de octubre de mil novecientos treinta y dos", erderas. Gero jarriko duzu euskeras oo...
- Bai, lasai.
- Bai.
- Eta ze, etxe hontan?
- Bai, bai, bertan.
- Ber(e) hontan.
- Bai bai, lau generaziyo daabizkigu. Lau generaziyo. Bai.

4.2. Homosexualitatea gai tabua

- **Hizlaria(k)**: Beltza Bengoetxea, Joseba; Igoa Goñi, Anaitz
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Errazkin, Aitor
- **Erref**: ETX-043/054
- **Iraupena**: 0:01:52. **Hasi**: 00:59:04. **Bukatu**: 01:00:56
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**: Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » LGTBQ+
- **Laburpena**: Josebak eta Anaitzek ez dute uste homosexualitateaz naturaltasunez hitz egiten denik; ez, behintzat, haien inguruan.

Transkripzioa

- Joseba: Nik gauz bet bestie, osea, e ez nukena utzi nahi aipatu be: sexualitatan inguruen, homosexualidarian inguruen, nik ez det ezer aitzen. Osea, hori bai ez detela ezer aitzen. Ez det ezer aitzen, ta hitz ein´e oso gutxi eitten [deu] gai horren inguruan. Eta hori, joder, hori bai dala realidade bat badona, badakiguna badola, baiñe ez dana iñun ateetzen. Eta ateetzen danetan, egie dala ateetzen dala, ba, broma txarrak eitteko. Nik hori... ostras, nik hori nahiko estalia ez, oso-oso estalita daola ikusten det nik e, Etxarrin behintzet.
- Anaitz: Nik´e... bei, beste inguru batzuten igual badakate aukera gehio...
- J.: Hitz eiteko.
- A.: ... bei, hitz eiteko ta bizitzeko, eta... eta naturaltasun guztiakin. Beiñe, bei, Etxarrin...
- J.: Bueno, ta igual... galdera da: zuek hitz eiten zuen zer da, emakumin arteko zerbait? Emakumin arten hitz eiten dezue horri burus?
- A.: Eee...
- J.: Mutillekin-ta bai?
- A.: Osea e... hitz ein baiño... bizi.
- J.: Bizi, bueno... Mutillen artien ez da... osea, puf. Eo... Ez dakit, homosexuala izan zaittezen, gay-e izan zaittezen, edo ez, o dana dala, hola hitz eite natural, lasai. Puf... "Hori homosexuala da", fin esanta, ba, hori bei ingo dala, baine... asko ez [dakit eiten duten], baiñe eiten ahal da. Baiñe ya...

- Baiño seiñalatuta.
- J.: Hori da. Baiñe hitz egin... "Jo, ba, nahi det..." [...] e... -ya beste maila baten
e- "Nei´de gustatzen [dakit]... puf, ez dakit ze mutil". Bo, hori ez dezu aitzen. Ez da aitzen, ez. Besteik´pe, e!
- Bai, bai.

5. Diaspora

5.1. Aitona Ameriketan egon zen artzain

- **Hizlaria(k)**: Arbizu Lizarraga, Jose Miguel
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Labrit Multimedia
- **Erref**: ETX-035/002
- **Iraupena**: 0:07:45. **Hasi**: 00:00:38. **Bukatu**: 00:08:23
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Diaspora » Lana diasporan » Artzainak eta kanperoak diasporan
Diaspora » Euskaldunak diasporan » Diasporatik itzulera
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- **Laburpena**: Jose Migelen aitona artzain egon zen Ameriketan 19 urtez. Alargun geratu zenean bueltatu zen bere semearekin (Modesto). Aitona unanuarra zen, eta bere ilobarekin ezkondu zen. Ondoren, alargun geratu zenean, bere lehengusina batekin ezkondu zen, eta lau seme-alaba gehiago izan zituzten.

Transkripzioa

- Bueno, hemen gauz asko pasatu die. Hemen e ixtoi bet badau e, Ameiketan yondu zan aittuna. Artzei. Hemeretzi urte. Gero... han alargun geldittu zan, eta etorri zan seme (b)atekin honutz, lendabiziko matrimonyokue, ta beste ixtoi dau hor beye ez dakit /eztakit/ meezi duben o ez. Beye, konbeni da e, gauzok... Beira, e a ver konbeni ez palen bada, ez diau /eztiau/ sartuko beye istoye izeteko biher dan bezela, Ameriketa fan zan. Argentinaa. Zona Mercedes o bat da. Zona han. Da han zauden, han zauden ya arzeyek urte asko, urte asko zittubienak han, eta Veremundo zan. Hango hure, hangue. Hure zan Veremundo, unenuarra. Eztakit interesatzen duúzun...

- Bai, bai, bai, bai, bai. Segi.

- Unenuarra zan. Orduben e, alargun geldittu zan, beye nola izendu zan harren ezkontza? Horrek´e badu e, beera ixtoirako baliyo du e. Kartaan bat, o nolabeittere eztakit, segur aski jakinko zen ixkiitzen, garei hartan. Unenura, karta exkribittu... bueno eztakit, erderas ta een zuben ezta. "A ver" bazeon ya, zengati klaro, pixkat aurriatu in neiz. Hango artzeyek zaudenak lenootik hemenguek esan emen zoonien Veremundos, han. Hi Veremundo, Unenuko hitze, nehi book, zengati guk nehi badiau, esaten diau Etxarrin. Haik esaten debie nehi bok. Ba, esan emen zobien: hi, gu bagiyuezek ya etxe aldia /txaldia/. Ya bueno, eitten zebien fortuna pixka bat, eta etorte, berrix itzultzen zien honutza. Da, nehi book, nehi bok da unenuarra e, hitza. Nehi book ardiyek salduko dazkik. Beye, artzei etxekue izenda aittune e, aitte, aittune hori bigotedune. Bueno, hala izendu men zan. Hala izendu men zan e, harrek e, diruik ez zen /eten/ uraiko, beye bankuek, españolai ematen zobien dirube, nehiku erraz hemengo euskaldun jendiei e. Da, nik pensatzen dut e, hori da nik eztakitena seguro nola dan. Beye, dirube sortu men zeen, yosteko ardiyek zengati, ardii zea,

izen ardidune izenda Unenukua “pue”, baa bazakiyen. Orduben hemeretzi urte ein zittuben horrek, gizon horrek, Unenun, oo Argentinan. Ta, ya, bee herrira hots ein /otseen/ zuben “a ver” balen bazegon neskaan bat nehi zubena fatie, beraakin ezkontzia. Bai, da hor ez da istoya akaatzen. Da, bueno harrek nehi zuben ya, bertan fameliye urai, oo, herriko neskan bat balen bazeon. Iguel inporta zakiyon...

- Edozein.

- Juana, Petra, Antonia, o Luisa. Ta, orduben e, illeba propiyuek, kontube atia zazu, nola biziko zien garei hartan /gareyartan/ e?. Ya “mil ochocientos...” ez dakit, zenbat urte momentu hortan. Ba, “a ver” nun naon.

- Bai, e.

- Osabak. E, bueno, ni, ni nehi dut herriko neskaat, da, jeitetxeko illeba batek /illebaate/ “directa” ‘san emen tzion: osaba ne boo, hor niyuen, nioi fanko neiz osabaakin ezkontzia, Argentina. Bai, bueno hori hala izendu zan, hala izendu zan, eta ai, e gizona zan osaba, andriendako, klaro, emakume gazti hoi... Ta hortik izendu zan mutiko bat, Modesto, Modesto, lendabiziko matrimonyokue. Baliyo dizu honendako? Galdera eitten dizut.

- Zer, zer?

- Ai neizena esaten baliyo dizu?

- Bai bai bai, oso... oso ongi.

- Kontube atia zazu nola, nola biziko zien e, illeba propiyueekin. Eta illebak Unenuti erantzune eman tzion, alegiye, bea nehi bale bazuben bea fanko zala beakin ezkontzia. Osaba eta illeba. Horti yondu zan , matrimonyo hortatik, Modesto. Oso gizona gero honutza etorri zan, alargun geldittu zana han hil zakiyon andrie, nere aittunaai, eta hil zan, etor zan seme horrekin, nola esaten da? Osaba, e “tío sobrina” oo “tio y sobrino, sobrina” bai. Etorri zan ya hemeretzi urte pasatuta, etorri zan. Honutza berris, semi horrekin. Beye alargun, alargun, klaro. Orduben, matrimonyo hartakue zakan semi hoi, Modesto, beye berrix, ezkondu zan Uberteke emakuma[/ e?] batekin. Ta harrekin, e, bi, bigarren aldi ezkondu, uraittu zittubien lau. Lau seme-alaba. Hoiten, hau, nere ama eta hori nere aitta, e. Orduben, baakizu ze pasatu zan? Berrix ee, lengusubek ezkondu zien. Lehena illeba, bigarren aldie, lengusube. Da hortik izendu zien, lau, matrimonyuen. Uherteke baserriko Amurgin daabiyena, guaño han dao han baserriye. Ta, lengusube e. Lehena illeba, eta bigarren... “Consanguinidad” erderas esaten dana, nik eztakit. Beye ez zan /ezan/ yondu... Nola izeten die gauze raruek eta abar?

- Bai, igual bai, gaizki jaiotzen diela.

- Ez, ez, ez, e. Kontube atia zazu, zein gertu, zauden e, konsangüidadi(y)ek eta abar e. Bueno, orduben e, ya, aittunek hau yoos zuban. Handi etor zaniyen, hor e, borda bat dau, borda. Da hori beste ixtoi be(t) da.

6. Baserria

6.1. Aitonaren borda

- **Hizlaria(k)**: Arbizu Lizarraga, Jose Miguel
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Labrit Multimedia
- **Erref**: ETX-035/003
- **Iraupena**: 0:02:40. **Hasi**: 00:08:23. **Bukatu**: 00:11:03
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

- **Gaia(k):**

Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
Diaspora » Euskaldunak diasporan » Diasporatik itzulera

- **Laburpena:** Ameriketatik bueltatu zenean, aitona borda bat erosi zuen. Garai hartan Lizarrustin "alkohol metílico" egiten zuten eta Madrilerara bidaltzen zuten.

Transkripzioa

- Ya, aittunek hau yoos zuban. Handi etor zanien, hor e, borda bat dau, borda. Da hori beste ixtoi be(t) da. Nehi badezu /baezu/ kontatuko dizut, beye eztakit.

- Nungo borda da?

- Be, hori zan hemen eetten zebien Lizarrustin, hemendi fanda Ataun aldea, alkohol mitiliko, uste det /ustet/ pronunzietzen dala. Egurre zapaldu, eztakit nola dan, eta salda bat atiatzen zebien da Madrille bieltzen zebien. Madrille, gareyartan e, beti gipuzkuarrak zien e, gipuzkuarra beti aurreti fan da e gauz askotan. Orduben, ein zubien borda hori, borda hori nola dau hor, hemen ezkerretati eztakit fijetu zan. Da, orduben, trena zegon uaño urte asko zittubela. Ez zittubela. E, ein bihera, trenbidea ein zana Iruñetik Alsasura. Madrilleko kontatu arteko berris Alsasun. Gero, fateko ya ordue goia Madrildik e, frontera einda zion bideberriye Alsasun, beye hemen ez giñakan trenbiderik /trenbideeik/. Orduben kontaktu Iruñetik izendu zan haik eta, haik eta Alsasua harrapatu artio, trena ya Frantzira, ta Frantzitik aldi honta ta dena. Bueno hori da, beste "mil ochocientos sesenta y tantos" oo eztakit, seguro eztakit hori. Jakin dezaket, e! Ta bueno, ya, aittunek pensatu zuben, hemen bizi ber giñela. Hori yoos zubenien, etxe txar bat, beheara /bia/ botata, botata dau, hautsita dakau. Are permisoon bat o zerbei balitzeke, beye jendu ein ber diau hori. Orduben ya, ordues kio, izendu gaa, guk geok, ya. Beye nere ama ezkondu zan, nere ama ezkondu zan, senidi hoiten. Da Modestok zuben nehi izendu lendabiziko matrimonyokuek hemen gelditzie, harrek nehi zuben beste bizimodu betengati zan, langille amurretube osaba, lendabiziko matrimonyokue. Eta gero seittu zuben hemen beste lau senidiok, eta aittune ta amiñe. Aittune arakildarra, Uharte Arakilgua e. Ze istoye zu! Ze istoye! Ez dakit hartzen aiko zan...

- Bai, bai. Baiño, etxea zeñek ein tzun?

- Zer?

- Etxe hau. Zeñek eraiki zuen hau?

- A bueno hau...

- A, bale, bale...

- Hau beste etapa da.

- Lehenengo borda hori zen.

- Ba, ba, bai, ai ga harrekin. Istooya[/e?] segitzen ai neiz pixka bat.

- A, bale, bale, bale. Segi, segi.

- Bueno, gero gerra etorri zan.

6.2. Kaikua, ardiak jezteko tresna

- **Hizlaria(k):** Igoa Beltza, Juan
- **Elkarrizketatzailea(k):** Artola Kortajarena, Koldo
- **Erref:** ETX-044/002
- **Iraupena:** 0:01:38. **Hasi:** 00:01:22. **Bukatu:** 00:03:00
- **Multimedia:** audioa online entzungai

- **Gaia(k):**
Baserria » Baserriko lanak » Artzaintza
Baserria » Baserriko lanak » Baserriko tresnak
- **Laburpena:** Kaikuaren inguruko azalpenak.

Transkripzioa

- Ardi jaizten ibili zara, e?
- Ni denbora askuen, urte askotan.
- Eta kaiku?
- Keikube da, eskuleku bet... zure da ori, e? zureskuä; da ura? esku bakar...-rakin ibiltzen dezu?... ta, marmite da, artu gider bateti? ta, ure beis ojalata, lata o chapa, marmite da beste. Bi, oik, bi ze ittubi(e) ta bi klase die oik... bi klase die oik: käiku(b)a, erdiyen? puntan artzen dezu ta, erdi-erdiyen daka, gider bat eta, marmitek beis(k), zeak, kat-, kat-, o... vamos, alanbre at, erdi-erdiya artu ta, balde at o bezela, ardi jeixteko.
- Bai, pozala bezala edo?
- Pozala bezela; ure da marmita, ta bestie keiku(b)a.

7. Natura

7.1. Sugeen inguruko azalpenak

- **Hizlaria(k):** Igoa Beltza, Juan
- **Elkarrizketatzailea(k):** Artola Kortajarena, Koldo
- **Erref:** ETX-044/001
- **Iraupena:** 0:01:22. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:01:22
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Gaia(k):**
Natura » Fauna » Basoko animaliak
- **Laburpena:** Sugeen inguruko azalpenak. Zirauna.

Transkripzioa

- Pues... beltxak, beltxetxio, beltxexo, eta mioak dia, mio, ta lepue're, meix-, mexoo; lepue... bu(r)utxabal bat? buutxapala? oiek dia bibo-, biborak. Aundiyak ez, e? oik eztie... beste atzuk aundiek izaten dia, beia oik eztie aundiyek.
- Eta izaten da beste bat, zirauna edo?
- Ziräuna, emen e zireunä esaten dogu.
- Horri?
- Orri, bei, beste...
- Bibora horri zirauna esaten zaio?
- Biborai ez, bestëa, bestea, zireunä edo dana? beste klase at da.
- Zernolakoa da?
- Izena, izena're zireune, guk ziraune esaten dou.
- Eta non ibiltzen da? zer kolore edo tankerakoa da?
- Us(i) u, kasi... esto... sugien estiloakoa da, beño oik eztebie oskik eta, aik eztebie eitten; laun-laun batzuk izaten doi, jendiä sentitzen dabie zzz-zzz-zzz... ra! estaltzen dias; oik eztebie geago... eztebie peligrü geigo, oska eitteko ta ola.
- Lehorrean ibiltzen dira?
- Bai, bai, leorrian, oain beruekiñ e, sasitti ta ateatzen die ta... sugien estiloa baia distintuek dia, distintuek.
- Eta uretan ibiltzen direnak badira?

- Ez, uža... bah! užea sartuko die oik, egarriyek eta berdin, baña? eztaiz.
- Ez, bestela ez...
- Ez, ez; užin olakoik ezta.

8. Herria, azpiegitura

8.1. Markesaren lursailak Lizarrusti inguruan

- **Hizlaria(k)**: Erdozia Beltza, Ambrosio
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Artola Kortajarena, Koldo
- **Erref**: ETX-045/001
- **Iraupena**: 0:05:00. **Hasi**: 00:00:00. **Bukatu**: 00:05:00
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Gaia(k)**:
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Herri-lurrak eta lur pribatuak
Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- **Laburpena**: Markesaren lursailak Lizarrusti inguruan. Maizterrak;
ordainketak nola egiten ziren.

Transkripzioa

- Gauza bat da Ergoen hori, Lizarraga, Dorrao eta... baina gero, Lizarrustiko bidean, ez ote dago ba beste Ergoen, Ergoien edo?

- Ez, ez, ori Lizarrabengoa da, erri ttiki bat, bai. Arbizu ba(d)akizu! emen ee, sartu t'an ezkerrien, erri ttiki-ttiki bät! bedratzi-amar etxe o ola, ure da Lizarrabengoa. Beia an ee... denak, pa(g)atzen ttubie emen kontribuziyuek eta emen ee... kintotakuen taillätu ta dena... izeten da Etxarrin; Etxarri o beya, oik zebien, markes baten terrenuek zittubien oik: basuek, etxiek da soruek. Ja! gëo zeebien gerrako denboran, markesa bai, izeten tzan, da ura bititzen tzan, emen e... zer da ba? Ataundi... urrengo erriy oi?

- Lazkao?

- Lazkan-, Lazkauben, bai, da ortik? San Martin, Lazkauen uste det-ta, urtiero iamaten zozkabiien oilleixkuek, regalotaako, ta azkeneko regalue iaman zebiena? goañik bizi a, ni beño bost urte zarrogokuä, Fermin Lakunza; ta arrek esan tzeen, goan ezta... iru illaate esanik, nola fan zien, bi? azkeneko regalue iñ asto (b)atien? oilloixkuek? etxetatik, artu? ta, regaluä, bai. Ah, bestie? Pedro, ilik doo, baia or? goañik bizi a... Bai, arutza, astue? kargatuta, Lazkaure ta, geo baeazu emen, gerra astirakuen ee, lenoko amin xarrak et'esten tzebien ba: "Ai, au pena nik! komunismu eldu emen da ta! dena jendu bear duguzkieula ta! ildu berdin!". Lau maadian saldu zoobien, bai, gerra asita zoon? da, baakizu zenbat... Fermiñek esan tzeen, ordu(b)en, beak ee esan tzeen: "Baakizu zenbat gosta-, sal giñuben?" basuen lotiek, e? -guk basue, zuek mendiyä esaten doozubie-ta eh, basue, aritzek eta faguek eta denetati, da soruek eta etxiek eta denak... amazazpi millä pezta pa, san tzien, dena, erriye, bueno, een etxiek? beste... an tzeenak, meixter o, zer esaten doozubie? meixterrak esaten doogu uk...

- Maizterrak, bai.

- Ba, an, maixter tzeen etxiek? ta soruek? eta geiña lotiek, geo... lotiek eëñ, bed(e)ratzi zien orduan, da apeza, bedratzi eman-da ori? ta apeza ta, bedratzi lote eiñ? seguru ya zazkabiak; klaro, lenguek, berandau oiek basuen? lotiek eëñ, bedratzi puzkä? ta suertiä, gero, suertia dou ta, batia au, bestia au, beste ou eo beste at, ala tokatuta beste orroi... Amazazpi mille pezta pa san tzien, je! bere izketa... amazazpi t'erdi're ez zien izan, duro... duron aldi ba(t) asko tzan, milla bet t'erdi bät. Ba ola da... Fermiñek,

je! elleatzen bazaa arregana? galdubide o bere etxea? e? zuk kusco dezu aber esan doun; bizi a ua... Fermin Lakunza. Arrek daka alaba (b)at emen ezkonduik, ta eën zakiyon gizona, azidentes il, igaltserue o kisugille, ta eldu zala etxëa, Iruñeti? emen, Ugerteti autzero, Irañeta o... or, inguru ortan il tzan, azidentes, bei. Ta, il tzan urä? ta, goai aittä, emen ëooten da, be alaba oi, Etxarrin; ori, Fermin Lakuntza, bai jauna! Arrenea elleatzen bazaa, arrek kontatuko duuzu istoriä, danak! (...) arri aittuta, e? bera. Ta, faten baza?...

- Eta hori non bizi da?

- Emen, e... Zumarreta o, Andre Maaye, ba(d)akëzu, kruzeti gorbera arttie; an, ezkerrea sartu? ermitten pare-parien, bideberriya juaten da Lizerraga aldea bäia, ezker! an. Ta, an pasau? ta, an, beste aldeti? Lakuntz-, ori bera, galde eëñ. Lakuntza, Fermin Lakuntza, iruritzen badizu, e? jakitteko obe.

Transkripziorik gabeko pasarteak

Ondorengo pasarteak gaika landuta eta kodifikatuta daude, baina oraindik transkribatu gabe.

1. San Adrian ospakizuna (ETX-006/001)

Felixek San Adriango ospakizunari buruz hainbat azalpen ematen ditu. Gazteek ematen zioten garrantzia, bertako egunerako (neskentzat) egiten zen opila, ospakizunaren zati ezberdinak (meza, bazkaria, gaiteroak-musika, zortzikoa-dantzak, arrosarioa, herrira-jaistea kantuan) eta antolamendua (agintariak eta musikariak alde batetik, herria bestetik). Janari eskasia ere aipatzen du, bazkari berezirako kapoi bat gordetzen zela gehituz.

2. Primo de Riveraren diktadura (ETX-006/003)

Primo de Riveraren diktaduran herria erraz zigortzen zela aipatzen du, eta Sociedad de Labradoresen sorrera. Honen asmoa, askatasun gehiago lortzea zen, eta horretarako egin zuten borrokan, tartean, Toribio alkatearekin.

3. II. Errepublika (ETX-006/004)

Errepublika etorri zenean, diferentzia handia gertatu zen, libertate gehiegi. Gainera jendeak ez zuen ahaztu (UGT, komunistak) eta Elizak ere arazo gehiago zituen.

4. Frontean, Gipuzkoatik (ETX-006/005)

Txapelgorria (karlista) zen, eta zirkuluetan zein errepublikanoekin zeuden ikami-kei buruz aritu ondotik, Barandallaren taldearen (erreketek) nondik norakoak azaltzen ditu. Nola Erriberatik etorri ziren asko, eta bertako boluntarioekin Gipuzkoatik aritu ziren (Tolosa, Ondarroara arte). Frontean beldurraz gain, mozkorrak ere baziren. Gipuzkoatik bueltan etxera joan zen gurasoekin, bere kinta deitu zuten arte.

5. 'La Quinta del 37' eta nondik-norakoak (ETX-006/006)

Iruñetik Gipuzkoara joateko ziren, baina leku gabe zegoen. Frontean sukarrarekin ia hil zela, enpatxatuta. Ondorengo nondik-norakoak azaltzen ditu (Burgos, Somosierra...).

6. Traizioa: gerra hala da (ETX-006/008)

Gorriek sekulako triskantza traizioaren bitartez egin zietenekoa.

7. Gerraostea: gosea (ETX-006/010)

Gero, gosea etorri zen. Askoz okerragoa. 1942an jende asko hil zen gosez. Uzta minimoa zegoen dirua jaso nahi bazen, bestela kendu egiten zitzaien.

8. Errotak itxita, ogirik ez (ETX-006/012)

Errotak itxi zituzten eta garia konfiskatu. Gauez jartzen zituzten errotak martxan, ohartu ziren arte. Ataungo errotara ere joaten zen jendea, baina Guardia Zibila konturatu zen eta hori ere kendu. Etxean, "katxarro" batekin nekez lortzen zuten haiek irina ogia egiteko.

9. Ogia nola eta labeak (ETX-006/013)

Ogia amak, 8/10 egunero. Patatekin nahastuta freskoago. Etxe gehienetan zegoen labea. Haienean non zegoen azaltzen du.

10. Su baxua eta kapoia (ETX-006/015)

Janak su baxuan egiten ziren. Pasadizo barregarri bat kontatzen du behin kapoia egosteko lapikoan sartu eta handitu zenez atera ezinean lapikoa apurtu behar izan zutenekoa.

11. Eguneroko jana (ETX-006/017)

Eguneroko jana zein zen aipatzen du. Dirudunek arroza.

12. Txerri-hiltzea I (ETX-006/019)

Urte batean "Mal-rojo" izan zuen txerriak. Bestela basoan egoten ziren ezkurak jaten. Orduan bi hiltzen ziren. Nork eta zeren truke hiltzen zuen azaltzen du.

13. Txerri-hiltzea II (ETX-006/021)

Txerria nola eta zenbaten artean hiltzen zuten.

14. Txerria hil ondorengoak (ETX-006/023)

Odola berotan nola lantzen zuten, txerria nola egur-suarekin erretzen zuten eta nola lantzen zen ondoren. Odolki edo tripotak emakumeek lantzen zituzten.

15. Ogian gurutzea (ETX-006/025)

Ogiei gurutzea egiten zitzaien

16. Mahaia bedeinkatzea (ETX-006/026)

Mahaia bedeinkatzen du oraindik, lehen etxean nork egiten zuen eta nola bedeinkatzen den azaltzen du.

17. Etxea: beheko solairua (ETX-006/028)

Sukalde eta ukuilua izaten zen.

18. Eultzia (ETX-006/030)

Nola eultzitzen (uzta larrinean jo) zen azaltzen du. Animaliekin. Haizearen beharra. Egurrezko palarekin jaso eta haize gutxirekin nahikoa banatzeko. Gero eultzilaria etorri zen, eta "soziedadean" jarri zutena erabiltzen zuten.

19. Larraina prestatzen (ETX-006/031)

Garbitzen zen. Batzuk abereen kaka ematen zuten, geruza gogor bat sortzeko lurrean.

20. Belarretako eguna (ETX-006/033)

Belarra segatzetik ganbara-goikora igo arteko prozesua eta segaren material zein zorrotasunaren garrantzia aipatzen ditu. Moztu eta gero, lurrean barreiatu behar zen belarra idortzeko.

21. Artoa (ETX-006/035)

Artoa beroa hasten zenean, maiatzean edo ereiten zen. Hotzarekin ez zen irteten eta bestela lau egunetan. Uzta urri aldera, San Migel artoa ere bazen. Artoa gero landu behar zen eta gizon eta emakumeen lanak kontatzen ditu. Haien artean kontu-kontari ibiltzen ziren.

22. Soroko Lanak (ETX-006/039)

Erlojurik gabe, eguzkiarekin funtzionatzen zuten, San Donaton jotzen zuenean 12:00ak. Angelusa errezatzen zuten, normalean bazkalorduan. Bazkaria emakumeek eramaten zieten sorora.

23. Neurriak (ETX-006/041)

Metroak ezagutu ditu. "Varak" ere oihaletan. Laurdenak soroetan. Ezagututako monetak ere errepasatzen ditu.

24. Txondorrak (ETX-006/043)

Txondorrak nonahi egoten ziren.

25. Basoa eta lan gutxi (ETX-006/045)

Gazteak basora joaten ziren. Lan gutxi zegoen. Herrian hiru zerrategi zituzten. Bestela aberatsentzako lanera.

26. Etxarriko aberatsak (ETX-006/047)

Orduko familia pare bat aipatzen ditu eta zapatariaren kasua. Zapata parearekin herrira etorri eta etxea eta taberna egin.

27. Etxarriko tabernak eta giroa (ETX-006/049)

Bi taberna zeuden, eta Errepublika garaian UGTkoa ere. Hango batek etxea aseguru eta su eman zion kobratzeko. Mozkor zegoenean kontatzen zuen. Neskak ez ziren tabernetara joaten. Soroko kontuak eta andregaiak zituzten hizpide. Edateko ardoa eta "kafe konpletoa": kafea, kopa eta purua.

28. Etxarriko feria (ETX-006/051)

Etxarriko feria inportantea zen. Altsasukoaren mailakoa. Bi tratante nagusi izaten ziren. Inguruan ere bazen oso tratante garrantzitsua.

29. Herriko medikua eta botikaria (ETX-006/053)

Herriko medikua udaletxetik ekartzen zutena zen. Botikaria, Gaiarre.

30. Apaizak eta mezak (ETX-006/055)

Ezagututako lau apaizak zerrendatzen ditu, bertako zein kanpokoak ziren. Etxarrikoak bere semea apaiz nahi zuen eta izan, baina gogorra zen. Mezan gaizki otoitzen zena errepikarazten zuen etengabe. Meza nagusia zen famatua, koro eta organoarekin. Organista nor zen ere aipatzen du.

31. Bezperak eta hileta (ETX-006/057)

Bezperak arratsaldeetan ziren. Emakumeek argizaria eramaten zuten eta beheko solairuan. Gizonak goiko solairuan. Hiletak ezberdinak ziren familiaren mailaren arabera: hiru maila zeuden.

32. Ezkilak (ETX-006/059)

Hil-ezkilak azaltzen ditu, gizon, emakume edo umeenak. Bera ere jotzailea izan da. Hau asko hiltzen ziren. Su-ezkilak ere baziren, neurririk gabe.

33. Garizuma eta Aste Santua (ETX-006/061)

Garizuma nola ospatzen zen, ibilbidea. Bijilia (dirurik ez zuenarentzat). Aste Santuan karrakak, ostegun eta ostiralean. Baita prozesioa ere. Prozesioa San Adrian edo Andra Marin ere bai.

34. Kofradiak (ETX-006/063)

Herriko kofradiak lau ziren. Hiru oroitzen ditu.

35. Emagina (ETX-006/065)

Herriko emaginari buruz hitz egiten du.

36. Eskola (ETX-006/067)

Eskola, beretzat soroa. Gau-eskolak ere bazeuden. Irakasle pare bat. Ez zitzaion joatea gustatzen eta 12 urtetatik aurrera, akabo.

37. Pilota (ETX-006/069)

Pilotan afizioa zuen. Frontoia lehen estalpe gabe zegoen. Haiek egiten zituzten pilotak (azaltzen du nola), dirurik ez zegoen eta erosteko. Espartinak ez hausteko batzuetan oinutsik ere egiten zuten

38. Txakurrak jan (ETX-006/071)

Etxarrin txakurrak jaten zituzten. Pepinok behin txakur bat hartu, etxera eramane eta jateko egin zuela kontatzen du. Planotik kanpoko gizon batek ere hartzen du parte

39. Udaletxea (ETX-006/073)

Udaletxea nork osatzen zuen. Bederatzi lagun zeuden, tartean idazkariak eta alkatea. Hau "nombratuago" edo eskola gehiagokoa izaten zen.

40. Auzolan (ETX-006/075)

“Etxen jan ta kanpoan lan”. Bi pezeta kobratzen zituzten (ardotarako). Sarritan egindakoa.

41. Euskara (ETX-006/077)

Lehen euskaraz bai, baina orain gehiago egiten omen da. Euskaraz bai, gehienek, haiek modukoak, baina erdaraz ere bai.

42. Zerrategia eta “Cementos” (ETX-006/079)

Aurrena, zerrategian ibili zen lanean. Gero, “Cementosen”. Bizikletan joaten zen, elurra zegoenean oinez 11 km. Fabrikan lanean. Istripuak izaten ziren.

43. Juanen jaiotza data (ETX-007/002)

Juan 1925eko apirilaren 5ean jaio zen.

44. Garai hartako etxeak (ETX-007/005)

Orduan etxe guztiek estrabia eta ganbara zituzten. Ganbaran belarra gordetzen zuten.

45. Etxeko sukaldea (ETX-007/006)

Sukaldean su baxua zuten. Jana han prestatzen zen.

46. Ogia (ETX-007/007)

Amak ogia egiten zuen etxean.

47. Ura (ETX-007/008)

Ura bizi guztian ezagutu du etxean.

48. Argia (ETX-007/009)

Argia bazuten etxean. Baina ez gaur bezala. Gela guztietan zuten bonbilla.

49. Zuka eta noka (ETX-007/010)

Anai-arreben artean eta gurasoekin zuketan hitz egiten zuten. Lagunekin noketan.

50. Gerra garaiko janaria (ETX-007/011)

Gerra garaian, miseria handia bizi zuten. Olio bila joaten ziren Arbizura.

51. Errotak itxita egon ziren (ETX-007/012)

Errotak itxita egon ziren, baina isilean igotzen ziren irin bila. Lakuntzako errotara joaten ziren. Atanera ere joan izan dira.

52. Gariaren kontrola (ETX-007/013)

Talo asko jaten zuten. Garai hartan garia kontrolaturik zegoen, eta kendu egiten zieten.

53. Patata (ETX-007/015)

Patata asko jaten zuten.

54. Txerri-hiltzea (ETX-007/016)

Txerri bat hiltzen zuten etxean. Labrantza gutxi zuten etxean. Txerria osabak hiltzen zuen. Ondoren, puskak banatzen zituzten. Txistorrak oliotan jartzen zituzten kontserbatzeko eta urdaia gatzatu egiten zuten.

55. Gazta (ETX-007/017)

Beraiek behi bat zuten, baina ez zuten gazta egiten.

56. Arropak (ETX-007/018)

Arropa amak josten zien.

57. Arropa garbiketa (ETX-007/019)

Amak arropa labaderoan garbitzen zuen. Lixiba ere egiten zuten errautsarekin. Nola egiten zuen azaltzen du.

58. Mixantzaleak I (ETX-007/020)

Arbizun hiru mixantzale zeuden.

59. Lihoa (ETX-007/021)

Lihoa ereiten zen, baina ez zuen merezi.

60. Mixantzaleak II (ETX-007/022)

Mixantzaleek herrian eta kanpoan ere saltzen zuten.

61. Harremana ondoko herriekin (ETX-007/024)

Ondoko herrikoekin zuten harremana azaltzen du.

62. Eskaleak (ETX-007/026)

Arbizun jende asko ibiltzen zen eskean.

63. Lizarragabengoan lanean (ETX-007/028)

Lizarragabengoara 15 urterekin joan zen lanera. Lau urte egon zen, eta gero soldadu joan zen.

64. Juanen lana (ETX-007/030)

Txikitatik ibili zen basoan lanean aitarekin. Orduan lau zerrategi zeuden. Arbolak botatzen zituzten, eta, gero, Etxarriko estaziora jaisten zituzten karroekin. Bazkaltzeko ogia eta babak izaten zituzten, eta afaltzeko patata.

65. Lan-tresnak (ETX-007/031)

Aizkora eta trontza erabiltzen zituzten.

66. Lizarragako markesa (ETX-007/032)

Lizarragatarrak markesari erosi zioten herria. Familia bakoitzak 15.000 pezeta inguru ordaindu zuen.

67. Gaztetako lanak (ETX-007/033)

15 urterekin arrebaren etxera joan zen bizitzera, eta soroko lanak egiten zituen eta abereak zaintzen zituen.

68. Behien istorioa (ETX-007/034)

Behiren bat zulora erortzen bazen "malkortu" esaten zitzaion. Behiekin gertatu zitzairen pasadizo bat kontatzen du.

69. Soroko lanak (ETX-007/035)

Udan artoa eta babarrunak jorratzen zituzten. Gero, belarrak egiten zituzten. Artoa zuritu eta "porkak" egiten zituzten.

70. Eultzilariak (ETX-007/036)

Eultzia nola izaten zen kontatzen du. Gero, eultzilariak erabiltzen hasi ziren. Behiekin eta idiekin ibiltzen ziren lanean.

71. Eskola (ETX-007/037)

Juan gutxi joan zen eskolara, eguraldi ona egiten zuenean sorora joaten zen lanera.

72. Dotrina (ETX-007/038)

Dotrinara joaten ziren. Bi apaiz egoten ziren.

73. Ilargiaren garrantzia (ETX-007/040)

Arbolak botatzeko ilargiari begiratzen zioten. Ilberrian botatzen zituzten. Egurra ezberdina izaten da.

74. Ikatz txondorrek (ETX-007/041)

Txondorretan ere ibili zen Juan. Nola egiten zuten azaltzen du.

75. Egur loteak (ETX-007/042)

Diputazioak egur loteak ematen zituen ikatza egiteko.

76. Orbel loteak (ETX-007/044)

Orbel loteak ematen ziren Arbizun.

77. Egurrekin lanean (ETX-007/046)

Batzuk egurra botatzen eta besteak arrastrean aritzen ziren. Txaboletan egiten zuten lo.

78. Afrikan lanean I (ETX-007/047)

Juan bizi guztian basoan lanean egon da. Leitzan egon zen basoan lanean eta Afrikan ere egon zen. Barkuan joan ziren. Hango istorioak kontatzen ditu.

79. Afrikan lanean II (ETX-007/049)

Lau hilabete egon zen Afrikan. Bertako bazkariak hemengo antzekoak ziren. Txitxirioak jaten zituzten, baina babak ez. Babak mendirako oso onak dira, indar asko ematen dute.

80. Egurra jaisteko kableak (ETX-007/050)

Egurra jaisteko kableak zeuden.

81. Beste ofizio batzuk (ETX-007/051)

Arbizun errementaria zegoen. Abereak ferratzen zituen.

82. Aizkorak nola zorrozten zituzten (ETX-007/052)

Lizarragabengoako lurra Arbizukoaren ezberdina da. Aitzurra lurrarekin zorrozten zuten.

83. Barberua (ETX-007/054)

Herrian barberu bat baino gehiago zegoen.

84. Aizkorak (ETX-007/055)

Aizkorak ahal zuten moduan zorrozten zituzten harriekin.

85. Erratzak (ETX-007/056)

Etxarrin erratzak egiten zituzten. Lantegi bat zegoen.

86. Neurriak (ETX-007/057)

Lehenagoko neurriak azaltzen ditu. Errobia, errobu erdia eta laurdena. Kaxoi moduko batzuk ziren.

87. Ama Urdiaingoa zen (ETX-007/058)

Juanen ama Urdiaingoa zen. Urdiain inguruan liho asko biltzen zen.

88. Lehenagoko dirua (ETX-007/060)

Juanek zortzikoak eta pezetak ezagutu ditu.

89. Lehenagoko ordua (ETX-007/061)

Lehenago ordua ez zen aldatzen. Basoan zeudenean eguzkiari begiratzen zioten ordua jakiteko.

90. Angelusa (ETX-007/062)

Lehenago angelusa errezatzen zuten soroan.

91. Jende elizkoia (ETX-007/063)

Bere gurasoak elizkoiak ziren. Garai hartan denak ziren elizkoiak.

92. Feriak (ETX-007/065)

Etxarrin eta Irurtzunen izaten ziren feriak. Etxarrin 5ean eta 15ean egiten zen feria, eta Irurtzunen asteazkenetan. Juan bizikletan joaten zen. Garai hartan azienda asko egoten zen.

93. Herriko festak (ETX-007/066)

Arbizun San Joanetan eta Lizarragabengoan San Pedrotan izaten ziren jaiak. Etxarriko banda joaten zen jotzera.

94. Erromeriak (ETX-007/067)

Abuztuan erromeria egoten zen.

95. Gabonak (ETX-007/068)

Gabonetan, mazapana jaten zuten. Turroia ez zen egoten normalean.

96. Inauteriak (ETX-007/069)

Gerra aurretik "txatarrak" ospatzen ziren, baina gero ez. Zakuekin janzen ziren eta aurpegia tapatuta. Bi txandatan egiten ziren, batean mutilak eta besteak haurrak. Neskak ez ziren janzen.

97. Kintoak (ETX-007/070)

Otsailean kintoak izaten ziren.

98. Soldaduska (ETX-007/071)

Juan 22 urterekin joan zen soldadu eta bi urte egon zen. Izaban egon zen.

99. Basoan lanean (ETX-007/072)

Soldadutzatik bueltatu zenean basora joan zen lanera. Bera ez da Frantzia aldera inoiz joan basoan lan egitera. Basotik bueltatzean ezkondu egin zen.

100. Emaginak (ETX-007/074)

Orduan haurrak etxean jaiotzen ziren. Emaginak laguntzen zien. Juanen ume bat etxean jaio zen, eta besteak Iruñean.

101. Haurren jolasak (ETX-007/076)

Haurrak zirenean ez zuten jostailurik. Plazan aritzen ziren esku pilotan.

102. Gaztetako denbora pasak (ETX-007/078)

Gaztetan, igande arratsaldeetan, Etxarrira edo Lakuntzara joaten ziren buelta bat ematera.

103. Zinema (ETX-007/079)

Arbizun zinema egoten zen.

104. Ezkon-bidaia (ETX-007/080)

Ezkon-bidaian Zaragozara, Kantabriara eta Bilbora joan ziren.

105. Itsasoa (ETX-007/081)

Itsasoa ez zaio asko gustatzen. Lehen aldiz Donostian ikusi zuen. Gero, Benidormen egon da bi edo hiru aldiz.

106. Hiletak (ETX-007/082)

Garai bateko hiletak ezberdinak ziren. Arbizun haurrentzako linboak egoten ziren bataiatu gabeko haurrentzako.

107. Elizaren eragina (ETX-007/083)

Dotrina eta bezperak derrigorrezkoak ziren garai hartan. Emakumeek mantelinarekin joan behar zuten elizara.

108. Elizara joateko mantelina (ETX-007/084)

Emakumeek mantelinarekin joan behar zuten elizara.

109. Familiaren joan etorriak (ETX-008/001)

Jesus Dorraun jaioa da eta Etxarrin bizi. Berrueta aldera joanda trenbidearen pasagune ondoan dagoen etxe zahar batean jaioa da. Aita eta ama Leitzara joanak ziren lanera. Aita jaietan etxe zahar horretara etortzen zen. Ama, jaiatu zuen aldiro, oinez itzultzen omen zen etxera. Aitak zapata tailerra antolatu zuen Leitzan eta han kokatu ziren biak, aita eta ama. Jesusek hiru senide ditu Leitzan jaioak. Beste bi Dorraun jaioak dira, bera eta bere arreba bat. Beste bi gazteenak, Etxarrin jaioak ziren, horietako bat hil zen.

110. Zapatak nola egiten zituzten (ETX-008/002)

Berak txikitatik ezagutu du zapatagintza. Kontatzen du nola egiten zituzten botak eta zapatak. Larruak Iruñetik ekartzen zituzten, pieza osoak. Ondotik patrioiak markatu eta ebaki. Josi lehendabizi eskuz egiten zuten eta atzera-puntadak berriz makinaz pasatzen zituzten makina industrial handi batez.

111. Leitzatik Etxarrira (ETX-008/003)

Une batean Leitzako meatzetako langileentzat egiten zuten lana bukatu zen, katiuskak agertu baitziren eta Dorrauko etxera itzuli ziren. Amak Leitzatik alde egiterakoan negar egin zuela kontatzen du, hain zuen maite hango jendea. Dorrauko etxetik Etxarrira joan ziren etxea erosi zutenean, "Arginenea". Ama Arginanon ere neskame gisa aritu zen lanean.

112. Eskola (ETX-008/004)

Jesus txikitatik eskolara joan zen, diploma eta guzti badu. Bi maisu gogoratzen ditu, Victoriano Aguado, Azkoiengo, bere hitzetan maisu zorrotza oso, baina harekin ikasi zutela dio. Gero Flores abizenekoa, Lakuntzako, honekin nahi zutena egiten omen zuten.

113. Haur sasoiko jolasak (ETX-008/005)

Haur sasoiko jolas pareak dakar gogora. "Astokan" deitzen ziotena lehena, eta "al pote" esaten ziotena bigarrena. Bietan nola jolasten ziren deskribatzen du.

114. Andregai egin zuenekoa (ETX-008/006)

Jesus eta lagunak Arbizun asko ibiltzen ziren. Beraiantzat ez zeuden Arbizuko San Juan bestak bezalakorik. Andregai Arbizukoa zuen. Gogoratzen du San Pedro egun batean Lizarrengoko iturri batean nola elkartu ziren lagun kuadrillan. Paseoan Arbizuraino joan ziren bakarrik Jesus eta Esperanza eta horrela hasi zen Esperanzarekin ibiltzen. Etxean Esperanza, anai-arreben artean zaharrena zenez, etxerako nahi zuten eta Jesusek ez zuen Arbizura bizitzera joan nahi, baina azkenean Esperanzak moja sartzearekin mehatxua egin zuen etxean eta Etxarrira ezkondu ziren biak.

115. Ezkontza (ETX-008/007)

Esperanza eta Jesus Arbizuko elizan ezkondu ziren, Don Juan Goikoetxea apeza zelarrik, gizon serioa Jesusen hitzetan. Banketea Etxarrin egin nahi izan zuten, baina Zapatero jatetxeak ezezkoa eman zien, eta Irurtzungo Krisostomoren etxean egin zuten. Banketearen ondotik musika izan zuten Joxe "itsua" akordeoilariarekin. Ezkondu eta Etxarrira joan ziren bizitzera, eta bertan eduki zituzten beren sei seme-alabak, denak etxean jaioak emaginaren laguntzaz.

116. Musika eragotzita eta dantzan debekatua (ETX-008/009)

Musika banda bazen Etxarrin, eta desegin zen. Apezak pertsegitu egiten zuen musika. Gogoratzen du behin akordeoilari batekin zebiltzala apeza etorri eta nola kendu zien musika tresna. Orduan Lizarraga aldera joan eta Bizkai gainean dantzaldia antolatzen omen zuten. Apeza kaskarroa omen zen oso.

117. Gaztetan herriko bestetara (ETX-008/011)

Lizarrengon bestak San Pedron izaten ziren. Berriz gogora ekartzen du bertan hasi zela Esperanzarekin. Baina inguruko herri guztietako bestetara joan ohi ziren, Bakaiku, Iturmendi eta bereziki onak omen ziren Arbizu eta Urdiaingo bestak. Urdiaingo bestetan Esperanzaren lagunak nola jotzen zioten adarra gogoratzen du.

118. Herriko bestak dataz aldatu zuten (ETX-008/012)

Garai batean urrian izan ohi omen ziren, ferietan. Gero abuztura pasa zituzten. Bera ez bazen ere, oro har bestetan nahiko ardozaleak zirela dio, San Adrian egunean.

119. Behorrekin zaletasuna (ETX-008/014)

Jesusek behorrekin zuen zaletasun handia. Aurizberritik ekartzen zituen behorrak eta hazitarako zaldia, "Burguete" arrazako animaliak. Garai hartan behorrekin ere elkarte bat bazegoen eta ez ziren ongi moldatu. Elkarreak salatuta Guardia Zibila joan zitzaion bereak ez ziren behorrak estaltzeko baimena ez zuelakoan, baina Jesusek bazeukan baimena. Etxarriko kuarteleko Guardia Zibilak ziren, orduan kuartela Iturri-Ederreko frontoiaren ondoan zegoen.

120. Kontrabandoa eta estraperloa (ETX-008/015)

Kontrabando eta estraperloa izaten ziren. Ehun kiloko zazpi zaku irin ekartzen berari gertatutako pasadizoa kontatzen du. Zaldia eta gurdiaekin zihuala lokartu eta zaldia, ezagutzen zuen lasterbidetik sartu eta gurdia irauli. Lasterka idiekin zakuak biltzera joan behar izan ziren. Noiznahi ibiltzen omen zen irina garraio. Amado bertan ibiltzen zen, Riazuko errotariarentzat, Goñiko basoan lanean ari zirentzat, ez zuen Gipuzkoa aldera jotzen.

121. Errazionamendua (ETX-008/016)

Produktu asko errazionatuta zeuden. Ematen zutena eta ematen zuten kantitatean hartu behar zen. Errazionamendua dendetan hartzen zen.

122. Gerra Zibila I (ETX-008/018)

Amadok zazpi urte eman zituen soldaduskan, eta frontean borrokatzea ere tokatu zitzaion. Borrokan aritzearen ondorioz, eskuineko izterrean bonba baten metrailak egindako zauria dauka.

123. Gerra Zibila II (ETX-008/019)

Izterrean zauritu izana zorteko afera gisa du. Zaurituta arreba mojarakin egon zen. Gero, berriro deitu zuten, eta abangoardiako ospitale batean jarri zuten lanean, Santillana del Mar herrian. Bertan moja nagusiari injekzioak zainetan sartzen bazekiela erakutsi zion, eta horri esker bertan geratu eta ez zen frontera itzuli.

124. Gerra Zibila III (ETX-008/020)

Gerra Zibilean Cuencan eta Teruelen izan zen. Terueleko borroka gogor haietan zauritu zuten. Garai hartan, denak hilko zirelakoan honako kanta hau kantatzen omen zuten “Si la guerra dura mucho, y son duros los combates...”. Jana ugaria zuten, eta lo kanpin dendan edo ilargipean egiten zuten. Gironan soldadu batek preso zeukan beste bat nola atzetik garbitu zuen eta ondotik izan zituzten tirabirak kontatzen ditu.

125. Antoniaren aurkezpena (ETX-009/002)

Antonia 1921eko irailaren 19an jaio zen. Jaio eta bost egunetara ama hil egin zen, eta etxe batetik bestera ibili zen titia hartzeko. Aita ere gazte hil zen. Aitona ezagutu zuen, baina amona ez. Lau ahizpa eta anaia bat izan ditu.

126. Antoniaren anaiaren heriotza (ETX-009/003)

Bere anaia Gipuzkoan egoten zen lanean, eta behin etxera bidean istripu bat eduki zuen, eta Belen gauean hil zen.

127. Dorraon hazi zen (ETX-009/004)

Aita eta ama hil zirenean, Dorraura eraman zuten Antonia eta han hazi zen. Gogoz kontra eraman zuten. Hango familiari buruz hitz egiten du.

128. Antoniaren familia (ETX-009/005)

13 hilabeterekin aitona bere bila joan zen Dorraora, eta bere ahizpa zaharrenak hazi zuen. Garai batean Etxarrin banda egoten zen, eta jende asko etortzen zen, jaleo handia egoten zen. Bere aitonak hiru seme zituen, bat Ameriketara joan zitzaion, eta beste batek ez zuen umerik izan.

129. Antoniaren ahizpa zaharrena (ETX-009/006)

Bere ahizpa zaharrena 19 urterekin ezkondu zen, eta zazpi ume izan zituen (bost neska eta bi mutil). Hiru ahizpa hil zaizkio.

130. Familia langilea ziren (ETX-009/007)

Aitonak egun batean 14 bidaia egin zituen ongarrira eramaten idi-pare batekin. Antoniaren ahizpa zaharrena 12 urterekin zerbitzatzera eraman zuten etxe batera, eta bera sei urtetarako "itturriko" zegoen beste etxe batean.

131. "Itturriko" ibili zen lanean (ETX-009/008)

"Itturriko" ibiltzea ganaduaren aurretik joatea zen zuzen joateko. Merendua ematen zioten egunero, txokolate zati bat eta opil bat.

132. Eskola (ETX-009/009)

Eskolara oso gutxi joan zen. Eguraldi txarra egiten zuenean bakarrik, bestela sorora joan behar zuelako lanera. Bi hilabetez klase partikularrak ematen zituen.

133. Aitaren ofizioa (ETX-009/010)

Bere aita maisua zen, baina amak ez zion uzten maisua izaten gutxi irabazten zuelako. Oso argia zen. Gero, Lakuntzako fabrikan lanean hasi zen.

134. Ezkontza (ETX-009/011)

26 urterekin ezkondu zen Antonia. Bere senarraren arreba moja izan zen eta gero ezkondu egin zen.

135. Haurretan jolasean ibiltzen ziren (ETX-009/012)

Orduan asko jolasten ziren. Afaldu eta kanpora joaten ziren jolastera. Matadero inguruan ibiltzen ziren jolasten. Neskak eta mutilak ibiltzen ziren.

136. Ijitoak eta pobreak (ETX-009/013)

Bere aldamenean ijitoak eta pobreak bizi ziren. Etorri eta joan egiten ziren. Juerga handiak egiten zituzten.

137. San Adrian eta San Kiriko (ETX-009/014)

San Adrian eguna oso handia izaten da Etxarrin, eta San Kiriko ere bai. Musika egoten da.

138. Jolasak (ETX-009/015)

Tabetan jolasten ibiltzen ziren, sokasaltoan ere bai.

139. Harremana ijitoekin (ETX-009/017)

Aldameneko ijitoekin ongi moldatzen ziren, lagunak ziren, ez ziren gaiztoak.

140. Etxearen deskribapena (ETX-009/018)

Etxeko lehenengo solairuan abereak egoten ziren. Atzeko aldean baratzea zuten.

141. Sukaldea (ETX-009/019)

Sukaldean txapa bat egoten zen. Sua egiten zen, enbor handi batzuekin. Eltzea zintzilik jartzen zen "criadak". Txerrientzako pertzak egosten ziren.

142. Nafarroa guztiko apaizak Etxarrin (ETX-009/020)

Nafarroa guztiko apaizak elkartu ziren Etxarrin uda batean. Etxarriko apaiza obispoaren ondorengoa zen. Hiru egun irain zuen, eta herria lorez apaindu zen.

143. Corpus Eguna (ETX-009/021)

Corpus Egunean Jesusen bihotza jartzen zen estalpean. Eta lorez apaintzen zen herria.

144. Herriko plaza (ETX-009/022)

Toribio alkate zenean plaza egin zen. Jendeak esaten zuen diru asko gastatu zela. Mutil bakoitzari arbola bat eman zion, eta zaindu egin behar zuten. Iturri bat ere bazegoen. Porlanezko lurra jarri zuten bazterretan.

145. Herriko iturriak (ETX-009/023)

Herrian hiru iturri zeuden. Etxeetan ere bazegoen ura.

146. Argia (ETX-009/024)

Garai hartan, ez zegoen argi asko. Argia errotatik etortzen zen. Ur gutxi zegoenean ez zegoen argirik, eta askotan joaten zen. Geroago, elektrizitatea etorri zen.

147. Ogia (ETX-009/025)

Etxean ogia nola egiten zuten azaltzen du. Labea zuten etxean.

148. Gerra garaiko kontuak I (ETX-009/026)

Gerra ondoren urtero garia, artoa, babarrunak... kentzen zizkieten. Ez zieten uzten Gipuzkoara pasatzen. 10etan korneta jotzen zuten, eta ezin ziren etxetik atera. Soldaduak etxeetan egoten ziren lotan.

149. Gerra garaiko errepresioa (ETX-009/027)

Herritik mutil asko joan ziren gerrara, eta jende asko hil zen. Arbizuar bat hil zuten. Bere ahizparen nobioa ere hil egin zuten. Kartzela ere sartu zituzten batzuk. Emakumeei ilea moztu zieten.

150. Gerra garaiko kontuak II (ETX-009/028)

Garai hartan manifestazioak egiten ziren, eta behartuta joaten ziren. Kartzelara sartu zituzten; guztiak hil zituzten ondoren, zazpi edo zortzi gizon.

151. Gerra garaiko heriotzak (ETX-009/029)

Jendea hil eta bide bazterretan uzten zuten. Errepublikaren denboran alkate izandakoa eta maistra bat hil zituzten. Lehenengo atxilotu egin zituzten, ez zituzten hil nahi, baina behartu egin zieten.

152. Herriko falangistak (ETX-009/030)

Herriko falangeak aipatzen ditu. Errepublikano guztiak hil behar zirela esaten zuten.

153. Estraperloa (ETX-009/031)

Estraperloan guardia zibilek Arbizuko gizon bat hil zuten.

154. Errotak itxita zeuden garaia (ETX-009/032)

Inguruko errotak itxita egoten ziren, eta Antonia Araiako errotara joaten zen gaez astoarekin irin bila. Izaturik ibiltzen ziren.

155. Errazionamendua (ETX-009/033)

Errazionamenduan nahi zutenei gehiago ematen zieten. Beraiei kendu bai, baina eman gutxi egiten zieten nahiko ezkerrekoak zirelako.

156. Soroko lanak I (ETX-009/035)

Lehenago herrian aberatsak eta pobreak zeuden. Bera eta bere ahizpa asko ibili dira soroan peoi lanetan.

157. Soroko lanak II (ETX-009/036)

Soroan lan asko egin du Antoniak; makinarekin, ganadurekin, ereiten... lan klase guztiak egin ditu bere senarra nahiko delikatua zen, eta berari tokatzen zitzaion lana egitea.

158. Antoniak egiten zituen lanak (ETX-009/037)

Sei urtetarako behiak jezten zituen Antoniak. Bere bi ahizpei nobioa hil zitzaien. Urte asko egon zen etxetik atera gabe. Bera zen ahizparik indartsuena. Gaur egun oraindik baratzean lanean jarraitzen du.

159. Lihoa (ETX-009/038)

Lihoa ereiten zen lehen, eta, gero, haria egiten zuten. Nola egiten zuten azaltzen du.

160. Antoniaren semea (ETX-009/039)

Bere seme-alabek Ufesan egiten zuten lan. Bere semea eskolan oso ona zen, baina ez zuen ikasteko gogorik. Seminarioan ikasi zuen lau urtez. Gero, soldadu egon zen Irunen. Monagilo ere izan zen gaztetan.

161. Elizako sakramentuak (ETX-009/040)

Dotrina, komunioa, bataioa, konfesioak... zeuden.

162. Arrosarioa (ETX-009/041)

Arrosariotik atera ondoren paseora joaten ziren.

163. Bezperak (ETX-009/042)

Bezperetara joaten ziren.

164. Apaizak (ETX-009/043)

Don Juan apaiza zen. Lehenago lau apaiza zeuden Etxarrin. Orain daukatena oso ona da.

165. Bijilia (ETX-009/044)

Bijilia ostiralero egiten zen. Buldak erosten ziren. Oraindik jarraitzen du egiten.

166. Aste Santua (ETX-009/045)

Aste Santuko ostegun goizean lana egiten zuten, gero meza nagusira joaten ziren. Ostiral goizean sua egiten zen eliza atzean. Orain aste guztia ospatzen da. Lehenago balkoi guztiak tapatzen ziren prozesioak egiteko Corpus Egunean.

167. San Kiriko (ETX-009/046)

San Kiriko egunarekin lehenago soroak bedeinkatzen ziren meza nagusiaren ondoren.

168. Kalbarioak (ETX-009/047)

Lehenago kalbarioak egoten ziren; gero, kendu egin zituzten.

169. Hiletak (ETX-009/048)

Jendea hiltzen zenean, aberatsen eta pobreen funtzioak bereizten ziren. 10etan izaten ziren. Diferentziak azaltzen ditu.

170. Misioak (ETX-009/049)

Misioak etortzen ziren. Joateko beldurrez egoten ziren.

171. San Joan suak I (ETX-009/051)

San Joanetan suak egiten ziren, eta oraindik egiten dira. Bere amonari asko gustatzen zitzaion sua egitea.

172. Ama Birjinaren eguna (ETX-009/052)

Abuztuko Ama Birjinaren eguna ospatzen da. Bezperan Salbea abesten dute meza ondoren. Andre Marian meza euskaraz ematen dute, eta, ondoren, merendua ematen dute. Jende asko joaten da. Lehenago gizonak bakarrik joaten ziren, eta ardoa banatzen zuten.

173. San Adriango ermita (ETX-009/053)

Orain San Adrianen ezkontzak egiten dira. Lehenago egurrezkoa zen, eta guardia zibilak erre egin zuen; ondoren, harrizkoa egin zuten.

174. Eguberriak (ETX-009/054)

Belen egunean mezara joaten ziren gaueko 12etan, baina jaleo bat izaten zen, eta orain 8etan egiten da.

175. Meza (gaur egun) (ETX-009/055)

Oraingo apaizak eguneroko meza jaietan bezala egiten du. Jende dezente joaten da. Larunbatetan Andre Marin ematen da meza. 10:30eko meza euskaraz ematen da, eta, ondoren, meza nagusia erdaraz eta euskaraz izaten da.

176. Pazko Eguna (ETX-009/056)

Pazko Egunean meza egiten zen, eta, ondoren, Sorgin afaria egiten zen. Gazte jendea etxeetan elkartzen zen lagun artean afaltzeko.

177. Urtezaharra (ETX-009/057)

Urtezaharra beti ospatu izan dute etxean. Urte berri kanta abesten zuten etxez etxe.

178. Errege eguna (ETX-009/058)

Haurrak zireneko errege eguneko istorio bat kontatzen du.

179. Erregeen opariak (ETX-009/060)

Erregeek ez zien oparirik ekartzen, oso pobreak ziren.

180. Aitonaren kontuak (ETX-009/061)

Aitonak kontuak kontatzen zizkien. Oso txistosoak zen. Sorginen kontuak ere kontatzen zituen. Aitonak kontatzen zuen istorio bat kontatzen du. Txistek kontatzen oso ona zen.

181. Plantxa (ETX-009/063)

Lehen plantxa bat erakusten du. Nola funtzionatzen zuen azaltzen du.

182. Ikatza (ETX-009/064)

Orduan ikatza atariz atari saltzen zuten, oso merkea zen, ia debalde. Txondorrek basoan egoten ziren.

183. Basoko lana (ETX-009/065)

Lehen baso-mutil asko zeuden. Zerrategirik ez zegoen, geroago egin zen, eta mutil gehienak basoan egiten zuten lan.

184. Fabrikak (ETX-009/066)

Orain fabrikak ixten ari dira. Ufesan inguruko jende askok lan egiten zuten. Gero, kendu egin zuten.

185. Arropa garbiketa (ETX-009/067)

Lixiba nola egiten zuten azaltzen du. Lau labadero zeuden; non zeuden esaten du.

186. Koltxoiak (ETX-009/068)

Koltxoiak artilezkoak ziren. Urtean behin jotzen zituzten, eta oso lan txarra izaten zen.

187. Etxe zuritzea (ETX-009/069)

Etxea galtzinarekin zuritzen zuten.

188. Errementaria (ETX-009/070)

Herrian bi errementari zeuden.

189. Feria (ETX-009/071)

Etxarrin feria egiten zen plazan. Inguruko feria bakarra zen, eta jende asko elkartzeko zen. Beranduago, Irurtzunen ere egiten zen. Tratanteak etortzen ziren.

190. Tratulariak (ETX-009/072)

Tratulari asko zeuden garai hartan. Batzuk granuja batzuk ziren. Tratulariei buruz hitz egiten du. Beraiek beti saldu izan dituzte txekorrak (istorio bat kontatzen du).

191. Borda (ETX-009/073)

Borda bat zuten. Etxe zahar-zahar bat zuten. Gero, berritu egin zuten.

192. Kartzelako kontuak (ETX-009/074)

Patxi kartzelara eraman zutenean, Antonia asko joan da bisitan. Behin Alikantera joateko trenan aberiatu zitzaizen (istorioa kontatzen du). Kartzela ezberdinetan egon da (Iruñan, Sorian, Madrilen, Gasteizen, Herrera de la Mantxan...).

193. Familia (ETX-010/002)

10 senide ziren, Manuel hirugarrena zen. Aita Juan zuen, 75 urterekin hila, ama Maria, 91 urterekin hil zena. Egun berean hil zen lehendabizi semea eta handik bi ordutara aita. Etxean aitona eta osaba bat ere bizi ziren beraiekin. Nekazariak ziren. Manueli haurtzain lanak tokatu zitzaizkion anaiak handitu bitartean. Amak, soro lanak egiteaz gain 10 haur hazi eta aitaren gurasoez arduratu zen.

194. Arropak garbitzen (ETX-010/003)

Amak lixiba ur beroaz eta sutautsaz nola egiten zuen azaltzen du. Garbileku edo labaderoa non zegoen ere deskribatzen du. Arropak lehertzeko sasietan jartzen zituzten. Hesia deitzen zioten arropa zintzilikatzeke tokiari, askotan tokirik ezin aurkitu ibiltzen ziren.

195. Emakumeen janzkera (ETX-010/005)

Emakumeen janzkera nolakoa zen deskribatzen du. Gona eta txanbra deitzen zioten blusa modukoa. Buruz gain janzten zuten bigarren gona ere ezagutu omen zuen, egunerokoan erabiltzeko bat eta igandeetan dotoreagoa zen bestea. Gero traba handia zenez bigarren gona hori kendu eta mantalina janzten zuten. Apezek emakumeen itxurari egiten zioten segimendua gogoratzen du pasadizo bat kontatuz.

196. Ogia etxean egiten zuten (ETX-010/006)

Ogia etxean egiten zuten. Manuelek berak ikasi eta egiten zuen etxeke ogia. Aste osorako ogia egiten zuten. Nola egiten zuten deskribatzen du. Labea nolakoa zen, nola berotzen zuten eta ogia nola sartzen zuten ere kontatzen du.

197. Eguneroko jana (ETX-010/007)

Eguneroko jana normalean babarrun gorriak eta patatak izaten ziren. Babarrunei urdai puska lodia jartzen omen zioten denon artean banatzeko. Beheko suan sukaldatzen zuten.

198. Txerri-hiltzea (ETX-010/008)

Txerria hiltzen zuten egunean goizean goiz jaikitzen ziren. Txerria hartu eta hil egiten zuten. Lehenengo lan horiek egin ondotik gosaldia egiten zuten, papada eta gibela. Gibel puska bat bakarrik gosaltzen zuten gainerakoa senideen artean banatzeko ohitura baitzegoen. Solomo eta saihsak ere banatzen omen zituzten. Arratsaldean tripotak prestatzen ziren. Haragiak adoboan jarri eta biharamunean txistorra eta birrikak prestatzen zituzten. Urdaiazpikoak gatzean sartzen zituzten egun batzuetan eta gero gatzak kenduta ganbaran zintzilikatzen zituzten. Dena alturan jartzen zuten haurrak ez ailegatzeko

moduan. Ogia ere sukaldeko tximinian gaineko apalategian jartzen omen zuten eurak ez iristeko moduan.

199. Eskola (ETX-010/009)

Eskolara, gurasoek bidaltzen zituztenean joaten omen ziren, sei urterekin hasita. Bera sorora lanera joaten ez zenez, haurtzain baitzebilen, gehixeago joan omen zen. Idazten ikasi zuen. Don Victoriano maisua gogoratzen du. Maisuak feria egunetan beraiei lana eman eskolan eta plazara joaten zela kontatzen du.

200. Etxarriko feria (ETX-010/010)

Garai batean feria astero izaten omen zen, gero hamabostean behin, aurrerago hilabetean behin eta orain batere ez. Ganadua eta makineria saltzen zen, makinak askotan erdibana erosten zen etxe pare baten artean, gero maiz suertatzen omen zen aldi berean behar izatea makina.

201. Larrainetako lanak (ETX-010/011)

Larrainetako lanak idiekin, behorrekina edo behiekin egiten zituzten. Etxe onetan hiru behor ere edukitzen zituzten. Eurek idiak zituzten, etxe txikia zen eta ez zuten animalia asko edukitzeko tokirik.

202. Etxean komuna eta dutxa (ETX-010/012)

Etxean ez zuten komunik, ezta komuna egiteko tokirik ere. Bere emaztearen anaia apeztu eta lehenengo meza eman zuenean jarri omen zuten komuna. Aurrerapen ikaragarri gisa kontatzen du komuna egin izana. Dutxarik ez zuten izan askoz ere beranduago arte. Ahal zuten moduan garbitzen omen ziren. Etxe askotan, etxean bertan egiten zuten xaboia, horretarako gantza erabiltzen zuten.

203. "Trilladora" (ETX-010/013)

Gero, eultzia utzi eta eultzia egiten zuten tokian bertan "trilladora" edo garia jotzeko makina jarri zuten. Hainbat tokitara mugitu behar izan zuten azaltzen dituen arrazoiengatik.

204. Haurtzaroko jolasak (ETX-010/014)

Haurtzaroan botoiekin jolasten ziren, botoiak bota eta punteria jokoetan. Txoriak harrapatzen ere ibiltzen ziren.

205. Dotrina (ETX-010/015)

Dotrina ere ikasten zuten, eta bezperetara eta mezara joatea derrigorrezkoa zen. Jende guztia joaten zen, beldurra ere bazen.

206. Gaztaroa (ETX-010/016)

Gaztaroko igandetako musika gogoratzen du. Igandero musika bandak jotzen zuen herrian, eta inguruetako jendea etortzen omen zen dantzari aritzera. Don Juan apezka dantzaldia zelatatzen joaten omen zen. Apezka bazetorrela ikusiz gero, hanka egiten omen zuten handik. Halere pozik bizi zirela dio.

207. Denak etxean jaioak dira (ETX-010/018)

Senide guztiak etxean jaioak dira. Etxean erditzeko gela omen zuten, txantxetan "el cuarto del parto" deitzen omen zioten. Jaiotzetan laguntzeko emagina izaten zen. Beste batzuen artean Francisca Anttoni gogoratzen du.

208. Basolanak (ETX-010/019)

Haurrak zaintzeko lanak bukatuta soro eta baso lanetan hasi behar izan zuen Manuelek. Orbela biltzen zuten eta egurra garraiatu. Etxerako egurra egiteko loteak banatzen zituen udalak eta denak adi egoten ziren. Lotea non tokatzen zitzaizun garrantzi handiko gauza zen. Jendeak nahiago zuen haritza tokatzea pagoa baino. Ilberrian bota behar omen zen, baina Manuelek ez zion horri sobera begiratzen. Basolanak ez zitzaizkion gustatzen.

209. Manuel, artzain (ETX-010/020)

Manueli artzain lanak egitea ere tokatu zitzaion, baina hau ere ez zuen batere gustuko. Pazkoa konplitzeko zegoen batean artzainari txanda hartzeko aitak bidali zueneko pasadizoa kontatzen du. Ardiak hartu eta arratsaldeko bostak inguru izango zirelakoan etxera bueltan etorri eta oraindik eguerdiko hamabiak zireneko pasadizoa. Beste behin, aitak axuriekin mendira bidali eta bidean lagunak aurkitu eta jolasean gelditu zela kontatzen du, axuriak martxa eta aita joan behar izan zen bila. Oraindik ederki gogoratzen du eman zion ipurdikoa. Ez zuen gogoko eta ez zituen ardiak ezagutzen ere.

210. Gazta egiten zuten (ETX-010/021)

Gazta ere egiten zuten. Arbizuko Visitacionek makina bat gazta eraman omen ditu buru gainean Arbizuraino. Bere etxean esnea su ondoan epeltzen zuten gazta egiteko, baina badaki beste batzuek burnia gori-gori jarri sutan eta gero esnean sartzen zutela gazta egiteko. Beste pasadizo bat kontatzen du. Iturmendira esnearekin bidali omen zuten, eguraldia txartu eta bidean ez galtzeko behorrari segitu eta etxolara iritsi zen.

211. Etxola mendian (ETX-010/022)

Artzainen mendiko etxolak nolakoak ziren deskribatzen du. Otsoei buruz galdetuta behin zaldi baten gainean otso bat hila nola zekarten gogoratzen duela erantzuten du.

212. Gerra Zibila: Iparreko frontea (ETX-010/023)

Gerra hasi zenean Manuelek 18 urte zituen. Lehenengo momentuan Iruñe era eraman zuten, eta handik Gasteiza instrukzioa egitera. Instrukzioa egin ondotik, Bilbon geldialdi txikia egin eta, gero, Navas eta Nueva herrietatik pasata Gijonera eraman zuten frontera. Iritsi eta berehala "Norte"ko frontea bukatua zela eta irabazia zutela ikasi zuten. Tunel batean munizioa zaintzen jarri zutenean bizitutakoa kontatzen du. Handik Ebroko batailara.

213. Gerra Zibila: Ebroko bataila (ETX-010/024)

Teruelera trenez joan ziren, bere hitzetan bagoietan txerriak bezala sartuta. Lehendabizi Ariza izeneko herrian, gero Pardoseko mendi zerran. Han hildakoak mukuruka ikusi omen zituen. Hiltzat jo eta bizirik zegoen etxarriar baten pasadizoa kontatzen du. Borrokan Tortosaraino iritsi ziren.

214. Gerra Zibila: bukaera (ETX-010/025)

Tortosara iritsi eta han banatu ziren, batzuk Madril aldera, beste batzuk Katalunia hartzen segitu eta bera eta gainerakoak Aragoi aldera, Teruelen segitu zuten. Handik Valentziara bidali zuten, eta Valentziatik Toledo aldera. Toledon Madrila joateko agindua hartu zuten, eta prestaketa lanetan zirelarik gerra bukatu zela jakin zuten. Orduko poza deskribatzen du. Handik Cartagenara bidali zuten, eta, gero, Navalmoral de la Matara eta La Uniønera. Gerra bukatu ondotik ere soldadutzan segitu behar izan zuen. Gerrara 18 urterekin joan zen, eta etxera 25 urterekin itzuli zen.

215. Manuelen ezkontza (ETX-010/026)

Manuel soldadutzatik itzuli eta handik bi urtetara ezkondu zen, 27 urte zituela. Orduan andregaia zena nola etorri zitzaion eta ezkondu behar zutela esan ziola gogoratzen du, bestela etxetik bota behar omen zuten. Berak hogeita zazpi urte izanik ere beldurra pasa zuela gurasoei ezkondu behar zuela esateko kontatzen du. Etxarriko elizan ezkondu ziren beraiek eta beste bikoteaaldi berean Don Jose Maria erretorearekin. Ezkondu baino lehen dotrinari buruzko galderak egiten zituela eta horrekin ere zer beldurra pasatzen zuten adierazten du. Eztei bidaia Donostiara eta Bilbora egin zuten.

216. Ama ezkilak (ETX-010/027)

Jendea erretiratzeko, emakumeak batez ere, ama-ezkilak jotzen zituzten arrosario ondotik.

217. Kofradiak (ETX-010/028)

Etxarriko hainbat kofradiaren izenak aipatzen ditu; “Andra Mari”rena, “Erremediosen Ama Birjina”rena, “San Gregorio”, “Concepcion Ama Birjina”rena, eta denona “San Adrian”.

218. San Adrian eguna (ETX-010/029)

San Adrian eguna festa guztiz garrantzitsua izan da beti Etxarrin San Kirikorekin batera. Egun horretan lehen ere bazkari ederra egiten zen.

219. Parrandak (ETX-010/031)

Manuel ez da parrandazalea izan. Beti ere nahiago izan du andregaia eta andrearekin ibili. Ez zuen ulertzen gizonak, bost sei umerekin, tabernaz taberna ibiltzea eta emaztea etxean esklabo egotea. Hala ere bi mozkor harrapatu dituela bere bizian aitortzen du, biak soldaduskan etxera joateko baimenik gabe geratu zelako, bat Ama Birjina egunean eta bestea San Adrian egunean. Lehenengo mozkorra deskribatzen du.

220. "Txatarrak" edo inauteriak (ETX-010/032)

"Txatarretan" ibili izan da, baina ez zaio inoiz jendearen gainean parre egitea gustatu. Gerra ondotik kendu ziren, jendea mozorrotuta mendekuak hartzeko arriskua zegoelakoan. Gero, berriz ere berreskuratu ziren.

221. Fusilamentuak (ETX-010/033)

Gauza gutxiengatik fusilatzen omen zen jendea. Bere anaia eta beste batzuk, lanean sartzeko UGTn izena eman zutelako fusilatu nahi izan zituztela dio. Herriko jauntxoa zen Gayarre botikariari esker ez omen zituzten fusilatu. Leizean ere ba omen dira asko bertan botatakoak.

222. Emakumeei ilea moztu (ETX-010/034)

Gerra ondotik emakumeei ere ilea moztzen zieten. Izen batzuk ematen ditu.

223. Udalaren antolakuntza (ETX-010/035)

Udalaren antolakuntzan alkatea zegoen, eta zinegotziak ere bai. Hauetaz gain “Veintena” ere izaten zen. Val De Etxaurikoa zen, eta Etxarriko alkatea izan zen baten gorabeherak kontatzen ditu.

224. Auzolana (ETX-010/036)

Auzolana egiten zen. Herriko plaza esaterako auzolanean egin zuten Toribio izeneko gizon bat alkate zelarik. Berak jarri zituen herritarrak lanean eta herria obra horren kontra omen zegoen, gorabeherak kontatzen ditu.

225. Batzarrak (ETX-010/037)

Batzarrak ere egiten ziren, eta jendea joan eta parte hartzen zuen, baita emakume batzuek ere. Bertan bideen egoerak, herriko lanak, orbelen banaketak, egur loteak eta gisa horretako gaiak aztertzen ziren.

226. Emakumeen egoera (ETX-010/038)

Emakumeen egoera oro har txarra zen, hankaperatuak zeuden. Etxeko lanak egin behar izaten zituzten, eta kanpokoak ere bai. Zaharrak zaindu behar zituzten. Aitak izaten zuen aginte makila. Manuel jale txarra zela eta ahuleria izan omen zuen, eta amak zerbait gehiago eman nahi eta ezin aharik eta medikuak agindu zuen arte.

227. Euskara (ETX-010/039)

Etxarrin denak euskaldunak ziren lehen, albaitea eta maisua kenduta. Manuelek soldaduskara joan zenean ez omen zekien erdaraz. Gero, debekatu zuten euskaraz hitz egitea, eta egoera aldatu zen.

228. Industria (ETX-010/040)

Lehenengo industria Etxarrin Antoninorena izan zen. Baziren bi zerrategi ere bai. Geroago UFESA muntatu zuten. UFESArekin herria zatitu zen eta liskar handiak izan ziren.

229. Trena (ETX-010/042)

Trena ere oso garrantzitsua izan da Etxarrin. Lehenengo trenak goizeko zortzietan pasatzen ziren Iruñea eta Altsasu aldera. Gero egunean zehar hainbat izaten ziren. Egur asko kargatzen zuten ere.

230. Manuel fabrikara lanera (ETX-010/043)

Manuelentzat fabrikan lanean hasteko aukera zerua irekitzea bezala izan zen. Ordura arte lana egin eta ezin zuten kobratu askotan; gero, materialaren letrak ordaindu behar. Bera, gainera, etxean ito egiten zen. Beraz, INASako

gerentea bigarren aldiz etorri zitzaizenean lana eskaintzen ez zuen dudarik izan. Han sartu eta berehala seguritate soziala eta jornala zuen, lana egin eta kobratu. Bertan 14 urte egin zituen, eta 61 urterekin jubilatzen. Fabrikari sartu aurreko egoera azaltzeko, adibide modura, Arbizun presaka San Juan baino lehen ate bat paratzeko eskatu zioten lanaren kasua azaltzen du, lana egin eta kobratu ez.

231. Lehenengo autoak (ETX-010/045)

INASara lanera Joselitoren autoan joaten ziren "Once ligero" delako batean. Baina lehenago ere biraderaz martxan jartzen ziren autoak ezagutu zituen. Pasadizo bat kontatzen du, kotxe bat martxan jartzen hasi zen txoferra eta kotxea martxan jarri eta abiatu zen txoferrik gabe eta besteak barruan; azkenean, Manuelek salto egin behar izan omen zuen.

232. Familia (ETX-011/002)

Bautista 1933an jaioa da "Gingania" etxean. Bost senide ziren eta etxean hauetaz gain ama, aita (Bautistak 12 urte zituela hil zena), eta aitona (Bautistak 20 urte zituela hil zena) bizi ziren. Familiari nekazaritzara, abeltzaintzara eta basolanetara dedikatu zen, irabazirik gabeko ekonomia, mantentzekoa besterik ez. Basolanetan zebiltzala amak hiru aldiz eramaten zien jatekoa egunean. Eguerdiko ordu batean ezkila-jotze berezia izaten zen etxeratze-agindu edo "toque de queda" delakoa, oso polita omen zen ordu horretan emakume guztiak ilaran ikustea bazkariak eramaten.

233. Janaria eta tabakoa (ETX-011/003)

Janariari dagokionez, patata edozein ordutan jaten zutela dio. Eguerdian babarrunak eta razioa baldin bazen txerriki pusketaren bat izango zen. Halere, bera txikia zenean kontatzen du ama eguerdiko bazkariarekin agertzen zenean aitak eta besteak kezkatuago zeudela tabakoarekin janariarekin baino. Lizar hostoekin ere nola prestatzen zuten erretzeko azaltzen du.

234. Txiskeroak (ETX-011/004)

Zigarroak pizteko txiskeroak ere bereziak ziren. Etxean baldin baziren, beheko sutik tenazekin puska bat hartu sutik eta ezpainetara hurbiltzen zuten zigarroa pizteko. Bestela bazuten metxa eta harria.

235. Soroetako lanak (ETX-011/005)

Soroetako lanetan nola aritzen ziren kontatzen du. Dena eskuz, aitzurra, sega eta halakoekin. Eultzitan ere aritu zen. Larraina nola antolatzen zuten deskribatzen du. Garia nola garraiatu eta garia nola jotzen zuten ere bai, batzuek idiekin beste batzuek behorrek. Ahotza eta alea bereizteko haizearen zain egon behar, ez bazen zakuetan sartu eta haizea izan arte itxoin egin behar, orduan eskuarekin gora bota eta bereizten zuten. Beranduago "trilladorak" etorri ziren, eta lana arindu zen. Ahotza ganbaran gordetzen zuten. Gose garaian, "almintea" uztak kontrolatzera joaten omen zen, uztza osoa entregatu behar baitzen. Etxerako alea lastoarekin nahasi eta ezkutuan eramaten zuten. Orduan errota guztiak itxita zeuzkaten, baina gauez joaten omen ziren bai Lakuntzara, Ataunera, Iturmendira, Bakaikura. Berari, garia xehatzera joan zen batean gertatu zitzaion pasadizoa kontatzen du.

236. Errotak (ETX-011/006)

Etxarriko errotak itxita izan ziren. Baziren beste eskuzko errotak ere. Hauekin lanean aritzea askoz ere luzeago zen. Behin baino gehiagotan pasatu behar zen irina. Galbahetik ere pasatu behar izaten zuten.

237. Ogia eta taloa (ETX-011/007)

Ogia etxean egiten zuten, zeregin horretarako ia etxe guztietan labeak baziren. Labeak deskribatzen ditu. Lehendabizi sua pizten zuten, ondotik, makil baten puntan zapia jarriz labearen zola garbitzen zuten eta ogia sartu bertan egiteko. Taloa ere asko hartzen zuten, lurreko suan erretzen zuten talo-burdinaz lagunduta.

238. Txerri-hiltzea (ETX-011/009)

Txerria hiltzen zuten etxean eta, Bautistaren hitzetan, horri esker jaten zuten haragia zerbait. Bi txerri hiltzaile baziren Etxarrin, beren etxera Miguel Goñi izeneko gizona joaten zen, Etxarrin hil den gizonik zaharrena. Hil eta odol-hustu ondotik erre eta garbitu egiten zuten. Etxarriko ohitura txerria egurrak egindako suan erretzea zen. Egun berean arratsalde edo biharamunean odolkiak egiten zituzten, baita txistorrak eta birikak ere. Haragia olioan eta gantzetan gordetzen zuten buztinezko eltzeetan. Odolkiak eta txerri erdia senideei eta bizilagunei ematen omen zitzaaien; gero, bueltan ere hartzen zen.

239. Arroparen garbitasuna (ETX-011/011)

Arropak garbitzeko lixiba egiten zuten. Lixiba errautsa erabilia egiten zuten. Arropak garbitzeko, garbitegi bat baino gehiago zegoen. Bautistaren etxeko arropak, Iturri-Ederren aurrean zegoen garbitegian garbitzen zituzten. Etxe bat zegoen, garbitegia eta ondoan aska. Behiak ere egunero ateratzen zituzten aska horretara edan zezaten.

240. Ura etxean eta argindarra (ETX-011/012)

Etxean beti ezagutu du ura, baina lehenago badaki garbitegia zegoen iturritik ekartzen zutela, eta deskribatzen du nola. Argindarra ere bazuten baina etxe osorako bi bonbilla zituzten. Solairu batetik bestera bonbilla pasatzeko zulo bat zeukaten. Lautik hirutan ez zuten argindarrik, udan ur-eskasia zegoelako, neguan sobera zegoelako... Argindarra Errota Zahar deitzen ziotenetik hartzen zuten. Kaleetan ez zuten argirik.

241. Haurrak etxean jaiotzen ziren (ETX-011/013)

Haurrak etxean jaiotzen ziren. Emagina izaten zen erditze unean laguntzen zuena. Bere emaztearen ama ere emagina izan zen.

242. Eskola (ETX-011/014)

Eskolan ez omen zuten ezer ikasi. Eskolara joan eta egurra xehatzen jartzen zituen maisuak. Eskolako egurra egiten behatzak moztu zituen mutil baten kasua kontatzen du. Maisua joka eta zigortzen aritzen zela dio Bautistak. Eurek egun osoa jolasean ematen omen zuten.

243. Haurtzaroko jolasak (ETX-011/016)

Haurtzaroko hainbat jolas aipatzen ditu, batzuk nolakoak ziren ere adierazten du. Putzura bainatzera ere joaten ziren baina mutilak bakarrik, neskak ez omen ziren joaten. Arrantzan eta txori ehizan ere nola aritzen ziren kontatzen du.

244. Arropak (ETX-011/018)

Arropak gogoratuz irri egiten du Bautistak. Galtzak ez omen ziren ez motz eta ez luze. 16 urterekin jantzi omen zituen galtza luzeak. Orduan arropak jostunak egiten zituen. Bere etxean bere amaren izeba batek egiten zituen, jostuna zen. Arropa guztiak moldatzen ziren behin eta berriz. Oinetako gisa zatak eta espartinak janzten zituzten, zapata gutxi zegoen, mezara ere abarkekin joaten omen ziren.

245. Dotrina eta lehen Jaunartzea (ETX-011/019)

Dotrina ikastera joaten ziren, eta beldurra pasatzen zutela dio. Apezak gogor jotzen omen zituen. Lehenengo Jaunartzea zazpi edo zortzi urterekin egin zuen, ez du argazkirik. Bere adinekoak ez ziren asko, guztira 25 bat lagun, horietatik 11 mutil.

246. Soldaduskara joateko (ETX-011/020)

Soldaduskara joateko mutilak neurtzera udaletxera etortzen ziren. Bere "kinta" neurtzera etorri zireneko pasadizoa kontatzen du. Berak soldaduskan Arbizuko pare bat lagunekin bat egin zuen. "Kinto"en besta zerbait egin zuten neurtu aurretik, eta, gero, "kinto"en bestetarako Arbizuko Patxi akordeoilaria ekartzen zuten.

247. Soldaduskan (ETX-011/022)

Soldaduska Iruñean, Zaragozan, Burgosen eta Aurizberrin egin zuen. 17 hilabete eman zituen soldadu

248. Andregai (ETX-011/023)

Bautistak andregai berandu bilatu zuen. 40 urterekin ezkondu zen. Erriberako eta Santanderreko mutilak erneago ibiltzen omen ziren.

249. Ezkontzak (ETX-011/024)

Ezkondu elizan eta bazkaria egiten zen. Asko etxean bertan egiten ziren, ahuntzen bat edo ardiren bat hil eta horixe jaten zen. Akordeoilaria edo "Jazz" a jartzen zuten. Ongi pasatzen zutela dio Bautistak gazte garaiko oroimen onak ditu.

250. Dirurik gabe bizi (ETX-011/025)

Dirurik gabe bizitzea zer den ezagutu du Bautistak. Ama 40 bat urterekin alargundu zen, eta orduan ez zuten inongo diru-sarrerarik etxean. Etxean bertan ekoizten zituzten produktuekin bizi ziren. Amari erretiroa izateko nekazaritzako aseguru ordaindu zioten.

251. Ehorzketak (ETX-011/026)

Ehorzketa maila ezberdinak baziren, lau maila ezberdin. Bautistaren hitzetan "pobreenak pobre, aberatsenak aberats". Ordaintzen zen diruaren arabera

izan ohi zen. Apeza elizmutilekin joaten zen hildakoaren etxera, eta kalean beraiekin gurutzatuz gero belauniko jartzen zirela dio. Hilkutxak herrian bertan egiten zituzten. Hildakoa etxean beilatzen zuten.

252. Misioak, aitortza eta bula (ETX-011/027)

Misioak izaten ziren. Eliza goraino betetzen omen zen, eta apezek oihuka botatzen omen zituzten sermoiak, Don Fidel eta Don Ricardo gogoratzen ditu. Beldurra edo errespetu handia omen zitzaion erlijioari, hala ere, orduan ere, bazen agertzen ez zen jendea. Aitortza edo "konfesioa" urtean behin derrigorrezkoa zen, eta horretarako kartila bat ematen omen zuten, agertzen ez zena fitxatuta geratzen omen zen. Bulak ere izaten ziren, bula ordaintzen zuenak bijilia edo barauan nahi zuena jan zezakeen.

253. Aste Santua eta ezkilak (ETX-011/028)

Aste Santua orduan ezberdina zen, ez zen oporretarako garaia, elizara joatekoa baizik. Aldareko santuak oihal batzuekin estaltzen zirela kontatzen du, eta ezkilarik ez zen jotzen. Honen harira, hil-ekzila desberdinak jotzen zirela kontatzen eta imitatzen ditu. Haur bat hiltzen zenean "ttikilin ttakalan" gelditu gabeko ekzila omen zen, haur asko hiltzen zela esaten du. Emakumearen bat hiltzen zenean, "dan dan..."; eta gizona hiltzen zenean, berriz, grabeago "don don...". Garai hartan lutoa mantentzen zen.

254. Erreguteak eta Kalbarioa (ETX-011/030)

Erreguteak egiten zituzten, bai euria egiteko hala nola atertzeko ere. San Adrianeraino joaten ziren, 5 km, apeza zaldiz joaten zen, eta herriko zaharrena ere oinez. San Migueleraino ere iritsi izan dira erreguteetan. Kalbarioa ere ezagutu du.

255. Ama Birjinaren agerpenak (ETX-011/031)

Zaharragoei aditua die Ama Birjina ikusi zuen jendea bazegoela. Oraindik bizi den Eusebio Markotegik ere ikusi zuela omen dio, baina ziurrenik ahuleriarengatik izango zela esaten du. Agerpenei buruzko kasu pare bat gehiago azaltzen ditu.

256. Sutondoko istorioak (ETX-011/032)

Sutondoan istorioak kontatzen aritzen ziren. Sorgin kontuak ere adituak ditu. Artoa aletzen aritzen ziren bitartean. Sasoi horrek, gainera, gaztainen sasoiarekin bat egiten zuen, eta gaztainak jaten zituzten.

257. Artoa, gaztaina, egurra eta orbela (ETX-011/033)

Artoa zuritzen azaroan aritzen ziren, gaztaina biltzeko egun seinlatu bat izaten zuten Bakaikun, Etxarrin ez ordea. Egurra eta orbela lotetan banatzen ziren, orbela azpietarako erabiltzen zuten.

258. Egurra eta ilargia (ETX-011/034)

Egurra egiteko ilargiari begiratzen zioten. Zuhaitzaren orbela edo hostoa koskaduna baldin bazen ilargia hil ondoan botatzen zuten. Hostoa leuna baldin bazen, ilberrian botatzen zuten. Ereiteko ere begiratzen zioten, eta, ahal bazen behintzat, ilargia hil ondoren ereiten zuten.

259. Fruta-arbolak eta lihoa (ETX-011/036)

Fruta-arbola gutxi izan da Etxarrin, ez baita toki egokia horretarako. Sagarrak bai izaten ziren, eta hori omen zen urte osoko postrea. Lihoa ere erein egiten zen, oihalak egiteko erabiltzen zen. Etxe batzuetan haria egiten zuten liho horrekin zeregin horretarako zeukaten makina batzuekin.

260. Arotzak eta gisugileak (ETX-011/039)

Etxarrin hiru arotz bazirela aipatzen du, horietako batek idiak ferratzen zituen. Gisugileak ere baziren Arbizuko gizon bat aipatzen du eta Eritze herrian beste bat. Gisua etxeak zuritzeko erabiltzen zuten.

261. Gisu-labeak eta txondorrek (ETX-011/041)

Mendian gisu-labeak izaten ziren, eta herriko jendeak ikatza egiten zuen txondorretan. Ikatz hori errazionamendu gisa banatzen zen, bi zaku etxeko. Garai hartan, plantxak ere ikatzarekin berotzen ziren.

262. Trena (ETX-011/042)

Trenak eta trenbideak garrantzi handia izan du Etxarrin. Garraio-lan gehien-gehienak trenez burutzen ziren. Kontuan hartu garai hartan Etxarrin beharbada bi kamio txiki besterik ez zirela. Iruñera ere trenez joaten ziren, autobusa ere bazegoen. Astelehenetan, jendez betetzen zen Etxarriko geltokia kanpoan lanean ari ziren inguruetakoko jendearekin.

263. Zerrategiak eta teileria (ETX-011/043)

Bi zerrategi bazeuden herrian, bietan zortzi bat lagun ariko ziren lanean. Teileria ere bazegoen, eta bertan 10 bat lagun aritzen ziren lanean. Teileria kanposantu bidean zegoen, oraindik tximinia bertan dago.

264. Hilean bi feria (ETX-011/045)

Hilean hiru aldiz ospatzen ziren feriak Etxarrin, hilabetearen 5ean, 15ean eta 25ean. Giro oso polita izaten; deskribatu egiten du.

265. Merkataritza (ETX-011/046)

Merkataritzari dagokionez, Etxarrin bospasei taberna bazeuden, horietako batzuk erdi taberna erdi denda ziren. Arropa denda ere bazegoen eta botika ere bai, Gayarrerren botika.

266. Medikua (ETX-011/047)

Mediku bakarra zuten, eta bera zaharra. Ez zuen praktikanterik eta berak egiten zituen lan guztiak, haurren jaiotzak ere artatzen zituen.

267. Sendabelarrak (ETX-011/048)

Batzuek sendabelarrak erabiltzen zituztela dio. "Pasma" belarra eta kamamila aipatzen ditu.

268. Guardia Zibila (ETX-011/049)

Guardia Zibila, garai batean, erromeriaren bat baldin bazen, adibidez, herriaren mahaian esertzen ziren bazkaltzera. Libre zegoena meza nagusira ere joaten zen.

269. Udalaren antolaketa (ETX-011/050)

“Veintena” bazegoela kontaktzen du, baina ez daki nola osatzen zen. Gehien agintzen zuena idazkaria omen zen. Auzolana egiten zen, eta auzolanaren berri emateko etxez etxe ibiltzen ziren ateetan mailu batekin joka, eta non zen auzolana esanaz. Etxe bakoitzetik bana joaten ziren, ez joatekotan ordaindu egin behar zen.

270. Ondoko herriekiko harremanak (ETX-011/051)

Bautistarentzat ondoko herriekiko harremanak gaur egungoak bezalakoak ziren; “batzuekin haserre besteekin adiskide”. Oro har, harreman onak ziren nahiz eta umorez gazte konturen bat kontaktzen duen.

271. Euskara (ETX-011/052)

Garai batean, dena euskaraz egiten zen, baina gero galduz joan zen. Bautistaren ustez, gerra ondotik batez ere, euskaraz hitz egiten zutenak gutxiago balira bezala sentitzen ziren, eta, lotsaz edo, utzi izaten zen euskaraz. Bautistaren ustez emakumeek galdu zuten lehenago. Bera beti sentitu da euskalduna eta beren aitonak ere sentimendu bera zuen.

272. Gerra garaia (ETX-011/053)

Herrian iritzi politiko ezberdinak zeuden, eta nahiko “pike” baten. Tabernak ere baziren; Carlista, Católico eta Centro Republicano. Giro nahiko nahasia; bere etxean bertan bere aita errepublikanoa zen, eta honen anaia erreketea. Osabak bere aita Lekarozeko komentura eraman omen zuen, eta Bautistak berak aita fraidez jantzita ikusi zuela dio. Garai hartan, emakume batzuei ilea moztu eta akain-belarraren olio eman zieten, baita kartzelan sartu ere. Fusilatua ere sei edo zazpi izan ziren. Semea jaio berria hil zuten gaztearen gertakizuna kontaktzen du. Oraindik orain fusilatuen omenez urtero Otxoportillon egiten duten mezara joaten da Bautista.

273. Errazionamendua (ETX-011/054)

Gerra ondotik, errazionamendua iritsi zen. Tabakoa eta zenbait janari errazionatuta zeuden, eta dendara joaten zirenean bila ilarak izaten ziren; jendea bata bestearen ondotik esperoan egoten zen.

274. Hainbat gertakizun (ETX-011/055)

Hainbat gertakizun aztertzen ditu. Barandalla, gerra garaiko erreketea eta alkatea izan zena, Bautistaren osaba. Basajaun, Pello Marielarena.

275. Jaiotetxea (ETX-012/003)

Angela Xantuan etxean jaio zen baina gero bere izebaren etxean hazi zen. Jaiotetxea ez zen orain bezala, behean estrabia (ukuilua) zeukan eta goian etxebizitza. Oiloak eta behorrak zituzten etxean.

276. Gurasoen heriotza (ETX-012/004)

Bere aita zazpi urte zituenean hil zen eta ama hil zenean bi urte eta erdi zituen. Ama bere neba gazteena jaio zenean hil zen infekzio batekin. Hazi zen etxean bi lehengusu ziren.

277. Mugiron bizi izan zen (ETX-012/005)

Angela Mugirora joan zen bizitzera. Oinez joan zen Irurtzundik astoarekin. Bederatzi urte egin arte egon zen han. Andrea ondoko herrietara joaten zen arropa jostera. Baraibarrera joaten zen bazkaria eramatera.

278. Lekunberriko mojak (ETX-012/006)

Herrian meza bat ematen zen. Baina Angela Lekunberrira joaten zen komentura.

279. Zerbitzari lanak I (ETX-012/007)

Ibarran eta Tolosan egon zen zerbitzatzan.

280. Zapatariaren etxean lanean (ETX-012/008)

Mugiron zapatari bat zegoen, eta berarentzat lanean ere egon zen.

281. Zerbitzari lanak II (ETX-012/009)

Zapateroaren etxetik beste etxe batera joan zen zerbitzatzera, eta, ondoren, Donostiara. Nagusiak taberna bat zuen, eta bertan gosariak ematen zituen.

282. Familiarekin izandako arazo bat (ETX-012/010)

20 urterekin Etxarrira itzuli zen. Bere anaia zaharrena soldadutzatik bueltatuta lanean hasi zen.

283. Aitaren heriotza (ETX-012/011)

Aitak auzi bat izan zuen Iruñean, eta irabazi egin zuen. Istripu batean hil zen.

284. 22 urterekin ezkondu zen Angela (ETX-012/012)

22 urterekin ezkondu egin zen, eta 43 urterekin alargun gelditu zen zazpi seme-alabarekin.

285. Angelaren ezkontza (ETX-012/014)

Angela beltzez ezkondu zen. Senarra minbiziarekin hil zen.

286. Senarraren familia (ETX-012/015)

Senarra Sabandon semea zen. Arbizun familia dauka senarraren aldetik.

287. Nobio garaiak (ETX-012/016)

Nobioa bisitan joaten zitzaion kanpoan lanean zegoenean.

288. Etxeko lanak (ETX-012/017)

Lixiba eskuz egiten zuen, ez zegoen labadorarik. Lurra garbitzeko ere lan asko zuen eta plantxan ere.

289. Etxeko ura (ETX-012/019)

Mugiron ez zuten urik etxean, baina Etxarrin bai, betidanik ezagutu du ura etxean. Ezkondu zirenean ura bazegoen, baina ez zitzaien iristen.

290. Argia (ETX-012/020)

Etxean bazuten argia, baina ez zen orain bezala. Bonbilla gutxi zituzten. Paretan zulo bat izaten zuten argia pasatzeko.

291. Mahats saltzaileak (ETX-012/021)

Angela txikia zenean mahatsa saltzera etortzen ziren herrira, eta festetarako erosten zuten.

292. Garbiketa (ETX-012/022)

Garai hartan, etxean garbitzen ziren barreño handi batzuekin. Arropa ere etxean garbitzen zuten.

293. Elurra (ETX-012/024)

Sorora joan izan da 40 zentimetroko elurrarekin.

294. Umetako jolasak (ETX-012/025)

Neska-mutilen artean poteka ibiltzen ziren jolasean.

295. Ogia (ETX-012/026)

Arrautzak eta esnea saltzen zituzten, eta ogia etxean egiten zuten.

296. Arropa etxean egiten zuten (ETX-012/027)

Jertseak eta galtzerdiak etxean egiten zituzten.

297. Mugiroko etxeko nagusia (ETX-012/028)

Mugiroko etxeko nagusia alkatea zen.

298. Eguneroko janaria (ETX-012/030)

Eguneroko janak orain bezalakoak ziren gutxi gorabehera. Goizean, patata egosia jaten zuten, eta, merendatzeko, txokolate zati bat.

299. Jokoak (ETX-012/031)

Beraien etxea eliza ondoan dago. Aldamenekoak jolasean ibiltzen ziren haurrak zirenean "eskonditean", tabekin, kromoekin, panpinekin...

300. Arrautzak saltzen (ETX-012/032)

Arrautzak saltzen ibiltzen zen Angela.

301. Andereñoak (ETX-012/033)

Eskolan maistra ezberdinak eduki zituzten.

302. Haurren jaiotzak (ETX-012/034)

Angelak seme-alaba gehienak etxean eduki ditu.

303. Haurren janaria (ETX-012/035)

Irina txigortua ematen zien hurrei eta barazkiak ere bai.

304. Fardelak (ETX-012/036)

Fardelak ez ziren oraingoak bezalakoak. Oihalezkoak ziren, eta xaboiarekin garbitzen zituzten.

305. Bataioak (ETX-012/037)

Haurrak jaio eta berehala bataiatzen ziren. Mugiron mutilak alde batean eta neskek bestean jartzen ziren. Gero, txokolatea eta esnea banatzen zen.

306. Azkarateko markesa (ETX-012/038)

Azkarateko markesak etxea zuen Mugiron.

307. San Miguel (ETX-012/039)

San Miguelera askotan igo izan dira oinez.

308. Pobreen etxea (ETX-012/040)

Etxarrin pobreentzako etxe bat egoten zen mojen ondoan. Etxe handi bat zen. Jana herriko jendeak ematen zien. Gehienak ijitoak izaten ziren.

309. Denbora pasak (ETX-012/041)

Titiriteroak eta antzerkiak etortzen ziren herrira. Angela eta senarra leku guztietara joaten ziren seme-alabekin eguna pasatzera.

310. San Adrian eta San kiriko (ETX-012/042)

San Adrian beti ospatu izan da, eta San Kiriko ere bai.

311. Sendabelarrak (ETX-012/043)

Sendabelarren inguruan hitz egiten dute (berbena, manzanilla...). Pomadarik ez du egiten. Normalean tortillan jaten ditu edo infusioan.

312. Igandetako banda (ETX-012/044)

Dantzan asko ibiltzen ziren espartinekin. Angelari asko gustatzen zaio dantzatzea. Oso parrandera izan da. Igandetako banda egoten zen. Bere gizonak bandan jotzen zuen, eta bere aita gaiteroa zen. Orduan ez zegoen kioskorik. Festetan, goizetan, bandaren atzetik joaten ziren dantzatzen. Gaueko 12etarako etxean egoten ziren.

313. Etxarriko festak I (ETX-012/045)

Etxarriko festak lehenago urrian ziren, baina eguraldi txarra egiten zuenez abuztura aldatu zituzten.

314. Etxarriko festak II (ETX-012/046)

Garai batean, orkestrak etortzen ziren festetan. Errondan ibiltzen ziren, eta kuadrillan dantzatzen zuten, baina 12etarako etxean zeuden.

315. Donostian bizi zen garaia (ETX-012/047)

Garai hartan, Donostian Santa Klarara joaten ziren. Herriko neska gehiago zeuden bertan zerbitzatzen. Tolosatik Alegiara oinez joaten ziren. Errenteriarra tranbian joaten ziren.

316. Erlijioaren eragina (ETX-012/048)

Erljioak garai hartan pisu handia zuen. Erljio kontuak kontatzen ditu. Bezperak sakratuak ziren.

317. Aste Santua (ETX-012/049)

Aste Santuan "bia-kruzisa" egiten zuten.

318. Errogatibak (ETX-012/050)

Errogatibak egiten zituzten euria egiteko.

319. Misioak (ETX-012/051)

Misioak etortzen ziren. Estaziora joaten ziren apaizen bila kantuan.

320. Etxarriko apaizak (ETX-012/052)

Lehenago hiru apaiz egoten ziren Etxarrin. Don Jose Maria, Don Braulio eta Don Juan.

321. Hiletak (ETX-012/053)

Hileta klase ezberdinak zeuden. Orduan norbait hiltzen zenean bazkaria egiten zen eta etxeetan arrosarioa errezatzen zen.

322. Lutoa (ETX-012/054)

Lutoa luzea izaten zen, beti egoten ziren lutoz. Gizonak ez ziren beltzez janzen. Behin hileta baterako trajea egiten egon ziren gau osoa lo egin gabe.

323. Hurrek ez zuten lutorik eramaten (ETX-012/055)

Hurrek ez zuten lutoa eramaten.

324. Inauteriak (ETX-012/056)

Inauterietan ez ziren orain bezala janzen, sinpleagoa zen.

325. Festetan ardoa banatzen da (ETX-012/057)

Festetan udaletxeak beti banatu du ardoa.

326. Udaletxearen antolaketa (ETX-012/059)

Angela ez da udaletxearen antolamenduaz oroitzen. Udaletxeko sekretarioa Juan Gurutzeaga izan zen urte askoz.

327. Auzolanak (ETX-012/060)

Auzolanak egiten ziren. Neskak ez ziren joaten.

328. Ur zikinak (ETX-012/061)

Etxeko ur zikina txerrien pertzak egosteko erabiltzen zuten.

329. Txerri-hiltzea (ETX-012/062)

Txerri hiltzea festa bat izaten zen. Tripotak egitea emakumeen lana zen, baina Angelak ez ditu inoiz egin. Gero puskak banatzen zituzten.

330. Herriko jendea (ETX-012/063)

Amona Logroñon egon zen markes baten etxean zerbitzatzen. Herriko jendeari buruz hitz egiten du.

331. Euskara (ETX-012/064)

Angela gaztea zenean Etxarrin euskaraz egiten zen dena, baina eskolan erdaraz egiten zuten. Dotrina ere euskaraz izaten zen.

332. Industria (ETX-012/066)

Ufesa ireki zutenean hasi zen industria Etxarrin.

333. Zerrategia eta teileria (ETX-012/067)

Zerrategia eta teileria zeuden Etxarrin.

334. Herriko dendak (ETX-012/068)

Herrian dendak zeuden eta harategia ere bai.

335. Farmazia (ETX-012/069)

Farmazia beti egon da Etxarrin.

336. Tabernak (ETX-012/070)

Taberna batzuk bazeuden herrian.

337. Etxarriren aldaketa (ETX-012/071)

Etxarri lehenago txikiagoa zen. Orain eraikuntza asko dauden lekuan lehenago soroak zeuden.

338. Ile-apaindegiak (ETX-012/072)

Garai hartan ez zegoen dirurik ile-apaindegira joateko. Fabrikek bentaja handia ekarri zuten herrira.

339. Jostunak (ETX-012/073)

Jostun bat baino gehiago zeuden Etxarrin. Bere familian bazeuden batzuk.

340. Beste ofizio batzuk (ETX-012/074)

Ehungilerik ez zegoen, artzainek artilezko galtzerdiak egiten zituzten baina ezer gehiago.

341. Artzain familiak (ETX-012/075)

Artzain familia bat baino gehiago zeuden herrian.

342. Ferratokia (ETX-012/076)

Ferratoki bat zegoen Etxarrin.

343. Gerra Zibila IV (ETX-013/002)

Nola hiltzat eman zuten kontatzen du. Arbizon bere arimarengatik "Aita gurea" eta guzti errezatu omen zuten. Amak Berruetan aditu omen zuen berri hori eta zalapartaka hasi. Gero, bizirik agertu zen noski.

344. Gerra Zibila V (ETX-013/003)

Gerra bukatu zenean, Amadok erizain lanak egiten zituen abangoardiako klinika batean. Rigoberto izena zuen praktikante bati laguntzen zion, eta zainetan injekzioak sartzen zituen bere arreba Sor Casildak erakutsi ziolako jartzen.

345. Bere arreba Sor Casilda (ETX-013/004)

Bere arreba Sor Casilda 17 urterekin joan zen moja. Joan zen eguneko kontakizuna egiten du, trenean herri guztia despeditzen gogoratzen du. Lehendabizi Iruñean izan zen, gero Zamoran, Salamancan, berriz ere Zamoran eta bukatzeko Coruñan. Gerra bukatu ondoren ere Jesus A Coruñara joan zen, eta arrebarekin ematen zituen paseoak gogoratzen ditu, Finisterrera joaten ziren...

346. Gerra Zibila Etxarrin (ETX-013/005)

Gerra Zibilak Etxarrin giro ezin txarragoa jarri omen zuen. Ezin ikusiak eta mendekuak ugariak izan omen ziren. Halako herri txikia izanik ere 13 bat fusilamendu izan omen zirela adierazten du. Horietako bi kontaktzen ditu, Altsasuko Barberito izenaz ezagutzen zutenarena eta basoan lanean ari zen mutil batena, Murillo izeneko harroputz baten mendeku ergela (zergatia kontaktzen du). Emakume batzuei ilea moztu ere egin zieten. Erreketeek bere etxe ondoko Maritxu izeneko emakumeari nola moztu zioten deskribatzen du.

347. 'Círculo Carlista' eta 'Centro Republicano' (ETX-013/007)

Círculo Carlista eta Centro Republicano bietatik bazen herrian. Lehenengoa bidegurutzetik beheraxeago eta bigarrena plazan. Amadok zehaztasun handiagoz kokatzen ditu biak.

348. Legionarioari erositako txakurra (ETX-014/001)

Txakurra beti eduki dute etxean. Iruñean legionario bati 10 pezetatan (ordurako oso garesti) erosi zion txakur txiki politaren historia kontaktzen du. Bere lehengusu batekin bidali zuen etxera txakurra, eta bere amarekin ibiltzen zen alde guzietara, mezara... Amaren magalean hil omen zen txakurra. Amak negar handiak bota zituen.

349. Anaia fusilatu zuten (ETX-014/002)

Amadok semea eta ilobak kartzelan eduki ditu, baina ez da ongi oroitzen. Bai ordea gogoan du anaia fusilatu zutenekoa. Anaia libre bezala utzi zuten kontzentrazio eremu batetik. Etxera itzuli beharrean Frantziara pasatzen saiatu zen, eta harrapatu zuten. Ondarretako kartzelan sartu zuten. Amadok astero egiten omen zion bisita. Gerra ondotik, gauzak okertu eta fusilatu zuten. Zeukaten Citroen kotxe batean nola ekarri zuten Etxegarartetik gogoratzen du. Iruñean lurperatu zuten.

350. Esnea etxez etxe saltzen zuten (ETX-015/003)

Etxez etxe saltzen zuten esnea. Jende gutxi joaten zen etxera eroatera, haiek mugitzen ziren, gehienetan gauez. Etxeko txikienek egiten zuten lan hori, 20:30ean hasi eta gaueko 22:00ak arte. Gehiena diru-truke saltzen zen, baina baziren arrautza truke erosten zutenak ere.

351. Etxeko produktuak (ETX-015/004)

Haien etxera joaten ziren babarrunak, patatak eta bestelakoak errotera arbizuar asko. Urte batzuetan, treneko langileak ere joaten ziren.

352. Etxeko esnea salgai (ETX-015/005)

Etxeko esnea egosi egin beharra zen. Bere adinean, 2 pezetatan saltzen zuten litroa. Poliki-poliki, prezioek gora egin zuten, eta ez zen samurra izaten. Herriko beste lauzpabost etxek ere saltzen zuten esnea. Etxeko behi guztiak batera ernaritzen zirenean beste behiren bat ekartzen zuten, esnea saltzen jarrai zezaten. Esnearen prezioa saltzaileek euren artean adostuta jartzen zuten.

353. Behiak ernari (ETX-015/006)

Behiek bederatzi hilabete ematen dituzte ernari. Azkeneko bietan ez zituzten jezten. Oritza edaten zuten, behiak erditzeko esperoan egoten ziren oritza hura hartzeko.

354. Behien erditzeak eta txekorrak (ETX-015/007)

Behien erditzeetan zailtasunak izaten ziren sarri, alderantziz zetozelako, handiak zetozelako... Behorren erditzeak adibidez, errazagoak ziren. Beranduago txarolesa behi arrazakoak ekartzen zituzten; horiek txekor onak ziren, baina ama asko nekatzen zuten. Horregatik, azkeneko horiek ere kendu zituzten.

355. Behien gaitzak eta heriotza arrazoiak (ETX-015/008)

Behiek sarri izaten zuten hanketako minari "patera" esaten zitzaion. Halere, behien heriotzen arrazoi nagusia txekor handiegien erditzeak ziren. Hirusta bustia edo asko jateak eta, gutxiagotan bazen ere, alpapak ere, tripak hazi egiten zizkieten. Halakoetan orratz berezi bat izaten zuten zuloa egin eta haizea husteko.

356. Abereen bazka (ETX-015/009)

Etxean, beti zeukaten kargak garraiatzeko behor bat. Lehen ez zen pentsurik erosten, dena etxeko gauzekin egiten zen. Garia, erremolatxa, patata... Denak egosi eta animalien janaritako ziren. Harrikoaren ura txerrientzako ematen zieten.

357. Dena aprobetxatzearen ohitura (ETX-015/010)

Medikua etxera joan zenean, harrikoa egiteko erabilitako ura aprobetxatzen ari zela harrituta gelditu zen emazteari esanez: "no te decía yo, que en los caseríos guardan hasta el agua de fregar". Lehen ez zuten produkturik erabiltzen, dena hautsekin egiten zuten. Espartzuarekin nola egiten zuten; horri etxean egindako xaboia jartzen zioten.

358. Etxeko xaboia (ETX-015/011)

Xaboia txerriaren mantekarekin egiten zuten. Iruñetik ekartzen zuten behar zuten materiala, eta horrekin egosi eta egosi, balde batean hozten utzi eta pusketan zatitzen zuten.

359. "Arenatzea" (ETX-015/012)

Zura zuri gelditzen zen, eta espartzuan ura eta xaboia jarriz zura hori garbitzen zuten. Armairuak, adibidez.

360. Ganbara (ETX-015/013)

Ganbararen garbiketa, erabilera eta antolaketa. Bi ganboiko zituzten.

361. Zuritzea (ETX-015/014)

Etxeak galtzinarekin zuritzen zituzten, festetarako. Garai hartan, festak urrian izaten ziren.

362. Koltxoiak (ETX-015/015)

Koltxoiak urtean behin, abuztuaren bukaeran, jotzen zituzten. Lan handia ematen zuten. Urarekin garbitu baino gehiago, jo egiten zuten. Artilea erosten zenean errekan garbitzen zuten. Amak behin Lizarraldeko bati erosi zion artilea, hura ez zen ardi latxarena bezalakoa. Jo ondoren, koltxoi hiru aldeetatik josi behar izaten zen berriz. Familia guztiaren artean egiten zen lana, koltxoi guztiak jarraian.

363. Lixiba (ETX-015/017)

Lixiba hilabetero egiten bazuten ere, maiatzekoa berezia izaten zen, eta etxeko maindire guztiak pasatzen ziren. Lixiba urratsez urrats: bezperan maindireak beratzen jarri, hurrengo egunean garbitokian garbitu; gero, ontzi batean sartu, ura irakiten bota, oihal baten gainean suko hautsak jarri eta berriz ere ur beroa botatzen zitzaion beheko zulotik ura garbi ateratzen zen arte. Hurrengo goizean, lixiba jotzen zuten garbitokian, eta, azkenik, lehortzen uzten zuten sasien gainean edo beste nonbaiten. Emakumeek ogia egitearekin batera, etxean zuten lan gogorrenetako bat zen.

364. Etxeko ogia (ETX-015/018)

Etxeko ogia egitea lan gogorra izaten zen. 2 kg-tako ogiak ateratzen ziren. Masa oratu eta bizpahiru orduz "lotan" uzten zen (horrela esaten zen). Bitartean, labea garbitzen eta berotzen zen. Ogi harekin bi aste pasatzen zituzten. Manta batekin tapatzen zuten, eta ongi kontserbatzen zen.

365. Gosari ezberdinak (ETX-015/019)

Gosariak hurrengoak izan zitezkeen: taloa, garagarrarekin egindako kafea azukrearekin edo esnearekin, patata egosia urdai puska batekin, baratxuri-zopa... Izeba moja harritu egiten zen baratxuri-zopa gosariarekin.

366. Sukalde ekonomikoa eta su baxua (ETX-015/020)

Sukalde ekonomikoa berak bost urte inguru zituela ekarri zuten etxera. Taloak su baxuan egiten zituzten; gero, txaparen gainean ere.

367. Argia (ETX-015/021)

Hasieran argi motela izaten zen, herriko errotatik etortzen omen zen. Bonbilla gutxi egoten zen.

368. Etxeko oiloak (ETX-015/022)

Ukuiluan oiloen tokia. Oilotesie. Egunez, kanpoan ibiltzen ziren; eta iluntzean, haien tokira bueltatzen ziren. Arrautzak nonahi egiten zituzten. Oilolokak.

369. Untxiak (ETX-015/023)

Untxiak izan zituzten, baina sarna sartu zitzairen, eta berehala kendu behar izan zituzten. Untxia ez zen oiloa bezain gustura jaten, eta, gainera, haiei behintzat, lan gehiago ematen zien hazteak.

370. Txerriak (ETX-015/024)

Bi txerri ama izaten zituzten. Onak baldin baziren, urtean hiru aldiz izan zitzaketen umeak. Inoiz jaio izan dira 16; orduan beraiek laguntzen zieten biberoiarekin. Beste batzuetan bat edo bi jaiotzen ziren, inoiz ez zen jakiten. Txerriak feriara eramaten zituzten edo tratanteren batekin egiten zuten tratua.

371. Etxarriko feria (ETX-015/026)

Etxarriko feria. Inguruko herrietatik joaten ziren, eta harremanak egiteko aukera ona izaten zen. Egun berezia izaten zen.

372. Txerria hil aurreko hilabeteak (ETX-015/027)

Txerria hiltzeko asmoa zutenean, gizentzeaz gain, umerik ez egiteko irausi ez jartzeko osatu egiten zuten. Udaberrian osatzen zuten. Txerria hil aurreko egunetan janari potenteagoa ematen zioten.

373. Txerria hiltzen zen eguna (ETX-015/028)

Txerria hiltzen zen eguna ederra izaten zen. Beti etortzen zen aldamenekoren bat edota familiakoren bat, eta hasieran gosaria egiten zen gibelarekin, babaz eta koipez lagundurik. Emakumeek tripak garbitzen zituzten bitartean, gizonek gosaria hartzen zuten. Urde-hiltzailea goizeko 07:00etan etortzen zen, eta 09:00etarako bukatzen zituen lanak. Egunean bertan, arratsaldean, egosten zituzten tripotak, eta baita txistorrak prestatu ere.

374. Hesteak eta txistorrak (ETX-015/029)

Hesteak prestatzeko osagaiak: arroza, espezieak, klabilloa, oreganoa, piperbeltz beltza, kanela eta anisa. Usai berezia sortzen zen etxe guztian. Garai haietan, ohituak zeuden aziendaren usainarekin, baina txerria hiltzen zenean usain berezia jartzen zen, nabarmenagoa. Bi emakume egoten ziren hesteak eta tripotak prestatzen, beste bat egosten... Kontu handiz prestatu behar ziren. Gaur egun dendetan erosten diren tripotak ezberdinak dira, beste modu batean prestatuko dituzte. Txistorrak betetzeko makina zeukaten. Makina hura etxez etxe ibiltzen zuten, eta, ordainetan, arrautzak eman ohi zizkieten.

375. Txerriaren pusken banaketa (ETX-015/030)

Txerria hiltzen zenean puskek aldamenekoei, karrikakoei eta hurbileko familiaren bati banatzen zizkieten. Puska hoberenak banatzen ziren. Herriko jende jantziari (idazkariari, apeza...) ere banatzen zitzaion. Gibela sare txuri batekin biltzen zuten.

376. Txerrikiaren kontserbak eta elikadura (ETX-015/031)

Txistorrak eta saiheitsak jartzen zituzten kontserban. Txistorra puskatu eta olioak irakiten botatzen zioten, oso ona ateratzen zen. Astez babarrun gorriak jaten zituzten; jaietan, berriz, babarrun txuriak. Saiheitsak udan jaten zituzten. Urdaia neguan jaten zen errazago.

377. Eguneroko jana (ETX-015/032)

Bazkaltzeko, babarrunak azarekin; eta afaltzeko, patatekin. Amak babarrunak ematen zizkion izebari txitxirioen truke. Txitxirioak Corpus Egunean, Aszentsio egunean, festetan eta horrelako jai handietan jaten zituzten.

378. Amaren postreak (ETX-015/033)

Amak arroz-esnea, natillak eta bizkotxoa prestatzen zituen postreetarako. Bizkotxoa adornatzeko azukre bainua jartzen zion, sukaldeko gantxoa sutan goritu eta honekin egiten zizkion formak. Ogia egiten zuen aldiro bi edo hiru kaskain egiten zizkien. Amak Kandida zuen izena.

379. Jantziak eta oinetakoak (ETX-015/034)

Ahizpa zaharrenak josten zizkien arropak, beste ahizpek ere, baina batez ere zaharrenak. Egunerokoan batak erabiltzen zituzten, gehienetan gerriko batekin. Jaietarako, berriz, tela polit bat erosi eta soineko bat egiten zuten. Oinetarako espartinak edo sandalia batzuk ibiltzen zituzten. Askotan Karasator zapatariak egindakoak.

380. Oinetakoak, bortzegiak (ETX-015/036)

Karasatorrek neurrira egiten zituen oinetakoak. Beste batek oinetako fuerteagoak egiten zituen gizonentzako, eta baita bortzegiak ere. Bortzegiak nolakoak ziren. Katiuskak iritsi bitartean bortzegiak erabiltzen zituzten oihanerako eta sororako.

381. Oinetakoak, "txokleak" (ETX-015/037)

"Txokleak" erabili izan zituzten, hiru takoidunak. Behin erregeei eskatu zizkien, eta txikiegiak ekarri zizkioten; haiek negarrak egin zituenak. Gero, handixeagoak ekarri zizkioten. Eskolara joateko, mandatuak egiteko... Erabiltzen zituzten txokleak, erosoak ziren. Oinetako berriagoak atera zituztenean, gomazko zatak alegia, "txokleak" ukuiluko atarian uzten zituzten ukuilu eta baratze inguruan ibiltzeko. Urte gutxitan, guztiz desagertu ziren; Galizian oraindik erabiltzen omen dituzte.

382. Orrazkera (ETX-015/038)

Ile luze-luzea zeramaten, moñoan bilduta edo trentzetan. Gehienetan bi trentza jartzen zituzten. Ahizpek orrazten zieten. Eskola garaia bukatu zutenean ile luzea edukitzea deserosoa zela eta, pena handiz trentzak moztu behar izan zituen. Amak mototxa biltzen zuen. Ilea ozpinarekin garbitzen zuten, halere ez zen orain bezain maiz garbitzen.

383. Garbitasuna (ETX-015/039)

Dutxarrik ez zegoenean barreño batzuetan garbitzen ziren.

384. Komuna (ETX-015/040)

Komuna besterik ez zuten, ez dutzarik eta ez konkatarik. Beste etxeetan ezta hori ere, ukuiluan egiten zituzten egin beharrekoak.

385. Jauregi Berronen (ETX-015/041)

Jauregi abizena 250 urtez egon omen da Berrone etxean. Familiaren historia.

386. Etxeko gelak eta ur bedeinkatua (ETX-015/042)

Gela gehienak bi ohatzetakoak ziren. Gelako altzariak (komodak, kutzak...). Gelaren sarreran ur bedeinkatua eta erreminta batzuk zituzten zintzilik. Pazkotan ekartzen zuten ur bedeinkatua. Ur bedeinkatuarekin ohiturak.

387. Etxea babesteko (ETX-015/043)

Erramu igandea pasatzen zen garaian Perkisenak olibondoa ekartzen zien, eta haien aurretik beste batzuek. Orain, olibondoa beharrean erramua (laurel) ekartzen dute. Eguzki-loreak ere jartzen zituzten atarietan.

388. Etxeetan erditzen zen, emaginak (ETX-015/045)

Emaginaren laguntzarekin izaten zituzten umeak etxeetan. Bi emakume izaten ziren. Bere amak 12 ume izan zituen, eta guztiak ongi jaio ziren.

389. Bataio goiztiarrak eta elizan sartzea (ETX-015/046)

Umea jaio eta berehala bataiatzen zen, egunean bertan edo hurrengoan. Ama ez zen bere umeen bataioetara joaten, zortzi edo 12 egun pasatzen zituen etxetik atera gabe, behin osatuta kandela batekin joaten zen elizara. Honi elizan sartzea esaten zitzaion. Bitartean ezin zuen etxetik atera.

390. Haurtzaroko jolasak (ETX-015/048)

Txikitan trapuzko panpinak egin eta hauentzako arropak josten zituzten. Beranduxeago "a txingis", tabetan, eskuekin hariarekin jolastea, sokasaltoan... Orduko jolas guztiak gaztelaniaz izaten ziren.

391. Eskola (ETX-015/049)

Sei urterekin hasi ziren eskolan. Neskatoak alde batean eta mutikoak beste batean, klasean eta baita errekreoetan ere. Neskei ez zieten frontoira pasatzen uzten. Errekreoetako jolasak: "a barandas", "tres navíos en la mar". Eskolatik ateratzeko aukera izaten zuten, eta etxeetan ezkututzen ziren.

392. Herriko etxeak zabalik (ETX-015/050)

Herriko etxe guztiak zabalik egoten ziren, eta libre izaten zen haietan sartzea. Etxe batetik bestera pasatzeko aukera ere izaten zen.

393. Jolasak eta kantak (ETX-015/051)

“A canelas” ibiltzen ziren elkarri harrapatzen, harritxoekin kantatzen... Kanta guztiak gaztelaniaz izaten ziren. Etxarrin etxea zeukaten neska iruindar zein madrildarrak etortzen ziren, eta haiengandik ikasten zituzten kantak. Jaietan amonak kartetan aritzeko ibiltzen ziren, kuadrilla bakoitza leku jakin batean, eta haiei begira egotearekin ikasi zuten kartetan.

394. Amonen jantziak (ETX-015/052)

Lehengo amona gehienak alibio-lutoz, mantalina eta gerritik behera mantala beltza zutela jantzten ziren. Baton batek fardelina jantzten zuen, baina ez zen ohikoa. Amonek erabiltzen zituzten mantalinak beltzak eta lau puntetakoak izaten ziren, beraiek erabili zituztenak, berriz, marrazkidunak eta hiru puntetakoak.

395. Lutoa (ETX-015/053)

Aita, ama, senarra edota emaztea hilez gero, bi urteko lutoa eramaten zuten, eta, ondoren, urte erdiko alibio-lutoa. Aitona hilez gero, sei hilabete. Haurrak ere beltzez jantzten zituzten. Gizonak ez ziren beltzez jantzten, besoan edo solapan zapi betza besterik ez zuten jartzen.

396. Hileta elizkizunak (ETX-015/054)

Hiru klasetako hileta elizkizunak ospatzen omen ziren: "primerakoa", "segundakoa" eta "terzerakoa". Inguruko herriko senitartekoak hildakoaren etxean gelditzen ziren bazkaltzen. Elizkizunera joaten ziren guztiak gonbidatuta zeuden etxean gazta pixka bat, moskatela edo hartzera.

397. Hildakoa (ETX-015/055)

Beilatokiak egin bitartean, etxean edukitzen ziren hildakoak. Zurezko kutxak. Arrosarioa errezatzen zen gau guztian zehar. Lehen etxean gaixotzen zen, eta etxean hiltzen zen. Bere amaren gertaera. Hil eta 24 orduz lurperatzen zituzten.

398. Hil-ezkilak (ETX-015/056)

Hil-ezkilak ezberdinak izaten ziren. Gauean, hildakoaren ezkilak argi-ezkilarekin jotzen zituzten, eta, goizean, hiltzen zirenarena eguerdiko ezkiletan. Eguerdiko ordu batean "keda" jotzen zen. Gaur egun dena nahasiago dago. Haur bat hiltzen zenean beste ezkila bat jotzen zen. Lehen haur eta ama franko hiltzen zen.

399. Iruñeko ospitalean izan zituen seme-alabak (ETX-015/057)

Ama izan zen garaian, egoerak hobera egin bazuen ere, emakume franko hiltzen zen erditzerakoan. Berak Iruñean izan zituen, eta umeen jaioterrian Iruñea jarri behar izan zuten, ezin zuten Etxarri jarri.

400. Ezkontzak (ETX-015/058)

Ezkontzak oso politak izaten ziren. Neska etxean prestatzen zen, lagunak, modista, ile-apaintzailea eta beharrezko guztiak etxean biltzen ziren. Gero, mutila eta bere senitartekoak neskaren etxera joaten ziren, eta, bide berritik zehar, gonbidatu guztiak elkarrekin joaten ziren elizara. Meza bukatuta sakristian sartzen ziren dokumentuak sinatzera, eta handik bazkaldu behar zuten etxera joaten ziren musikaz lagundurik. Menua. Beti Josetxo akordeoilaria kontratatzen zuten, eta kasualitatez ezin bazuen Arbizuko Pako deitzen zuten. Arratsalde hartan bertan abiatzen ziren eztei-bidaietara, eta gonbidatu gazteek ezkonberriak laguntzen zituzten trena hartzera.

401. Ezkontzako soinekoa (ETX-015/059)

Lehen beltzez ezkontzen ziren, halere bera grisez ezkondu zen. Mantelina dotore bat jartzen zuten buruan.

402. Lehenengo jaunartzea (ETX-015/060)

Lehenengo jaunartzearen ospakizuna oso xumea zen, etxeakoak, aitapontekoa eta amapontekoa biltzen ziren.

403. Konfirmazioa (sendotza) (ETX-015/061)

Bost urtetik behin Nafarroako apezpikua etortzen zen. Orduan madrina ere izaten zen, eta hura alkatearen andrea izaten zen. Berak bost urte besterik ez zituen.

404. Oliadura (ETX-015/063)

Herriko inor gaixo (larri) zegoenean, apezari abisatzen zitzaion, eta, edozein ordu zela ere, apeza eta sakristaua gaixoaren etxera joaten ziren oliadura ematera. Orduan ezkilak jotzen zituzten. Bere ahizpari eman ziotenekoa.

405. Apezak (ETX-015/064)

Herrian ezagututako apezak: Don José María Arbilla, Don Juan Ongai, Don Julian Macizior kapilaua, Don José María Ziaurritz, Don Pedro Apezetxea, Dorrauko bat, Don Miguel, Don Tomás Lizarraga.

406. Apezak zorrotz jantziekin (ETX-015/065)

Don Juan Ongai oso zorrotza zen jantziekin, eta behin 12 urteak betez gero, belaunetatik beherako galtzak janztera behartzen zituen, eta baita mantelina begietaraino eramatera ere. Horrela ez bazen ez zieten komunioa ematen.

407. "Al agarrau" dantzatzeagatik konfesatzeko beldurak (ETX-015/066)

Apezak oso zorrotzak ziren, eta "al agarrau" dantzatzea debekatu zuten. Dantzatu ondoren, ahizpa eta bera oso beldurturik joan izan ohi ziren konfesatzera. Horregatik, Altsasura joaten ziren konfesatzera, eta, bidenabarrean, permanentea egitera. Herriko apezak ez zien absolbitzen, eta sekulakoak esaten zizkien. Behin, Altsasura ezin izan zuen joan, eta herrian konfesatu behar izan zuen. Mutilekin dantzatu zuela esan zionean, apezak horrelaxe esan zion: "No sé, con las madres que tenéis cómo podéis salir vosotras así". Beste apez batzuk ez ziren hain gogorrak.

408. Garizuman eta abenduan musikarik ez (ETX-015/067)

Garizuman eta abenduan ez zen musikarik jotzen, Etxarrin debekatuta zegoen. Lizarrustiko festak San Jose egunean izaten ziren, eta neskatoak hara joanez gero, apezak hurrengo egunean pulpitutik esango zuen zeintzuk joan ziren, eta, gainera, zigorra jarriko zien. Altsasun ere musika jartzen zuten, eta etxarriarrak joaten baziren ere, debekatuta zuten dantzatzea.

409. 'Hijas de María' (ETX-015/069)

Jaiero, bezperen ondoren, otoitz txiki bat errezatzen zuten aulki guztien aurrean. Prozesio egunetan, estandarteak eraman behar ziren, eta urte horretan lehenbizikoa ezkondu behar zuen eraman behar izaten zuen.

Hilean behin aldarean jartzen zuten estandartea; Hijas de Mar; a kongregazioan zeudela gogorarazteko. Zinta urdin batetik zintzilikatutako medaila bat zeramaten.

410. Pazkotako txartela (ETX-015/071)

Pazkoan derrigorrezkoa zen jaunartzea eta konfesatuta egotea, eta hura kontrolatzeko txartela ematen zizuten.

411. Zenbait ospakizun erlijioso eta prozesioak (ETX-015/073)

Urriaren aurora kantatzen zen herriari buelta emanez; gero, meza. Zein ere egunero joaten ziren mezetara. Bederatziurrenak ere oso serio hartzen ziren. Garizuman kalbarioak egiten ziren, San Markos egunean errogatiban lurrak bedeinkatzen zituzten, Aszentsioa baino egun batzuk lehenago beste errogatiba bat egiten zen elizatik Andra Marira joan etorrian, San Migelera igoera eta San Migelen etorrera ere ospatzen ziren. Halakoetan eta San Adrianetan apeza mandoaren gainean eramaten zuten. San Adrian da herriaren gehien ospatzen den Santu eguna. Ekainaren 13an, San Kiriko egunean, eta abuztuaren 15eko Ama Birjinaren egunean ermitara joateko ohitura dago.

412. Eguneroko otoitzak gaztelaniaz (ETX-015/074)

Arrosarioa gauero erreztatzen zuten, urte guztian zehar. Bazkal aurrean eta afaltzeko orduan Aita Gurea beste otoitz txiki bat erreztatzen zuten. Dena gaztelaniaz izaten zen. Famili guztia elkartzen zen. Orain, ezinezkoa da denak elkartzea. Bere seme-alabei euskaraz irakatsi zizkien otoitzak. Soroan lanean zeudela ere, bazkaldu baino lehen otoitz egiten zen.

413. Vatikanoko II. Kontzilioak ekarritako aldaketak (ETX-015/075)

Vatikanoko II. Kontzilioa bitartean apezek latinez eta bizkarrez ematen zituzten eukaristiak.

414. Ihoteak estalian (ETX-015/077)

Ihoteak ia ez zituzten ezagutu Etxarrin, mozorrotuta ateratzen zirenak erretira arazi egiten zituzten. Ateratzen ahal ziren tarte txiki horietan nesken atzetik ibiltzen ziren.

415. Sorgin afaria (ETX-015/078)

Abenduaren 24an gaueko 12etan denak mezetara joaten ziren, eta handik ateratakoan neskak elkartu egiten ziren eta gozo batzuk eta edateko anisa edo moskatela jartzen zuten, horri Sorgin afaria deitzen zitzaion. Librexago zeudenez, mutilekin harremanetan sartzeko aukera bat izaten zen. Garai haietan aukera gutxi izaten zen bestela.

416. Mutiletan egiteko aukerak (ETX-015/079)

Egun bereziak aprobetxatu behar ziren mutilekin harremanetan sartzeko. Hauek izaten ziren egun horiek: Sorgin afaria, San Gregorio eguna, San Adrianera erromeria, Ama Birjina eguna... Eta urriko festetarako bikote berriak ateratzen ziren. Bikotea osatu eta ezkontzea erabakitzen zuten arte, bata ezin zen bestearen etxean sartu.

417. Mutilak utzitako neska (ETX-015/080)

Elkarrizketatzaileak dio: neska bat mutil batekin hasi eta denbora luzez ibili ondoren mutilak uzten bazuen, neska horrek oso zaila izaten omen zuen beste mutil batekin ezkontzea. Natic dio neskek moteldurik gelditzen zirela eta kostatzen zitzairela beste batekin hastea, baina azkenerako hauek ere ezkontzen zirela. Ezkontzerako arrea prestatzen zen, eta gizonaren abizenarekin egindako "punto de kruzeko" lanak egon zitezkeenez, mutilak neska uzterakoan dena desegiten zuten, eta neskek lur jota gelditzen ziren.

418. Ama ezkongabeak (ETX-015/081)

Ezkondu gabeko emakume bat haurdun geldituz gero, etxe-koentzako lotsa eta besteentzako farregarria izaten zen. Ezjakintasun handia zegoen, eta emakume horiek umiliatu egiten ziren. Halakoetan herritik irteten ziren, beste etxeetara joaten ziren zerbitzatzera, eta etxe haietako etxe-koandreek ere ez zituzten ongi tratatzen.

419. Musika herrian (ETX-015/083)

Bandak hiru pieza jotzen zituen, eta atsedena egiten zuen, eta berriz hiru pieza eta atsedena... Guztira bederatzi pieza jotzen zituzten. Banda baino lehen, udaletxeak gramola jartzen zuen.

420. Neskak tabernan (ETX-015/084)

Oso berandu hasi ziren tabernetan sartzen. Zirkulo taberna izan zen sartu ziren lehen taberna; meza ondoren joaten ziren, eta alde batean jartzen ziren olibak jaten. Guria taberna berritu zutenean hasi ziren neskak tabernetan sartzen. Neskak beti apartexago zeuden.

421. Zinema (ETX-015/086)

Zinea Don Julian Maziziorrek eta Jesús Ripaldak jarri zuten. Zirkuluan jarri zuten, eta 3 pezeta ordaintzen zuten sarrera. "Españoladak" jartzen zituzten.

422. Dantzak eta "Dantzakiye" (ETX-015/087)

Denetatik dantzatzen zuten: jotak, paso-doblea, "agarrau", porrusalda... "Dantzakiye" (zortzikoa) gizonak dantzatzen zuten, Andre Mari erromerian eta San Adrian egunean. Geroago hasi zen gehiago dantzatzen. "Dantzakiye" betikoa izango omen da; belaunaldiz belaunaldi, transmisioz irakatsia. Herriko gaiteroak eta txistulariak.

423. Irratia eta telebista (ETX-015/089)

10 edo 12 urte zituela ekarri zuten irratia Etxarrira. Hasieran oso irrati gutxi zeuden, eta futbolerako zaletasuna zuten mutilak etxeko leihoetan jartzen ziren partiduak entzuten. Hasieran oso etxe gutxitan jarri zuten telebista, beranduago etxe guztietara iritsi zen.

424. Lehendabiziko autoak (ETX-015/091)

15-16 urte zituela sororako bidean auto bat ikusi zuten, eta harren inguruan esan zituztenak. Anekdotak.

425. Aldaketak orokorrean (ETX-015/092)

15 urte zituenetik aldaketa asko eman dira berrikuntzen aldetik. Orduan ezin zuten pentsatu gaurkora iritsiko ginenik. Lehen ez zen hainbeste denbora pasatzen sukaldea garbitzen. Amak esaten zion: "oraingo emakumeek pasatzen duzue sukaldea garbitzen, lehen guk ganadua gobernatzen pasatzen genuen adina denbora".

426. Ama eta aita nola elkartu ziren eta bikoteak osatzeko ohitura (ETX-015/094)

Ama Arribekoa zen, araztarra. Araizko senitartekoak. Gurasoak lehengusuak ziren haien artean. Irurtzunen elkartu omen ziren gurasoen gurasoak, eta tratanteak eta haien bidez bilduarazi zituzten. Elizaren aginduen arabera, gurasoen betebeharra zen seme-alabak norbaitekin elkartzea.

427. Arribeko familiarekin harremana (ETX-015/095)

San Migeletan bera ahizpak joan izan ziren Arribeko festetara. Familiako norbait ezkonduz ger, o haiek Arribera edo arribetarrak Etxarrira etortzen ziren laguntzera. Familia elkartzea gauza handia zen, berezia. Beste herrietan dituen izebak eta lehengusuak. Aitaren aldekoak Lizarraldekoak ziren.

428. Aldamenekoekin harremana eta elkarlana (ETX-015/096)

Aldamenekoekin harreman ona zuten, edozer behar zutela, norbait gaixotzen zela, beti laguntzeko prest. Naturaltasun osoz. Elkartasun handia zegoen. Kalera irten eta kafetegirik ez zegoenez, aldamenekoekin hitz egitera ateratzen ziren. Etxean eta herrian zegoen bizia. Arto-zuriketarako, pikutarako eta mahatsa biltzeko ere aldamenekoak hurbiltzen ziren laguntzera. Elkarlana eta ohiturak. Gari-jotzeko makina eta elkarteak.

429. Eultzia (ETX-015/097)

Bere senarrak eta larrainean egiten zuten eultzia. Bi familiaren artean egiten zuten, egun batean baten lanak eta hurrengoan bestearenak. Lan neketsua zen.

430. Vicenteren aurkezpena (ETX-016/002)

Vicente Miranda 1927ko urtarrilean jaioa da, "Sakona" etxean. Aita ama eta sei senide, hiru arreba eta hiru anaia, bizi ziren etxean, bera laugarrena zen. Familia nekazaritzatik bizi zen baina Vicentek suertea izan zuela dio eta lau urtez Orreagako seminarioan ikasten aritu zen, beka kendu zioten arte alegia. Segitzeko ahalmen ekonomikorik ez eta Etxarrira itzuli zen. Fermin Goñirekin lau urte lanean eman ondoren Gipuzkoara joan zen. Han kooperatibak sortzen aritu zen eta lanbide eskolako ardura hartu zuen. Zestean, Zumaian, Hernanin eta Pasai Donibanen lanean aritu eta gero ezkondu eta herrira itzuli zen. Vicentek 29 urte zituen, 1957. urtea zen.

431. Eztei-bidaia (ETX-016/003)

Vicentek eta emazteak eztei-bidaia Zaragoza eta Bartzelonara egin zuten. 20 egunetako bidaia burutu zuten.

432. Seme-alabak (ETX-016/004)

Seme bat eta alaba bat eduki zuten. Semeak izugarritzko zaletasuna zuen mendira joateko eta 35 urterekin hil zen Jacako Pirinioetan. Badira Etxarriko hiru edo lau mendizale mendian hilak.

433. Etxeak (ETX-016/005)

Etxe gehienak errektangularrak zirela dio. 20-25 bat metro luze eta 6-7 metro zabal izaten omen zuten. Orain ez bezala, orduan sukaldea eta sarrera beheko solairuan izaten ziren, eta ez lehenengoan, ganadua ere bai. Hormigoi gutxi izaten zuten, eta zura asko; izan ere, orduan Udalak eman egiten baitzuen zura etxea egiteko. Kontuan hartu behar da jende gutxi zuela lana orduan, 10-12 lagun zeuden hiru zerrategitan, eta, garai hartan, hasi ziren asko Zumarragara eta Legazpira trenez lanera joaten, igeltseroak izaten ziren.

434. Eskola (ETX-016/006)

Eskolara 14 urte bete arte joaten ziren, hala ere etxean lana zutenak, gutxiago joaten ziren. Vicentek, eskola bukatuta, beste lau urte gehiago ikasteko aukera izan zuen. Etxarrin bi maisu gogoratzen ditu, Don Vitoriano Aguado eta Don Julio. Lehena maisu ona Vicenteren ustez, bigarrena eskasa, Bilboko apezpikua izan zen Don Pabloren anaia zen. Lehenengo aurrerazalea, bigarrena frankista. Euskaraz hitz egitea debekatua zuten eta zigortzen zituzten.

435. Dotrina (ETX-016/007)

Dotrina ere apezekin ikasten zuten, eta oso gogorak zirela gogoratzen du. Negu batean berandu iristeagatik bati eman zioten jipoiak kontatzen du. Beste behin, berandu iritsi eta beste bati honela esan omen zion "hi haiz, ziza baino gutxiago pisatzen dun, eta mandoak baino hots handiagoa ateratzen"

436. Gizonen jantziak (ETX-016/008)

Bota gisa larruzko "bortzegiak" erabiltzen ziren. Etxarrin, Benantzio Gartziaindiak "bortzegiak" zolan iltzeak zituztela egiten zituen. Gero, 1940. urtearen inguruan katiuskak iritsi ziren, gomazkoak. Mendiko lanetan ez bustitzeko bizkar-larrua erabiltzen zuten. Txapela lan-tresna bezala erabiltzen zen. Galtza motzekin ibiltzen ziren adin bat arte gero galtza luzeak jantzen zituzten orduan erdi gizon sentitzen zirela komentatzen du.

437. Emakumeen jantziak (ETX-016/009)

Emakumeek batak erabiltzen zituzten eta gaur egun ez bezala burua eta dena tapatzen zuten eguzkiarekin ez beltzatzeko. Mezara joateko mantalina jantzen zuten eta apez batzuek mantalarik gabe joanez gero komunioa ez emateko gauza ziren.

438. Arropen garbiketa (ETX-016/010)

Arroparen garbiketa egiteko Etxarrin hiru garbileku bazeuden. Gau eta egun zuten ura. Garbileku hauetan aziendarendako askak ere izaten ziren. Lixiba ere egiten zuten, aitzinean harrizko "txorroak" deitzen ziren ontziekin, gero zinkezkoekin.

439. Janaria (ETX-016/011)

Orduan etxeko gauzak jaten zituzten. Etxe bakoitzean txerri bat edo bi hiltzen ziren. Patata erreak nola egiten zituzten gogoratzen du. Eltzekaria jaten zuten. Orduko bizimodua ez zela txarra deritzo, hori bai, gaurkoarekin ezin da alderatu oso ezberdinak direlako.

440. Tabernak I (ETX-016/012)

Tabernetan edari gutxi izaten zituzten; ardoa, anisa eta koñaka.

441. Tabernak II (ETX-016/014)

Ardoa edaten zen batez ere, eta horretarako baziren neurri ezberdinetako pitxerrak, normalena litro erdikoa zen (bat kamerari erakusten dio). Orduan, Etxarrik 2.500 biztanle eskas izango zituen, eta 11 taberna inguru baziren.

442. Lagun kuadrilla (ETX-016/015)

Vicenteren lagun kuadrilla oso parrandazalea zen, bere hitzetan ospetsuak ziren, “el terror del sereno”. Gabonetan, festa handiak egiten omen zituzten. Behin kuadrillako bi lagunek txantxetan emandako mezaren pasadizoa kontatzen du, eta orduan kantatu zuten kanta osorik kantatzen du. 15-16 urterekin hasten omen ziren besta egiten.

443. Kuadrillaren pasadizoak (ETX-016/016)

Kuadrillarekin bizitako pasadizo batzuk kontatzen ditu. Aste Santuan musika jo herriko dermiotik kanpo apezak ezin ezer esateko. Belokiren etxean biltzen zirenekoak. Beste bat treneko orratz-zainarekin...

444. Herriko bestak (ETX-016/017)

Herriko bestak urriko lehenengo igandearekin izaten ziren. Lehenengo bi egunak herriarenak ziren, hirugarrena mutilena eta laugarrena jubilatuenak. Musika izaten zen horretarako orkestra bazen, akordeoilaria, saxofoia eta danborraria, jazz-bana. Bazkari bereziagoak izaten ziren, ardi bat hiltzeko ohitura bazen. Beste herrietako senideak etortzen ziren bisitan.

445. Erromeriak (ETX-016/018)

Erromeriarik garrantzitsuena San Adriangoa zen, ekainaren 16an. Axuria edo ardikia jateko ohitura azen, eta herriak ardoa jartzen zuen. Ekainaren 13an San Kiriko ere ospatzen zen. Abuztuan Ama Birjina eta San Gregorioko baselizara ere mezara joaten ziren beste erromeria batean.

446. Inauteriak (ETX-016/019)

Inauterietan kristoren besta egiten zutela esaten du. Kintoak eta gazteak elkartu eta bazkaria egiten zuten. Etxez etxe puskak biltzen zituzten, eta, ondoren, merienda prestatzen zuten.

447. Urteberri eguna (ETX-016/020)

Urteberri egunean ere kantari ateratzen ziren, hamar estrofetako kanta kantatzen zuten. Biharamunean merienda egiten zuten.

448. Kuadrillarekin kantari (ETX-016/021)

Gogoa pizten zitzairenean kantatzen hasten ziren. Dena erdaraz kantatzen zuten, euskaraz abestea galarazita baitzegoen. Kuadrillan bazuten gitarrista eta arratsaldeko bostetan gitarra epeltzen hasi eta arratseko hamarretan oraindik epeltzen aritzeko gauza omen zen.

449. Igandetako dantzaldia (ETX-016/022)

Igande arratsaldeetan dantzaldia izan ohi zen. Arratsaldeko zazpietatik arratseko hamaikak edo hamabiak arte. Eguraldi txarra baldin bazen udaletxeko arkupeetan izaten zen. Noizbait gramola batekin ere egin zela dio. Hori bai, dantzaldia beti bezperetako mezaren ondoren izaten zen, hori sakratua zen.

450. Beste herrietako bestak (ETX-016/023)

Beste herrietako bestetara ere joaten ziren, Lizarragabengoara, Arbizura, Lakuntzara, Lizarragara. Beste aldetik, Iturmendira eta Bakaikura, Urdiainera ez omen ziren joaten. Oinez joaten ziren eta bueltan, zorte pixka batekin, neska batekin paseoa egiten zuten.

451. Zinema (ETX-016/024)

Zinema ere izaten zen Círculo Católico delakoan. Bera eta emaztea urteetan abonatuak izan omen ziren, nahiz eta maiz arrazoi batengatik edo bestarengatik joan gabe geratzen ziren.

452. Tabernetan kartetan (ETX-016/025)

Tabernetan kartetan aritzea gazte garaiko beste dibertimendua zen. Tutean eta musean aritzen ziren, emakumeak baldin baziren orduan briskan.

453. Udan errekan (ETX-016/026)

Udan bainatzera joaten ziren arratsaldero. Lagunak beti elkarrekin arrantzara ere joaten ziren. Barboak eta berak "lagostak" deitzen dituenak harrapatzen zituzten. Arrantzarako erabiltzen zituzten tresnak aipatu eta deskribatzen ditu. Aingirak ere hartzen zituzten, horretan bere anaia aditua omen zen. Onddo bila ere joaten ziren eta Gipuzkoan saldu.

454. Ehiza (ETX-016/027)

Ehizan oso zaletua izan da Vicente. Bakarrik joaten omen zen motxila hartuta, ez zen postuetara joaten berak nahiago zuen ibili. Hala ere, aditua omen zen etxolak eta postuak eraikitzen eta deitzen zioten. Munizioari gehiago begiratzen zitzaion, eta eurek betetzen zituzten kartutxoak, hartara prezio erdian ateratzen baitziren. Berak hegaztiak ehizatzen zituen, oilagorak, usoak, eperrak... Horretarako setter zakurra zuen. Garai batean, hegazti gehiago zegoela dio, eta hori gari gehiago ereiten zelako gertatzen zela dio. Oporrak ehizara joateko urrian hartzen zituen, hori sakratua zen.

455. Garia (ETX-016/029)

Gariarekin egiten ziren lanak azaltzen ditu. Etxe bakoitzean bi edo hiru mila kilo ereiten omen zen urtero. Azaroan hasten ziren lanekin, eta ekainean edo uztailean uzta biltzen zuten. Hasieran, larrainetan egiten zuten, eta lana deskribatzen du; alea eta ahotza bereizteko lana, bilketa lana, haizatze lanak. Ondotik eultzi-makinak iritsi ziren, sei edo zazpi lagunen artean erosten zuten bat lanean aritzeko. Beranduago, uzta-makinak iritsi ziren.

456. Belarra, patata, artoa eta ilarra (ETX-016/030)

Udan belarrak idortzen zituzten ere. Patata ere ereiten zuten, hazia Abaurregaina eta Jaurrietatik ekartzen zuten, baina orain ez bezala orduan urria arte ez zuten biltzen. Artoa ere ereiten zuten eta arto tartean ilarra. Ilarra artoaren zurtoinetik zintzilika lehortzen uzten zuten eta azken unean etxera eramaten.

457. Arbia eta erremolatxa (ETX-016/031)

Arbia aziendarendako ereiten zuten, arbi-hazia Ataundik ekartzen zuten. Erremolatxa, berriz, bi mota ezberdin ereiten zituzten; bat, aziendari emateko, eta, bestea, azukrea egiteko erremolatxa. Murginduetan Carlos Eugi izeneko gizon batek lur eremu oso handiak omen zituen erremolatxaz landatuak eta urtero Etxarri eta Arbizuko gazte asko joaten omen zen erremolatxa biltzeko lanetara.

458. Etxean dituen bi liburu (ETX-016/032)

Etxean dituen bi liburu aipatzen ditu. Bat Etxarriko bizimodua 1910etik 1919ra bitartean deskribatzen duena, eta bestea 1600 edo 1700. urtekoa, originala du etxean, Etxarriko apez laguntzaileak emana.

459. Igeltsero lanak (ETX-016/033)

Igeltsero lanak nola egiten zituen azaletik azaltzen du.

460. Euskara (ETX-016/035)

Vicentek beti izan du euskararekiko arreta berezia. Txikitan dena euskaraz egiten zuten, eskola eta dotrina izan ezik. Gerra ondotik dena aldatu zen, eta euskaraz hitz egitea debekatuta egon zen; orduan, denak erdaraz hitz egiten hasi behar izan zuten. Etxarritik kanpora tokia ez bazuten ezagutzen ixilik egoten omen ziren. Urteetan egon ziren euskaraz hitz egin gabe.

461. Beste debeku batzuk (ETX-016/037)

Aipatutako debekuez gain, euskaraz hitz egitea eta elkar hartuta dantzatzea, baziren beste debeku batzuk. Gogoratzen du igeri egiteko, adibidez, ezin zutela nolana egin, ezin baitziren arropa aunitz gabe geratu. Barua ere bazen, ostiraletan haragia ezin jan baina Vicentek ez omen zion kasu handiegirik egiten agindu honi. Bikarioa gaiztoa omen zen, berari atzetik eman dioten kolperik handiena berak eman omen zion. Apez laguntzailearekin, Don Juanekin, hobe moldatzen omen zen. Azken honi urtero zuritzen omen zion etxaurrea.

462. Arrosarioa (ETX-016/038)

Etxean arrosarioa erreztatzen zuten nahiko, artoa bereizterakoan batez ere. Aita eta ama baldin baziren gehiago. Mahaia ere bedeinkatzen zuten eta

oraindik ere bedeinkatzen du, horretarako erabiltzen zuen esamoldea aipatzen du bere alabak kameratik at.

463. Corpus Eguna (ETX-016/040)

Corpus Eguna oso garrantzitsua izaten zen. Prozesioa egiten zen, eta herrian zehar aldareak jartzen ziren. Herri osoa apaintzen zen. Beren kalean girlandak zintzilikatzen zituzten etxean egindakoak. Lurrean zizurra botatzen zuten. Umorez kontaktzen du urte batzuetan ez zela erratza pasatu behar izan zizurra biltzeko; izan ere, ekaitza egin eta dena eraman baitzuen.

464. Erreguteak (ETX-016/041)

Erreguteak egiten ziren, euria egiteko, euri gehiegi ez egiteko. Kazkabarra mehatxua zegoenean, eliza ondoan bizi zen emakume bat lasterka joaten omen zen eta zerbait ateratzen zuen kalera eta ekaitza berehala alde egiten omen zuen.

465. Txiste edo pasadizo bat (ETX-016/043)

Gaztetan kontaktzen zuten kontakizuna aipatzen du. Obispo bat komentu bateko obra bisitatzera joan omen zen eta goian lanean ari zen gizon bati esan omen zion "a ese de las alturas se le ven las voladuras" eta hark erantzun "para verme los cojones no hay que ir a las procesiones".

466. Kofradiak (ETX-016/044)

Vicente Andra Mariren kofradiakoa zen, Andramaritarrak. Bere aita berriz San Antondarra zen, beste kofradia. Apezak San Adrian egun batean kofradiakideei honela mintzatu omen zitzaion: "Herri honetan diru gose eta harrokeria besterik ez dago. Ardoa barriketan ekartzen da eta zagietan (gizonen zorroetan bueltatzen zela esateko) bueltatzen";

467. Txakurra jaten zuten (ETX-016/045)

Txakurkia nola jan izan duten kontaktzen du.

468. Udala (ETX-016/046)

Udalan alkatea eta idazkaria aritzen ziren eskuz esku erabakiak hartzen. Hauetaz gain, "veintena" delakoa existitzen zen. "Veintena"n herriko 20 zergadunik handienak zeuden.

469. Beste herriekiko harremanak (ETX-016/048)

Beste herriekiko harremanak nolakoak ziren azaltzen du. Arbizuarrekin esaterako, 25 bat urterekin soroetan harrika nola aritzen ziren kontaktzen du. Lakuntzara bizikletaz arratsalde pasa egitera joan, mozkortu eta gertatutako pasadizoa kontaktzen du.

470. Eskaleak (ETX-016/049)

Eskale asko ibiltzen zen edo agertzen zen herrian garai hartan. Udalak hauek gaua pasatzeko etxabe bat omen zuen.

471. Titiriteroak (ETX-016/051)

Titiriteroak ere agertzen ziren herrian. Espektakulua kalean egiten zuten, eta jendeak aulkiak etxetik eramaten zituen. Jende asko biltzen zen emanaldietan.

472. Herriko aberatsak (ETX-016/052)

Herriko familia aberatsak zeintzuk ziren aipatzen du. Zerrategiko jabea, beste aldetik gerra irabazi zuten batzuk...

473. Gerra Zibilaren hasiera (ETX-016/053)

Gerra Zibila hasi zenean Vicentek 10-11 urte zituen. Egun horretan, bazihoan aitarekin belarra biltzera, eta bidetik jende mordoa gogoratzen du makil eta sardeekin. Erriberatik etorri zen jendea, eta Etxarrin bi edo hiru zutabe atera ziren Gipuzkoa aldera. Zubia nola lehertu nahi zuten gogoratzen du. Baita “toque de queda” delakoa nola jotzen zuten. Behin, halako batean, lanetik zetorren bati bost tiro bota omen zizkioten, ez zioten eman.

474. Gerra Zibilean fusilamentuak (ETX-016/054)

Fusilatua izan ziren Etxarrin. Vicentek gogoratzen ditu batzuk, Clemente, Narciso... Otsoportillon. Hainbat emakumeri ilea moztu zieten ere bai, beren izeba bati adibidez. Soldaduak etorri eta edozein etxetan sartzen ziren. Bere etxean sei soldadu eta sei mando bizitu ziren.

475. "Pelayo"ak (ETX-016/055)

Haurrei ere, soldaduz jantzi, eta instrukzio modukoa ematen zieten, haur erreketek hauek "pelayo"ak ziren. Etxarrin ere egin zuten.

476. Errazionamendua (ETX-016/056)

Gero, errazionamendua etorri zen. Errazionamenduan ematen zizutena hartu behar zenuen ezer esan gabe. Errekisak ere izaten ziren, eta estraperloan gordetako zaku batekin harrapatu zuten gizonari tiro bota ziotela kontatzen du. Errazionamendua udaletxean banatzen zuten. Gogoratzen du behin "toque de queda" joa eta udaletxean Gipuzkoatik iritsia zen kamioia banatzen ari ziren. Banaketaren nagusiak Barandalla eta Dorrauko apezka ziren.

477. Abesbatza (ETX-016/058)

Lehenengo Dorrauko festetan meza nagusian abestera nola joaten ziren komentatzen du. Gero, Bartzelonatik etorritako Don Julian apezak nola sortu zuen abesbatza kontatzen du. Bera zazpi edo zortzi urterekin hasi zen kantari. Don Julianekin prestatu zuten lehenengo errepertorioa gogoratzen du "Los Cinco Continentes". Gero, ahotsa aldatu zitzaionean, ahots polita geratu zitzaion, tenorea izan zen Vicente.

478. Argazkia: seminarioan (ETX-017/002)

Kamarera argazkia erakusten du: Vicente seminarioan.

479. "Una pequeña historia de una campana de Etxarri" I (ETX-017/004)

Vicentek berak jasotako gertakizuna irakurtzen hasten da. Lehenengo zatia irakurtzen du. Ezkila aurkitu zutenekoa.

480. "Una pequeña historia de una campana de Etxarri" II (ETX-017/006)

Vicentek berak jasotako gertakizuna irakurtzen segitzen du. Bigarren zatia irakurtzen du. Ezkila bere tokian berriz atzera jarri zuenekoa.

481. Argazkia: gizon eta emakumea (ETX-017/008)

Senide batzuen argazkia da, edadeko bikotea. Zer nolako arropak janzten zituzten ikus daiteke.

482. Etxearen deskribapena (ETX-018/005)

Etxeak estrabia (ukuilua), sukalde handi bat, komedorea eta gelak zituen.

483. Postari lana (ETX-018/006)

Aita postaria zen baina nekazaritzatik bizi ziren. Dorrao, Lizarraga eta Unanuan ibiltzen zen postari eta oinez joaten zen. Aurrerago bizikleta bat erosi zuen. Eskutitzak estaziotik etxera ekartzen zizkioten banatzeko. Garai hartan jende askok sinatzen ere ez zekien, baina Asuncionez ez daki nola moldatzen ziren.

484. Arroparen garbiketa (ETX-018/007)

Amak etxeko lanak egiten zituen. Arropa eskuz garbitzen zuten labaderoan. Kuadrilla handia juntatzen ziren han, edozein eguraldi egiten zuelarik ere.

485. Arropa garbitzeko xaboia (ETX-018/008)

Arropa garbitzeko xaboia askok etxean egiten zuten. Beraiek Chimbo edo Lagarto erabiltzen zuten.

486. Arropa lehortzen (ETX-018/009)

Arropa hesietan zintzilikatzen zuten eguzkitan lehortzeko eta balkoian ere bai.

487. Lixiba (ETX-018/011)

Lixiba ere egiten zuten errautsarekin arropa garbitzeko. Nola egiten zuten azaltzen du. Arropa zuri-zuria ateratzen zen.

488. Plantxa (ETX-018/012)

Segun zein arropa ez zuten plantxatzen, tolestu eta gorde. Orduan ez zegoen plantxa elektrikorik, eta ahal zuten moduan moldatzen ziren.

489. Koltxoiak (ETX-018/013)

Koltxoiak jotzea lan handia zen. Udan manta guztiak garbitzen zituzten negurako prestatzeko. Urtero egiten zuten.

490. Etxea zuritu (ETX-018/014)

Etxe guztia zuritzen zuten urtero galtzinarekin. Galtzina Arbizutik ekartzen zuten. Etxarrin ere saltzen zuten etxe batean.

491. Ogia (ETX-018/015)

Etxean ogia egiten zuten zortzi egunetik behin. Labea zuten, eta 13 ogi egiten zituzten gutxi gorabehera. Nola egiten zuten azaltzen du. Ogi txiki batzuk egiten zituzten, egunean bertan jateko. Umeentzako opiltxo bana egiten zuten, eta ilusio handiarekin jaten zuten.

492. Eguneroko janaria (ETX-018/016)

Janak su baxuan prestatzen ziren. Babarrunak, patatak, barazkiak, azak... jaten zituzten egunerokotasunean.

493. Taloak (ETX-018/017)

Ogia falta zitzaienean, taloa jaten zuten. Etxean egiten zituzten bi lagunen artean; batek masa egiten zuen, eta bestea brasan erretzen egoten zen.

494. Gerraostean, irinaren debekua (ETX-018/018)

Gerra ondorengo garaia oso gogorra izan zen. Nekazariak ez zirenek okerrago pasa zuten. Irinik gabe egon ziren, debekatuta zegoen irina izatea, eta inguruko errota itxi zituzten. Ataungo errota joaten ziren irin bila estraperloan. Bidean guardia zibila egoten zen.

495. Errazionamendua (ETX-018/019)

Errazionamendu garaian janaria okindegietan banatzen zuten. Ilara handiak egiten ziren argitserako. Kartila batzuk zituzten eta bertan apuntatzen zuten. Azukrea, arrautzak, olio... ematen zituzten.

496. Gerra garaia (ETX-018/020)

Etxarrira ez zen gerra ailegatu, baina mugimenduko kuartela egon zen, eta soldaduak etortzen ziren eskopetekin. Emakume batzuei ilea moztu zieten, eta gizon batzuk Urbasa aldera eraman zituzten. Andre asko senarrik gabe geratu ziren.

497. Etxarriko alkatea (ETX-018/022)

Garai hartako Etxarriko alkatea, kapitain jenerala zen. Gauza ikaragarriak egin zituen, eta fama oso txarra zuen. Gero, modu miserablean hil zen, kalean bizitzen eta eskean. Sakana osoan ezaguna zen.

498. Asuncion familia oneko zen (ETX-018/025)

Asuncionen etxean ez zen inoiz ezer falta. Nekazari etxe ona ziren, eta beti zuten jatekoa. Txerriak zituzten. Jendeak hilara izugarriak egiten zituen dendetan. Oiloak ere etxe guztietan egoten ziren.

499. Gari-jotzeko makina (ETX-018/026)

Larraina berak ez du ezagutu. Herriko lehenengo gari-jotzeko makineko bat erosi zuten sozio batzuen artean, eta txandaka erabiltzen zuten.

500. Soroko lanak (ETX-018/028)

Belarretan ibiltzea tokatu zaio. Lan ezberdinak egin izan ditu. Sorora joateko tapatu egiten ziren, bai neguan baita udan ere. Garia ereiten zuten. Sororako zapi zuriak erabiltzen zituzten.

501. Elizara joateko arropa (ETX-018/029)

Elizara emakumeak ezin ziren mantelina gabe sartu. Mauka motza ere ezin zuten eraman.

502. Mezak (ETX-018/030)

Urrian, egunero joaten ziren mezara. 06:30ean aurora egiten zen herrian zehar, eta 07:00etan meza.

503. Bezperak (ETX-018/032)

Bezperetara mundu guztia joaten zen, eta bezperetatik atera eta neskak kongregaziora joaten ziren. Kongregaziotik ateratzen zirenerako Etxarriko banda jotzen egoten zen plazan.

504. Igandetako dantzaldia (ETX-018/033)

Lotuan dantzatzea debekatua zegoen, baina dantzatzen zuten. Inguruko herrietako jendea joaten zen Etxarrira igande arratsaldeetan dantzatzera. Oinez joaten ziren, ez zegoen autorik. Espartin zaharrekin joaten ziren bidean, eta herrira iristean berriak jartzen zituzten.

505. Etxarriko banda (ETX-018/034)

Bandako guztiak Etxarrikoak ziren.

506. Etxarriko festak (ETX-018/035)

Festetan alkate dantza egiten zen. Etxarriko festak ezagunak ziren eta kanpoko jendea etortzen zen. Azken eguna mutilen eguna izaten zen. Orduan urrian ziren festak.

507. Festak emakumeentzako (ETX-018/036)

Garai hartan, neskak ez ziren errondan ibiltzen. Nesken festak ezberdinak ziren. Plazan dantzan, barrezka... ibiltzen ziren.

508. Festetako bandak (ETX-018/037)

Etxarriko bandaz gain, beste talde batzuk ekartzen zituzten festetan; Tolosatik eta Lizarratik, adibidez. Txistulariak eta gaiteroak beti egon dira, eta ardoa beti banatu izan da.

509. Senideak festetan (ETX-018/039)

Festetan "pariente" asko etortzen ziren etxera aste gutzirako. Emakumeentzako lan handia izaten zen.

510. Etxarriko feriak (ETX-018/041)

Etxarrin hilero izaten zen feria. Txerriak, behiak... saltzen ziren. Plaza ganaduz beteta egoten zen. Tratanteak etortzen ziren.

511. Tratanteak (ETX-018/043)

Tratanteak normalean Frantziakoak izaten ziren. Tranpati samarrak izaten ziren, batetik bestera ibiltzen ziren.

512. Irurtzungo feria (ETX-018/044)

Irurtzunen ere egiten zen feria. Batean 10ean, 20an eta 30ean izaten zen; eta bestean, berriz, 5ean, 15ean eta 25ean.

513. Beste festa garrantzitsu batzuk (ETX-018/046)

San Adrianak festa garrantzitsuak ziren; baita abuztuko Ama Birjinaren eguna ere.

514. San Adrian eta San Kiriko (ETX-018/047)

San Kirikora joaten ziren. Gizonak merienda egiten zuten. San Adrianetan familia elkartzen ziren, oso egun polita da. San Adrianeko janari tipikoa axuria zen.

515. Pazko bezpera (ETX-018/049)

Pazko bezperan meza berezi bat egoten zen gauean.

516. Errege bezpera (ETX-018/051)

Erre bezperan haurrak falekin ateratzen ziren. Gaur egun ere bai, baina gutxiago. Zapata jartzen zuten, eta erregeek opariak ekartzen zizkieten. Orduan, behar zituzten gauzak ekartzen zizkieten; panpinak eta horrelakoak ez.

517. Haurren jolasak (ETX-018/053)

Sokasaltoan ibiltzen ziren jolasten.

518. Eskola, andereñoak (ETX-018/054)

Eskolako andereñoak doña Julia eta doña Eustaquia ziren. Neskek eta mutilek bereiztuta ikasten zuten.

519. Eskolako ikasketak (ETX-018/055)

Bere garaian, eskolan ez zuten laborerik ikasten; geroago, hasi zen hori. Liburu bakarra zuten denontzako, eta korroan egoten ziren. Pizarrina erabiltzen zuten.

520. Eskolako zigorrak (ETX-018/056)

Asuncion eskolan ez dute zigortu, baina beti egoten ziren bihurriagoak ziren batzuk.

521. Dotrina (ETX-018/057)

Dotrina elizan euskaraz egiten zuten eta eskolan erdaraz. Konfesioak eta apaizaren sermoiak ere euskaraz izaten ziren.

522. Euskararen egoera (ETX-018/058)

Etxarrin gerra ondoren hasi zen euskara galtzen. Gerra aurretik dena euskaraz egiten zen.

523. Haurren jaiotza (ETX-018/059)

Haurrak etxean jaiotzen ziren. Emaginak edo praktikanteak laguntzen zien erditzen.

524. Elizan sartzea (ETX-018/060)

Amak elizan sartzea egin behar zuen haurra jaio eta aste batera. Ordura arte ezin ziren etxetik atera.

525. Hiletak (ETX-018/063)

Garai hartan hileta kategoria ezberdinak zeuden.

526. Lutoa (ETX-018/064)

Luto asko eramatea tokatu zaio Asuncioni. Ondoren, "aliviolutoa" eramaten zuten. Gaur egun ez da eramaten.

527. Komunioa (ETX-019/001)

Komunioaren eguna oso handia zen. Adineko guztiek egiten zuten batera eta ondoren familia guztia elkartzen zen bazkaltzeko etxean.

528. Ezkontzak (ETX-019/002)

Ezkontzako bazkaria kanpoan egiten zen. Bi etxetan egiten ziren orokorrean.

529. Ezkonbidaia (ETX-019/003)

Ezkonbidaian Donostiara joan ziren; ondoren, Bilbora eta Zaragozara.

530. Haurren elikadura (ETX-019/005)

Haurrak edukitzen zituztenean, lehenengo bularra ematen zieten, eta, gero, irinarekin egiten zituzten papilak. Ama batzuek biberioa ematen zieten.

531. Haurren pixoihalak (ETX-019/006)

Pixoihalak oihalezkoak izaten ziren. Garbitu egiten zituzten, eta berriz erabili.

532. Kontuak eta ipuinak (ETX-019/008)

Gurasoek edo aiton-amonek kontuak kontatzen zizkieten sutondoan. Umeak pozik egoten ziren. Orduan ez zegoen irratirik ez ezer, baina ongi bizi ziren.

533. Irratia eta telebista (ETX-019/009)

Lehenengo telebista 13.000 pezeta ordaindu zuten. Alabak etxera etorri zirenean poz pozik jarri ziren.

534. Labadora (ETX-019/010)

Labadorak erosten hasi zirenean, diferentzia handia nabaritu zuten emakumeek. Garbitokiak beteta egoten ziren, eta oso gogorra izaten zen.

535. Autoak (ETX-019/012)

Herriko lehenengo autoa herriko gizon ezagun batek ekarri zuen. Auto gutxi zeuden bere gazte denboran, baina gero ugartzen hasi ziren.

536. Errepideak eta kaleak (ETX-019/013)

Asuncion txikia zenean kaleak eta errepideak eginda zeuden. Lehenago harrizkoak izaten ziren, ondoren porlanezkoak. Karroak ibiltzen ziren garai hartan, gurpilak burnizkoak izaten zituzten.

537. Herriko dendak (ETX-019/015)

Herrian bi denda zeuden nagusiki. Orduan dena granelean saltzen zen. Jendeak ez zuen trukean erosten.

538. Arrautza saltzailea (ETX-019/017)

Emakume bat (Sole) arrautzak saltzen ibitzen zen; geroago, bere ahizpa ere ibiltzen zen. Asunen lagunak ziren.

539. Asunen lagunak (ETX-019/018)

Asuncionek bere lagunei buruz hitz egiten du. Bere lagunekin aldameneko herrietako jaietara joaten zen (Arbizura...).

540. Alargunak (ETX-019/019)

Orduan gizonak alargun geratzen baziren berriz ezkontzen ziren, baina emakumeak orokorrean ez.

541. Ama ezkongabeak (ETX-019/020)

Garai hartan, emakumeak ezkontuta egon gabe ere haurdun geratzen ziren. Ez zegoen ongi ikusita.

542. Eliza eta apaizak (ETX-019/022)

Garai hartan elizako gauzei ez zioten beldurrik, baina apaizei errespetu handia zitzaien. Orduan apaizek botere handia zuten.

543. Aste Santua (ETX-019/024)

Aste Santuan ez zen ezkilik jotzen eta musikarik ez zen egoten.

544. Garizumako bijilia (ETX-019/025)

Garizuman bijilia egiten zen. Bijilia egunetan arraina eta arrautzak jaten ziren.

545. Ostiral Santua (ETX-019/026)

Ostiral Santuan santuak tapatzen ziren. Errespetu eta seriotasun handia zegoen.

546. Sepulturak (ETX-019/028)

Lehenago, sepulturak jartzen ziren. Gaur egun ez da ezer jartzen.

547. Ogi bedeinkatua (ETX-019/030)

Sarreran ogi bedeinkatua ematen zen. Orain ere ematen da.

548. Elizako lekuak (ETX-019/032)

Lehenago elizan emakumeak atzean jartzen ziren, sepulturetan eta aurrean gizonak. Orain ez du inporta non jartzen diren.

549. Ur bedeinkatua (ETX-019/033)

Ur bedeinkatua edukitzen zuten etxeetan. Ur hori larunbatetan bedeinkatzen zen.

550. Bere aurkezpena (ETX-020/002)

Esteban Mundiñano Fernandez 1929ko otsailaren 8an jaio zen. Bere emaztea Maria Luisa Flores Mendinueta zen eta duela hiru urte hil zen. Bederatzi urte dituenetik bizi da gaur egungo etxean. Etxeak Txakonanak izena du.

551. Egurrezko tresnak (ETX-020/003)

Egurrezko tresnak egiten ditu (txokolaterak, aizkorak...). Pagoen egurra erabiltzen du, ilberrikoak. Ezpela ere erabiltzen du sukaldeko tresnak egiteko. Erabiltzen dituen tresnak ere aipatzen ditu.

552. Karrakak (ETX-020/004)

Karrakak egiten ditu egurrarekin. Lehenago elizara eramaten zituzten karrakak, eta jotzen aritzen ziren Aste Santuan. Orain ez dira jotzen.

553. Apaiza (ETX-020/005)

Bera gaztea zenean Don Juan zen Etxarriko apaiza. Oraingo apaizak baina gaiztoagoak ziren orduan. Jo egiten zieten dotrinara joaten ez baziren.

554. Maisua (ETX-020/006)

Maisuak ere eskuan jotzen zien. Orduan ez ziren eskolara asko joaten, beti bazegoen lana egiteko soroan.

555. Soroko lanak (ETX-020/007)

Soroko lanak nola egiten zituzten kontatzen du.

556. Errotak (ETX-020/008)

Orduan miseria handia zegoen. Arbizuko errotara joaten ziren gariarekin. Han Castejon egoten zen garaia egiten. Garai hartan, bertako errotak itxita egoten ziren, eta Urdiainera edo Lakuntzara eta Atauneraino ere joaten ziren errotara gurdiarekin. Gurdia zibilak ez zituen sekula harrapatu.

557. Ogia eta taloa (ETX-020/009)

Ogia amak egiten zuen etxean. Lau edo zortzi egunetarako egiten zen ogia. Ogia ez zegoenean taloa jaten zuten.

558. Ahuntzain (ETX-020/010)

15 urterekin ahuntzak zaintzen ibili zen Esteban. 20.000 pezeta ere ez zituen irabazten urte osoan. Bi talo jaten zituen urdai pixka batekin. Herrian zehar korneta jotzen zuen jendeak ahuntzak ateratzeko, eta berak eramaten zituen mendira.

559. Eguneroko jana (ETX-020/011)

Egunerokotasunean urdai pixka bat, babarrunak, patatak... jaten zituzten. Olio gutxi zegoen, eta manteka eta seboa erabiltzen zuten.

560. Beheko sua (ETX-020/012)

Amak prestatzen zuen janaria beheko suan.

561. Soroko jana (ETX-020/013)

Sorora jana emakumeek eramaten zieten, amak edo arrebak. Han bertan bazkaltzen zuten itzaletan.

562. Lurra lantzeko tresnak (ETX-020/014)

Lurra nola prestatzen zuten azaltzen du, eta erabiltzen zituzten tresnak.

563. Ongarria (ETX-020/015)

Ongarria gehien bat udaberrian botatzen zuten, eta neguan ere. Artoa, erremolatxa... ereiten zuten. Ilberrian ereiten zuten beti.

564. Ilargia (ilberria) (ETX-020/016)

Dena ilberrian egiten zuten, hobe izaten zen. Egurra ere ilberrian ekartzen zuten, hobeto erretzen zelako.

565. Egur loteak (ETX-020/017)

Egurra loteetan banatzen zen. 4 edo 5 pezeta ordaintzen zuten. Orduan egur lehorra edonondik ekartzen zuten, librea zen. Egur asko erabiltzen zuten. Orduan ez zegoen motozerrarik, aizkora eta trontza erabiltzen zituzten. Motozerrak hasi zirenean, berak 33 urte inguru edukiko zituen.

566. RENFERako lanean (ETX-020/018)

RENFERako lanean egon zen trabesak egiten. Lehenago trabesak basoak egiten ziren, baina berak ez du ezagutu, bere garaian zerrategian egiten ziren.

567. Zerrategia (ETX-020/019)

Etxarrin zerrategi bat zegoen. Hiru edo lau sozio ziren, eta, gero, haserretu egin ziren.

568. Egurraren negozioa (ETX-020/020)

Basoko egur tonak 1.000 pezeta balio zuen eta 4.500 pezetatan saltzen zuten. Materiala batez ere Valentzian saltzen zuten. Kamioietan eta trenean eramaten zen materiala haraino.

569. Egurra basotik zerrategietara (ETX-020/021)

Egurra gurdian jaisten zuten basotik zerrategiraino. 6 edo 7 pezeta irabazten zuten egunean.

570. Tresnen izenak (ETX-020/022)

Idien eta gurdien inguruko tresnen izen batzuk aipatzen ditu. Gurdiak 10 txarrantxa zituen.

571. Haurretako jokoak (ETX-020/023)

Haurra zenean kolunpioetan jolasten ibiltzen ziren.

572. Txondorrak (ETX-020/024)

Batzuk txondorrak egiten aritzen ziren. Ikatza egiten zuten. Ikatza gauean atera behar zen. Goizeko ordu-bietan botila bat ardo hartu eta ikatza egitera joaten ziren. Txaboletan egiten zuten lo eta nolakoak ziren azaltzen du.

573. Arrantxo-nagusia (ETX-020/025)

Arrantxo-nagusia mutil gazte bat izaten zen, baina ez zuen fundamenturik. Edadekoa hobe zen.

574. Basoko jana (ETX-020/026)

Garai haietan basoan babak jaten zituzten gosaltzeko eta bazkaltzeko. Afaltzeko patata pixka bat. Ogia eta ardoa ere izaten zuten, baina beste ezer ez.

575. Basoko lana eta sereno lana (ETX-020/027)

Lau edo bost hilabete egoten ziren herrira bueltatu gabe basoan. 40 urtera arte egon da basoan lanean, ondoren udaletxean eta diputazioan egon zen lanean sereno lanetan.

576. Argazkia I (ETX-020/029)

Argazki bat grabatzen du.

577. Larraina (ETX-020/031)

Larrinean zebiltzanean batzuetan tormentak harrapatzen zituen. Garia eta dena bustitzen zen. Eguraldi onarekin ongi ibiltzen ziren, baina eguraldi txarrarekin miseria bat zen.

578. Serenoa (ETX-020/032)

Esteban serenoa izan zen bost urtez. Garai hartan Etxarrin maltzurkeria handia zegoen. Lekunberitik guardia zibila joaten zitzaion goizeko 3etan herria nola zegoen ikustera. Beldurra pasatzen zuen gauetan; behin etxeraino jarraitu zioten eta azkenean lana utzi egin zuen. Gaur egun jornala diputaziotik jasotzen du eta ongi bizi da.

579. Belarreko lana (ETX-020/033)

Belarretan metak egiten zituzten, eta etxera urtarrila aldera ekartzen zuten. Segan aritzen zen etxerako, eta kanporako belarra eta garia mozten. Segak ongi prestatu behar ziren, eta oso gustura ibiltzen zen bera.

580. Aizkorak zorrozten (ETX-020/034)

Estebanek aizkorak zorrozten zituen. Gaur egun oraindik norbaitek eramaten dio aizkora etxera zorrozteko.

581. Isatsak (ETX-020/035)

Isatsak egiteko ilerra emearena izan behar da, arrarena ez. Kateekin eta iltzeekin lotzen zituen. Isats asko egin ditu, eta gehienak debalde ematen zituen.

582. Minbreak eta izariak (ETX-020/037)

Minbreak eta izariak kateekin lotzen zituen. Nola egiten zuen azaltzen du. Haiek atariak garbitzeko erabiltzen ziren gehien bat.

583. "Ile-bilurre" (ETX-020/038)

"Ile-bilurre" babarrunak jotzeko erabiltzen ziren. Nolakoak ziren azaltzen du.

584. "Eskoriek" (ETX-020/039)

Babarrunen kaskalak biltzeko "eskoriek" erabiltzen ziren.

585. Txitxirioak (ETX-020/040)

Etxarrin ez ziren txitxirioak ereiten, Arbizun bai. Etxarrin batez ere babak eta babarrunak ereiten ziren.

586. Artoa (ETX-020/041)

Arto asko biltzen zuten orduan. Urrian biltzen zen, eta, gero, garia ereiten zen. Lan asko egiten zuten soroan, hotz handia egiten zuen, eta han bertan bazkaltzen zuten.

587. Haizeen izenak (ETX-020/042)

Norte haizea, eguzki haizea, San Miguel haizea... Nortea zen txarrena.

588. Ordua jakiteko eguzkiari begiratzen zioten (ETX-020/043)

Ordua jakiteko ez zuten erlojurik. Eguzkiarekin jakiten zuten zein ordu zen gutxi gorabehera.

589. Dirua (ETX-020/044)

Baleekin ordaintzen zuten orduan, kartoizkoak ziren. Gero zortzikoak, laukoak... dirua aldatu egin zen.

590. Neurriak (ETX-020/045)

Errebua eta errebu erdia erabiltzen zuten. Neurtzeko kaxa batzuk dira. Garia eta artoa, adibidez, horrela neurtzen ziren.

591. Onddoak (ETX-020/046)

Onddo asko ekartzen zituen lehenago Estebanek. Traktorearekin joaten zen eta esportak bete eta etxera itzultzen zen. Frantses euskaldunei saltzen zizkieten, asko etortzen ziren.

592. Ehiza eta arrantza (ETX-020/047)

Esteban ez da sekula ehizan edo arrantzan ibili.

593. Errekan bainatzen (ETX-020/048)

Haurra zenean, 12-13 urterekin, errekan ibiltzen ziren bainatzen. Neskak ere ibiltzen ziren.

594. Urteberri eguna (ETX-021/002)

Gaztetan, urtezaharrean kafetxo bat hartzen zuten, eta urteberria ere ospatzen zuten, parranda pixka bat egiten zuten lagunekin.

595. Errege eguna eta Belen eguna (ETX-021/003)

Errege egunean haurretan opariak uzten zizkieten. Amak zurrakapotea egiten zuen sagar eta piku batzuekin. Belen eguna Gabon gaua da (abenduarien 24a).

596. Kintoak (ETX-021/004)

Kintoak soldaduskara joatean egiten ziren.

597. Sorgin afaria (ETX-021/005)

Emakumeek Sorgin afaria egiten zuten Belen gauean, eta, gero, gaueko 12etako mezara joaten ziren.

598. Santa Ageda (ETX-021/006)

Santa Ageda Etxarrin ez zen ospatzen. Gehiago Altsasun izaten zen.

599. "Txatarrak" (ETX-021/007)

"Txatarrak" gazteen atzetik korrika ibiltzen ziren. Gero, suspenditu egin ziren. Blusa zahar batzuekin janzten ziren, eta buruan "pasamontañasa". Erratz bat edo makil bat hartu eta jendeari jotzen ibiltzen ziren.

600. Garizuma (ETX-021/008)

Garizuman ez zegoen musikarik plazan. Mutilak ateratzen ziren akordeoiarekin, baina apaizak ez zien uzten.

601. Aste Santua (ETX-021/009)

Aste Santuan jendea elizara joaten zen. Bijilia ere egiten zen.

602. Corpus Eguna (ETX-021/010)

Corpus Egunean prozesioa egiten zen, eta zizurrak eta hostoak botatzen ziren herri guztian. Orain ez da egiten. Arratsaldean ez zen musikarik egoten, baina mutilak akordeoiarekin ateratzen ziren.

603. Tabernak (ETX-021/011)

Herrian bazeuden taberna batzuk, zortzi bat inguru. Kartetan eta kantari ibiltzen ziren.

604. Txakurrak jaten zituzten (ETX-021/012)

Txakurra zegoenean banketea izaten zen. Txakur asko jan dituzte. Patatekin prestatuta jaten zituzten. Katua ere asko jaten zen.

605. Erromeriak (ETX-021/013)

San Kiriko eta San Adrian izaten ziren ospatzen ziren erromeriak. San Kiriko goiko ermitan ospatzen zen. Gazta puskaren bat eta ogi koskor bat hartu eta kuadrillan joaten ziren. Geroago, haragia jaten hasi ziren. Herriak ardoa jartzen zuen.

606. Zurrakapotea (ETX-021/014)

Etxarriko ardoari koñaka botatzen diote zurrakapotea egiteko. Jendea txoratu egiten zen. Denetarik botatzen zioten fruta, azukrea, koñaka... Juerga onak egiten ziren Etxarrin.

607. Etxarriko festak (ETX-021/015)

Etxarriko festak urrian izaten ziren. Garai batean, abuztuko Ama Birjinaren egunean egiten ziren, baina lan handia egoten zen garai hartan, eta horregatik aldatu zituzten. Orain abuztuko lehenengo igandean izaten dira. Garai hartan, ahaideak etortzen ziren etxera festetarako, eta giro polita egoten zen.

608. Herriko banda (ETX-021/016)

Igandetan, musika egoten zen. Banda txiki bat zegoen Etxarrin, baina gero kendu egin zuten. Esteban ez da inoiz bandan egon.

609. Festetako bandak (ETX-021/018)

Festetan udaletxeak kanpoko bandaren bat ekartzen zuen. Musika 12ak arte izaten zen, eta, goizean, diana egoten zen herrian zehar. Lehenago jendea "pasakallesean" ateratzen zen, baina gaur egun ez da inor ibiltzen.

610. Santu Guztien Eguna (ETX-021/020)

Santu Guztien Egunean kanposantura joaten ziren.

611. Misioak (ETX-021/021)

Misioak etortzen ziren. Apaizak bozgorailuekin ibiltzen ziren, baina jende gutxi joaten zen.

612. Auzolanak (ETX-021/022)

Lehen auzolan asko egiten ziren. Urtean lau auzolan egiten ziren. Lan ezberdinak egiten zituzten: basoko bazterrak itxi (ganadua ez sartzeko), bideak konpondu edo egin...

613. Elkarri asko laguntzen zioten (ETX-021/024)

Lehenago elkarri asko laguntzen zioten. Etxeren batean zer edo zer gertatzen bazen edo norbait gaixo bazegoen elkarri laguntzen zioten.

614. Suteak (ETX-021/025)

Arbizun sua egon zen batean Etxarrin jende asko joan zen laguntzera. Esteban ere han egon zen gau guztian. Etxarrin ere etxeren bat erre zen bera gaztea zenean. Mundu guztiak laguntzen zuen suteak zeudenean. Sua zegoenean ezkilak jotzen ziren jendea ohartzeko.

615. Harremana ondoko herriekin (ETX-021/026)

Sekula ez dute pikerik eduki arbizuarrekin ezta gainontzeko herriekin.

616. Kotizazioa (ETX-021/027)

Kanpotik jende asko etortzen zen eskean, eta orain ere. Orain jendeak pena ematen du, asko ez dira behar dena kotizatzen iristen, ez dagoelako lanik. Bere aitaren garaian jendeak ez zuen kotizatzen; aitak 15 duro eta amak 12 jasotzen zituen diputaziotik.

617. Bere emaztearen heriotza (ETX-021/028)

Bere andrearekin 40 urte egon zen. Gero, minbiziaz hil zen. Hilero meza bat ateratzen dio Estebanek.

618. Ezkontza (ETX-021/029)

Emaztea nola ezagutu zuen azaltzen du. Iruñean ezkondu ziren.

619. Estebanen lagunak (ETX-021/030)

Bere hildako lagun batzuen inguruan hitz egiten du.

620. Haurren heriotzak (ETX-021/031)

Garai hartan haur asko hiltzen ziren.

621. Bizitza aldaketa (ETX-021/032)

Ez zuten uste horrelako aldaketarik biziko zutenik bizitza osoan zehar. Gaztea zenetik abantaila asko daude orain.

622. Larruak (ETX-021/033)

Basoan lanean ibiltzen zirenean larrua jartzen zuten bizkarrean.

623. Estebanek egindako tresnak (ETX-021/034)

Estebanek ezpelarekin egindako tresnak erakusten ditu. Bere ezagun batzuk Asturiasera eta Malagara eraman dituzte tresna batzuk.

624. Argazkia II (ETX-021/035)

Udaletxean lanean zeudenean bota zuten arbola baten argazkia erakusten du. Sei lagunen artean bota zuten.

625. Estherren aurkezpena (ETX-022/002)

Esther 1929an jaio zen. Bere izen osoa Maria Esther Ignacia Evarista da. Bere izenaren istorioa kontatzen du.

626. Aitaren eta amaren lanak (ETX-022/003)

Bere aita 50 urterekin hil zen pneumoniak jota. Ama ezkondu zenean, aitona beraiekin bizi zen. Aitak ez zuen sororako balio, osasunez gaizki zegoelako, horregatik guarda lanetan sartu zen. 25 urte egon zen guarda bezala lanean. Ama soroan aritzen zen aitonaarekin lanean.

627. Eskola (ETX-022/004)

Esther eskolara joaten zen, eta han ariketak egiten zituzten.

628. Apaiza eta dotrina (ETX-022/005)

Bartzelonako apaiz bat etorri zen (Don Jose). Apaiz horrek musika erakutsi zien. Dotrinan mutilak eta neskak elkartzen ziren eta oso ongi pasatzen zuten.

629. Eskolako lanak (ETX-022/006)

Eskolan neskak eta mutilak bereizita egoten ziren. Matematikak eta irakurtzen erakutsi zieten, geografia aldiz ez.

630. Etxeko lanak I (ETX-022/007)

10 urterekin hasi zen etxeko lanak egiten, ama sorora joaten zelako. Oso ongi moldatzen zen amarekin.

631. Etxean bizi zen familia (ETX-022/008)

Etxean aitona, aita, ama eta bere bi anaiak (Karlos eta Bixente) bizi ziren. Bera zen zaharrena, eta Bixenterekin 16 urteko diferentzia zuen.

632. Gazte garaiak (ETX-022/009)

Gaztetan neskak mandatuetan ibiltzen ziren, eta mutilak txapetan. Garai hartan, ezberdina zen nobioen kontua.

633. Bazkaria (ETX-022/010)

Bazkaltzeko potajea jaten zuten eta urdaia. Txokolatea ere jaten zuten.

634. Gaztetako istorioak (ETX-022/011)

Mataderoan elkartzen ziren neskak eta mutilak. Behin mutil bati esan zion dirua ematen bazion kuleroak erakutsiko zizkiola. Dirua txokolatea eta opil batzuk erosteko nahi zuen.

635. Neskak eta mutilak (ETX-022/012)

Lehengo sorora joaten zenean bazkaria eramatera senargaia ikusten bazuen lotsatu egiten zen. Lehen denak batera ibiltzen ziren, eta oso polita zen. Gizonak tabernan kantari aritzen ziren.

636. Emakumeak eta taberna (ETX-022/013)

Neskak ez ziren tabernetara joatean, etxeetan elkartzen ziren.

637. Gramolarekin dantzan (ETX-022/014)

Gazteak zirenean arratsaldeetan gramola jartzen zuten.

638. Mutilekin dantzan (ETX-022/015)

Zaharragoak zirenean, mutilekin ibiltzen ziren. Dantzatzen ibiltzen ziren. Zerbitzatzera joaten ziren neskak oso politak ziren, eta beraiek baztertzen zituzten.

639. Soroko lanak I (ETX-022/016)

Soroan lan asko egin du Estherrek. Goizeko 06:00etarako esnatzen ziren. Behiak zituzten, baina esne gutxi zuten, kafea gosaltzen zuten. Eguerdian bazkaltzen zuten, eta iturritik jaiotzen zen ura edaten zuten.

640. Ura (ETX-022/017)

Etxean ura bazuten, baina komunik ez.

641. Argia (ETX-022/018)

Etxean argi gutxi zuten. Goian eta behean argi bera zuten zulo batekin.

642. Artoa zuritzea (ETX-022/019)

Gauean sorotik etortzen zirenean artoa zuritzen ibiltzen ziren.

643. Patatak jaten (ETX-022/020)

Patatak jaten zituzten. Su baxuan erretzen zituzten.

644. Dantza eta bezperak (ETX-022/021)

Dantzatzea asko gustatzen zitzaien. Bezperak sakratuak ziren. Hijas de María kongregazioan ere egoten ziren.

645. Bezperako anekdota (ETX-022/022)

Beraiek nahiko parrandazaleak ziren. Behin, bezperetara joan gabe festara joan ziren, eta bueltakoan sekulako errieta egin zieten.

646. Mutilak soldadu joan baino lehen egin zuten parranda (ETX-022/023)

Mutilak soldadu joan behar zirenean garizuma zen, eta ezin zen musikarik jo. Orduan, herritik kanpo joan ziren akordeoiarekin dantzatzera. Ondoren, apaizari kontatu zioten, apaizak zigortu eta bi orduz egon ziren belauniko.

647. Mezarako jantziak (ETX-022/024)

Mezara mantelinarekin joan behar ziren, eta behar bezala jantzita.

648. Etxeko lanak II (ETX-022/026)

Esther etxean neska bakarra zen. Berak egiten zituen lan guztiak. Aste guztian soroan lanean ibiltzen zen, eta igandean etxe guztia garbitzen zuen (argizaria eman, sukaldea...). Ganbara ere garbitzen zuen. Etxea zaharra zen, baina txukun edukitzen zuten.

649. Emakume errepublikano bat (ETX-022/027)

Gerra garaian, herriko emakume errepublikar batekin farre asko egiten zuten.

650. Taloak eta ogia (ETX-022/028)

Taloak egitera errotara joaten ziren 20-30 kilorekin. Han irin oso goxoa egiten zen. Ogiak ere egiten zituzten etxean.

651. Gurasoen ezkontza (ETX-022/029)

Bere ama eta bere aita ezkondu behar zirenean pobreak ziren. Ez zuten ezkontzeko dirurik, eta txokolatea eman zieten lagunei. Bere amaren soinekoarekin ezkondu zen. Ezkonbidaian Lizarragara joan ziren.

652. Estherren ezkontza (ETX-022/030)

Esther 29 urterekin ezkondu zen. Soinekoa modistak egin zion koadroko tela batekin. Bazkaria Xapateroaren etxean egin zuten, zopa eta gisatua jan zuten. Gero, dantzari egon ziren akordeoi batekin. Ezkontzeko apaiza Bartzelonatik etorri zen, eta ezkonbidaian Bartzelonara joan ziren apaizak gonbidatuta.

653. Ezkondu ondorengo bizitza (ETX-022/031)

Ezkondu ondoren, gizonaren etxera joan zen bizitzera, eta tristura zeukan beti amarekin bizitzen ohituta zegoelako.

654. Estherren amaren gaixotasuna (ETX-022/032)

Estherren ama minbiziak gaixotu zen, eta San Francisco Javier klinikara eramane zuten operatzera. Gero, ez zuten ordaintzeko dirurik, eta txekor bat saldu zuten ordaindu ahal izateko.

655. Erditzea (ETX-022/034)

Estherrek haurrak maternitatean eduki zituen. Garai hartan batzuk etxean edukitzen zituzten, baina normalean maternitatean. Maternitatean batzuetan

egun asko egoten ziren, eta gizona bitartean lanean. Semea jaio zenean, ospakizuna egin zuten, baina berak ezin izan zuen joan.

656. Soroko lanak II (ETX-022/035)

Esther ezkondu ondoren, sorora joaten zen lanera aitagarrebarekin. Sorotik itzultzean aitagarreba buelta bat ematera joaten zen lagunekin. Mutil gazteak ere soroan ibiltzen ziren lanean. Irailean ganadua eramaten zuten mendira, eta neska-mutilak juergan egoten ziren.

657. Etxarriko festak (ETX-022/036)

Festak urrian izaten ziren. Bigarren egunean, babarrunak ateratzera joaten ziren. Bazkal ondoren Lizarragatik, Unanuatik, Arbizutik... etortzen zen jendea, eta "pasakallesa" egiten zuten herrian zehar. Dantzan ibiltzen ziren. Kanpotik etortzen ziren neskak eta mutilak nahiago zituzten. Paso-doblea, balsa, tangoa... dantzatzen zituzten. Beraien kabuz ikasi zuten dantzan.

658. Inauteriak (ETX-022/037)

Etxarrin inauteriak egiten ziren, baina gerra garaian kendu egin zituzten. Ondoren, berriz hasi ziren.

659. Gerra garaia (ETX-022/038)

Soldaduz betetako kamioiak pasatzen ziren Etxarritik. Herriko etxe batean gosaria prestatzen zuten soldaduentzako.

660. Gerraostea I (ETX-022/039)

Gerra ondoren, ez zieten uzten mutilekin dantzatzen. Bestela ez zieten absoluzioa ematen konfesatzean.

661. Arropak (ETX-022/040)

Espartinak erabiltzen zituzten. Negurako eta udarako arropa berdina izaten zuten.

662. Euskara (ETX-022/041)

Beraiek beti euskaraz egiten zuten lagun artean, nahiz eta herrian erdaraz ere egiten zen.

663. Ikastola (ETX-022/042)

Garai hartan sortu ziren lehenengo ikastolak. Orduan erreboluzio handia egon zen, eta pikea zegoen eskolakoekin. Iruñetik etortzen zitzaizkien San Fermin ikastolatik laguntza ematera. Jendeak lan handia egin zuen ikastolaren alde.

664. Nekazari etxe handiak (ETX-022/043)

Herrian hiru edo lau etxe zeuden nekazari handiak zirenak, eta dirua zutenak. Beraiek inbidia izaten zuten.

665. Oiloen gaixotasuna (ETX-022/044)

Garai batean, oiloen gaixotasuna egon zen. Beraiek ez zituzten oiloak izaten. Behin amak esan zien patata tortilla egingo ziela, baina ez zituen arrautzak aurkitu.

666. Kantak (ETX-022/045)

Garai hartan, asko kantatzen zuten. Kanta gehienak erdaraz kantatzen zituzten.

667. Gazte garaiko denbora-pasak (ETX-022/046)

Ez ziren asko jolasten, pixka bat kartetan. Gehien bat paseoan ibiltzen ziren, eta gau-ezkilekin etxera joaten ziren. Senargaia zutenean ere paseoan aritzen ziren, eta, gero, etxera.

668. Gabonak (ETX-022/047)

Gabonetan, pikuak jaten zituzten. Errege egunean, angila kutxa txiki bat uzten zizkieten erregeek. Mezara joaten ziren. Konpota ere egiten zuten.

669. San Adrian (ETX-022/048)

San Adrianera gurdiarekin joaten ziren. Han behiak bazkatu eta hantxe egoten ziren. Kafea ez zen inoiz falta. Aitonek anisatua hartzen zuten gosaltzeko.

670. Aste Santua (ETX-022/049)

Aste Santua sakratua zen. Eliza beltzez jartzen zen. Mezara joaten ziren egunero. Haurrak karrakarekin ibiltzen ziren. Gaztetan, gaiztakeria asko egiten zituzten.

671. Ogia (ETX-022/050)

Etxean 10 edo 11 ogi egiten zituzten. Kutxa batean gordetzen zuten. Ordainean uzten zuten ere.

672. Lehengo kontuak (ETX-022/051)

Gaur egun bere lagunekin lehengo kontuak kontatzen aritzen dira.

673. Arropa garbitzen (ETX-022/052)

Garbitokian garbitzen zuten arropa. Xaboa etxean egiten zuten koipearekin. Ura oso hotza egoten zen. Orduan, ez zegoen lixibarik, eta arropa egosi egiten zuten garbitzeko, eta errautsa botatzen zioten (nola egiten zuten azaltzen du).

674. Sorgin kontuak (ETX-022/053)

Sorginen kontuak kontatzen zizkieten. Ama Birjina ikusten zutela ere kontatzen zieten.

675. Komedianteak (ETX-022/054)

Komedianteak etortzen zirenean arratsalde guztia pozez egoten ziren ikusten.

676. "Trilladora" garaia (ETX-022/055)

Gerra denboran, dena kontrolatua zegoen. "Trilladoran" egun guztia egoten ziren. Pontxea eramaten zuten edateko (ardoa azukrearekin) eta bazkaria ere bai. Atuna patatekin jaten zuten.

677. Dutzak (ETX-022/056)

Lehenago ez zegoen dutxarik etxeetan. Terreinatan garbitzen ziren ganbaran.

678. Gerra hasiera (ETX-022/057)

Gerra asko nabaritu zen Etxarrin. Gizon batek begia galdu zuen gerran.

679. Gerra garaiko bizitza (ETX-022/058)

Gerra garaian, sorora joaten ziren lanera. Ile luzea zuten andreei moztu egiten zieten, eta iraindu egiten zituzten. Garai gogorra izan zen.

680. Zerbitzari lanak (ETX-022/059)

Feria egunetan, Esther etxe batera joaten zen komedorean zerbitzatzeko laguntzera. Bukatzen zutenean, harrikoa egiten zuen, eta lur guztia garbitzen zuen. 10 pezeta kobratzen zituen. Beste emakume batek arropa garbitzen zuen.

681. Kontrabandoan (ETX-022/060)

Ricardito herriko mutil zahar bat zen, eta kontrabandoan ibiltzen zen. Jendea Cacerestik etortzen zen babarrun bila. Faja moduko bat izaten zuten, eta bertan gordetzen zituzten babarrunak.

682. Gerraostea II (ETX-022/061)

Gerra ondoren, azukre beltza eta olio oso garesti zeuden.

683. Lagunekin egun pasan (ETX-022/063)

Erromeriak egiten zituzten. Beraiek kuadrilla oso batua ziren. Esther lehenengo gelditu zen alargun. Bazkari bat egiten bazen bera ere joaten zen. Haur guztiak hartzen zituzten, eta egun pasa joaten ziren lagun guztiak. Gizonak joaten ziren langostak harrapatzera, eta emakumeak magrak eta tomateak egiten zuten. Oso ongi pasatzen zuten.

684. Gizon eta emakumeen arteko ezberdintasuna (ETX-022/064)

Gizonak ederki bizi ziren. Emakumeak esklaboak ziren. Umeak zaintzen geratzen ziren. Bere senarra oso parranderoa zen. Sekula ez ziren haserretzen.

685. Nazionalistak eta karlistak (ETX-022/065)

Patxiku nazionalista zen, eta bere lagun bat erabat karlista zen. Baina beti batera egoten ziren, sekula ez ziren haserretzen. Gero, gauza okertu egin zen.

686. Industria (ETX-022/066)

Industria sartu zenean, bizitza aldatu egin zen. Diru gehiago zegoen, eta beste bizimodu klase bat hasi zen. Lehenago etxe bakarretan bizi ziren, eta, ondoren, jendea pisuetara joaten hasi zen.

687. Labadora eta plantxa (ETX-022/067)

Lehenengo labadoretan ura su baxuan berotu behar zen. Gorriak ikusten zituen arropa garbitzeko. Arropa onak zirenak eskuz garbitzen zituen, eta plantxa ere txapa gainean berotuta egiten zuten.

688. Etxearen izena (ETX-023/002)

Pedroren etxeak orain Nazabalenea izena du, baina lehenago Martin Julianena bezala ezagutzen zen. Martin eta Julian garai hartako bi artzain ezagun ziren. Behiak eta behorrek zituzten beraiek etxean.

689. Pedroren senideak eta jaiotetxea (ETX-023/003)

Hiru anaia eta bi arreba ziren. Bera zaharrena zen, 1936ko azaroaren 26an jaio zen. Lehenago Martin Julianen etxea zegoen kalea erre egin zen eta ondoren gaur egungo etxea egin zuten.

690. Bere anaiaren heriotza (ETX-023/004)

Bera eta bere anaia txoferrak izan ziren. Bere anaia batek suerte txarra izan zuen, ezkondu eta hiru hilabetetara hil zen, 27 urterekin gasa arnastuta.

691. Kamioilaria (ETX-023/005)

Beraiek nekazari etxeak ziren, baina ez zuten nekazaritzarako afiziorik. Pedro soldadu joan zenean txofer hasi zen, eta, gero, bere anaia ere hasi zen. Orduan, karneta 23 urterekin ematen zuten. Karneta atera zuenetik kamioilari ibili da. Lehenengo Carcastillon ibili zen kamioiarekin. Han famatua egin zen aizkora desafio bat egin zuelako.

692. Diputaziorako lanean (ETX-023/006)

Garai hartan, ez zegoen nortasun agiririk, eta bera 14 urterekin hasi zen diputaziorako lanean. Itzako Erizen hasi zen, egunean 22 pezeta irabazten zituen. Garai hartan, Azpirotzeko portu berria egiten ari ziren, eta bertan 25 pezeta ordaintzen zieten eguneko.

693. Lan-istripua (ETX-023/007)

Azpirotzen lanean ari zelarik lan-istripu bat eduki zuen, eta karretilan eraman zuten Lekunberriraino medikura.

694. Kotizazioa (ETX-023/008)

Nahiz eta diputaziorako lan egin ez zuen kotizatu, kontraturik gabe ibili zen. Bera autonomia izan zen gero, 25 urterekin.

695. Karrikak egiten (ETX-023/009)

Etxarriko karrikak egiteko harriak ekartzen zituzten, eta masa egiten zen. Oso karrika txarrak ziren, euria egiten zuenean lokaztu egiten ziren. Herriko mutil kuadrilla bat ibili zen karrikak egiten eta oso gustura ibili ziren. Etxeetan ardoa ematen zieten.

696. Eskola (ETX-023/010)

14 urtera arte eskolan aritzen ziren. Aitak partikularrera bidaltzen zituen gauetan. Urtero berdina ikasten zuten, liburu batekin ikasi zuten dena.

697. Entziklopedia (ETX-023/012)

Eskolan ikasteko erabiltzen zuen entziklopedia erakusten du Pedrok. Biblia ere irakurrita dauka.

698. Kirolak (ETX-023/013)

Herri-kirolak eta ziklismoa asko gustatzen zaizkio, baina futbola ez.

699. Aizkolari familia (ETX-023/014)

Bere familian aizkoran oso afizionatuak izan dira beti. Bere anaia hiru aldiz Espainiako txapelduna izan da. Florenek 62 txapela dauzka irabazita. Familian oso indartsuak izan dira beti, aitona Kubako gerran egon zen.

700. Kubako gerra (ETX-023/016)

Aitonak ez zien Kubako gerraren inguruko gauza asko kontatzen. Espainiatik joan ziren soldaduak nesketan ibiltzen ziren eta enboskadetan berehala harrapatzen zituzten.

701. Afrikako gerra (ETX-023/017)

Pedroren aita Afrikako gerran egon zen, baina Gerra Zibilean ez.

702. Pedroren aita (ETX-023/018)

Bere aita ez zen eskolara joan, beti artzain ibili zen, baina oso argia zen. Bere kabuz ikasi zuen irakurtzen eta kontuak egiten.

703. Gerraostea (ETX-023/020)

Etxean oiloak izaten zituzten, arrautza asko izaten zituzten. Ahuntzak, txerriak, behorrak eta behiak ere bazituzten. Horregatik ez zuten goserik pasa gerraostean, eta errazionamendua ere ez zuten sufritu. Bere amaren familiakoak etxera etortzen ziren zerbait jatera.

704. Ezpata-dantza (ETX-023/021)

Bere ama ezpata-dantzaria zen.

705. Zortzikoa (ETX-023/022)

Zortzikoa Etxarrin ez zen asko dantzatzen.

706. Dantzak (ETX-023/024)

Jotan oso ongi aritzen ziren, baina lotuan ez zuten dantzatzen. Debekatuta zegoen, eta lotsa ematen zien. Korroan ere dantzatzen zuten. Beranduago hasi ziren dantzatzen neskekin ezkontzetan eta festetan.

707. Etxarriko festak (ETX-023/025)

Etxarriko festak oso famatuak ziren garai hartan. Feriak izaten ziren, eta inguruko herrietakoak etortzen ziren ganadua saltzera. Festak urrian egiten ziren, nekazariarentzako garairik hoberena zelako. Gero, jendea fabriketan lanean hasi zen, eta dataz aldatu ziren abuztura. Festek lau egun inguru irauten zuten. Bazkariak etxeetan egiten ziren ahaideekin, giro berezia egoten zen.

708. Artoa zuritzen (ETX-023/026)

Garai hartan, artoa zuritzen ibiltzen ziren gauetan, eta aitak kantzak erakusten zizkien edo istorioak kontatzen zizkien. Garai hartan, ez zegoen telebistarik ezta irratirik ere.

709. Familia kristaua (ETX-023/027)

Afaldu ondoren, arrosarioa errezatzen zuten. Bere ama oso kristaua zen, eta bere emaztea ere oso elizkoia da. Bere andrearen aldetik moja eta fraideak dituzte familian. Bazkaldu baino lehen, egunero bedeinkatzen dute mahaia, eta gure aita errezatzen dute. Astean behin ere arrosarioa errezatzen du.

710. Ur bedeinkatua (ETX-023/028)

Etxean beti edukitzen zuten ur bedeinkatua.

711. Angelusa (ETX-023/029)

Angelusa etxean beti errezatzen zuten, eta soroan ere bai. Soroan berandu jaten zuten, gainontzeko guztiek baino beranduago.

712. Soroko bazkariak (ETX-023/030)

Egunero babarrunak bazkaltzen zituzten. Gauean patata jaten zuten. Txitxirioak festetan eta jai handietan bakarrik jaten zituzten. Paella ere jaten zuten. Barazki gutxi jaten zuten, ez zitzaien gustatzen.

713. 13 txuleta jan zitueneko istorioa (ETX-023/032)

Behin, soldadu garaian, 13 txuleta jan zituen, bere kideek ez zutelako jan nahi hatsa omen zutelako.

714. Etxean ogia egiten zuten (ETX-023/033)

Amak ogia egiten zuen etxean.

715. Pedroren ama (ETX-023/034)

Bere amaren ama oso gaztetan hil zen, eta bera anaia guztiekin geratu zen. Bere amona Dorraokoa zen, eta bere ama eta bere ahizpa Etxarrira etorri ziren etxe batera zerbitzatzera.

716. Pedroren amona (ETX-023/035)

Pedro bere amonaren (aitaren ama) besoetakoa zen. Behin Tolosako egunkari batean atera zireneko istorioa kontatzen du.

717. Pedroren amonaren istorio bat I (ETX-023/036)

Bere amona izaera handiko emakumea zen. Jolastea gustatzen zitzaion, eta, behin, Altsasuko feria batzuetan, txerri batzuk saldu zituen, eta diru gehiago ekarri nahi zuenez diru hori jokatu zuen, eta dena galdu zuen.

718. Pedroren amonaren istorio bat II (ETX-023/037)

Behin amona etxean bakarrik zegoen, eta soldadu batzuk joan ziren etxera, zerbait lapurtzeko asmoz, baina amonak bota egin zituen. Karakter handiko emakumea zen.

719. Amonaren janzkera (ETX-023/038)

Amona beti luzez janzten zen.

720. Etxeen izenak (ETX-023/039)

Amona izatez Garmendia etxekoa zen. Beraien etxean lehenago bi artzain bizi ziren, Martin eta Julian. Horregatik Martin Julianena izena du etxeak.

721. Nazabal abizenaren jatorria (ETX-023/041)

Nazabal abizena Zaldibiatik dator. Hiru anaia handik joan ziren zerbitzari lanetan aritzera. Bat Etxarrin bestea Arbizun eta azkena Arruazun. Etxarrikoa bere amonarekin ezkondu zen.

722. Bere amonaren senideak (ETX-023/042)

Bonifazia (bere amona) zenbat anai-arreba ziren ez daki ziur.

723. Familia txerri hiltzailea (ETX-023/043)

Bere amaren familiaren aldetik txerri hiltzaileak ziren. Txerria hiltzean salda bat geratzen da eta bere osabek hori jan egiten zuten.

724. Txerri-hiltzea (ETX-023/044)

Txerri hiltzea azarotik aurrera hasten ziren egiten. Beraiek lau edo bost txerri hiltzen zituzten. Bere aitak langileak hartzen zituen sororako eta beraiei jana emateko.

725. Artzain lanak (ETX-023/045)

Pedro ez da ibili artzain lanetan. Gaztea zenean behorrekin, behiekin eta ibiltzen zen baina ardiekin ez, ez zaizkio inoiz gustatu. Behorrak ez zituzten beraiek ferratzen.

726. Zorte onaren ferra (ETX-023/046)

Zorte onaren ferraren istorioa kontatzen du. Herodes erregeak bere zaldiak zilarrezko ferrekin ferratzen omen zituen. Ferra horiek galtzen zituenean norbaitek aurkitzen bazituen suerte handia izaten zen eta horregatik esaten da zorte onaren ferra.

727. Idiak ferratzen (ETX-023/047)

Behorrak ez ziren ferratzen, baina idiak bai, bestela kaskoak galtzen zituzten. Idiak lan handia egiten zuten garai hartan.

728. Ferratokia (ETX-023/048)

Herrian bazegoen ferratoki bat. Familia batek ferratzen zituen idiak.

729. Zerratokia (ETX-023/050)

Bere aitak egurra idiekin jaisten zuen taulak eta trabesak egiteko zerrategietan. Zerrategitik taula gehienak Valentzia aldera bidaltzen ziren eta Bartzelona eta Alikante aldera ere bai.

730. RENFERako trabesak (ETX-023/051)

Trabes guztiak RENFERako izaten ziren. Orain trenbide azpian porlana eta burdinazko barra bat jartzen da, baina lehenago trabesak jartzen ziren. Lehenengo trenbideak egiten hasi zirenean, bertako jendea oso trebea zenez aizkorarekin-eta Kalifornia aldera joan ziren lanera trenbideak egitera (beste batzuk artzain).

731. Argentinako ahaideak (ETX-023/052)

Garai batean bazituzten ahaide batzuk Argentinan, bere amonaren aldetik. Orduan, jende asko joan zen Ameriketara.

732. Txondorrak (ETX-023/054)

Berak ez ditu txondorrak ezagutu, baina bere anaiak bai. Bera gazte denboran etxean, diputaziorako, zerrategian eta basoan lan egin zuen baina txondorretan ez. Herrian asko egiten ziren, baina berari ez zitzaion tokatu bertan lan egitea.

733. "Cementos" (ETX-023/055)

"Cementosera" asko joaten ziren Etxarritik. Oinez joaten ziren, eta 12 km zeuden. Baina jornala beharrezkoa zen etxe askotan.

734. Industria (ETX-023/056)

Garai hartan udaletxeko jendeak ez zuen industria jartzen uzten. Etxarrin ezagutu zuten lehenengo industria polborera izan zen. Gero, Ufesa etorri zen. Industria gehien Lakuntzan egon zen. Etxarriko asko hara joaten ziren lanera.

735. Kamioilari lana (ETX-023/057)

Bera Carcastillon hasi zen kamioiekin lanean, gerrako kamioiekin. Figarol herrira harria eramaten zuten, herrira sortzen ari zen garai hartan, diputazioarena zen eta hara bizitzera joaten zirenei laguntza bat ematen zien. Gero, urte eta erdi egon zen Arbizuko gizon batentzat lanean Espainia osotik. Ondoren, bi anaien artean kamioi bat erosi zuten Transportes Azkar-en, eta Espainia osotik lanean ibili ziren. Ezkondu zenean beste kamioi bat erosi zuten. Aristrainen egin zuen lan gero berrogei urtez. Gero, trailer bat erosi zion porrot egin zuen enpresa bati.

736. Mercedes kamioiak (ETX-023/058)

Garai hartan, Mercedesak kamioi onak ziren. Bideak oso txarrak ziren, eta baleztak asko hausten ziren, horregatik txofer askok zerbikaleko arazoak izaten zituzten. Mercedesak hoberenak ziren, diferentzia handia zegoen zerbikaletarako.

737. Pedroren istripua (ETX-023/059)

Madrilera joan behar zuen behin, eta Sorian elur asko egiten zuen, eta kamioi pila geratu ziren ezin aurrera egin. Elurra kentzeko makinarik ez zegoen orduan, eta, goizean, kabinatik jaisten hasi zenean, irristatu egin zen, eta besoa hautsi zuen. Gauean, ospitalera eraman zuten, eta eskaiolatu egin zioten. Urte batzuk geroago, Gasteizen berriz hautsi zuen besoa, eta konplikatu egin zen, eta, azkenean, moztu egin behar izan zioten 65 urte bete behar zituenean.

738. Pedroren emaztea (ETX-023/061)

Bere emaztea aldamera zen. Dorraotik etorri ziren. Beheko aldean bodegak zeuzkaten. Anai-arreba asko ziren, bera bosgarrena zen.

739. Pedroren ezkongia (ETX-023/062)

Pedro Erronkarin ibili zen lanean denbora batez, eta bertan beste desafio bat egin zuten hango herritarrekin. Erraz irabazi zuten, eta hango neskak beraiengana joaten ziren. Fonda batean egon ziren, eta fondako bi alabetako batek bere andregia izan nahi zuen, baina Pedrok distantziarengatik ez zuen nahi izan.

740. Argazkiak (ETX-023/064)

Argazki batzuk grabatzen ditu.

741. Txistea I (ETX-023/066)

Pedrok txiste bat kontatzen du.

742. Txistea II (ETX-023/067)

Pedrok txiste bat kontatzen du.

743. Txistea III (ETX-023/069)

Pedrok txiste bat kontatzen du.

744. Txistea IV (ETX-023/070)

Pedrok txiste bat kontatzen du.

745. Txistea V (ETX-023/072)

Pedrok txiste bat kontatzen du.

746. Txistea VI (ETX-023/074)

Pedrok txiste bat kontatzen du.

747. Inocenciaren aurkezpena (ETX-024/002)

Inocencia Markotegi Razkin 1931ko abenduaren 28an jaio zen. Etxean aitona, gurasoak eta bost anai-arreba bizi ziren. Bera gazteena da.

748. Bere aita jostuna zen eta nekazaritza ere bazuten (ETX-024/003)

Bere aita jostuna zen. Labrantza pixka bat ere bazuten (patata, gariak...). Orduan miseria asko bizi zuten, gerra, gerraostea... ez zegoen ezta jateko ere.

749. Etxea oso zaharra zen (ETX-024/004)

Bere aitona sua egiten zuen berotzeko. Oso etxe zaharra zen.

750. Aitona Ameriketara joan zen (ETX-024/005)

Aitona ezkondu eta Ameriketara joan zen bizitzera. Birraitonak etxean "derecho a cocina" bakarrik zeukan, pobreak zirenei dena kentzen zieten eta. Horregatik joan zen aitona Ameriketara. 2.500 pezetarekin bueltatu zen eta bere jaiotetxea erosi zuen.

751. Gurasoak jaiotetxearekin geratu ziren (ETX-024/006)

Aitona hil zenean, Inocenciaren gurasoak geratu ziren etxearekin. Lan asko egiten zuten, baina dirurik ez zen egiten.

752. Aitonaren lana Ameriketara (ETX-024/007)

Aitonak ganaduarekin egin zuen lan Ameriketara egon zenean, baina ez zitzaion gustatzen, eta berehala bueltatu zen. Seme batekin joan ziren, baina bidean hil egin zitzairen, eta, gero, beste bat eduki zuten bueltatu baino lehen. Ama Etxarrin jaioa da.

753. Haurrak etxean jaiotzen ziren (ETX-024/008)

Bere anai-arrebak eta bera etxean jaio ziren. Berak ere seme bat etxean eduki zuen, eta beste bi iruñean. Etxarrin praktikantea zegoen, eta oso ongi moldatzen ziren. Hirugarren egunerako lanean zeuden, eta haurra bataiatua zegoen.

754. Aitona kontu kontatzailea zen (ETX-024/009)

Aitona kontu kontatzailea zen, eta oso graziosoa zen. Juan soldaduaren istorioak kontatzen zizkien. Berak uste zuen aitonak asmatutako pertsonaia bat zela, baina handik urteetara Fernando Fernan Gomez hasi zen Juan soldaduaren istorioak kontatzen. Bera oso gaztea zen, eta ez da asko oroitzen, suaren ondoan kontatzen zizkien. Gero, gaixotu egin zen, eta paralisi bat eman zion.

755. Aitona burutik eginda zegoen (ETX-024/010)

Aitona amaieran burutik nahasten hasi zen, eta esaten zuen bera hiltzera jendea etortzeko. Behin simulakro moduko bat egin zuten aitonari adarra jotzeko. Hego haizea zetorreanean oraindik gehiago nahasten zen.

756. Aitonari adarra jotzen zioten (ETX-024/011)

Eusebiok asko jotzen zion adarra aitonari. Beste istorio bat kontatzen du.

757. Aitonaren kontuak (ETX-024/012)

Aitonak istorio asko kontatzen zizkien. Ez daki nondik ateratzen zituen kontu horiek. Bere ondoan jartzen ziren sutondoan, eta han egoten ziren kontuak aditzen.

758. Emakumeak etxeko atarietan biltzen ziren (ETX-024/013)

Emakumeak udan etxeko atarietan aritzen ziren kartetan jolasten eta zorriak kentzen batak besteari.

759. Gerraosteko garai gogorak (ETX-024/014)

Beraiek miseria asko ezagutu dute. Gerraostean, biltzen zuten dena kentzen zieten. Ereiten zutenaren zati handi bat entregatu behar zuten musu-truk. Terreno asko zeukanak tranpa pixka bat bat egin zezaketen, baina besteak ez.

760. Txerriaren pertza (ETX-024/015)

Txerriaren pertza prestatzeko tximinian sua egin eta patata azalak, patatak, naboak... egosten zituzten. Txerria ondoren hil egiten zuten, eta jan egiten zuten, baina hori ere ongi neurturik, urte osorako iritsi behar zelako.

761. Olioia eta taloak (ETX-024/016)

Oliorik ez zegoen, oso garestia zen, ezin zuten erosi. Sakarina ere garestia zen. Ez zitzaien ogia erosteko ere iristen. Taloa jaten zuten. Inocenciari ez zitzaion taloa gustatzen. Bere ahizpak taloak egiten zituen.

762. Errazionamendua (ETX-024/017)

Gerra hasi zenean, berak lau urte zituen, eta aurretik ere miseria nahikoa zegoen. Errazionamenduan ogi bat ematen zieten denentzako.

763. Familia pobrea ziren (ETX-024/018)

Hirugarren munduan bezala bizi ziren, ez zuten arropa erosteko dirurik ere. Ez zuten oinetakorik, ez kulerorik. Bere aitak arroparen bat egiten zuen, baina asko ere ez. Gehien bat sorotik bizi ziren. Orduan, ez ziren zortzi ordu lan egiten.

764. Lan asko egiten zen garai hartan (ETX-024/020)

Bere anaiak lanera joaten ziren, eta zopa jaten zuten. Behin bijilia zelako ezin izan zuten hori ere jan. Orduan ordu asko sartzen ziren lanean, ez zegoen ordutegirik. Bere aitona behin Somorrostroraino oinez joan eta etorri zen ez zuelako trenerako dirurik.

765. Kubako guda eta guda Karlista (ETX-024/021)

Bere aitona ez zen Kubako gerrara joan, baina lehenengo gerra Karlistan egon zen. Hala ere ez zuen gauza handirik kontatzen.

766. Guda Zibila (ETX-024/022)

Bere aita ez zen Guda Zibilean egon, hanka bat falta zitzaiolako (trenak moztu zion). Bere koinatu bat 16 urterekin joan zen behartutako boluntario moduan. Familiako beste inor ez zen joan.

767. Makiak (ETX-024/023)

Gerra ondoren makien kontuak kontatzen ziren. Jende asko egon zen garai hartan eskapaturik. Etxarriko familia batek Frantziara alde egin zuen.

768. Eskola (ETX-024/025)

Inocencia asko joan zen eskolara 16 urtera arte. Garai hartan, asko ez ziren eskolara joaten soroan lan egin behar zutelako. Bere amona analfabetoa zen, ez zekien irakurtzen ere.

769. Eskola: maistrak (ETX-024/026)

Eskolan neskek eta mutilak bereiztuta ikasten zuten. Maistra onak eta txarrak eduki zituzten. 12 urterekin bazekien biderketak egiten, baina zatiketak ez. Maistrak ez ziren beraietaz asko arduratzen, baina Inocenciak nahikoa ikasi zuen garai hartarako.

770. Umetako jolasak (ETX-024/027)

Inocencia asko jolasten zen umetan. Sokasaltoan asko jolasten ziren. Joko gehiago: marroan, "tres navios en la mar", "gallinita ciega"... Bere ahizpa ez zen hainbeste jolasten, zaharrena zelako eta etxeko lanak egin behar zituelako. Orduan ez zuten jostailurik, eta panpinak beraiek egiten zituzten.

771. Gurdiekin jolasean (ETX-024/028)

Gurdien gainean ibiltzen ziren saltoka, eta nagusiak bidali egiten zituen. Indar asko ez zuten, baina pisurik ere ez.

772. Kalean asko egoten zen Inocencia (ETX-024/029)

Gazte denboran, etxean gutxi egoten zen. Ama erratzarekin joaten zen bera eta bere anaia etxera eramatera.

773. Iluntzean etxean egon behar zuten (ETX-024/030)

Arrosarioa 20:00ak edo 21:00ak aldera izaten zen, eta handik aurrera etxera joaten ziren. Festetan ere ez zieten uzten gehiago gelditzen, bere ama horretan gogorra izan zen.

774. Komeditara joaten ez zieten uzten (ETX-024/031)

Komeditara joaten ez zien uzten amak, eta han egoten ziren ume guztiak. Baina bere amari iruditzen zitzaion bekatua zela haurrak gauean ateratzea.

775. Zerbitzari lanak (ETX-024/032)

Amak zerbitzatzera bidali zuen Donostiara. 16-17 urte inguru zituen. Han ez zegoen herriko libertate bera. Etxeko andrea ona tokatu zitzaion. Jaten oso ongi ematen zien. 90 pezeta irabazten zituen hilabetean, eta arropa ere ematen zion. Garai hartan, neska gehienak joaten ziren zerbitzatzera.

776. Zerbitzari garaiak Donostian (ETX-024/034)

Donostiara trenean joan zen. Orduan ez zegoen autobusik. Pena handia pasa zuen Donostian egon zenean, nahiz eta oso ongi tratatzen zuten. Berak etxean egon nahi zuen. Urte bat egon zen han lanean.

777. Etxarriko banda (ETX-024/035)

Etxarrin igandeetan banda egoten zen. Bere koinatua, anaia eta bi alaba egon dira bandan. Oso polita izaten zen, asko disfrutatzen zuten.

778. Lotuan dantzatzea debekatua zegoen (ETX-024/036)

Lotuan dantzatzea debekatua zegoen. Behin bere anaia (Euxebio) konfesatzera joan zen lotuan dantzatu zuelako, eta apaizak ez zion absoluzioa eman.

779. Herriko agintariak (ETX-024/037)

Herrian agintzen zuten alkateak, guardia zibilak, sekretarioak eta apaizak.

780. Fedea (ETX-024/038)

Konfesatzera joan eta absoluziorik ez ematea oso gogorra zen, ezin zenuen komulgatu. Orduan, fede handia zegoen. Barau naturala egin behar zuten jauna hartu ahal izateko. Behin Inocenciak masusta batzuk jan zituen, eta ez zuen komunioa hartu. Gaur egun malguagoa da, baina orduan oso zorrotza zen.

781. 'Hijas de María' (ETX-024/040)

Bere ahizpa Hijas de María kongregaziokoa zen. Medaila bat zuten zinta urdin batekin. Bere ahizpak esaten zuen egun guztia elizatik atera gabe egoten zirela: goizean, goiz meza; gero, meza nagusia 12ak aldera; gero, bezperak; eta, ondoren, Hijas de María kongregazioa.

782. Bezperak (ETX-024/041)

Acción Católica egoten zen, baina bera oso gaztea zen. Bezperetara herri guztia joaten zen. Gaur egun oso jende gutxi joaten da mezara.

783. Mezara joateko arropak (ETX-024/042)

Mezara mantelinarekin eta ongi tapatuta joan behar ziren.

784. Emakumeen jantziak (ETX-024/044)

Gona oso luzeak eta oso frunzituak erabiltzen zituzten garai hartako emakumeak. Denak beltzez joaten ziren. Bere edadeko neskak hasi ziren gizonekin ateratzen, ordura arte ez ziren ateratzen.

785. Etxeko andre agintzaileak (ETX-024/045)

Etxeko andreak oso agintzaileak izan dira. Gizonak suabeagoak izaten ziren. Behin amak ez zion utzi festa batzuetan ateratzen, eta Inocenciak balkoitik ihes egin zuen.

786. Ezkontzak (ETX-024/047)

Bere ahizpa ezkondu zenean oilasko paella jan zuten. Inocencia ezkondu zenean berak prestatu zuen bazkaria. Ezkon bidaian Santanderrera joan ziren bere senarraren ahaideen etxera. Gehienek ez zuten bidaiarik egiten, ez zegoelako dirurik. Bere gizonari 3000 pezeta eman zizkioten ezkontzeagatik eta horrekin ordaindu zuten banketea.

787. Inocenciaren senarra (ETX-024/048)

Inocenciaren gizona Altsasukoa zen. Bere gurasoak Santander aldekoak. Etxarrin ezagutu zuen festetan.

788. Ondoko herrietako jaiak (ETX-024/049)

Beraiek ez ziren ateratzen, gehienez ondoko herrietako festetara, baina goiz bueltatu behar izaten zuten. Oinez joaten ziren trenbidetik.

789. Dantzak (ETX-024/050)

Denetarik dantzatzen zuten: jotak, tangoak, paso-dobleak... Inocenciari asko gustatzen zitzaion dantzatzea.

790. Herriko festak (ETX-024/051)

Festetan orkestra bat ere etortzen zen bandaz aparte. Gerra ondoren, gazte kuadrilla bakoitzak txaranga bat ekartzen zuten.

791. Inauteriak (ETX-024/053)

Inauterietan ez zen gauza handirik egiten, baina ospatzen ziren. Zakuekin jantzen ziren eta makilekin ibiltzen ziren. Emakumeak marjinatuak egoten ziren.

792. Emakumeen bizimodua (ETX-024/054)

Emakumeak marjinatuak egoten ziren. Etxean egiten zuten lan, eta soroan ere bai. Ume asko edukitzen zituzten, eta zaindu egin behar zituzten. Gizonak etxera etortzen zirenerako dena prest eduki behar zuten. Esklaboak ziren.

793. Maindireak garbitzen (ETX-024/055)

Maindireak garbitzeko egosi egiten zituzten errautsarekin. Xaboa erosteko ere ez zeukaten, errazionamenduan xaboi zati bat ematen zieten, eta horrekin moldatzen ziren.

794. Garbitokia (ETX-024/056)

Garbitokira joaten ziren arropa garbitzera. Berdin zuen negua edo uda izan, beti joan behar zuten. Gero larreetan jartzen zituzten lehortzeko.

795. Koltxoiak (ETX-024/057)

Koltxoiek lan asko ematen zuten garai hartan. Beraiek artoaren azalarekin egindako koltxoiak zituzten. Urtero jotzen zituzten, arrotzeko eta berriro josten zituzten.

796. Sukaldea (ETX-024/058)

Etxeak zuritzen zituzten. Beraien sukaldea txikia zen, baina tximinia handi bat zuten, eta ke asko egiten zen.

797. Argia (ETX-024/059)

Sukaldeko paretan zulo bat zuten eta bertan bonbilla bat jartzen zuten eskailerari eta sukaldeari argia emateko. Baina bonbillak ez zuen indarrik eta ez zuen asko argitzen. Etxean ez zuten beste argirik. Sastrieriarako bonbilla bat gehiago zuten.

798. Plantxa (ETX-024/060)

Orduan, ez zegoen plantxarako elektrizitaterik, eta ikatza erabiltzen zuten.

799. Serenoa (ETX-024/062)

Serenoa gauean ibiltzen zen kalean.

800. Jostundegia (sastreria) (ETX-024/063)

Jostundegira gizonak bakarrik joaten ziren. Arbizuko bezero asko zituzten. Bakoitzak bere oihalak ekartzen zituen. Bere aitak Iruñean ikasi zuen josten. Hanka falta zitzaionez edo jostuna edo zapataria izan behar zuen.

801. Aurrera egin ahal izateko lanak (ETX-024/064)

Ezin zitezkeen bizi jostunaren lanarekin. Aparte animaliak eta soroak zituzten aurrera egiteko.

802. Arto-zuritzea (ETX-024/065)

Arto-zuritzea oso polita izaten zen. Beraiek ez zuten arto askorik, eta kanpoan zuritzen zuten. Gero, "portak" egiten zituzten.

803. Animaliak (ETX-024/066)

Oiloak, txerriak, ahuntzak, untxiak eta noizean behin saltzeko behiren bat ere edukitzen zuten etxean.

804. Oilaskoak eta arrautzak (ETX-024/067)

Oilaskoak egun berezietan jaten ziren, festetan eta horrela. Arrautzak, normalean, saldu egiten zituzten, eta ardoa edo azukrea erosten zuten.

805. Festetako janak (ETX-024/068)

Festetarako ardi bat hiltzen zuten. Tripakiak egiten zituzten. Txerriaren hankak eta belarriak San Joseetarako gordetzen zituzten. Txitxirioak eta zopa ere noizean behin jaten zituzten. Eguberrietan babarrun gorriak jaten zituzten.

806. Su baxua (ETX-024/069)

Janaria su baxuan prestatzen zuten. Gero, sukalde ekonomika jarri zuten.

807. Ogia (ETX-024/071)

Etxean ogia egiten zuten, baina Inocenciak ez zuen kasik ezagutu.

808. Anaiarekin lau urteko diferentzia dauka (ETX-024/072)

Lau urteko diferentzia du Inocenciak bere anaiarekin.

809. Etxeko animaliak (ETX-024/074)

Txerriei ezkaratzean ematen zieten jana, gero estrabian. Oiloak eskaileretan kaka egiten zuten.

810. Ura (ETX-024/075)

Ura hartzera plazara joaten ziren.

811. "Burkinak" (ETX-024/076)

Gehienbat, Inocenciaren senarrak hitz egiten du (planotik kanpo dagoela), eta deskribatzen du herriko emakume batek nola ekartzen zuen ura buru gainean "burkina" baliatuz.

812. Eskola garaiak (ETX-025/002)

Eskolara gutxi joan zen. 13 urte zituenean ama gaixotu egin zen, eta etxeko lanak egiten hasi behar izan zuen. Ogia eta taloak egiten zituen, soroan aritzen zen... denetarik.

813. Ogia egiten zuen (ETX-025/004)

Ogia nola egiten zuen azaltzen du. Ogi handi batzuk egiten zituzten.

814. Labeak (ETX-025/005)

Labeak ez ziren oraingoak bezalakoak. Zulo bat bezala ziren.

815. Taloak (ETX-025/006)

Taloak egiteko lehenengo artoa jo behar zen, eta errotara eramaten zuten. Ondoren, irina etxera ekartzen zuten, eta taloak egiten zituzten.

816. Errotak (ETX-025/007)

Errotak itxita egon ziren gerraostean. Errazionamenduan ematen zuten irina, baina ez zen berdina.

817. Gosaria (ETX-025/008)

Gosaltzeko taloa esnearekin hartzen zuten.

818. Txerriak (ETX-025/009)

Bazkaltzeko normalean etxean hildako txerria jaten zuten. Su baxuan erretzen zuten.

819. Buruan gauzak eramaten zituzten (ETX-025/010)

Txerrientzako janari bila joaten zen, buruan pertza handi batzuk jarrita. Buruan gauzak eramateko "burkeñua" erabiltzen zuten.

820. Garbitokia (ETX-025/011)

Garbitoki handi bat egoten zen arropa garbitzeko. Bera txikia zen eta ez zenez ailegutzen, aitak lau adreilu jartzen zizkion. Hotz handia egiten zuen askotan, eta amak eskuak berotzen zizkion.

821. Asko josten zuen (ETX-025/014)

Josi ere egiten zuen. Gaztetan ikasi zuen josten, eta asko josten zuen. Garai hartan arropa guztiak etxean egiten ziren, ez ziren saltzen.

822. Familiakoentzako arropa egiten zuen (ETX-025/015)

Neskek soinekoak erabiltzen zituzten. Berak arropa guztiak egiten zizkien familiakoei.

823. Etxeko lanak (ETX-025/016)

Etxean lan asko egoten ziren: plantxa, etxea garbitu, garia garbitu eta arketan sartu, porkak egin...

824. Arto-zuritzea (ETX-025/017)

Artoa zuritzeko egunak egoten ziren, eta, ondoren, "porkak" egiten zituzten.

825. Koltxoiak (ETX-025/018)

Artoaren hostoekin koltxoi moduko batzuk egiten ziren, baina berak ez du ezagutu. Bere garaian, artilezkoak ziren. Koltxoiak urtean behin jo egiten ziren, eta, ondoren, berriz josten ziren.

826. Zoruaren garbiketa (ETX-025/019)

Zorua garbitzeko lixiba pixka bat erabiltzen zuten, eta, ondoren, argizaria ematen zioten.

827. Etxeko gortinak (ETX-025/020)

Etxeko gortina guztiak berak egin ditu.

828. Soldaduen galtzak egiten zituen (ETX-025/021)

Soldaduentzako galtzak egiten zituen. Goizeko 7etan jaikitzen zen, eta, sorora gosaria eraman baino lehen, galtza bat egiten zuen, eta, gauean, beste bat. Diru pixka bat ateratzeko. Soldaduen galtzak Zirkulura eramaten zituen.

829. Arropa egiten zuen (ETX-025/022)

Jertseak ere egin izan ditu kanporako eta etxekoentzako; galtzerdiak ere bai. Gero, kristalezko mediak etorri ziren.

830. Herriko apaizak (ETX-025/024)

Hiru apaiz gaizto zeuden herrian. Dotrina ez zekitenei jo egiten zieten.

831. Apaizari beldurra zitzaion (ETX-025/025)

Apaizari beldur handia zitzaion. Mutilekin dantzatzen ez zieten uzten.

832. Konfesioak (ETX-025/026)

Konfesioak ostiralero izaten ziren. Oinez joaten ziren Altsasura, eta itzultzerako gaua izaten zen.

833. Altsasun berandu egin zitzaionekoa (ETX-025/027)

Behin, 20 urte inguru zituela, Altsasura joan zen, eta berandutu egin zitzaion bakarrik bueltatzeko. Urdiaingo neska batzuk esan zioten bere etxera joateko lo egitera. Bidean zeudela, kotxe bat gelditu zen, eta bere mutil laguna zen bila zetorrela.

834. Ilea mozten zien familiakoei (ETX-025/028)

Berak ilea mozten zion aitari, bere senarrari eta seme-alabei ere.

835. Lan asko egin zuen gaztetan (ETX-025/029)

Zaharrena izateagatik lan asko egitea tokatu zaió Rafaelari.

836. Osabarekin egoten zen soroan lanean (ETX-025/030)

Rafaelak lan asko egin du soroan bere osabarekin. Bere amonari 44 urterekin hil zitzaion gizona, eta bederatzi umerekin geratu zen. Behin semea eguzkitan utzi zuen lanak egin bitartean, eta meningitisak eman zion eta hitz-motela geratu zen.

837. Arto garaian lan handia zegoen (ETX-025/031)

Bazkaldu ere soroan egiten zuten. Arto garaian lan handia egoten zen. Berari asko gustatzen zitzaion porkak egitea.

838. Ilea mozten trebea zen (ETX-025/032)

Bere lagun batek eta berak elkarri mozten zioten ilea. Bere ezkontzarako ere ez zion inork orraztu, berak egin zuen dena.

839. Ezkontza (ETX-025/033)

Beltzez ezkontzen ziren normalean. Bera 27 urterekin ezkondu zen. Senarrak esan zion ezkontzen zirenean ez zela gehiago joango sorora lanera. Baina gero doble joan zen.

840. Senarraren etxean bizi ziren (ETX-025/034)

Ezkondu zenean, etxe berria egin zuten. Baina bukatzen zuten bitartean senarraren etxera joan zen bizitzera. Etxe zaharra zen, arratoiak zeuden.

841. Ezkonbidaia I (ETX-025/035)

Ezkonbidaian Madrilera joan behar ziren, hori izan zen egin zieten oparia, baina Rafaelak ez zuen joan nahi.

842. Egun batzuk egon zen Donostian zerbitzari lanetan (ETX-025/036)

Bere lehengusu bat Donostian zegoen zerbitzari lanetan. Nazkatuta zegoen, eta gaixo plantak egin zituen Etxarrira bueltatzeko. Orduan, bere partez Rafaela joan zen. Lau egunetarako joan zen berez, eta 16 egunegon egin zen. Oso gustura egon zen han. Azkenean, ezkonbidaian ere Donostiara joan ziren.

843. Ezkonbidaia II (ETX-025/038)

Egun batzuk Donostian egon ziren; gero, Laudiora joan ziren izeba moja bat bisitatzera; eta ondoren, Arrigorriagara. Gero, Bilbon hiru egun zituzten, eta, azkenik, Miranda de Ebroko jaietara.

844. Rafaelaren ezkontza (ETX-025/039)

Ezkontza Etxarriko elizan izan zen, maiatzaren 22an. 27 urterekin ezkondu zen.

845. Guda garaiko gauzak (ETX-025/044)

Guda garaian, hiru emakumeri ilea moztu zieten astoei mozteko guraizeekin. Simara ere bota zituzten gazte asko.

846. Guda garaian gizon asko hil zituzten (ETX-025/045)

Gerra garaian, gizon asko hil zituzten. Behin bere gizona zerrategira lanera zihoala alkatea aurkitu zuen lurtean botata; etxera eraman zuen, eta handik egun batzuetara hil zen. Herriko "pelukeroa" ere hil egin zuten.

847. Errazionamendu garaia (ETX-025/047)

Guda ostean, Quintana zen alkatea. Kola egiten zuten elikagaiak emateko. Rafaela Arruazura joaten zen oinez ogi bila. Olioaren erosteko goizeko 07:00etan hasten ziren kola egiten. Ogiaren erostetxean saltzen zuten, eta ilara egiten zuten. Batzuetan, ilaran egon ondoren, etxera joaten ziren ezer gabe.

848. Familia aberatsenak (ETX-025/049)

Garai hartako herriko familia aberatsenak aipatzen ditu.

849. Etxarriko oihal-denda (ETX-025/050)

Goikoetxean oihalak saltzen zituzten arropa egiteko. Etxe horretara joaten zen Rafaela arropa garbitzera. Bi seme eduki zituzten, eta senarra Ameriketara joan zen familia bertan utzita, eta ez zen gehiago bueltatu.

850. Soltean erosten zen (ETX-025/051)

Orduan dena soltean erosten zuten (azukrea, kafea, ardoa).

851. Txakurrak eta katuak jaten zituzten (ETX-025/052)

Familia batek denda eta taberna moduko bat zuen, eta bazkariak ematen zituen. Txakurrak hiltzen zituzten jateko. Jende aberatsa joaten zen hara jatera. Katuak ere gisatzen zituzten.

852. Rafaelak katua jan izan du (ETX-025/053)

Rafaelak jan izan du katua. Garai hartan, ez zuten beste ezer izaten. Umeak edukitzen zituztenean oilo salda hartzen zuten.

853. Umeak etxean edukitzen zituzten (ETX-025/054)

Rafaelak hiru umeak etxean eduki zituen. Batek 5 kilo pisatu zituen. Seme gazteena etxe berrira joan zirenean jaio zen.

854. Erditzeko emaginak laguntzen zien (ETX-025/055)

Umeak etxean edukitzeko komadronak laguntzen zien. Bere emagina bere lehengusina izaten zen. Lanean egoten zen azken momentura arte. Normalean ez ziren ginekologora joaten, Rafaela behin bakarrik egon zen, lehenengo alabarekin.

855. Bularra ahal zuen denbora guztia ematen zien haurrei (ETX-025/056)

Umeak hazteko bularra ematen zien. Hil zen semearen 17 hilabete arte bularra bakarrik ematen zion. Rafaelak bular txikiak zituen, baina esne askokoak. Bere amak beste andreen umeei ere ematen zien bularra.

856. Herriko medikua (ETX-025/060)

Beraiek haurrak zirenean medikua Don Tomas zen. Bihotzeko batekin hil zen. Rafaelaren osaba bat appendizearekin hil zen.

857. Lur-emateak (ETX-025/061)

Lur-ematea goizean egiten zen, eta, ondoren, bazkaria egiten zen. Herri guztia joaten zen ehorzketara eta bazkaltzera.

858. Larraina (ETX-025/063)

Larraineko lanak nola egiten zituzten azaltzen du.

859. Garia (ETX-025/064)

Garia eskuz egiten zuten. Gero zakuetan sartzen zuten eta etxera eramaten zuten.

860. Ganaduaren janaria (ETX-025/065)

Ganadua basora eramaten zuten jateko.

861. Egur loteak (ETX-025/066)

Bera ezkondu zenean hasi ziren egur loteak banatzen. Ordura arte ahal zuten lekutik hartzen zuten egurra.

862. Belarra mozten segarekin (ETX-025/067)

Rafaelari asko gustatzen zitzaion segarekin ibiltzea belarra mozten. Neguan ere ibiltzen ziren.

863. Ez zuten berogailurik (ETX-025/068)

Etxean ez zuten berogailurik, baina estrabiak asko berotzen zuten.

864. Herriko festak (ETX-025/070)

Herriko festak orduan urrian ziren. Gehienetan euria egiten zuen, eta espartinekin ibiltzen ziren. Asko dantzatzen zuten. Mutilekin dantzatzen uzten zioten, baina bakarrik gehiegi arrimatzen ez zirenekin.

865. Bandak (ETX-025/071)

Festetan Etxarriko eta Altsasuko bandak egoten ziren.

866. Festetan ahaideak etortzen ziren (ETX-025/072)

Festetan ahaideak etortzen ziren etxera, 17 edo 18 lagun.

867. Festetako janaria (ETX-025/073)

Festetan bi ardi hiltzen zituzten jateko. Zopa ere egiten zen. Haragia bakarrik jaietan jaten zuten. Txitxirioak festetan bakarrik jaten ziren. Mahatsa ere erosten zuten, babarrun gorrien truke. Gaztainak ere jaten zituzten su baxuan erreta.

868. Soroko lanak gustatu ez (ETX-025/074)

Bere amaren anaia bat Irañetan ezkondu zen, eta Rafaela sorora ez joateagatik beraien etxera joaten zen, etxeko lanak egitera. Gaztaina bila ere joaten zen.

869. Igandeetan lan egiteko apaizari eskatu behar zitzaion baimena (ETX-025/075)

Etxea egiteko apaizari eskatu behar zioten baimena, igandeetan egiten zutelako. Igandeetan lan egiteko, apaizari eskatu behar zitzaion baimena. Garai hartan apaizak ziren herrian agintzen zutenak.

870. Gregorioren aitona abeltzaina zen (ETX-026/002)

Bere aitona abeltzaina zen, ganadua zuen: behiak, txerriak, oiloak, txekorrak, txerrikumeak...

871. Aitaren ofizioa (ETX-026/003)

Gregorioren aitak fabriketan egin zuen lan, zerrategian eta "Cementosen". Soroan ere egiten zuen lan etxerako.

872. Gregoriok industrian lan egin zuen (ETX-026/004)

Gregoriok erabat utzi zuen nekazaritza, eta industrian lan egin zuen.

873. Abizenaren sorrera (ETX-026/005)

Sortzez denak Etxarrikoak dira. Goñi abizena Amezketatik heldu da.

874. Garai hartako bizitza (ETX-026/006)

Nahiko berdintsu bizi ziren denak, zeukatenarekin bizi ziren eta normaltasunez.

875. Etxean bizi zirenak (ETX-026/007)

Etxean bost anai-arreba (lau anaia eta arreba bat), aita eta ama bizi ziren. Bera hirugarrena da.

876. 14 urterekin hasi zen lanean aprendiz bezala (ETX-026/008)

14-15 urterekin lanean hasi zen. Eskolan oinarritzkoa egin zuten. Bere ofizioan aprendiz moduan sartu zen, eta bertan ikasi zuen.

877. Etxearen deskribapena (ETX-026/009)

Etxean sartu eta eskuinean sukaldea zegoen. Bertan ogia egiteko labea zuten. Ogia etxean egiten zen. Komunik ez zuten, eta estrabian leku bat zuten eginbeharrak egiteko.

878. Estrabia eta abereak (ETX-026/010)

Estrabian txerriak eta behiak egoteko lekua zuten. Normalean hiru behi izaten zituzten; bat esnea emateko, eta beste, bi soroan lan egiteko. Nekazari etxe handiak zirenak idiak zituzten, baina beraiek behiak.

879. Etxeko argia (ETX-026/011)

Bi bonbilla zituzten etxe osorako. Bat goiko aldean eta bestea behean.

880. Sukaldearen deskribapena (ETX-026/012)

Sukaldean hasieran su baxua zuten eta gero ekonomika jarri zuten. Ogia egiteko labea zuten.

881. Arropa garbitzeko lixiba (ETX-026/013)

Arropa garbitzeko lixiba egiten zuten. Arropa errautsarekin egosten zuten. Gero, lehortzeko herriko bazterretan jartzen zituzten, sasietan. Arropa hilean behin aldatzen zuten, eta neguan, gutxiago.

882. Garai hartako higieua (ETX-026/014)

Orduan gutxi garbitzen ziren. Txikiak zirenean, amak noizean behin garbitzen zien. Negu guztian bi edo hiru aldiz garbitzen ziren. Orduan ez zen egoten izerdi usainik. Etxe guztietan behiak eta txerriak zeuden, eta beraientzat ez zuten gaizki usaintzen, baina kanpoko jendea etortzen zenean nabaritzen zuten.

883. Ura (ETX-026/015)

Ura betidanik izan dute etxean.

884. Lo egiteko nola moldatzen ziren (ETX-026/016)

Beraiek etxean zortzi bizi ziren. Aitonak anaia gazteenarekin egiten zuen lo. Bi anaia zaharrenak elkarrekin. Arreba beste ohe batean.

885. Koltxoiak (ETX-026/017)

Koltxoiak artilezkoak ziren. Urtean behin makil batekin jo eta arrotu egin behar ziren. Arto lastozko koltxoiak ere bazeuden, lastairak.

886. Eguneroko janaria (ETX-026/018)

Goizean, esnea hartzen zuten ogi zoparekin. Babarrunak eta patata asko jaten zituzten. Normalean bi txerri hiltzen zituzten urtero; bat, Gabonetarako, eta bestea, otsail aldera. Garai hartan, harategia zegoen, eta noizean behin txekorra jaten zuten. Merendatzeko ogi zati batean esnegaina azukrearekin. Batzuetan, txokolate pixka bat ere jaten zuten (bi zati hiru lagunentzako). Noizean behin zopa, makarroiak eta arrosa ere jaten zuten, baina orokorrean babarrunak eta patatak. Gauean porru patatak.

887. Txerria hiltzeko eguna (ETX-026/019)

Txerria nola hiltzen zuten azaltzen du. Hurrengo egunean haragia puskatzen zen, eta odolkiak, biriak eta txistorrak egiten zituzten. Haragia oliotan edo gatzarekin mantentzen zuten.

888. Presenteak (ETX-026/020)

Presenteak familiako gehienei ematen zitzaizkien. Presentea normalean odolki bat, gibel puska bat eta urdai puska bat izaten zen. Beraiek apaizari ez diote sekula eman presenterik, Etxarrin ez zegoen horretarako ohiturarik.

889. Apaizak (ETX-026/021)

Apaizak diktadore batzuk ziren.

890. Abereen lanak (ETX-026/022)

Etxean denek egiten zituzten animalien lanak. Berak 10 urtetarako esnea jezten zuen. Behi batek errape batean tumore bat zuen kasu berezi bat kontaktzen du.

891. Ogia nola egiten zuten (ETX-026/023)

Amak ogia 15 egunero edo egiten zuen. Aldiro 10 ogi inguru egiten zituen. Ogia nola egiten zen azaltzen du. Labea tenperatura egokira iristen zela "a ojo" ikusten zuten. Ogi egin-berriak oso onak ziren, baina azken egunetan ez hain onak. Oihal batzuekin tapaturik gordetzen ziren leku fresko batean.

892. Etxeko almazena (ETX-026/024)

Etxean ez zuten freskerarik, baina gela ilun bat izaten zuten, eta bertan gordetzen zuten dena.

893. Hika, zuka eta berorika (ETX-026/025)

Beraiek etxean euskaraz hitz egiten zuten. Anaien artean hiketan aritzen ziren. Gurasoei, zuketan, eta beraiek hiketan erantzuten zieten. Gurasoek haien artean zuketan. Apaizari eta medikuari berorika egiten zitzairen.

894. Patxarana (ETX-026/027)

Patxarana beti egin izan dute etxean. Kakatsekin (tapa culos) ere egiten zuten. Hori ona izaten zen diarrea mozteko.

895. Herritarren arteko giroa (ETX-026/028)

Herrikoen artean oso giro ona zegoen. Denok joaten ziren goizean mezara, eta handik aterata kantari aritzen ziren kalean. Asko laguntzen zieten elkarri "trilladora" garaietan, adibidez. Bere aita nahiko artista zen behiak jaiotzen laguntzen, eta etxe askotara joaten zen laguntzera.

896. Etxarriko antolaketa (ETX-026/029)

Gregorio gaztea zenean 2.000 pertsona inguru bizi ziren Etxarrin. Gero, jende asko Gipuzkoara joan ziren. Etxarrin baserri gutxi zeuden, kaskoa zen gehiago, lau auzo zeuden. Auzo bakoitzean arduradun bat zegoen. Arduradun horrek loteak libre edukitzen zituen. Oso zerga gutxi ordaintzen zuten.

897. Udalaren antolamendua (ETX-026/030)

Udalean "veintena" zegoen. Orduan batzar asko egiten ziren, eta etxe bakoitzeko bana joaten zen. Garai hartan, ez ziren bozketak egiten. Batzar horietan herriko gauza asko erabakitzen ziren.

898. Lizarrengo (Lizarragabengoa) (ETX-026/031)

Lizarrengo ez da kontzeju aparte bat, Etxarrikoa bezala da, baina berezia da. Markes bati erosi zitzaion herria. Kontribuzioa Etxarrin ordaintzen dute.

899. Inguruko herriekin zuten harremana (ETX-026/032)

Arbizurekin eta Lakuntzarekin pikeak egoten ziren. Elkarri harriak botatzen aritzen ziren. Bakaikurekin ez zuten pikerik izaten.

900. Etxarriko banda (ETX-026/033)

Etxarrin banda zegoen. Igandero dantza egoten zen, Aste Santuan izan ezik. Ondoko herrietako jende asko etortzen zen.

901. Etxarriko feriak (ETX-026/034)

Hilero ganadu feria egoten zen 5ean, 15ean eta 25ean. Animalia ezberdinak egoten ziren, baina batez ere txerria eta behia. Kanpoko jende asko etortzen zen ferietara, eta tratanteak ere bai.

902. Herriko klase sozial ezberdinak (ETX-026/035)

Herrian gehienak maila berekoak ziren. Nekazari etxe handiagoak zirenak pixka bat hobeto bizi ziren. Baina aberatsak ere ez zeuden. Medikua, praktikantea, alkatea... kultura gehiagoko jendea ziren.

903. Herriko ofizioak (ETX-026/036)

"Silleroak", txokolateroa, errementaria, zurgina, ferratzailea, xaboilaria... gehien bat esku-lanekin zerikusia zuten ogibideak izaten ziren herrian. Errementariak barandak eta horrelakoak egiten zituen.

904. Aguazila (ETX-026/037)

Aguazila bazegoen Etxarrin. Bandoak botatzen zituen egunero; adibidez, arrain-saltzaileak zetozenean.

905. Serenoa (ETX-026/038)

Serenoa gazte guztien atzetik ibiltzen zen.

906. Kartzela (ETX-026/039)

Kartzela udaletxe azpiko gela batean zegoen. Kanean kaka edo pixa egiten harrapatzen bazituzten kartzelara eramaten zituzten.

907. Aizkora-apustuak (ETX-026/041)

Etxarrin aizkora-apustu asko egiten ziren. Gizon asko basoan lanean egoten ziren, eta herrira bueltatzen zirenean apustuak egiten zituzten. Pilota txapelketak ere egiten ziren. Normalean, dirua ez zuten jokatzeko, ez zegoelako.

908. Beste herrietako jendearentzat izen bereziak (ETX-026/042)

Arbizuarrek esaera bat zuten Etxarriarrei esateko, eta etxarriarrek arbizukoentzako ere bai. Orduan, Sakana hiru bailaratan zatituta zegoen; Burunda, Barranka eta Arakil. Orokorrean, ez zuten burlarik beraien artean deitzeko. Urdiandarrei "jentilak" esaten zieten.

909. Eskaleak (ETX-026/043)

Orduan asko ibiltzen ziren eskean. Ijitoak ere asko ibiltzen ziren. Beti ematen zitzairen zerbait, bakoitzak ahal zuena. Lehenago askoz gehiago laguntzen zen.

910. Lur komunalak eta loteak (ETX-026/044)

Etxarrik lur komunalak zituen, eta horiek lotean ematen ziren. Udaletxeak etxe bakoitzari lur zati bat ematen zion zortzi urterako. Ez zen ezer ordaindu behar. Basora behiak, txerriak, ardiak... eramaten zituzten jatera. Orduan, basoa garbi-garbi egoten zen. Orbel loteak ere ematen ziren.

911. Euskararen egoera (ETX-026/045)

Herrian % 99ak euskaraz egiten zuen. Gregoriok eskolara joan arte ez zekien erdaraz. Garai hartan, euskara debekatu egin zuten. Guardia Zibila txikiteoan ibiltzen zen herrikoekin. Maisuak ere erdaldunak ziren. Jendeak uste zuen euskarak prestigio gutxi zeukala, nolabait analfabetoen hizkuntza zela, eta familia askok euskara galdu egin zuten.

912. Terminoak (ETX-026/046)

Terminoen izenak aipatzen ditu. Lehenago soro bakoitzak zuen izena. Txabolak ere egoten ziren eta izena edukitzen zuten.

913. Etxeen izenak (ETX-026/047)

Etxe guztiek zuten izena. Batzuk abizenaren arabera izaten ziren, eta ofizioaren arabera ere bai. Izen batzuk aipatzen ditu.

914. Tabernak eta komertzioak (ETX-026/048)

Komertzioak eta tabernak beti egon dira herrian. Bi harategi zeuden.

915. Haurdunaldia (ETX-026/050)

Umeak jaiotzen zirenean emaginak laguntzen zien emakumeei. Gregorio jaio zenean amari ahizpa batek lagundu zion. Lehenago denak etxean jaiotzen ziren, eta, geroago, Iruñean. Haurdunaldian zehar ama ez zen medikuarengana joaten

916. Herriko medikua (ETX-026/051)

Etxarrin beti egon da medikua. Udaletxeak jorjala ordaintzen zion, eta 24 orduak egoten zen guardian. Medikua bakarra zegoen herri osoan. Batzuetan, beldurrez egoten ziren medikuari deitzeko.

917. Amaren purifikazioa (ETX-026/052)

Erditu ondoren amak etxean gelditu behar zuen egun batzuk, eta ezin zen etxetik atera elizara joan eta purifikazioa hartu arte. Hori elizaren kontua zen.

918. Amari erditu ondoren ematen zitzaion jana (ETX-026/053)

Amari erditu ondoren, oilasko salda ematen zitzaion. Etxeko emakumeen artean asko laguntzen zioten elkarri.

919. Bataioak (ETX-026/055)

Bataioa haurra jaio eta beranduenez bi egunetara egiten zen. Ondoren dirua eta gozokiak botatzen ziren.

920. Umetako jokoak (ETX-026/056)

Haurretan gauza askotan jolasten ziren. Joko batzuk azaltzen ditu. Jokoak: harrapatzera, "tres navios en la mar", tabak... Batzuetan, neskak eta mutilak elkarrekin jolasten ziren, baina beti ez.

921. Eskola (ETX-026/058)

Eskolan bost urtetatik 14 urtera arte egoten ziren. Neskak eta mutilak aparte ikasten zuten eta hiru taldetan banatuta. Katixima guztia buruz ikasten zuten, nahiz eta ez ulertu. Matematikak ikasten zituzten, Espainiako historia ere bai. Beti berdina ikasten zuten, liburua buruz zekiten. Guda ondoren, eskolan Cara al Sol kantatzen zuten. Larunbat arratsaldeetan, arrosario erreztatzen zuten apaizarekin. Garai hartan, dena oso manipulaturia zegoen.

922. Eskolako materiala (ETX-026/059)

Eskolan pizarra bat bakarrik zuten. Plumarik eta libururik ez zuten. Ariketak egiten zituzten pizarran, eta trapuarekin borratzen zuten. Azterketarik ez zen egoten. Emaitza txarrak zituztenak atzean jartzen zituen maisuak.

923. Anaia zaharrenak ez ziren eskolara joaten (ETX-026/060)

Anaia zaharrenak zirenek sorora joan behar izaten zuten lanera, eta ez ziren urte osoan eskolara joaten; bakarrik eguraldi txarra egiten zuenean.

924. Eskolako zigorrak (ETX-026/061)

Gregorio nahiko txintxoia zen eta maisuak ez zion jotzen, baina apaizak bai. Eskuan jotzen zieten makilarekin. Behin bi ordu egon zen belauniko zigortuta. Asko jotzen zen orduan.

925. Eskolan euskaraz egitea debekatua zegoen (ETX-026/062)

Eskolan euskaraz ezin zuten hitz egin, baina maisua ez zen oso zorrotza kontu horrekin.

926. Sakanako herrietako euskara ezberdina da (ETX-026/064)

Sakanako herrietako euskara ezberdina da. Gregoriok norbaiti hizketan entzunda badaki zein herrikoa den.

927. Gaztetako denbora pasak (ETX-026/066)

Gaztetan asko edaten zuten, mozkor bat edo beste harrapatzen zuten, eta parrandaren bat edo beste egiten zuten. 16 urtetatik aurrera tabernara joaten ziren txikito batzuk edatera.

928. Kantatzeko afizio handia zegoen (ETX-026/067)

Garai hartan, asko kantatzen zuten. Behin, San Ferminetan, Iruñera joan ziren, eta kantari ibili ziren, eta kanpotar batzuk janaria eman zieten debalde.

Nahiko ongi abesten zuten, garai hartan korua egon zen Etxarrin. Kanta guztiak euskaraz izaten ziren.

929. Ume izatetik gazte izatera (ETX-026/068)

Ume izatetik gazte izatera pasatzeko, zaharragoak pote bat hartzera gonbidatu behar zituzten.

930. Pregoi eguna (ETX-026/069)

Norbait ezkontzen zenean pregoiaren egunean, bazkal aurreko poteo guztia ordaintzen zuten. Pregoian nortzuk eta noiz ezkondu behar ziren esaten zen elizan.

931. Nesketan (ETX-026/070)

Neskekin ligatzeko dantza egiten zuten. Kuadrillan lauk musika jotzen zuten eta giro oso polita edukitzen zuten. Erromeria egunetan neskekin egiten zuten parranda, baina bestela ez. Lehen kuadrillan neskak eta mutilak bereiztuta ibiltzen ziren.

932. Neska-mutilen denbora pasak (ETX-026/071)

Dermioen erdi batean patatak, artoa, babarrunak... egoten ziren, eta bestean zerealak. Behiak eramaten zituzten hara jatera, eta egun guztia egoten ziren han neska eta mutilak jolasean behiei kasurik egin gabe.

933. Etxarriko banda (ETX-026/072)

Bandan 25 lagun inguruk jotzen zuten. Uniformea zuten. Gregoriok klarinetea jotzen zuen. Jotzen ikasteko solfeora joaten ziren; Etxarriko jende gehienak solfeoa zekien. Orduan, txistulari asko zeuden herrian. Gaur egun, musika eskola dago.

934. Bandaren aktuazioak (ETX-026/073)

Bandarekin Etxarrin jotzen zuten igandero. Altsasun eta Olaztin banda zegoen ere. Beste herrietara festetan joaten ziren jotzera. Eguberrietan eta festetan kontzertuak egiten zituzten. Festetan egunero diana jotzen zuten. Dedikazio handia suposatzen zuen bandak.

935. Gregorioren emaztea (ETX-026/074)

Bere emaztea Etxarrikoa zen, baina bere familia Ataundik etorri zen. Betidanik ezagutzen zuten elkar, eta bi edo hiru aldiz dantzatu zuten, eta etxera lagundu zion, eta galdetu zion ea bere andregaia izan nahi zuen.

936. Ezkontza (ETX-026/075)

Senar-andregai moduan bost urte egon ziren. Bost seme-alaba izan zituzten. Etxarrin ezkondu ziren, eta bazkaria ere bertan egin zuten lagunekin eta familiarekin.

937. Emaztearen ezkontzako jantzia (ETX-026/076)

Emaztea zuriz eta luzez ezkondu zen. Berak egin zuen soinekoa. Bere gurasoen garaian ezberdina zen, goizean goiz ezkontzen ziren, eta Donostiara edo Bilbo ingurura joaten ziren oporretan.

938. Ezkonbidaia (ETX-026/078)

Urtarrilean ezkondu ziren. Hiru aste egon ziren oporretan: lehenengoa, Bartzelonan, bigarrena, Valentzian, eta hirugarrena, Madrilan.

939. Arreoa (ETX-026/080)

Arreoa ohe oihalak, mantelak... izaten ziren. Emazteak eta senarrak jarri behar zituzten. Bereak arrebak egin zituen.

940. Gregorioren lana (ETX-026/082)

Gregorio mekanikaria da. Aprestuz moduan hasi zen. Obrarako gisua egiten zuen hasieran. Gero, txaparekin egin zuen lan. Hortik Lakuntzara joan zen, eta han ikasi zuen mekanika. Bere lagunek 100 pezeta irabazten zituzten egunean, eta berak 30 prestuz bezala. Gero, Iruñean lan egin zuen bi urtez, eta Ufesan ere egon zen.

941. Fabrikako lan-baldintzak (ETX-026/083)

Orduan fabrikak berriak ziren. Hasieran 48 ordu egiten zituzten lan astean, zortzi ordu egunean (larunbatak barne). Gero 44 ordura jaitsi zen, eta, larunbatetan, lau orduz egiten zuten lan. Asegurua edukitzen zuten, eta "estrank" ere kobratzen zituzten.

942. Behiak zituzten etxean (ETX-026/084)

Behiak zituzten etxean, eta egunero larrera joaten zen belarra moztera behiei bazka emateko.

943. Lurra nola lantzen zuten eta erabiltzen zituzten tresnak (ETX-026/085)

Lurra nola lantzen zuten azaltzen du, eta erabiltzen zituzten erremintak. Lurra nahiko gogorra izaten zen. Laiak berak ez ditu erabili, baina bere aitak eta aitonak bai. Bi behi-parerekin lantzen zuten lurra.

944. Gerra garaia: familia nazionalista (ETX-026/087)

Beraien aita ez zen gudan egon. Bere etxean nazionalistak ziren. Bere garaian Etxarri banatu egin zen politikagatik, beti beldurrez egoten ziren. Emakume askori ilea moztu zieten, bere etxean inori ez, baina bere izebari adibidez bai.

945. Gerra garaiko kontuak (ETX-026/088)

Orduan fiskalia zegoen, eta oso gogorra zen. Beraiek etxean artoa, garia, babarrunak... zituzten. Bere aitona kartzelan egon zen, fiskalian 3.000 kilo gari eskatzen zizkietelako eta beraiek 2.000 kg inguru zituzten bakarrik. Gero, gari eta arto guztia kendu zieten. Kazikismo izugarria egon zen garai hartan. Gipuzkoara asko joaten ziren baserriak husterak. Etxarrik oso fama txarra dauka Goierri inguruan.

946. Karlistak, nazionalistak eta errepublikanoak (ETX-026/089)

Herrian nazionalistak eta errepublikanoak zeuden, baina gehienak Karlistak ziren.

947. Errazionamendua (ETX-026/090)

Errazionamenduan tiket moduko batzuk zituzten janaria erosteko.

948. Estraperloa (ETX-026/092)

Estraperlo gutxi egon zen inguru horretan. Beraiek goserik ez zuten pasa. Patatak, babarrunak... saltzen zituzten Gipuzkoara. Ez zuten uzten ogia egiteko garia erosten, bere aita Goñira joaten zen irin bila etxean ogia egiteko. Gehien bat Gipuzkoarekin egiten zuten estraperloa, Frantziarekin ez. Guardia zibilak mutil bat tiroz hil zuen bizikletan zaku erdi bat patata zeramalako. Errepidean Guardia Zibila eta Mikeleteak (Gipuzkoako foralak ziren) egoten ziren.

949. Herriko festak (ETX-026/093)

Hasiera-hasieran festak abuztuan izaten ziren, baina orduan lan asko egoten zen sorroan, eta urrira aldatu zituzten. Orain berriro aldatu dira abuztura. Udalak egunero ematen zuen ardoa. Musika banda egoten zen, eta orkestra bat ere egoten zen. Herri guztia ateratzen zen kalejiran.

950. Lotuan dantzatzea debekatu zuten (ETX-026/095)

Elizak indar asko zeukan, eta lotuan dantzatzea debekatu zuen. Apaizak ez zien uzten Dantzakia (Etxarriko dantza bat) ere dantzatzen eskutik helduta. Bere garaian apaizak indar pixka bat galtzen hasi ziren, ordura arte jaun eta jabe ziren. Dantzakia erromerietan dantzatzen zen, urtean hiru egunetan, San Kirikon, San Adrianen eta abuztuko Ama Birjinaren egunean.

951. Erromeriak (ETX-026/096)

Erromeriak oso garrantzitsuak ziren. Erromerietara goizean goiz abiatzen ziren. San Adrianeko erromerian "fritada" egiten zen meza baino lehen, eta, ondoren, dantzak egoten ziren. Behiekin joaten ziren gurdian. Egun horietan ardo asko edaten zuten, aitonek mozkor-mozkor bukatzen zuten.

952. San Miguel (ETX-026/097)

San Miguelen sukalde bat zuten. Oinez joaten ziren Etxarritik arrosarioa kantatzen.

953. "Fritadak" (ETX-026/098)

San Adrianen "fritada" egiten zen, baina San Kirikon ez. Festetan ere egiten zen "fritada". Orain soziedadeetan egiten da.

954. Inauteriak (ETX-026/099)

Bere garaian inauteriak debekatu egin ziren. Urte batean zaku batzuekin jantzi ziren eta gizon batek guardia zibilar deituko ziela esan zien. Beraien gurasoen eta aiton-amonen denboran ospatzen ziren inauteriak.

955. San Joan bezpera (ETX-026/100)

San Joan bezperan suak egoten ziren. Salto egin baino lehen "zorriak eta partzak hiltzeko" esaten zuten.

956. Maiatzeko festa (ETX-026/102)

Urbanan ganadu asko egoten zen, eta maiatzean belarra zegoela esateko eta ganadua eraman zitekeela esateko edo, festa bat egiten zen. Maiatzaren batean mendira joaten dira, eta han goian arbola bat landatzen dute. Orain udaletxeak gosaria ematen du. Lehenago artzainek egiten zuten bakarrik, orain herri guztiak.

957. Kintoak (ETX-026/104)

Kintoak arduratzen ziren festetako musikaz. Udaletxeak orkestra ekartzen zuen, eta kintoek beste musika bat ekartzen zuten.

958. Txakurra eta katua jaten zuten (ETX-026/106)

Etxarrin txakurra eta katua asko jaten zen. Garai batean, ez zegoen ezer gehiago eta oso ona zen.

959. Gaztainak eta zizak (ETX-026/107)

Ziza asko daude Etxarri inguruan. Lehenago, ohitura handia zegoen gaztainak hartzeko. Atauneraino joaten ziren gaztaina bila. Gaur egun gaztaina gutxiago dago.

960. Umeak beldurtzeko istorioak (ETX-026/108)

Ez ziren lamien eta sorginen istorioak egoten. Umeei beldurra sartzeko sakamantekasen kontua kontatzen zieten.

961. Edari medizinalak (ETX-026/109)

Etxe askotan edari medizinalak egiten zituzten. Beraiek ezer ez.

962. Neguan ere galtzamtzetan ibiltzen ziren (ETX-026/111)

Gazteak zirenean, galtza motzekin ibiltzen ziren neguan elurrean jolasean. Osasun handia zuten orduan. Umetan galtzontzilo gabe ibiltzen ziren. 14 urterekin galtzontziloak eta galtza luzeak jartzen zituzten, eta lanean hasten ziren.

963. Haurrak oso helduak ziren garai hartan (ETX-026/112)

Lehen orain baino helduagoak ziren umeak. Berak 11-12 urterekin anaia zaharrari laguntzen zion soroan. Ume izatetik gizon izatera pasatzen ziren egun batetik bestera. Bere anaia soldadu zegoenean, fabrikara joan baino lehen soroan lanean egoten zen, aita ere gaixo zegoelako.

964. Etxea anaia zaharrenarentzako izaten zen (ETX-026/113)

Lehenago etxea seme bakarrarentzako izaten zen beti, ez zen anai-arreben artean banatzen.

965. Manoloren familia (ETX-027/003)

Aita hil zenean, bera zen senide zaharrena, 11 urte zituen. Amak lan asko egin behar izan zuen. Manolo 14 urterekin hasi zen lanean. Bere bi anaiak ikasten egon ziren Iruñean

966. Familiaren bizilekua (ETX-027/004)

Txikitan, "karrika-estun" bizi ziren. Gero, etxe babestuetara joan ziren bizitzera; berak 24-25 urte zituenean.

967. Etxearen deskribapena (ETX-027/005)

Etxean sartu eta eskuinean sukaldea zegoen, eta ondoan estrabia. Gainean bi gela eta alkobak.

968. Etxeetako ura eta komuna (ETX-027/008)

Etxean ura bazuten. Komuna ez zegoen, eta egin beharrak estrabian egiten zituzten.

969. Etxeko argia (ETX-027/009)

Etxean argia bazuten. Errotatik etortzen zen argindarra, eta oso argi gutxi izaten zen. Estrabian, sukaldean eta goian zituzten bonbillak.

970. Koltxoiak (ETX-027/010)

Artoaren hostoekin egiten zituzten koltxoiak. Koltxoiak ez zituzten urtero berritzen.

971. Arroparen garbiketa (ETX-027/011)

Arropa garbitzera ama garbilekura joaten zen. Etxarrin lau garbileku zeuden.

972. Abereak (ETX-027/012)

Udan eta udaberrian basora joaten ziren. Herrian hiru langile zeuden abereentzako. Ahuntzainak goizeko 07:00etan korneta jo eta ahuntzak eramaten zituen mendira. Gero, behiak eta behorrak eramaten zituzten, eta, gauean, berriz, ekartzen zituzten etxera. Zerbait ordaintzen zitzairen abere kopuruaren arabera. Izenak: ahuntzaina, behizalea eta behorzalea.

973. Amak kanpokoentzako arropa garbitzen zuen (ETX-027/013)

Amak kanpokoentzat garbitzen zuen arropa. Pozala buruan jarri eta garbilekura joaten zen. Neguan, askotan, ura izoztuta egoten zen.

974. Lixiba (ETX-027/014)

Arropa errautsarekin garbitzen zuten sutan. Arropa zuritzeko izaten zen hori. Berak ez du ezagutu xaboia etxean egitea.

975. Familia pobrea ziren (ETX-027/015)

Pobreak ziren eta gauza gutxi jaten zuten. Ez zuten ganadurik ere. Baratzea zuten. Irina ere justu edukitzen zuten. Artoa errotara eramaten zuten, eta taloa jaten zuten.

976. Txerri-hiltzea (ETX-027/016)

Etxean txerria hiltzen zuten. Txerria hiltzeko bi pertsona zeuden herrian. Txerria hiltzen zenean festa izaten zen. Hil ondoren gosaldu egiten zuten. Amak adoboa prestatzen zuen, eta txerria hozten uzten zen hurrengo egunera arte. Urdaiazpikoak gatzetan sartzen ziren, eta zintzilik jartzen ziren lehortzeko.

977. Presenteak (ETX-027/017)

Presentea beti ematen zioten ahaideei eta aldamenekoei. Tripotak, solomo puska bat eta urdai puska bat izaten zen normalean. Txerri erdia eman egiten zen. Beraiek apaizari ez zioten ematen.

978. Gizonen arropak (ETX-027/018)

Garai hartako gizonak blusa janzten zuten. Anaia gazteenek zaharrenaren arropa erabiltzen zuten. Ama beti ibiltzen zen arropak josten.

979. Diru gutxi zuten (ETX-027/019)

Senide asko ziren, eta diru gutxi zuten. Dendak ordaindu gabe ematen zien jana, eta diru pixka bat lortzen zutenean ordaintzen zuten.

980. Emakumeen arropak (ETX-027/020)

Emakume zaharrek beltzez eta luzez jartzen zuten eta buruan zapia. Gazteagoak pixka bat aldatu ziren.

981. Manoloren jorna (ETX-027/021)

Manolok hasieran 4 pezeta irabazten zituen egunean. Zerrategian lanean hasi zenean gehiago irabazten zuen. Jorna pixka bat irabazten hasi zenean hobeto bizitzen hasi ziren, baina gose dezente pasa dute.

982. Eguneroko janaria (ETX-027/022)

Gosaltzeko esne pixka bat hartzen zuten talo batekin. Goiz guztian ez zuten ezer gehiago jaten. Bazkaltzeko potajea bakarrik jaten zuten, raziorik ez. Afaltzeko patatak eta sardina zahar pare bat denentzako. Denek plater beretik jaten zuten, eta ez zuten ezta mahairik ere, lurrean jaten zuten.

983. Patxarana eta orujoa (ETX-027/024)

Garai hartan, ez zen patxaranik egiten. Orujo moduko bat egiten zuten. Sorora joaten zen jendeak edaten zuen ogi zati batekin. Gero, andreak eramaten zien gosaria sorora.

984. Herritarren arteko harremanak (ETX-027/025)

Herriko jendearen arteko harremana oso ona zen. Denek elkar ezagutzen zuten, eta elkarri asko laguntzen zioten. Oso herri batua zen.

985. Etxarrin ez zegoen baserririk (ETX-027/026)

Etxarrin ez zegoen baserririk. Bi baserri bakarrik zeuden.

986. Elkarri laguntzen zioten (ETX-027/027)

Elkarri laguntzen zioten jorran, gari denboran trilladorarekin, larrainetan... Lan handia izaten zen.

987. Aberatsak eta pobreak (ETX-027/028)

Herrian bazeuden aberatsagoak eta pobreagoak zirenak. Diruz agian ez, baina nekazaritzan nabaritzen zen gehien bat. Batzuk asko eta besteak ezer ez.

988. Soroak lotean ematen ziren (ETX-027/029)

Jende gehiena jornalean aritzen zen. Etxarrin denok zuten soro zati bat lotean ematen zietelako. Loteak udaletxeak banatzen zituen, eta betiko izaten ziren. Ez zen ezer ordaintzen.

989. Egur eta orbel loteak (ETX-027/030)

Egur loteak eta orbel loteak egoten ziren urtero. Orbela ganaduarentzako izaten zen.

990. Pobreen eta aberatsen arteko harremanak (ETX-027/031)

Pobreen eta aberatsen artean harremanak berdintsuak ziren, beti egoten zen diferentzia pixka bat, baina asko ere ez. Aberatsek ere lana egiten zuten. Jende asko Gipuzkoara joaten zen lanera.

991. Auzolanak (ETX-027/033)

Auzolanean bideak konpontzen ziren. Ganadua zeukanak gurdiarekin ibiltzen zen eta besteak eskuz. Soldata txiki bat ordaintzen zieten.

992. Herriko ofizioak (ETX-027/034)

Herrian bi edo hiru errementari zeuden, ferratzailea, ikazkina, teileria, zerrategia... Jende asko basoan aritzen zen lanean enborrak mozten, ikatza egiten... Etxarriko basoetan eta kanpoan ere aritzen ziren.

993. Udaletxearen antolaketa (ETX-027/035)

Udaletxea "veintenan" zegoen antolatua. 11 zinegotzi, alkatea eta "veintenteak" egoten ziren. Hogeikoa herriko diru gehien zutenek osatzen zuten. Beraiek hartzen zituzten herriko erabakiak. Orduan ez zen bozketarik egiten. Ez zen batzarrik egiten.

994. Aguazila, serenoa eta kamineroa (ETX-027/036)

Aguazila eta serenoa beti ezagutu izan ditu herrian. Kamineroa ere egoten zen. Aguazilak bandoak botatzen zituen kalean zehar. Serenoa gauean ibiltzen zen eta orduak eta denbora ematen zituen. Kamineroak bideak konpontzen zituen.

995. Herriko komertzioak eta feriak (ETX-027/037)

Lau edo bost komertzio zeuden. Hilean hiru egunetan (5ean, 15ean eta 25ean) feria egiten zen. Herri guztietako ganadua ekartzen zen. Jatetxeek egun horietan negozioa egiten zuten. Egun horietan jendea sorora joaten zen, baina erdi jai izaten zen.

996. Tabernak (ETX-027/038)

Herrian zazpi taberna inguru zeuden.

997. Auzoak (ETX-027/039)

Herria auzotan banatzen zen eta jendeak auzo sentimendua zuen. Baina ez zen bizitza bereiztuta egiten. Kalea estuak ziren.

998. Etxeen izenak (ETX-027/040)

Etxe gehienek izena zuten. Normalean garai bateko abizenarekin edo ogibidearekin ezagutzen ziren, batzuetan ez zuen ikustekorik momentuan bizi zen jendearekin.

999. Terminoak (ETX-027/041)

Terminoen izenak aipatzen ditu. Terminoen zati batean garia ereiten zen, eta, bestean, patata, babarrunak... Zati batean ganaduak jan ahal izateko eta bestean etxerako. Hiru edo lau txabola izaten ziren bertan bazkaldu ahal izateko.

1.000. Etxarriko hizkuntza nagusia euskara zen (ETX-027/042)

Etxarrin gehienek euskaraz hitz egiten zuten. Gero, kanpotik jende asko etorri zen, eta erdaraz asko hasi ziren. Eskolan erdaraz aritzen ziren, baina kalean beti euskaraz.

1.001. Hika, zuka eta berorika (ETX-027/043)

Gazteen artean hiketan hitz egiten zuten. Zaharragoei eta gurasoei zuketan. Apaizei euskaraz egiten zieten.

1.002. Manoloren alkatetza garaiak eta intsumisioaren borroka (ETX-027/045)

Manolo Etxarriko alkatea izan zen 1991an, hiru urtez. Lau urte egon behar zuen, baina orduan hasi zen intsumisioen borroka eta soldaduskaren kontra bozkatzeari alkatetzatik kendu zuten. Epaiketak eduki zituen eta ezgaitu egin zuten 8 urtetarako.

1.003. Intsumisioaren eta independentziaren aldeko borroka (ETX-027/046)

Bere alkatetza garaian egindako gauzarik garrantzitsuenak intsumisioen borroka eta euskaldunon independentziaren aldeko mugimendu bat izan ziren. Independentziaren aldeko manifestu bat egin zuten, eta Gipuzkoako alkate asko etorri ziren. Ikurrina jartzearen alde ere borrokatu zuten, egunero kuartelera joaten zen.

1.004. Barrikadak (ETX-027/047)

Kuartelean ematen zioten tratua oso txarra izaten zen. Garai hartan, jendea oso bero zegoen. Larunbatero barrikadak egiten ziren errepide jeneralean. Edozer gauza zegoela bere bila joaten zen guardia zibila.

1.005. Herri Batasunako alkatea izan zen (ETX-027/048)

Herri Batasunaren izenean izan zen alkate Manolo. Epaiketen ondorioz, azkenean sei urteko ezgaitzea eta 100.000 pezetako multa jarri zioten. Garai hartan, Etxarrin mugimendu handia zegoen, gauza nazional asko egiten ziren. Lakuntzako HBko kontzejal bat hil zuten. Oso legislatura txarra eduki zuen, jaleoz betetakoa.

1.006. Alkatetza garaiko momenturik politena eta txarrena (ETX-027/049)

Bere alkatetza garaiko momenturik politena alkate guztiek independentziaren aldeko manifestua sinatu zutenean izan zen. Momenturik txarrena eta gogorrena inhabilitazioa izan zen. Baina harro dago horregatik, intsumisoen alde lan egiteagatik izan zelako eta azkenean lortu zutelako.

1.007. Erditzea (ETX-027/050)

Manoloren seme-alabak Iruñean jaio dira. Lehenago emagina egoten zen amari laguntzeko. Gogorra izaten zen.

1.008. Amaren lana (ETX-027/051)

Ama haurdun zegoenean lanean egoten zen azken egunera arte. Aita hil zitzairenean amak besteentzako arropa garbitzen zuen diru pixka bat egiteko.

1.009. Bataioa eta purifikazioa (ETX-027/052)

Bataioa jaio eta 8 egunetara egiten zen. Ordura arte ama ezin zen etxetik atera elizatik pasa gabe eta purifikazioa hartu gabe.

1.010. Haurretako jokoak (ETX-027/053)

Haurrak zirenean potera eta ezkutaketara jolasten ziren. Oso giro polita egoten zen. Gurdiekin ere jolasten zuten.

1.011. Eskola garaia (ETX-027/054)

Eskolan 6 edo 7 urterekin hasten ziren. Bera eskolan gutxi ibili zen, anaia zaharrena zelako eta gainera aita hil zenez, 12 urterekin zerbitzatzera joan zen. Baina itzuli zenean gauean partikularretara joaten zen.

1.012. Eskolako baldintzak (ETX-027/055)

Eskolak politak ziren, baina ke asko egoten zen egurrezko estufak zeudelako. Erregelarekin edo arbela borratzeko zepiloarekin jotzen zieten. Maisua sartzen zenean denak zutik jartzen ziren eta Cara al Sol abesten zuten. Hotz handia egiten zuen eskolan.

1.013. Neskak eta mutilak parte ikasten zuten (ETX-027/056)

Neskek eta mutilek bereiztuta ikasten zuten. Sei gela zeuden, hiru neskentzako eta hiru mutilentzako. Gehien zekitenak aurreko lerroan jartzen ziren eta besteak atzean.

1.014. Eskolako materiala (ETX-027/057)

Eskolan liburu bat eta pizarrak zituzten. Maisuak ez zien kasurik egiten, egunkaria irakurtzen egoten zen.

1.015. Eskolan erdaraz (ETX-027/058)

Eskolan dena erdaraz ikasten zuten. Maisu euskaldun bat zuten, baina hala ere erdaraz erakusten zien.

1.016. Eskolako zigorrak (ETX-027/059)

Eskolan belauniko jartzen zituzten eta eskuetan liburuak. Nahi zutena egiten zuten maisuek.

1.017. Festetako giroa (ETX-027/060)

Gaztetan festetan oso ongi pasatzen zuten. Txaranga herri guztitik ibiltzen zen, eta gazte guztiak elkartzen ziren. Gaur egun ez da inor ibiltzen. Neskak ere ibiltzen ziren festetan.

1.018. Herriko festak (ETX-027/061)

Festak urrian izaten ziren, gehienetan eguraldi oso txarra egiten zuenez abuztura pasa zituzten. Etxarrin banda zegoen orduan, baina gazteen artean beste orkestra bat ordaintzen zuten. Gaur egun gazteak egunez ez dira ateratzen, gauean ibiltzen dira bakarrik. Garai hartan, ez zen herri bazkaririk egiten. Festetan ahaideak etortzen ziren etxera. Orduan ez zen elkarterik egoten, dena etxean egiten zen.

1.019. Jaietako janaria (ETX-027/062)

Festetan oilaskoa jaten zen, eta Gabonetan kapona.

1.020. Olio oso garestia zen (ETX-027/064)

Olio litroak, garai hartan, 100 pezeta balio zuen, eta sakarinak 1000 pezeta. Oso garestia zen.

1.021. Igandeak (ETX-027/065)

Igandetan meza nagusira joaten ziren, eta, ondoren, txikiteoan. Bazkaldu ondoren, berriz tabernara joaten ziren kafea hartzera. Arratsaldean banda egoten zen, eta neska-mutilak dantzan aritzen ziren.

1.022. Soldaduskako kontuak (ETX-027/067)

Manolok soldaduska Afrikan egin zuen. Urte eta erdi egon zen. Trena hartu zuten Iruñean, eta bi egun kostatu zitzairen Malagara iristea. Handik barkuan joan ziren Afrikara. Orduko pasadizoak kontatzen ditu.

1.023. Manoloren emaztea (ETX-027/068)

Bere emaztea Etxarrikoa da, baina kanpoan egoten zen zerbitzatzen eta ez zuen ia ezagutzen.

1.024. Senargai denbora I (ETX-027/069)

Nobioak zirenean plazan ibiltzen ziren kuadrillan. Gero bakarrik ibiltzen hasi ziren. Festetan herrietara joaten ziren, baina 10etarako etxean egon behar ziren, ama itxoitzen egoten zen.

1.025. Ama ezkongabeak (ETX-027/070)

Garai hartan neskaren bat ezkondu baino lehen ernari geratzen bazen putatzat hartzen zuten.

1.026. Senargai denbora II (ETX-027/071)

Senargaietan sei edo zazpi urte egon ziren. Manolo 27 urterekin ezkondu zen.

1.027. Ezkontza (ETX-027/072)

Etxarrin ezkondu ziren. Lehenago senargaia joaten zen eta neskari itxoiten zion elizan. Meza ondoren bazkaria eta musika egoten zen. Musika lagunek ordaintzen zuten. Plater nagusia oilaskoa izan zen.

1.028. Ezkonbidaia (ETX-027/073)

Ezkonbidaian Bartzelonara joan ziren zortzi egun.

1.029. Pregoi eguna (ETX-027/074)

Etxarrin pregoi eguna egiten zen. Ezkontza baino aste bete lehenago egiten zen eta nortzuk ezkonduko ziren aipatzen zen, norbaitek zer edo zer esateko baldin bazuen.

1.030. Soltero despedidak (ETX-027/075)

Orduan ez zuten soltero despedidarik egiten.

1.031. Eskua eskatzea (ETX-027/076)

Eskua eskatzea ez zen egiten. Manolok ezagutzen zituen andregaiaren gurasoak. Asko egoten zen bere etxean. Etxean nahi zuen guztia egon zitezkeen, baina etxetik kanpo ez.

1.032. Heriotza: belatorioa eta entierroa (ETX-027/077)

Norbait hiltzen zenean etxean egiten zen belatorioa. Auzoko jendea etortzen zen eta arrosarioa errezatzen zuten. Entierrotik etorri ondoren jateko pixka bat ematen zen. Gaur egun ere ematen da, baina sozietateetan

1.033. Hiletak (ETX-027/078)

Hiletak primerakoak, segundakoak eta tercerakoak izaten ziren.

1.034. Gerra garaiko kontuak (ETX-027/080)

Gerra garaiko alkatea (Barandalla) erreketeen kapitaina izan zen. Garai hartan, Etxarriko lau gizon eraman zituzten, eta hil egin zituzten. Mehatxuak egoten ziren. Etxarrin bi alde zeuden karlistak eta errepublikanoak

1.035. Karlistak eta falangistak (ETX-027/081)

Karlisten eta falangisten artean ez zegoen pikerik. Etxarrin denetarik zegoen. Bere aita garai hartan UGTkoa zen, eta, fitxatuta zegoen, baina botikariak falangean afiliatu zuen ezer ez gertatzeko eta horrela salbatu zen.

1.036. Gazte bat bizirik bota zuten simara (ETX-027/082)

Apaizak garai hartan oso gaiztoak ziren. Mugimenduaren aldekoak ziren, eta beraiengatik jende asko hil zuten. Urtero joaten dira hildakoei omenaldia

egitera Urbasara. Behin bat bizirik bota zuten, eta gainean graba kamioi bat bota zioten. Garai hartan, kontuz ibili behar ziren esaten zutenarekin.

1.037. Estraperloa (ETX-027/083)

Estraperloan bizikletarekin joaten ziren Gipuzkoara eta handik ere trenean etortzen ziren janari bila. Gipuzkoan oso gaizki pasa zuten ez zutelako jatekorik, Etxarri inguruan lurra zeuden, eta janari gehiago zegoen.

1.038. Guardia Zibila (ETX-027/084)

Guardia Zibila betidanik egon da Etxarrin. Lehenago herriko jendearekin ibiltzen ziren txikiteoan.

1.039. Serenoarekin eta alkatearekin izandako pasadizoa I (ETX-027/085)

Behin tabernatik atera zirenean serenoak eta alkateak mozkor bat zeramaten kartzelara arrastaka.

1.040. Serenoarekin eta alkatearekin izandako pasadizoa II (ETX-027/087)

Kartzela udaletxe azpian egoten zen. Sartzera zihoazenean beraiek alkatea eta serenoa bultzatu eta han itxi zituzten eta mozkorra etxera eramane zuten. Hurrengo egunean zerrategira guardia zibil pare bat joan zitzaizkion bila koartelera eramateko. Han deklaratu zuten eta kartzelara sartu behar zituzten. Sekretarioak ez zituen kartzelara sartu. Baina gauza ez zen hor gelditu, handik sei hilabetera juizioa eduki zuten Iruñean, baina libre atera ziren.

1.041. Serenoarekin istiluak (ETX-027/088)

Orduan tabernak goiz ixten ziren. Serenoa joaten zen tabernak ixtera. Ondoren kaleetan kriston istiluak egoten ziren serenoarekin.

1.042. Erromeriak (San Adrian) (ETX-027/089)

San Kiriako eta San Adrian erromeria ezagunak dira. Abuztuko Ama Birjinaren eguna ere festa handia da. San Adrianetan han bazkaltzen zuten. Gurdian barrika handi bat eramane zuten. Ganadua eramane zuten eta han jaten egoten ziren. Udaletxeak fritada egiten zuen goizean, haragia eta zopa emane zuten. Ondoren meza egoten zen. Gaur egun nola izaten den azaltzen du. Arratsaldeko 7ak aldera Dantzakia dantzatzen da txistulariekin.

1.043. Erromeriak (San Kiriako) (ETX-027/090)

San Kiriako ekainaren 13an da. Egun horretan afaria egiten da. Udaletxea txistuarekin joaten da.

1.044. Inauteriak (ETX-027/092)

Inauteriak bere garaian ez ziren ospatzen, debekatuta zegoen. Gaur egun bai.

1.045. San Joan bezpera (ETX-027/093)

San Joan bezperan sua egiten da kalean. Kale bakoitzean su bat egiten zen. Salto egitean "zorriak eta partzak hiltzeko" esaten zen.

1.046. "Inutilaren eguna" (ETX-027/095)

Festetan udaletxeak lau egun egiten ditu. Bosgarrena mutilen eguna da eta seigarrena inutilaren eguna. "Inutilaren egunean" soldaduz eta militarrez jantzita ateratzen dira. Duela 15 urte inguru hasi ziren egiten.

1.047. Kinto festa (ETX-027/096)

Bere garaian kinto festa egiten zen. Beraiek ordaintzen zuten guztia. Bazkaria, afaria eta musika izaten zuten.

1.048. Sorgin afaria (ETX-027/098)

Eguberrietan, sorgin afaria egiten zuten neska-mutilek etxeren batean.

1.049. Errege bezpera (ETX-027/100)

Errege bezperan gaztetan "falekin" (zintzarriak) ateratzen ziren herriari buelta ematera erregeek opariak ekartzeko.

1.050. Aste Santuan karrakak jotzen zituzten (ETX-027/101)

Aste Santuan ezkilak ez ziren jotzen, eta karrakekin ibiltzen ziren kaleetatik barna meza zegoela abisatzeko.

1.051. Maiatzeko arbola (ETX-027/102)

Maiatzako lehenengo egunean, mendian arbola bat jartzen da. Horrekin adierazi nahi zen hortik aurrera ganadua joan zitekeela berriz mendira.

1.052. Etxarriko apaizak (ETX-027/104)

Erljioak presentzia handia zuen bizitzan. Etxarrin hiru apaiz zeuden, eta hiru meza egoten ziren egunean. Herri txiki guztietan zegoen apaiza. Mezak erdaraz izaten ziren. Katgoria ezberdinak zeuden: parrokoa, laguntzailea eta kapilaua.

1.053. Elizan bakoitzak bere lekua zuen (ETX-027/105)

Elizan gizonak aurrean jartzen ziren, eta emakumeak atzean. Bakoitzak bere aulkia eta bere tokia zuen.

1.054. Mezak (ETX-027/106)

Mezak ordu bat edo gehiago irauten zuen, sermoia oso luzea izaten zen. Etxarrin korua zegoen, eta mezak kantatuak izaten ziren. Hiru meza egoten ziren. Meza nagusia 12:00etan izaten zen.

1.055. Prozesioak (ETX-027/108)

Etxarrin prozesio asko egoten ziren. Aste Santuan elizatik herri amaieraraino joaten ziren. Porlanezko 14 gurutze egoten ziren bidean.

1.056. Txakurrak jaten zituzten (ETX-027/110)

Etxarrin txakurrak eta katuak jaten ziren. Manolok etxean ez, baina tabernan txakur asko jan izan du. Neguan jaten ziren, udan ez. Patatekin prestatzen zuten. Orain ez da jaten, baina ez dira urte asko utzi zela.

1.057. Apustuak (ETX-027/111)

Etxarrin oso apustuzaleak ziren. Adibidez: enborrak moztekoak.

1.058. Ikurrinarekin istiluak (ETX-027/113)

Ikurrinaren kontuarekin epaiketa eduki zuen Manolok. Egunero jartzen zuen eta kendu egiten zioten. 13 aldiz jarri eta kendu zioten ikurrina udaletxetik.

1.059. Jaiotetxea (ETX-028/003)

Jose Mari Jose Angelena etxean jaio zen. Amaren etxea zen, gurasoak ezkondu zirenean hara joan ziren bizitzera. Etxean bederatzi lagun bizi ziren; hiru senide, gurasoak, aitona-amonak eta osaba-izebak bizi ziren.

1.060. Etxeko ongarria (ETX-028/004)

Sorotik bizi ziren, eta ongarria egiten zuten etxean soroak abonatzeko. Ongarriari buelta eman behar zitzaion sardearekin. Ilargi betea zegoenean ematen zitzaion buelta bestela zuritu egiten zen, eta indarra galtzen zuen.

1.061. Sukaldearen deskribapena (ETX-028/005)

Sukaldea handia zen. Su baxua eta tximinia bat zuten. Su baxuan dena egiten zuten, urte guztian edukitzen zuten piztuta, egur asko erabiltzen zen.

1.062. Sukaldeko altzariak (ETX-028/007)

Beraiek ez zuten eskainurik sukaldean.

1.063. Janaria su baxuan prestatzen zuten (ETX-028/008)

Janari guztia etxekoa zen, ez zegoen erosteko dirurik. Dena su baxuan prestatzen zuten. Eltze-burnian jartzen zuten eltzea, nolako zen deskribatzen du. Taloak egiteko tala-burnia eta trebera izaten zituzten.

1.064. Koltxoiak (ETX-028/009)

Koltxoiak artilezkoak ziren. Haurrentzako arto hostoarekin egindako lastailak zeuden.

1.065. Ura (ETX-028/010)

Beraien etxean ura bazuten. Urte guztiko ura 5 pezeta ordaintzen zuten. Batzuk plazara joaten ziren iturrira ur bila.

1.066. Komuna (ETX-028/011)

Orduan ez zegoen komunik etxean. estrabian egiten zuten behar zutena.

1.067. Argia (ETX-028/012)

Etxe guztian bi bonbilla zituzten. Bat sukaldean eta bestea estrabirako eta ganbararako. Zulo bat izaten zen paretan bonbilla gela batetik bestera pasatzeko.

1.068. Eguneroko bazkariak I (ETX-028/013)

Orduan txerri asko hiltzen zen. Gosaltzeko baba txikiak jaten zituzten. Hamarretakoa sorora lanera joaten zirenean hartzen zuten bakarrik.

1.069. Margarita baserrikoa da (ETX-028/014)

Margarita Artxulo baserrikoa da. Etxarritik hiru kilometrotara dago.

1.070. Eguneroko bazkariak II (ETX-028/015)

Urte gehienez babarrunak, birikak eta urdaia jaten zituzten, eta neguan aza. Patata asko jaten zen orduan, batez ere afaltzeko. Gaztainak ez asko.

1.071. Gizonen jantziak (ETX-028/016)

Orduan arropa zaharrekin ibiltzen ziren, ez zegoen erosteko dirurik. Aitonak blusa erabiltzen zuen. Galtzak petatuz beteta edukitzen zituzten. Ehuneko atorrak ere erabiltzen ziren.

1.072. Ez zegoen berogailurik (ETX-028/017)

Orduan ez zegoen kalefakziorik, eta ohera joateko amak adreiluekin berotzen ziren ohea.

1.073. Emakumeen jantziak (ETX-028/018)

Emakumeek bata erabiltzen zuten. Galtzak ez zituzten erabiltzen. Soineko luze batzuk erabiltzen zituzten. Arropa bat zuten jaietarako eta aste osorako beste bat edo bi.

1.074. Arropa garbitzeko "labaderoak" (ETX-028/019)

Arropa garbitzeko garbitokietara joaten ziren. Lau garbitoki zeuden Etxarrin. Emakumeak joaten ziren eta batzuetan gizonak laguntzen zieten karga eramaten. Arropa lehortzeko hesietan jartzen zuten. Margaritaren baserrian errekan garbitzen zuten.

1.075. Baserriko bizitza (ETX-028/020)

Margaritak baserrian ez zuen urik ez argirik. 10 senide ziren. Argia petrolioarekin eta karburoekin egiten zuten. Pozalekin eramaten zuten ura etxera.

1.076. Arropa garbiketa (ETX-028/021)

Arropa errekan bertan garbitzen zuten. Lixiba egiten zuten errautsarekin. Arropa eguzkitan jartzen zuten lehortzen.

1.077. Hiketan eta zuketan (ETX-028/022)

Etxekoen artean euskaraz egiten zuten. Zaharragoi beti zuketan hitz egiten zitzairen eta gazteagoi hiketan. Jose Marik anaiei hiketan egiten zien zaharrena zelako. Gurasoei zuketan. Lagunekin batzuekin zuketan eta besteekin hiketan.

1.078. Etxeko abereak (ETX-028/023)

Etxean animaliak zituzten: txerriak, ahuntzak, idiak, behiak... Idiak lanerako ziren eta besteak jateko eta esnea emateko. Haragitarako ziren behiak mendian izaten zituzten bazkatzen.

1.079. Jateko animaliak (ETX-028/024)

Urtero bi edo hiru txerri hiltzen zituzten etxean. Oiloak ere izaten zituzten.

1.080. Etxean gazta egiten zuten (ETX-028/025)

Etxean aitonak gazta egiten zuen baserrian. Gaztaia behar izaten zen gazta egiteko. Etxerako izaten zen, ez zuten saltzen.

1.081. Galtzina (ETX-028/026)

Baserrian galtzina egiten zuten, eta saldu egiten zuten. Zortzi egunez egosten egoten zen. Etxeak zuritzeko erabiltzen zuten.

1.082. Sagarrondoak (ETX-028/027)

Baserrian sagarrondoak eta hurrondoak zituzten. Jendeak ostu egiten zizkieten sagarrak. Mota guztietako sagarrak zituzten. Ez zuten sagardorik egiten, denak jateko ziren.

1.083. Txerriak (ETX-028/028)

Txerriak saltzen zituzten. Basoan ezkurak jatera eramaten zituzten. Basoan zotoletan uzten zituzten. Feria egoten zen 5ean, 15ean eta 25ean, eta txerriak eramaten zituzten saltzera.

1.084. Txerri-hiltzea (ETX-028/029)

Txerria hiltzeko egunean baba-zopa, gibela eta papada gosaltzen zituzten. Txerria "urdizaleak" (urde-hiltzaileak) hiltzen zuen. Txerria puskatu eta txistorrak egiten zituzten. Dena nola egiten zuten azaltzen dute. Gero, etxez etxe banatzen ziren presenteak, apaizari ez zioten ematen.

1.085. Apaizari emandako janaria (ETX-028/030)

Apaizari ez zioten presenterik ematen. Opilak eta arrautzak ematen zitzaizkion primiziak ordaintzeko.

1.086. Jaiotzak (ETX-028/031)

Etxean haurrak izaten zirenean emakumeek laguntzen zuten, eta emaginak ere bai. Oilo salda ematen zitzaion amari.

1.087. Purifikazioa (ETX-028/032)

Haurra eduki eta zortzi egunetara elizara joaten ziren purifikazioa egitera.

1.088. Bataioak (ETX-028/033)

Bataioa haurra jaio eta berehala egiten zen. Bataiora aita pontekoa eta ama pontekoa joaten ziren.

1.089. Haurretako jolasak (ETX-028/034)

Neskatoak sokasaltoan, kaniketan... jolasten ziren. Panpinak artoen koskorrekin egiten zituzten. Mutilak esku pilotan eta korrikan aritzen ziren. Gurdiekin ere jolasten ziren.

1.090. Eskola (ETX-028/035)

Jose Mari zazpi urterekin hasi zen eskolan, eta 14 urte arte ibili zen. Margarita baserrikoa zenez, gutxiago joan zen. Neskek eta mutilek aparte ikasten zuten. Hiru mailatan bereizten zituzten adinaren arabera.

1.091. Mutilen maisuak eta eskolan ikasten zutena (ETX-028/036)

Eskolan matematikak ikasten zituzten (gehiketak, kenketak, biderketak...). Orduan ez zegoen libururik. Entziklopedia bat zuten denentzako.

1.092. Eskolako zigorrak (ETX-028/037)

Garai hartan, eskolan asko zigortzen zituzten. Paretaren kontra egoten ziren, eta jo ere egiten zieten.

1.093. Nesken maistrak eta ikasten zutena (ETX-028/038)

Neskatoek maistra izaten zuten. Idazten, irakurtzen matematikak... ikasten zituzten. Margariri ez zioten zigortzen, baina ikusi izan du.

1.094. Eskolako kantuak (ETX-028/039)

Eskolan sartzean Cara al Sol kantatzen zuten.

1.095. Gaztetako lanak (ETX-028/040)

Eskola utzita sorora eta basora joaten ziren lanera. Mezarako bueltatzen ziren. Gero, obrero hasi zen lanean kotizatzeke.

1.096. Gaztetako denbora pasak (ETX-028/041)

Igandetan, meza ondoren, gizonak ardo baso bat hartzen zuten, baina ez zuten diru asko izaten. Neskak bezperetara joaten ziren, eta, ondoren, zinea egoten zen. Paseoan ere asko ibiltzen ziren.

1.097. Nobio garaiak I (ETX-028/043)

Jose Mari eta Margarita betidanik ezagutzen dira. Elizako bidean hizketan aritzen ziren, eta nobio egin ziren. Urteberri egunean hasi ziren ateratzen. Biek betetzen dituzte urteak ekainaren 10ean, eta egun horretan ezkondu ziren duela 45 urte.

1.098. Nobio garaiak II (ETX-028/044)

17 hilabete egon ziren nobiotan ezkondu baino lehen. Paseoan ibiltzen ziren, eta zinera joaten ziren. Ostiralarekin ezkondu ziren. Larunbatean ez zieten ezkontzen uzten, juerga egiten zutelako, eta hurrengo egunean jendea ez zelako mezara joaten.

1.099. Pregoi eguna (ETX-028/045)

Pregoi egunean Jose Marik ardoa eman zien lagunei eta senideei ("erlan" ardoa esaten zitzaion). Ezkondu baino aste bete lehenago egiten zen pregoia, apaizak elizan esaten zuen.

1.100. Ezkontza eta ezkonbidaia (ETX-028/046)

Etxarrin ezkondu ziren. Ondoren, luntxa egin zuten etxean. Ezkon-gaua Hotel de los Tres Reyes-en egin zuten. Hurrengo egunean, Javierrera joan ziren, eta, ondoren, ezkonbidaian Iruñera, Madrilera, Bartzelonara, Zaragozara eta Donostiara joan ziren.

1.101. Ezkontza eguna (ETX-028/047)

Ezkontza egunean, gizona emakumearen etxera joaten zen bila, eta biak elkarrekin joaten ziren elizara.

1.102. Dotea edo arreo (ETX-028/049)

Dotea eta arreo egitea ohitura zen. Maindireak izenekin bordatzen ziren.

1.103. Heriotza (belatorioa, ehorzketa, hileta) (ETX-028/050)

Etxean norbait hiltzen zenean, bazkari bat egiten zen familiarentzako hileta egunean. Hildakoaren gorpua etxean izaten zen, ez zegoen tanatoriorik. Gauean arrosarioa erreztatzen zen. Lehenago ehorzketak goizean izaten ziren. Hileta eta ehorzketa batera egiten ziren.

1.104. Hiletak (ETX-028/051)

Hileta klase ezberdinak zeuden ("primera", "segunda" eta "tercera"). Diferentzia, adibidez, kantuetan egoten zen.

1.105. Herrikoen arteko harremanak (ETX-028/052)

Herrikoen arteko harremanak oso onak ziren. Elkarri asko laguntzen zioten trilladoran adibidez.

1.106. Euskara eta erdara (ETX-028/054)

Beraiek lagunekin erdaraz egiten zuten eta etxean euskaraz. Eskolan erdaraz egiten zuten. Eskolan hasi zirenean ez zekiten erdaraz. Margariren amak ez zuen erdaraz ikasi hil zen arte.

1.107. Auzolana (ETX-028/055)

Urtero egiten ziren auzolanak. Herriak urtean behin diru pixka bat ematen zuen, baina normalean debalde joaten ziren. Normalean auzolanean bideak konpontzen zituzten eta hesiak ixten zituzten.

1.108. Lur eta orbel loteak (ETX-028/056)

Udalak lur loteak eta orbel loteak banatzen zituen. Arbola guztiak zenbatuak egoten ziren eta gero zozketa egiten zuten. Orbela oheak egiteko eta ongarria egiteko erabiltzen zen.

1.109. Egur loteak (ETX-028/058)

Egur loteak ere banatzen zituzten. Orain, egur lotea 45 € ordaintzen dira.

1.110. Aberatsak eta pobreak (ETX-028/059)

Herrian aberatsak eta pobreak zeuden. Aberatsak gutxi ziren. Beraiekiko tratua normala zen.

1.111. Komertzioak (ETX-028/060)

Lehenago komertzio gutxi izaten ziren.

1.112. Errazionamendua (ETX-028/061)

Errazionamendua egoten zen, ezin zenuen nahi zenuen guztia erosi.

1.113. Harategia (ETX-028/062)

Etxarrin harategi bat zegoen, baina haragi gutxi erosten zen.

1.114. Tabernak (ETX-028/063)

Etxarrin lehenago taberna gutxi zeuden. Bat Nabarrorena eta bestea Zapaterorena. Aparte bi Zirkulu egoten ziren.

1.115. Aguazila eta serenoa (ETX-028/065)

"Almintea" (aguazila) eta serenoa egoten ziren. Serenoa gauean ibiltzen zen ordua eta eguraldia ematen. "Almintek" bandoak botatzen zituen.

1.116. Ahuntzaina (ETX-028/066)

Ahuntzainak, behizainak eta txerrizainak zeuden garai hartan. Horiei ganaderoak ordaintzen zien zeukaten ganaduaren arabera.

1.117. "Ibintzeak" (ETX-028/067)

"Ibintzeak" rastrojoak dira. Gelditzen ziren hondarrak abereentzako probesten ziren. Dermioak bi zatitan banatzen ziren, eta batean garia eta bestean artoa landatzen ziren. Jasotzen zenean txerriek sobrak aprobetxatzen zituzten.

1.118. Dermioen izenak (ETX-028/069)

Dermioen izenak esaten dituzte.

1.119. Margaritaren familia (ETX-029/001)

Margaritaren baserria Artxuloa zen. 10 senide ziren.

1.120. Eskola garaia (ETX-029/002)

Eskolara ez ziren joaten eguraldi txarra egiten zuenean, eta etxean geratzen ziren; gainera ez zuten erdaraz ulertzen.

1.121. Baserria (ETX-029/003)

Baserria Etxarritik hiru kilometrotara dago, Urbasa inguruan.

1.122. Margaritaren aita bertsolaria zen (ETX-029/004)

Margaritaren aita eta aitona bertsolariak ziren. Aitona Pedro Auzmendi zen, eta aita Jose Maiza. Ama Maria Cruz Auzmendi. Aita erromerietan kantari ibiltzen zen.

1.123. Margaritaren aitaren lana (ETX-029/005)

Margaritaren aita Legazpin egoten zen gauean lanean, eta egunez baserrira bueltatzen zen lanera, eta gauean berriz joaten zen. 67 urte arte egon zen horrela.

1.124. Jose Maria Sebastianen liburua (ETX-029/006)

Jose Maria San Sebastianek egindako liburu bati buruz hitz egiten dute.

1.125. Aitaren koplak (ETX-029/007)

Margaritak aitaren koplak batzuen zati batzuk kantatzen ditu.

1.126. Soroko lan-tresnak (ETX-029/009)

Lan-tresnen izenak esaten dituzte (bost-hortza, aitzurra, laia...). Zazpi senide egon izan dira ilaran lanean laiarekin. Segan ere ibiltzen ziren. Tresnak nolakoak ziren, eta nola funtzionatzen zuten azaltzen dute.

1.127. Soroko lanak (ETX-029/010)

Babarrunak jotzeko "ilebillurre" erabiltzen zen. Larrainean babarrunak jotzen zituzten, eta bildu eta haizatu egiten zituzten. Prozesu guztia nola egiten zuten azaltzen dute. Gero, dena etxera eramaten zuten.

1.128. Gauzak ganbaran gordetzen ziren (ETX-029/011)

Garia, babarrunak... etxean gordetzen zituzten. Ganbaran zabaltzen ziren lehertzeko. Garia, babak, erremolatxa, artoa, patata eta garia zabaltzen zituzten ganbaran lehertzeko.

1.129. Nola ereiten zuten (ETX-029/012)

Garia azaroan ereiten zuten. Babarrunak maiatzean. Patatak apirilean. Ereiteko sulfatoa botatzen zioten. Eskuz ereiten zuten dena. Lehenengo markatu egiten zuten gutxi gorabehera non bota jakiteko. Prozesu guztia nola egiten zuten azaltzen dute.

1.130. Narria (idiak lotzeko makina) (ETX-029/013)

Narria idiak lotzeko makina bat zen. Egurrezkoa zen. Idiek uztarria eramaten zuten, kopetan errefortzu bat eramaten zuten minik ez hartzeko.

1.131. Ilargiaren eragina (ETX-029/014)

Ereiteko garaian ilargiari begiratzen zioten. Ilargi betearekin erein behar zen (ilondoan). Ilberria egurra botatzeko ona da baina beste edozer ilargi betearekin egin behar zen.

1.132. "Trilladorak" (ETX-029/015)

Trilladoran zazpi sozio izaten ziren beraiek, eta elkarri laguntzen zioten.

1.133. Garia neurtzeko neurriak (ETX-029/016)

Garia neurtzeko kaxa moduko batzuk zeuden. Neurri horien izenak aipatzen ditu. "Errobua" 22 kilo ziren.

1.134. Erleak eta ezta (ETX-029/018)

Baserrian erleak zituzten, eta ezta egiten zuten. Aitonak egiten zuen guztia. Argizariak ere egiten zituzten argia egiteko.

1.135. Etxean ogia egiten zuten (ETX-029/019)

Etxean ogia egiten zuten. Zortzi egunetarako egiten zuten. Hiru kiloko ogiak izaten ziren. Ogia, kazkainak eta opilak egiten zituzten.

1.136. Sagar "porkak" (ETX-029/020)

Lehenago sagar porkak egiten zituzten. Soroan lihoa biltzen zuten, eta haria egiten zuten "porka" horiek lotzeko. Labera sartzen zuten, eta sagarrak erre egiten ziren, baina lihoa ez.

1.137. Ogia egiteko labea (ETX-029/021)

Baserrian ogia egiteko labea zuten. Etxarrin ere badago labe bat.

1.138. Xaboaia (ETX-029/022)

Xaboaia egiten zuten etxean, baina ez da oroitzen nola.

1.139. Erleak (ETX-029/023)

Erleak nahiko azkarrak dira. Erleen inguruan hitz egiten dute. Erleak ihes ez egiteko zarata egiten zuten, eta ardoa azukrearekin ematen zieten.

1.140. Kontrabandoa eta estraperloa (ETX-029/025)

Etxarrira gipuzkoarrak etortzen ziren kontrabandoa egitera bizikletan. Jose Mari ibili izan da kontrabandoan. Gari zakuak saltzen zituzten. Guardia zibila egoten zen errepidean. Behin, Aiako errotara bi zaku gari eraman zituzten irina egiteko, eta gurdia zibilek harrapatu zieten, baina lehenengo aldia zenez utzi egin zieten. Gipuzkoar asko etortzen ziren Etxarrira eroatera, dena ezkutuan eramaten zuten.

1.141. Errazionamendua eta kupoak (ETX-029/026)

Errazionamendu garaian kupoak zeuden. Gari kantitate bat entregatu behar zuten zeukaten lurraren tamainaren zuten.

1.142. Gerra garaiko kontuak (ETX-029/027)

Gerra hasi zenean Jose Marik lau urte zeuzkan. Ezkilak jotzen zituzten herriren bat hartzen zutenean. Bere aitak guardiak egiten zituen gauean.

1.143. Karlistak (ETX-029/028)

Etxarrin gehien bat Karlistak ziren. Aguazilak gizonei deitzen zien guardiak egiteko gauean.

1.144. Gerrako heriotzak (ETX-029/029)

Frontean herriko jendea hil egin zen, eta herrian bertan bat edo beste ere hil zuten. Margaritaren aita Karlista zen.

1.145. Margaritaren aita fusilatzetik libratu zen (ETX-029/030)

Margaritaren aita gerrara joan zen. Behin Begoñako elizan sartu ziren, eta bertan harrapatu zituztenak fusilatu egin zituzten, bere aita ezkutatuta zegoen, eta libratu egin zen.

1.146. Errazionamendua (ETX-029/031)

Gerra ondoren, gose handia pasa zuten. Errazionamendu kartila izaten zuten. Errazionamendu garaian, taloa eta "zuztopila" jaten zuten, ogirik ez zegoelako. Nola egiten ziren azaltzen dute, eta erabiltzen zituzten tresnak.

1.147. Gaztainak (ETX-029/032)

Gabon egunean etxeko axuria eta gaztainak jaten zituzten.

1.148. "Axurien" izen ezberdinak (ETX-029/033)

"Axuriak" adinaren arabera izen ezberdina dauka (axuria, bildotsa eta ardia).

1.149. Meza (ETX-029/034)

Mezara egunero joaten ziren goizeko 7etan. Aitona ere egunero joaten zen mezara, eta arrosariora ere.

1.150. Elizan bakoitzak bere lekua zuen (ETX-029/035)

Lehenago eliza aurreko aldean gizonak eta atzean emakumeak jartzen ziren. Bakoitzak bere lekua izaten zuen. Norbait hiltzen zenean argizari bat eramaten zen hiru urtez egunero. Hobia deitzen zitzaion elizan bakoitzak zuen lekuari.

1.151. Apaizari ematen zitzaizkion opariak (ETX-029/036)

Urteurrenetan apaizari ogi bat ematen zitzaion errezatzeagatik.

1.152. Prozesioak (ETX-029/037)

Lehenago orain baina prozesio gehiago egiten ziren. Ostegun Santuan, San Kiriakon, Corpus Egunean, Jesusen Bihotzaren Egunean, Ama Birjinaren Egunean...

1.153. Corpus Eguna (ETX-029/038)

Corpus Egunean balkoietan adornuak jartzen ziren. Lurrean loreak botatzen ziren. Margariren etxean bandera nazionala jartzen zuten. Kalean aldareak jartzen ziren.

1.154. Prozesioetan ateratzen zen jendea (ETX-029/039)

Prozesioan banda, apaizak, monagiloak eta kantoreak ateratzen ziren. Guardia Zibila ere ateratzen zen.

1.155. San Adrianeko erromeriak (ETX-029/040)

Erromerietan ganaduaekin joaten ziren San Adrianera. Margari ez da inoiz joan, baina Juan Mari bai. Bazkaria eramaten zuten, eta han egoten ziren meza ondoren. Sua egiten zen, eta "axuria" erretzen zen. Dantzariak ere egoten ziren, Dantzakia dantzatzen zuten.

1.156. Dantzakia (ETX-029/041)

Dantzakia gazteek dantzatzen zuten dantza bat da. Pertsona batek dantzatzen du besteen aurretik. Gaitarekin dantzatzen zen.

1.157. Ardoa debalde (ETX-029/042)

Herriak debalde ematen zuen ardoa San Adrian egunean, eta jendea mozkortu egiten zen.

1.158. Erromeriak (ETX-029/043)

San Kiriakon eta abuztuko Ama Birjinaren egunean ere egiten ziren erromeriak.

1.159. Ezkilak (ETX-029/044)

Goizean argi-ezkila jotzen zen, eta eguerdian eta gauean angelusa. Eguraldi txarra zetorrela abisatzeko ere jotzen zituzten ezkilak, "konjure" deitzen zitzaion.

1.160. San Blas eta Kandelaria eguna (ETX-029/045)

San Blas egunean janaria eramaten da elizara eta otsailaren bian kandelak. San Anton egunean behorrek in elizari buelta ematen zitzaion (baina beraiek ez zuten ezagutu).

1.161. Bezperak eta arrosarioa (ETX-029/046)

Arratsaldeko 16,00etan bezperak izaten ziren. Jaietan meza bat baino gehiago zeuden, 11,00etan meza nagusia zen. Arrosarioa egunero erreztatzen zuten. Baserritik ez zirenean mezara jaisten, jolasean meza egiten zuten anai-arreben artean.

1.162. Herriko festak eta feriak (ETX-029/048)

Herriko festetan kuadrillan ibiltzen ziren kantuan. Lehenago festak eta feriak batera ziren. Ganadua ekartzen zuten saltzeko. Festetan otordu hobeak egiten zituzten. Oilaskoa jaten zuten. Su artifizialak ere egoten ziren.

1.163. Neskak festetan (ETX-029/049)

Margaritaren familian zazpi ahizpa ziren. Festetan ibiltzen ziren, baina laster erretiratzen ziren. Ez zieten uzten lotuta dantzatzeko. Bekatua izaten zen. Lehenago jota kantariak ekartzen zituzten.

1.164. Kantatzeko ohitura (urtezaharreko gaua) (ETX-029/050)

Lehen asko kantatzen zen. Tabernan lagunaren artean kantuan aritzen ziren. Urteberri egunean ere kantari ibiltzen ziren etxez etxe, eta limosna eskatzen zuten. Urteberrian kantatzen zuten kanta kantatzen dute. Gaur egun oraindik ohitura hori mantentzen da.

1.165. Beste festa batzuk (ETX-029/051)

Herrian beste festa batzuk egiten ziren egun seinatuak: Ama Birjinaren eguna, San Jose, San Anton, San Kiriako...

1.166. San Anton kofradia (ETX-029/052)

San Anton kofradia zegoen. Meza eta merendua egiten zuten San Pedro eta San Anton egunean.

1.167. San Joan bezpera (ETX-029/054)

San Joan bezperan suak egiten ziren etxe atarietan. Salto egitean "zorriek eta partzak hiltzeko" esaten zuten.

1.168. Kanta bat (ETX-029/055)

Sugandilaren kanta kantatzen dute.

1.169. Bertso bat (ETX-029/056)

Margarik bertso bat kantatzen du.

1.170. Katalinaren bizitza gogorra (ETX-030/002)

Katalina Iruñean jaio zen. Amak han abandonatu zuen. 61 urterekin aurkitu zuen bere benetako ama, eta ez zuen ezer jakin nahi izan. Familia batek adoptatu zuen. Bi urte eta erdi zituenean hil zen bere amaordea, eta bere ahizpek Lizarragara eraman zuten beste etxe batera. Lizarragako familiak seme bat zuen. Katalina ez zen eskolara joan, eta sei urterekin soroan lanean zegoen.

1.171. Bere benetako amaren bila (ETX-030/004)

Micaela Navarro eta Miguel Anton ziren bere baserriko gurasoak. Berak bere benetako ama nor zen jakin nahi zuen, eta artzapezpikuarengana joan zen. Azkenean 61 urterekin aurkitu zuen ama. Aberatsa zen, Mexikon bost okindegi eduki zituen.

1.172. Bahitua bezala egon zen Katalina (ETX-030/006)

Bahituta bezala egon zen Katalina. Bere amaordea hil zenean ospitalera bueltatu behar zuten, eta, gero, berriz eraman nahi bazuten beste paper batzuk egin behar ziren, baina bera etxe batetik bestera eraman zuten tramiterik egin gabe.

1.173. Sei urterekin hasi zen lanean (ETX-030/011)

Lizarragan sei urterekin hasi zen soroan lanean.

1.174. Eskola garaia eta klase partikularrak (ETX-030/012)

Eskolara neguan joaten zen, elurra zegoenean. Andereñoak amari esaten zion oso argia zela eta eskolara joan behar zuela, baina amak lana egin behar zuela esaten zion. Orduan, andereñoak klase partikularrak ematen zizkion gauean.

1.175. Mantelinak egiten zituen (ETX-030/013)

Mantelinak egiten zituen katalinak. Brodatzen eta josten ikasi zuen eskolan.

1.176. Lizarragako andre batekin zuen harremana (ETX-030/014)

Lizarragako andre bat egunero joaten zen Villafrancara arrautzak eramatera, eta kafea eta horrelako gauzak ekartzen zituen. Katalinak goizeko 08:00etan tren estaziora laguntzen zion, eta ordu bietan berriz bere bila joaten zen, eta, bitartean, soroan egoten zen lanean. Andre horrek asko laguntzen zion, nobioarekin egoten zenean ere ezkututzen laguntzen zion.

1.177. Katalinaren ezkontza (ETX-030/015)

Senarra Lizarragakoa zen. Ez zieten ezkontzen uzten. Lakuntzan ezkondu ziren, eta apaizak (Don Miguel) ordaindu zien ezkontza Katalinak eliza garbitzen zuelako. Haurdun ezkondu zen.

1.178. Senarraren ofizioa (ETX-030/017)

Etxarriko etxea egiteko bere senarra Frantziara joan zen bi urte lanera, eta bera han gelditu zen bi semerekin. Ondoren, txofer lanetan aritu zen.

1.179. Etxarriko etxea (ETX-030/018)

Etxarriko etxea senarra Frantzian zegoen bitartean erosi zuen katalinak. Horretarako sarrera bat ordaindu behar izan zuten. Geroztik, bertan bizi da.

1.180. Etxarri eta Lizarragaren arteko aldea (ETX-030/019)

Etxarrin oso ongi bizi ziren, denekin ongi moldatzen ziren. Lizarraga eta Etxarri artean diferentzia handia zegoen. Etxarri kapitala bezala zen.

1.181. Lizarragatik Etxarrira joaten ziren erosketak egitera (ETX-030/020)

Lehen, Etxarrin feria egoten zen. Lizarragan bizi zirenean, Etxarrira joaten ziren erosketa egitera. Bere koinatak denda bat jarri zuen Lizarragan, eta taberna bat ere zabaldu zuten. Baina bestela Etxarrira joan behar izaten zuten erostera. Gaur egun Lizarragan denetarik dago, baina orduan ezer ez. Sorotik bizi ziren.

1.182. Soroan ereiten ziren produktuak (ETX-030/021)

Soroan patata, garia, artoa eta babarrunak ereiten ziren. Baratzea zeukanak aza, letxuga... Gaur egun patata ereiten da Lizarragan, baina beste ezer ez. Soroak ez zuen dirurik ematen, eta jendea fabrikara joan zen lanera.

1.183. Arto-zuritzea (ETX-030/022)

Artoa zuritzeko kuadrilla elkartzen ziren, eta kantari aritzen ziren. Mahatsa edo gaztainak jaten zituzten, eta pozik aritzen ziren. Batzuk zuritzen aritzen ziren, eta besteak "porkak" egiten zituzten. Egun bakoitzean etxe bateko artoa egiten zuten.

1.184. Kantatzen zituzten kantak (ETX-030/023)

Garai hartan, kantatzen zituzten kantak normalean elizakoak izaten ziren. Latinez kantatzen zuten.

1.185. Meza latinez zen (ETX-030/024)

Meza latinez izaten zen garai hartan.

1.186. Mezak, bezperak, korua... (ETX-030/025)

Garai hartan bezperak, mezak, arrosarioa... egoten ziren, eta beti joaten ziren. Etxeko lan guztiak egin ondoren, entsaiora joaten zen. Entsaioak apaizarekin egiten zituzten; sei edo zazpi neska elkartzen ziren.

1.187. Lehengo jantziak (ETX-030/028)

Lehengo amonak denak beltzez eta luzez jantzita ibiltzen ziren. Soroan lan egiteko dena tapatzen zuten, gona luzeak eramaten zituzten, buruan zapia eta txapela, eta eskuak ere tapatuta, eguzkiak ez emateko. Emakumeek ez zituzten galtzak erabiltzen orduan. Jantzi bat zuten astegunetarako, eta beste bat jaietarako. Gauzak asko aldatu dira, gaur egun oso ezberdina da.

1.188. Bataioak (ETX-030/030)

Bataioan, garai hartan, familiakoak bakarrik egoten ziren.

1.189. Jaunartzea (ETX-030/031)

Jaunartzeak gaur egun ezkontzak bezala dira. Lehen etxeok egoten ziren, eta ez zen oparirik egiten. Batzuk soineko txuria janzten zuten, beste batzuk tunika beix bat eta mutilak marineroz.

1.190. Konfirmazioa (ETX-030/033)

Konfirmazioa, orduan, bost urterekin egiten zen. Ondoren, 18-19 urtera pasa zen. Bere seme txikiena ezkontzaren egunean konfirmatu zen, gazte garaian lanean ibili zelako Madrilen. Komunioa egin baino lehen konfirmatzen ziren.

1.191. Erromeriak (ETX-030/035)

Erromeriak San Kiriako egunean eta Ama Birjinaren egunean egiten ziren. San Kiriako egunean, gazte guztiak elkartzen dira, eta merenduak egiten dira. Ama Birjinaren egunean, umeak eramaten ziren elizara.

1.192. Etxarriko festak (ETX-030/036)

Festak urrian izaten ziren, eta, gero, eguraldi txarra egiten zuelako abuztuko lehenengo igandera aldatu zituzten. Orain, urrian feria egiten da.

1.193. Lizarragako etxearen izena (ETX-030/037)

Lizarragako etxeak Marianetxea izena du. Bere seme txikia han jaioa zen, eta erosi nahi izan zuen, baina beste batzuk erosi zuten.

1.194. Lizarragako baserria (ETX-030/038)

Lizarragako baserria Irura da. Hura erre egin zen, eta Katalina ezer gabe geratu zen, estatuarentzako geratu zen dena.

1.195. Gerra garaia (ETX-030/040)

Gerra garaian, beraiek ez zuten behar handirik pasa. Bere aita amerikarra zen, eta beti izan zuten jatekoa.

1.196. Janaria (ETX-030/041)

Normalean taloa jaten zuten. Txerri bat hiltzen zuten urtero, eta jatekoa izaten zuten urte guztirako. Olioan kontserbatzen zuten janaria.

1.197. Estraperloa (ETX-030/042)

Lizarragan ez zen estraperlorik egon. Ogia egiteko Lakuntzaraino joaten ziren garia eramatera gauzez. Guardia zibila egoten zen kontrolatzen. Harrapatzen bazituzten dena kentzen zieten.

1.198. 19 urterekin lehenengo arrautza jan (ETX-030/044)

Bere lehenengo arrautza 19 urterekin jan zuen. Soroan zegoen izebarekin, eta bijilia zen.

1.199. Etxeko oiloak (ETX-030/045)

Etxean oiloak zituzten. Behatza ipurditik sartzen zioten zenbat arrautza emango zituen jakiteko. Behin bere lagun batek arrautza bat lapurtu zuen eta istorio hori kontatzen du.

1.200. Etxean jasotzen zuen tratua (ETX-030/046)

Etxera joateko beldurrez egoten zen Katalina, han zerekin aurkituko ote zen. Esplotatu egiten zuten etxean. Denak siestan zeudenean, bera langostak harrapatzera bidaltzen zuten errekarara, eta goiz guztia soroan lanean egon ondoren gainera.

1.201. Hilekoa (ETX-030/047)

Hilekoa 19 urterekin jaitsi zitzaion; etxekoei kontatu zien, baina ez ziren ezertaz arduratu. Hurrengo egunean, garia ereitera joan zen sorora, eta tripako min handia eduki zuen. Erabiltzen zituen trapuak gauean garbitzen zituen inork ikusi gabe.

1.202. Aanaia eskolara 18 urte egin arte (ETX-030/049)

Katalina ez zen eskolara joaten, soroan aritzen zen lanean. Etxeko semea aldiz, 18 urte egin arte egon zen eskolan, eta sekretarioari laguntzen egoten zen sekretarian.

1.203. Dotrina euskaraz eta erdaraz (ETX-030/050)

Eskola erdaraz izaten zen. Dotrina elizan euskaraz eta eskolan erdaraz izaten zen, eta berak denak ikasten zituen. Oso argia zen, baina ezin izan zuen ikasketarik eduki, soroan lan egin behar zuelako.

1.204. Gurasoak gisugileak ziren (ETX-031/003)

Aita eta ama gisugileak ziren. Aitona eta amona Arbizutik etorri ziren.

1.205. Etxearen deskribapena (ETX-031/004)

Lehenagoko etxeak oso zaharrak ziren. Estrabia (ukuilua) zuten beheko solairuan.

1.206. Etxeko argia (ETX-031/005)

Argi bakarra zuten etxe guztian eta geroago bi. Goitik behera mugitzen zuten.

1.207. Ura (ETX-031/006)

Amaren garaian pozaletan ibiltzen zuten ura. Baina beraiek bazuten ura etxean.

1.208. Arropa garbiketa eta lixiba (ETX-031/007)

Bere aitona oso trebea zen eta labadero txiki bat egin zien etxean. Jendea labaderoetara joaten zen garbitzera, baina beraiek etxean egiten zuten. Lixiba nola egiten zuten azaltzen du.

1.209. Etxean ogia egiten zuten (ETX-031/008)

Etxean ogia eta taloak egiten zituzten. Umeentzako opilak egiten zituen amonak.

1.210. Etxeko sukaldea (ETX-031/009)

Bi sukalde zituzten. Bat "recocina" zen; bertan labaderoa, labea, su bat eta ogia egiteko mahai bat zuten.

1.211. Gisugilearen etxea (ETX-031/011)

Gisugilearen etxea zenez beste etxeetan ez zeuden gauzak zituzten etxean; adibidez, labaderoa.

1.212. Etxearen inguruan hizketan (ETX-031/012)

Etxearen argazki bat erakusten du. Balkoi handi bat zuten, eta bertan lehortzen zuten arropa.

1.213. Familiako gizonak gisugileak ziren (ETX-031/013)

Familiako gizon guztiak kisuskileak izan dira (Karmenen aitona, aita, anaiak eta semeak).

1.214. Arbizutik Etxarrira joan zen bizitzera senarrarekin (ETX-031/014)

Karmen eta bere senarra Arbizutik Etxarrira joan ziren bizitzera eta etxea erosi zuten. Karmenen aita hil zenean bere ama zazpi umerekin gelditu zen, eta orduan hasi ziren miseriak.

1.215. Aitaren heriotza (ETX-031/016)

Karmenen aita San Miguelera joan zen prozesio bat egitera. Bertan katarroa harrapatu eta handik 40 egunetara hil egin zen. 42 urte inguru edukiko zituen. Ama alargun utzi zuen zazpi seme-alabarekin.

1.216. Karmenen anaiak gerrara joan ziren (ETX-031/018)

Karmenen lau anaia gerrara joan ziren. Aita hil zenean Karmenek 12 urte zituen.

1.217. Gerra garaia Etxarrin (ETX-031/019)

Gerra garaian, ilundu ondoren ez ziren kalera ateratzen. Erreketeak ibiltzen ziren herrian. Neskatoei ilea moztu zieten.

1.218. Errazionamendua (ETX-031/021)

Errazionamenduan gorriak ikusi zituzten. Jendeak kartila bat zuen.

1.219. Errotak itxita egon ziren (ETX-031/023)

Gerra garaian taloa jaten zuten. Errotak itxita zeuden, eta ezkutuan ibiltzen ziren. Aita Ataungo errotara joaten zen. Unanuan ere errota zegoen, eta Karmen hara joaten zen.

1.220. Janari trukea (ETX-031/025)

Plazan trukean ibiltzen ziren. Beraiek patata eramaten zuten, eta mahatsa ekartzen zuten. Sagarrak ere trukutzen ziren.

1.221. Eskola (ETX-031/026)

Karmen 12 urte arte joan zen eskolara. Arratsaldean laboreak egiten zituzten. Ostegunetan, arrosarioa errezatzen zuten.

1.222. Dotrina I (ETX-031/027)

Dotrina euskaraz ikasi zuen.

1.223. Dotrina II (ETX-031/031)

Dotrina euskaldunek euskaraz eta erdaldunek erdaraz ikasten zuten. Karmenek euskaraz ikasi zuen.

1.224. Apaizak (ETX-031/032)

Apaizak gogorrak ziren, baina berari ez zioten jo. Ikasle eta langile txarrak zirenei jotzen zieten.

1.225. 'Hijas de María' (ETX-031/033)

Jai arratsaldetan joaten ziren Hijas de María kongregaziora errezatzera eta kantatzera.

1.226. "Trilladorak" (ETX-031/035)

Trailuan ibiltzen zen Karmen garia egiten umea zenean.

1.227. Belarretako lanak (ETX-031/037)

Karmen belarretan gurdi gainean kargatzen ibiltzen zen. Segan ez da ibili, bakarrik biltzen. Gero, dena ganbaran gordetzen zuten. Garia, belarra, gaztainak, artoa... ere ganbaran gordetzen zuten.

1.228. Arto-zuritzea (ETX-031/038)

Artoa zuritu eta "porkak" egiten zituzten. Karmen eta bere gizona artistak ziren "porkak" egiten. Bi modu zeuden egiteko. Normalean senarrak egiten zituen, eta asko zeudenean Karmenek ere bai.

1.229. Etxearen deskribapena (ETX-031/040)

Eskuinean sukaldea, ezkerrean estrabia. Estrabiaren goiko pisuan beste ganbara txiki bat egin zuten, bertan orbela gordetzen zuten.

1.230. Orbela biltzen zuten (ETX-031/041)

Orbela biltzera joaten ziren. Bere senarrak asko ekartzen zuten.

1.231. Ezkontza (ETX-031/042)

Ezkondu zirenean, Karmenek 28 urte inguru zituen, eta gizonak 33 gutxi gorabehera. Etxarriko elizan ezkondu ziren. Ezkonbidaian Zaragozara joan ziren lau egun. Karmen beltzez ezkondu zen. Bazkaria Zapateroaren etxean egin zuten. Bere senarraren anaiarekin batera ezkondu ziren. Zaragozara trenean joan ziren.

1.232. Bataioak (ETX-031/043)

Bere iloba Javierren "madrina" izan zen Karmen. Orduan, berehala bataiatzen ziren umeak. Bataiora aita-pontekoa, ama-pontekoa, serora eta monagilloak joaten ziren. Umea kalera ateratzeko bataiatuta egon behar zuen.

1.233. Haurren jaiotzak (emagina) (ETX-031/045)

Etxarrin emagina bazegoen jaiotzetan laguntzeko. Carmenek etxean eduki ditu haur guztiak. Medikua eta praktikantea ere zeuden.

1.234. Haurren heriotzak (ETX-031/046)

Garai hartan, Carmenen ustetan ez ziren haur asko hiltzen. Haurrak hiltzen zirenean ezkila txiki batzuk jotzen ziren.

1.235. Etxarriko banda (ETX-031/047)

Etxarrin musika banda egoten zen. Gerrarekin desagertu egin zen. Plazara joaten ziren dantzatzera 21:00ak arte. Orduan gehien bat jotak eta paso-dobleak dantzatzen zituzten.

1.236. Apaizak ez zien dantzatzen uzten (ETX-031/049)

Apaiza Aste Santuan plazara joaten zen dantza ez egiteko eta gazteak soroetara joaten ziren akordeoiarekin dantza egitera.

1.237. Etxarriko festak (ETX-031/051)

Etxarriko festetan ordu bata arte egoten ziren kalean. Festa onak izaten ziren. Festetan aza, txitxirioak eta oiloa edo oilarra jaten zuten.

1.238. Ibintzeak (ETX-031/052)

Carmen ibintzeetan ibiltzen zen. Ibintzeak zer ziren azaltzen du. Itturriko behiekin asko ibili zen Carmen.

1.239. Soroko lanak (ETX-031/053)

Itturriko behiekin asko ibili zen. Bere seme-alabak ere bai. Soroko lanen inguruan hitz egiten dute.

1.240. Arropa josten zuen (ETX-031/055)

Arropa josten zuen. Galtzak egiten zituen familiako gizon guztientzako. Estankoko Jesusak erakutsi zion josten. Kanpoko jendearentzako ere josten zituen galtzak. Josteko makina bat zuen. Lortzen zuen dirua amari ematen zion.

1.241. Inauteriak (ETX-031/057)

Inauterietan ez zieten janzten uzten, gerra garaian debekatu egin zituzten.

1.242. Eguberriak (erregeak) (ETX-031/058)

Garai hartan ez zegoen erregerik, ez zen oparirik egoten.

1.243. Arbizuko festak I (ETX-031/060)

Carmen Arbizuko festetara joaten zen aitarekin.

1.244. Arbizuko festak II (ETX-031/062)

Carmen San Juanetara joaten zen Arbizura aitarekin.

1.245. Osaben istorio bat kontatzen du (ETX-031/064)

Osaba Valentinek eta osaba Sebastianek gau bat pasa zuten Arbizun.

1.246. Garai gogorak bizi zituzten (ETX-031/066)

Aita hil zen garaian gose asko pasa zuten. Anaiak gerrara joan ziren, eta ez zuen inork lan egiten. Bere ama festetan etxetik atera gabe geratzen zen espartzinik ere ez zuelako. Bere amak bost ahizpa zituen, baina denak gazte hil ziren.

1.247. Antoninaren familia (ETX-032/003)

Etxean gurasoak, bi anaia eta bera bizi ziren. Aitak teileria batean egiten zuen lan. Etxean behiak eta txerriak zituzten. Ama hiltzean, izeba amona bat egin zen beraien kargu. Bere anaia bat bera baina zaharragoa da eta bestea hiru urte gazteagoa.

1.248. Argia (ETX-032/004)

Etxe guztian bonbilla bakarra zuten. Zulo bat zuten sabaian argia pasatzeko.

1.249. Etxearen deskribapena (ETX-032/005)

Etxearen beheko aldean behiak, txerriak, oiloak... zeuden. Sukaldea ere behian zegoen eta gelak goian.

1.250. Sukaldea (ETX-032/006)

Sukaldean su baxua zuten. Han prestatzen zuten janaria.

1.251. Eguneroko janaria I (ETX-032/007)

Babarrunak jaten zituzten egunero. Ahuntz bat hiltzen zuten eta zezinan jartzen zuten.

1.252. Eltzea jartzeko "kriada" (ETX-032/008)

Eltzea jartzeko hiru hankako tresna bat zuten, "kriada" deitzen zioten.

1.253. Ura (ETX-032/009)

Etxean beti izan dute ura. Berruetan bera ezkondu ondoren jarri zuten ura. Baina herrian bazegoen.

1.254. Komuna (ETX-032/010)

Etxean ez zuten komunik. Estrabian egiten zuten.

1.255. Garbiketa (ETX-032/011)

Garbitzeko barreño handi batzuk erabiltzen zituzten. Ahal zuten moduan moldatzen ziren.

1.256. Arropa garbiketa I (ETX-032/012)

Arropa eskuz garbitzen zuten etxean bertan. Batzuetan, garbitokira ere joaten ziren.

1.257. Arropa garbiketa II (ETX-032/014)

Lixiba egiten zuten ehunezko maindireak garbitzeko. Lixiba errautsarekin egiten zuten.

1.258. Eguneroko janaria II (ETX-032/015)

Bi txerri hiltzen zituzten etxean eta urdaia, urdaiazpikoa, txistorra, birika... izaten zituzten. Gosaltzeko urdaia jaten zuten; gero, eguerdian babarrun gorriak edo zuriak. Arratsaldean arren bat eta afaltzeko patatak eta tortillaren bat.

1.259. Etxeko abereak I (ETX-032/016)

Behiak, txerriak eta ahuntzak zeuzkaten etxean. Dena etxerako zen, baina arrautzak saltzen zituzten kafea edo azukrea erosteko adibidez.

1.260. Taloak eta sutopila (ETX-032/017)

Ogi eskasia zegoen, eta, orduan, taloa eta sutopilak jaten zituzten. Sutopila taloa bezalakoa da, baina gari irinarekin eginda. Nola egiten zuten azaltzen du.

1.261. Ogia (ETX-032/018)

Etxean ogia ere egiten zuten. Labe handi bat zuten, eta aste guztirako ogia egiten zuten. Legamiari "bentzaia" deitzen diote. "Bentzaia" kale guztirako gordetzen zuten, eta etxe batetik bestera pasatzen zen.

1.262. Etxeko abereak II (ETX-032/019)

Behiak, ahuntzak, txerriak eta oiloak zituzten etxean. Behiak esnetarako zituzten eta txekorren bat ere saldu egiten zuten.

1.263. Txerri-hiltzea (ETX-032/021)

Txerri-hiltzearen eguna oso polita zen. Familia guztia elkartzen zen. Goizeko 06.00etarako abere-hiltzailea etortzen zen, eta txerria hiltzen zuen. Senideei presentea ematen zieten. Tripotak, txistorrak... egiten zituzten. Egun horretan, familia guztia elkartzen zen afaltzeko. Zopa, tripota, solomoa... jaten zuten.

1.264. Kontserbak (ETX-032/022)

Solomoak eta oliotan eta gatzetan gordetzen zituzten, eta, gero, zintzilikatu egiten zuten.

1.265. Janzkera (ETX-032/023)

Bere amak galtzoi batzuk eramaten zituen barrutik. Gainetik bata ilun bat. Buruan ez zuen zapirik eramaten. Aitak normal janzten zuen, galtza, atorra eta jertsea. Buruan txapela ibiltzen zuen. Oinetakoak bortzegiak izaten ziren. Aitonak blusa eta faja erabiltzen zituen.

1.266. Euskara (hika eta zuka) (ETX-032/025)

Etxean euskaraz egiten zuten. Aitonak ez zekien erdaraz, aitak bai. Gurasoei zuka hitz egiten zien, eta anai-arreben artean noketan. Aita eta amaren artean zuketan. Beraien kalean hiketan egiten zuen bikote bat zegoen, baina ez zen normalena. Apaizari "de usted" hitz egiten zioten eta erdaraz gehiago.

1.267. Su baxuaren inguruan kontuak (ETX-032/026)

Etxean sukaldean elkartzeko ohitura zuten su baxuaren inguruan. Horrek asko elkartzen du familia. Artoa zuritzen ere biltzen ziren suaren inguruan. Eta gero, gaztainak eta mahatsa jaten zuten. Kantatu ere egiten zuten.

1.268. Herrikoen arteko giroa (ETX-032/027)

Herrikoen artean oso giro ona zegoen. Elkarri asko laguntzen zioten. Atariak zabalik egoten ziren.

1.269. Teileria (ETX-032/028)

Aita teileria batean aritzen zen. Bertan teilak eta adreiluak egosten zituzten. Buztina teileriaren ondoan izaten zuten.

1.270. Ferratzailea (ETX-032/029)

Herrian bi ferratzaile zeuden. Batek erremintak konpontzen zituen, eta besteak animaliak ferratzen zituen.

1.271. Medikua (ETX-032/030)

Botikaria eta medikua ere bazeuden herrian. Medikua kanpokoa zen, erdalduna.

1.272. Piper-opilak (ETX-032/031)

San Adrian egunean erromeria bat egiten da, eta piper-opilak egiten zituzten.

1.273. Serenoa (ETX-032/033)

Serenoa gauean ibiltzen zen herria zaintzen. Serenoaren trajea urdina zen. Abrigo luze bat zuen.

1.274. Aguazila (ETX-032/034)

Aguazilari "amintea" esaten zioten. Bere funtzioa bandoa botatzea zen. Turuta bat jotzen zuen.

1.275. Egur eta orbel loteak (ETX-032/035)

Egur loteak eta orbel loteak banatzen ziren herrian. Oheak egiteko erabiltzen zen orbela. Basoa garbi garbia egoten zen, dena biltzen zelako.

1.276. Lur komunalak (ETX-032/036)

Lur komunalak ere banatzen ziren. Baina Antonina ez da akordatzen.

1.277. Familia pobreak eta aberatsak (ETX-032/038)

Familia aberatsak eta pobreagoak zeuden herrian. Hiru familia aberats zeuden, baina gero besteek ere eboluzionatu zuten eta diferentzia gutxitu egin zen. Beraiekiko tratuan ikusten zen diferentzia hori. Oso pobreak ziren familiak ere bazeuden.

1.278. Euskara vs erdara (ETX-032/039)

Herrian euskara zen nagusia. Baina bolada batean euskaraz egiten zutenei barre egiten zieten. Antoninak hiru alaba eta seme bat ditu eta ez zien euskaraz erakutsi, erdaraz egiten zieten. Bere senarraren ama oso erdalduna zen. Seme alabek gero ikasi dute euskara.

1.279. Emagina (ETX-032/041)

Umeak jaiotzean emaginak laguntzen zuen. Antoninak maternitatean eduki ditu lauak. Bere gizonaren amak lauak etxean eduki zituen.

1.280. Bataioa (ETX-032/042)

Bataioa jaio eta berehala egiten zen, aste berean. Bestela hiltzen bazen linboan lurperatzen ziren.

1.281. Haurra eduki ondoren lanera (ETX-032/043)

Emakumeak haurra eduki ondoren hiru egunetarako sorora joaten ziren lanera.

1.282. Ume garaiko jolasak (ETX-032/044)

Ume garaian medikutara, "a marrios", sokasaltoan... jolasten zuten.

1.283. Eskola (ETX-032/045)

Eskolan zazpi urtetatik 14 urte arte egoten ziren. Soilik euria egiten zuenean joaten ziren, bestela sorora lanera joaten zirelako. Neskak alde batean eta mutilak bestean ikasten zuten.

1.284. Eskolako materiala (ETX-032/046)

Liburu gutxi izaten zuten orduan; koaderno bat eta pizarra bat zituzten. Ezer gutxi gehiago. Idazteko luma bat zuten.

1.285. Eskola (maistrarekin ikasitakoa) (ETX-032/047)

Maistra bat zuten. Kontuak egiten ikasten zuten. Gauza sinpleak.

1.286. Eskolako zigorrak (ETX-032/048)

Eskolan erregelarekin jotzen zieten. Traste samarrak ziren.

1.287. Eskola erdaraz (ETX-032/049)

Eskola erdaraz izaten zen. Eskolan hasi aurretik ez zekien ia erdaraz.

1.288. Gazte denborako dibertsioak (ETX-032/051)

Gazte denboran Etxarrin diskoteka bat zegoen eta 14 urterekin edo hasi ziren joaten. Orkestra bat egiten zen eta dantzan ibiltzen ziren. Agarraua dantzatzen zuten eta gero konfesatzera joaten ziren.

1.289. Konfesioak eta debekuak (ETX-032/052)

Konfesatzera joaten zirenean errieta egiten zien lotuta dantzatzeagatik. Garizuman ezin zitekeen dantzatu, bekatu handia zen. Baina beraiek dantzara joaten ziren.

1.290. Plentzian lanean (ETX-032/053)

17 urterekin Plentziara joan zen, eta bi urte egon zen. Berak nahi zuelako joan zen, eta gustura egon zen. Erresidentzia batean egin zuen lan erizain moduan, eta 375 pezeta irabazten zituen hilabeteen. Etxarritik 14 neskato joan ziren. Etxarrikoa zen moja superiora, eta haren bidez joan ziren.

1.291. Iruñean zerbitzari (ETX-032/054)

Plentziatik bueltatuta Iruñera joan zen zerbitzatzera dentista baten etxean. Han urte eta erdi egon zen. Ondoren etxera itzuli zen.

1.292. Senarra nola ezagutu zuen (ETX-032/055)

Iruñetik bueltatu zenerako mutila bazuen. Senarra nola ezagutu zuen azaltzen du. Bost urte egon ziren elkarrekin ezkondu baino lehen.

1.293. Senargai denbora (ETX-032/056)

Bost urte egon ziren nobio gisa ezkondu baino lehen. Bost urte horietan inguruko herrietako festetara eta zinera joaten ziren. Gero etxera sartzen hasi zen.

1.294. Ezkontza eta ezkonbidaia (ETX-032/057)

Ezkontzea erabakitzen zutenean bi familiak elkartu eta boda prestatzen zen. Etxarrin ezkondu ziren. Ezkonbidaian Iruñean pasa zuten lehenengo gaua, gero beste bi egun Zaragozan eta azken 15 egunak Madrilan.

1.295. Pregoi eguna (ETX-032/058)

Ezkontza baino igande bat lehenago pregoi eguna egiten zen. Apaizak nor ezkontzen zen esaten zuen, eta, gero, ezagunak "enhorabuena" ematera joaten ziren etxera, eta merendu bat prestatzen zen.

1.296. Dotea eta arreoak (ETX-032/059)

Amarik ez zuenez izebek prestatu zioten dotea. Maindireak, toallak, kamisoiak... izaten ziren.

1.297. Ezkontza eguna (ETX-032/060)

Ezkontza egunean, elizara joateko nobioa joaten zen andregaiaren etxera bere bila, eta denok elkarrekin joaten ziren.

1.298. Heriotzak (belatorioa...) (ETX-032/061)

Etxean norbait hiltzen zenean bazkari bat prestatzen zen kanpotik zetorren familiarentzako. Tipikoa zen garbantzuak eta axuria jatea. Hildakoa etxean egoten zen, ez zegoen tanatoriorik. Herriko jendea etortzen zen arrosarioa errezatzera.

1.299. Hiletak (ETX-032/062)

Hileta klase ezberdinak zeuden ("primera", "segunda" eta "tercera").

1.300. Soroko eta baserriko lanak (ETX-032/063)

Soroan lan asko egin du. Abereekin joaten zen garia bildu ondoren hondarrak jateko. Baserrian ere lan asko egin du. Baserrian ere lan asko egin du.

1.301. Soroko lana (garia) (ETX-032/065)

Segan eta ez da ibili. Arto eta patata jorran bai. Eta gari denboran gabilak egiten. Montoiak egiten zituzten, eta lotu egiten zituzten. Montoi handiak balak ziren, eta txikiak ezpalak. Lau ezpalarekin bala bat egiten zen.

1.302. Lan-tresnen izenak (ETX-032/067)

Soroko lan-tresnen izenak aipatzen ditu: makina, golda, bost hortza, harie, aitzurra... Bakoitza zertarako zen azaltzen du.

1.303. Ilargiaren garrantzia (ETX-032/068)

Ilargiari gauza askotarako begiratzen zioten. Adibidez, ereiteko ilargi betea behar zuen. Txerria hiltzeko ere begiratzen zuten.

1.304. Gerra garaiko kontuak (ETX-032/070)

Gerra garaian oso txikia zen, hiru urte zituen eta ez du oroitzapen handirik. Bere senarrak kontatzen du bide bazterrean jendea lurperatzen zutela. Urbasa aldean inguruko jende asko fusilatu zuten.

1.305. Errazionamendua (ETX-032/071)

Errazionamendu garaian, dena errazionaturik zegoen. Goizeko bederatzietan joaten ziren okindegira ogi bila eta ordu bata aldera bueltatzen ziren.

1.306. Estraperloa (ETX-032/072)

Estraperloan Gipuzkoako jendea etortzen zen eta hemendik Gipuzkoara ere joaten ziren.

1.307. Makiak (ETX-032/073)

Makiak ibiltzen ziren Aralar inguruan.

1.308. Mezak (ETX-032/074)

Mezara joatea oso kontrolatua zegoen. Pazkoan txartel batzuk ematen zizkieten, eta horrekin komunioa hartzera nor joan zen eta nor ez kontrolatzen zuten. Mezara ez ziren egunero joaten, bakarrik igandeetan.

1.309. Elizako lekuak (ETX-032/075)

Eliza barruan gizonak aurrean jartzen ziren, eta emakumeak atzean. Bakoitzak bere aulkia zuen izenarekin eta beti leku berean jartzen ziren.

1.310. Prozesioak (ETX-032/076)

Ascensio Egunean eta Corpus Egunean egiten ziren prozesioak. Apaizak aurretik joaten ziren, eta kantuan ibiltzen ziren.

1.311. Erromeriak (ETX-032/077)

San Kiriako egunean Andre Marian egiten zen erromeria, eta San Adrian egunean basoan. Udaletxeak ardoa ematen zuen, txistulariak egoten ziren, prozesioan joaten ziren oinez eta meza egoten zen.

1.312. Errogatibak (ETX-032/079)

Euria egiteko errogatibak egiten ziren.

1.313. Aste Santua (ETX-032/080)

Aste Santuan egun guztia elizan egoten ziren.

1.314. Igandeak elizan (ETX-032/081)

Igande normaletan meza, bezperak eta Hijas de María kongregazioa izaten zituzten. Egun guztia elizan egoten ziren.

1.315. Mezak latinez ziren (ETX-032/082)

Mezak latinez izaten ziren eta ez zuten ezer ulertzen.

1.316. Herriko festak (ETX-032/083)

Etxarriko festak urriko lehenengo igandean izaten ziren, eta eguraldi txarrarengatik abuztuko lehenengo igandera aldatu zituzten. Festa politak izaten ziren. Goizean, kontzertua egoten zen eta gero aizkora apusturen bat edo. Arratsaldean ere beste zerbait egoten zen. Musika egoten zen. Mutilak egun guztia egoten ziren kalean, neskek etxean laguntzen zuten, eta gutxiago ateratzen ziren. Gauean, musika bukatu arte egoten ziren. Neskak gutxi sartzen ziren tabernetan, oso gaizki ikusia zegoen.

1.317. Inauteriak (ETX-032/084)

Inauteriak egiten ziren. Kintoak ibiltzen ziren etxez etxe dirua biltzen. Musika egoten zen.

1.318. San Joan bezpera (ETX-032/086)

San Joan bezperan suak egiten ziren.

1.319. Eguberriak (ETX-032/087)

Urtezahar egunean kantuan ateratzen ziren. Gabon gaueko afaria: zopa, bisigua eta turroi puska bat. Gabon egunean ez ziren ateratzen, baina urtezahar gauean bai.

1.320. Errege bezpera (ETX-032/088)

Errege bezperan zapata garbi garbia uzten zuten. Laranjaren bat eta aingira kutxa bat ekartzen zieten erregeek.

1.321. San Anton eguna (ETX-032/090)

San Anton eguna aziendaren eguna da. Aziendak hartu eta elizari buelta ematen zitzaion.

1.322. Ganadu feriak (ETX-032/091)

Hilero egiten ziren ganadu feriak (5ean ,10ean eta 15ean). Jende asko biltzen zen. Egun osoa irauten zuen. Lizarragako andre baten anekdota kontatzen du.

1.323. Koltxoiak jotzea (ETX-033/009)

Koltxoiak makil batekin jotzen zituzten harrotzeko, eta, gero, berriro betetzen zituzten. Oso ongi gelditzen ziren.

1.324. Ogia etxean egiten zuten (ETX-033/012)

Izebak ogia egiten zuen etxean. Oso ona izaten zen.

1.325. Eguneroko jana (ETX-033/015)

Babarrunak azarekin jaten zituzten, eta arrautzak ere noizean behin.

1.326. Eskola (ETX-034/001)

Eskolara beti joan da, txikitatik. Andereño ezberdinak izan zituen. Eskolan laboreak egiten zituzten.

1.327. Dotrina (ETX-034/004)

Dotrina elizan ematen zuten. Garai hartan, euskaraz egiten zuten; gero, erdaraz hasi ziren. Erdaraz errazagoa zen ikasteko. Apaiz bat baino gehiago zeuden.

1.328. Lehenengo jaunartzea (ETX-034/005)

Lehenengo jaunartzea oso garrantzitsua zen. Garai hartarako oso ongi janzen ziren, soineko zuriekin.

1.329. Larraina (ETX-034/042)

Hilaria ibili izan da larrainarekin lanean. Ondoren, gari-jotzeko makinak etorri ziren. Diferentzia handia zen orduan.

1.330. Soroko lanak (ETX-034/044)

Garia eta patata ereiten zuten. Patatari bi jorra ematen zioten. Sorora neska batzuk tapatuta joaten ziren eguzkiak ez emateko.

1.331. Soroko bazkariak (ETX-034/045)

Bazkaldu ere soroan egiten zuten. Hilariari behin baino gehiagotan tokatu zaio bazkaria eramatea sorora. Soroan bazkal aurretik ere angelusa errezatzen zen. Normalean potajea eta babarrunak jaten zituzten, eta urdai puskaren bat bazuten pozik.

1.332. Herriko dendak (ETX-034/059)

Garai hartan herriko denda txikietan erosten zuten. Harategia ere beti egon da. Arraina saltzeko bandoak botatzen ziren. Fruta saltzera ere kanpotik etortzen ziren.

1.333. Guda garaiko bizitza (ETX-035/004)

Guda garaian, bere aitak eta bere senideak marrazketa lineala zekiten. Ez zuten lur asko, baina eskolara joan ziren. Guda garaian, bere gurasoak

Bizkaira joatea erabaki zuten. Arrigorriagan bizi izan ziren familia guztia. Bere aitak kiste bat zuen, operatu egin zuten, eta handik hilabete ingurura hil zen enbolia baten ondorioz. Jose Miguelek bederatzi urte zituen. Orduan, berriz bueltatu ziren baserrira.

1.334. Bere ama alarguntzean berriz ezkondu zen (ETX-035/005)

Etxe zaharrean bizi izan ziren urteetan. Etxean inkilinoak zituzten, eta sei hilabete itxoin behar izan zituzten etxera bueltatzeko. Bere ama alargun gelditzean beste gizon batekin ezkondu zen.

1.335. Jose Miguelen senideak (ETX-035/006)

Hiru anai-arreba dira eta bera da zaharrena. Bere amak herentziaz jaso zuen etxea.

1.336. 'Concentración parcelaria' (ETX-035/010)

Concentración parcelaria egin zuten erosita zeuzkaten lur guztiak elkartzeko. Bankuak eman zien dirua. Lurren % 80a aziendarentzako zuten. Esne-behiak dauzkate.

1.337. Arroparen garbiketa (ETX-035/012)

Arropa garbitzera Lizarrustiko errekarara joaten ziren.

1.338. Elektrizitatea (ETX-035/013)

Hasieran ez zuten elektrizitaterik. Gero jarri zuten.

1.339. EHNEren fundatzailea (ETX-035/015)

EHNEren fundatzailea da Jose Miguel, eta, garai hartan, asko mugitzen ziren bilerak egiten.

1.340. Eguzki-loreak (ETX-035/017)

Lehenago etxeetan eguzki-loreak jartzen zituzten gauza txarrak aldentzeko.

1.341. Familia giroa (ETX-035/019)

Askok gustatzen zaio baserriko bizitza. Familian giro oso ona dute, eta askotan elkartzen dira beraien etxean familia osoa.

1.342. Jose Miguelen emaztea (ETX-035/022)

Bere emaztea, Anttoni, inklusakoa da. Bost urte egon ziren elkarrekin ezkondu aurretik. Garai hartan erlijioak indar gehiegi zeukan.

1.343. Erlijioaren garrantzia garai hartan (ETX-035/023)

Garai hartan erlijioak indar gehiegi zeukan. Jose Miguel denborarekin ohartu da eta gaur egun ez dago ados elizaren gauzekin. Garai hartan ezjakintasun handia zegoen eta dena zen bekatu.

1.344. Gerra garaiko gosea (ETX-035/024)

Gerra ondoren, miseria handia pasa zuten. Ogi gosean egon ziren denbora luzean. Bere ama ez zen ongi moldatzen Anttonirekin; jenio handiko emakumea zen.

1.345. Errotak itxita (ETX-035/025)

Gipuzkoa beti egon da Nafarroa baino aurreratua. Garai batean, errota guztiak itxita egon ziren, eta Ataunera joaten ziren.

1.346. Ogia (ETX-035/026)

Etxe guztietan egiten zen ogia garai hartan. Denbora luzea egon ziren taloa jaten ogirik ez zegoelako. 10 egunerako egiten zuten ogia eta zati bat legamietarako gordetzen zuten.

1.347. Lanabesak (ETX-035/030)

Garai hartan dena eskuz egiten zen. Gogorrena bazterrekoa izaten zen eta horregatik indar gutxien zeukanak erdian jartzen ziren. Tresnen izenak: Laiak, braban (hitz frantsesa).

1.348. Jose Mariren aita (ETX-036/003)

Bere aitari bi urterekin hil zitzaion aita, eta txikitatik basoan ibiltzen zen lanean osabarekin. Feriara joatea asko gustatzen zitzaion, eta oso ezaguna zen, tratante guztiekin zuen tratua. Soroan ere ibiltzen zen.

1.349. Jose Mariren ofizioa (ETX-036/004)

Jose Mari seme zaharrena zen, eta zortzi urterekin joaten zen aitarekin basora lanera. Gisuskile lanetan ere ibili zen 58 urtetara arte. Orduan erretiratu zen.

1.350. Orbelak (ETX-036/005)

Aitarekin joaten zen egurretara eta orbeletara ere bai.

1.351. Amonaren sendabelarrak (ETX-036/006)

Zauri bat egin zuen buruan eta amonak sendatu zion. Bere amona oso artista zen, pomada beltz bat egiten zuen belarrekin. Etkez etxe ibiltzen zen haurrak jaiotzen laguntzen.

1.352. Amona emagina zen (ETX-036/007)

Amona emagina zen eta etkez etxe joaten zen haurren jaiotzetan laguntzera. Gauean edozein ordutan etortzen ziren bere bila. Herriko haur gehienak bere amonarekin jaio ziren. Bere amarengandik ikasi zuen. Amona Francisca Antonia zen eta birramona Joxepa.

1.353. Izen txikia (izengoitia) 1 (ETX-036/009)

Etxarrin izen txikia jartzeko zaletasuna dute eta Arbizun ere bai. Arbizuko jendearekin ibili zen lanean.

1.354. Etxarriko kaleak egiten ibili zen (ETX-036/010)

Etxarriko kaleak egiten ibili zen Jose Mari. Ormigoiarekin ibiltzen zen. 18 urte zituen kaleak egiten hasi zirenean. Lanean hasi eta bi egunetara balkoi batetik bi neska bota ziren eta hil egin ziren.

1.355. Galtza motzak eta luzeak (ETX-036/011)

Galtza motzak erabiltzetik galtza luzeak erabiltzera pasatzean gizon egiten ziren.

1.356. Klase partikularrak (ETX-036/012)

Jose Mari neguan eskolara joaten zen, baina udan gutxiago. Soldadu joan arte klase partikularretara joaten ibili zen. Idazten eta kontuak egiten erakusten zieten.

1.357. Eskolako zigorrak (ETX-036/013)

Eskolan beti zigortuta egoten ziren. Estufa bat izaten zuten eskolan eta egur eske joaten ziren sua egiteko. Garai hartako gaiztakeriak kontatzen ditu.

1.358. Dotrina (ETX-036/014)

Dotrinara joaten ziren. Satrustegiko bat egoten zen eta belarritik tiratzen zien.

1.359. Gaztetako gaiztakeriak (ETX-036/015)

Gabonetan laranjak ekartzen zituzten. Behin laranjak lapurtzeagatik Guardia Zibilak harrapatu zitueneko istorioa kontatzen du.

1.360. Lagunak etxera joaten ziren ardoa edatera (ETX-036/017)

Etxarriko gizon bat eta Lakuntzako beste bat (Miguel Handia eta Silvestre) feria egunean bere etxera joaten ziren ardoa edatera. Bere aita denekin ongi moldatzen zen.

1.361. Etxarriko feria (ETX-036/018)

Feria herri guztian zehar egoten zen. Herri guztietatik etortzen ziren Etxarrira. Jende asko elkartzen zen. Feria Jose Marik 17 urte izan arte egin izan zen.

1.362. Irurtzungo feria (ETX-036/019)

Irurtzungo feriara beranduago joaten zen, soldadutzatik etorritakoan. Behin 22 txerri eraman zituzten saltzeko bi etxeren artean. Txerri kiloa 22 pezetatan saldu zuten.

1.363. Feria gehiago (ETX-036/020)

Zumarragara ere joaten ziren feriara Santa Luzian. Igandetan Lizarrara joaten ziren.

1.364. Etxarriko urriko feria (ETX-036/021)

Etxarrin duela gutxi arte urrian ganadu feria egiten zen. Orain Irurtzunen egoten da Matxaingo tabernan. Orain tratantea etortzen da etxera eta abereak eramaten ditu saltzeko. Jose Marik esnea saltzen du.

1.365. Kupoak (ETX-036/022)

Etxean gazta eta jogurta egiten dute. Kupertik pasatzen badira penalizazioa ordaindu behar dute. Kupoaren inguruan hitz egiten du.

1.366. Behiak jezteko makinak (ETX-036/024)

Orain behiak jezteko makinak daude, baina garai batean dena eskuz egiten zen. Lehenengo txekor bat erosi zuten eta esne pixka bat saltzen hasi ziren eta denborarekin granja jarri zuten. Orain robota dute behiak jezteko. Aurrerapen handiak daude; makinek denetarik egiten dute gaur egun.

1.367. Esne behiak (ETX-036/025)

Esne behiak ez zituzten basoan uzten. Garai batean behizainak egoten ziren behiak mendira eramateko. Bista motzeko behi bat zuten.

1.368. Inudeak (ETX-036/026)

Amak esnerik ez zuenean aldamenekoak ematen zien esnea umeei.

1.369. Behizaina, ahuntzaina eta behortzaina (ETX-036/027)

Behizaina, ahuntzaina eta behortzaina zeuden herrian.

1.370. Zezena eta apotea (ETX-036/028)

Herrian zezena zegoen behiak kubritzeko. Apotea ere bai.

1.371. Izen txikia (izengoitia) 2 (ETX-036/029)

Izen txikiak jartzen oso abilak ziren. Istorio pare bat kontatzen ditu.

1.372. Txerri hiltzea (ETX-036/030)

Miguel Goñik hiltzen zien txerria. Egurrekin erretzen zuten txerria. Garbitzeko teila eta tapa erabiltzen zuten.

1.373. Festetako janaria (ETX-036/031)

Ardi bat hiltzen zuten festetarako eta geroago axuriak hazten hasi ziren. Garai hartan sisa ordaintzen zuten (zerga moduko bat). Aguazila ibiltzen zen sisa kobratzen.

1.374. Festak umetan (ETX-036/032)

Festetan gaztetan ez zuten merendurik egiten. Tirapichonean ibiltzen ziren. Chocherak ere etortzen ziren.

1.375. Karta jokoak (ETX-036/033)

Koxkortzen zirenean kafea hartzen zuten eta kartetan ibiltzen ziren. Dirua jolasten zuten eta arratsalde osoa egoten ziren jolasean. Beste joko batzuk azaltzen ditu. Gehienetan igandetean jolasten zuten bezperen ondoren.

1.376. Bezperak (ETX-036/034)

Igandeetan bezperetara joaten ziren beti.

1.377. Etxarriko banda (ETX-036/035)

Igandeetan banda egoten zen plazan. Jose Mari behin mozkortu egin zen haurra zenean. Kanpotik jende asko etortzen zen dantza egitera. Gero neskei etxera laguntzen zieten paseoan.

1.378. Zinea (ETX-036/036)

Etxarrin zinea zegoen Zirkulu Karlistan. Bikote asko joaten zen zinera garai hartan.

1.379. Eguberriak (ETX-036/037)

Gabon-gauean kantatu egiten zuten etxez etxe eta eskean aritzen ziren. Gutxi gorabehera 18 urte izan arte ez ziren ateratzen.

1.380. Errege bezpera (ETX-036/038)

Errege bezperan feriatu egoten zen. "Faliakin" (joareak) ibiltzen ziren herriari bueltak ematen. Erregeek ez zieten opariak uzten. Normalean arropa pixka bat.

1.381. Inauteriak (ETX-036/039)

Inauteriak igandean izaten ziren eta musika egoten zen. Etxean zituzten trupuak jartzen zituzten eta listo. Gerra ondoren debekatu egin zituzten.

1.382. Garizuma (ETX-036/040)

Garizuman dantzatzea debekatuta zegoen. Beraiek kuadrillan dantzatzen zuten gerritik helduta eta saltoka.

1.383. San Adrian eta San Kiriako (ETX-036/041)

San Adrianetan eta San Kiriakon merendua egiten zuten. 16 pezeta ordaindu zuten behin egin zuten merendu bat.

1.384. Txakurra jan (ETX-036/042)

Garai hartan txakurra jaten zuten. Jose Marik bi aldiz jan du.

1.385. Soldadu garaiko istorioak (ETX-036/043)

Jose Mari Afrikan egon zen soldadu. Behin azukre enpatxu bat hartu zuen (istorioa kontatzen du).

1.386. Kinto eguna (ETX-036/044)

Soldadu joan baino lehen kinto eguna egiten zuten. Bera otsailaren 17an joan zen eta uztailearen 17an bueltatu zen 17 hilabete geroago. 57ko kintakoa zen.

1.387. Afrikako jendea (ETX-036/045)

Afrikako emakumeak lanean ibiltzen ziren soineko luzeekin eta bizkarrean umea jarrita. Gizon gehienak soldaduak ziren eta bestela astoekin ibiltzen ziren lanean.

1.388. Jaiotetxearen izena (ETX-037/002)

Juaniren jaiotetxeari Carlosen Etxea deitzen zaio.

1.389. Hiru ahizpa hil txikitan (ETX-037/003)

Juaniren hiru ahizpa hil ziren txikitan: bat ibaian itoa eta beste bi gaixotasunez

1.390. Ama 46 urterekin hil zen (ETX-037/004)

Juanik 14 urte zituela hil zitzaion ama. Aita ere gaixo zegoen eta Juanik etxeko eta soroko lanak egiten zituen. Aitak aita eta amaren papera egin du eta oso ona izan da

1.391. Etxea (ETX-037/005)

Etxea oso zaharra zen, ataria itxi arren korrontea zegoen alde guztietatik. Su baxuan prestatzen zuten janaria

1.392. Taloak (ETX-037/006)

Taloak egiten zituzten. Lehendabizi tala-burnian egiten zituzten eta gero parrillan paratzen zituzten gehixeago hazitzeko. Esne egosiarekin hartzen zuten

1.393. Kontserbak (ETX-037/007)

Tomatea ez zen kontserban jartzen. Txistorrak lurrezko ontzietan sartu eta koipean jartzen zituzten. Pernilak eta sukaldeko sabaian zintzilikatzen zituzten.

1.394. Garbitasuna (ETX-037/008)

Ura eta argia betidanik ezagutu ditu. Norberaren garbiketa ahal bezala egiten zuten. Lixiba (lixu-txorra) egiten ezagutu du, baina ez etxean.

1.395. Oheak (ETX-037/009)

Juanik ohean arto hostoez eginiko lastaira erabiltzen zuen.

1.396. Janzkera (ETX-037/011)

Orduan ez zen orain bezala, Juanik gogoratzen du elurra egiten zuenean gona batekin eta txaketa torera batekin ibiltzen zirela. Zapatarik ez zegoen, zatak erabiltzen zituzten. Bortzegiak gizonek erabiltzen zituzten

1.397. Herrian jaiotzen ziren (ETX-037/012)

Gaizki etortzen ez bazen, ume guztiak herrian bertan jaiotzen ziren emaginaren laguntzaz.

1.398. Haurretako jolasak (ETX-037/013)

Juanik haurtzaroko jolasak gogoratzen ditu. Ezkurrekin egiten zuten jolasa deskribatzen du. Trapuzko panpinak egiten zituzten.

1.399. Eskola (ETX-037/014)

Ama gaixo zuenez, eskola gutxitan joaten zen.

1.400. Dotrina (ETX-037/015)

Dotrinara joaten ziren.

1.401. Apez zorrotzak (ETX-037/016)

Apezak nahiko zorrotzak ziren, bat bereziki. Komunioa hartzeko mantelina eraman behar zenuen, mauka motzik ez...

1.402. Gaztetako entretenimenduak (ETX-037/017)

Gaztetan igandeetan bezperetara joan eta gero plazan ibiltzen ziren gora eta behera. Musika baldin bazegoen dantzan ibiltzen ziren ilun-ezkilak jo arte. Zinema bazegoen baina beti ez zen dirurik sarrera ordaintzeko.

1.403. Mutikotan (ETX-037/019)

Mutikoekin kalean elkartzen ziren. Dantzan ibiltzen ziren...

1.404. Ezkontzak (ETX-037/020)

Ezkontza arruntak ziren. Bi jatetxe zeuden ezkontza ospatzeko. Juani zuriz jantzita ezkondu zen. Ezti-bidaia Madrilerara egin zuten.

1.405. Inguruko herriekiko harremanak (ETX-037/022)

Inguruko herrikoekin ongi moldatu dira, nahiz eta noizean behin pikeren bat izan. Bakaikuko festetara Etxarritik jende dexente joaten zen.

1.406. Ijito arrantzaleak eta saltzaileak (ETX-037/024)

Herrian eskaleak eta ijitoak ibiltzen ziren. Herrian bertan bizi ziren ijitoak baziren ere, horiek ibaian arrantzan ibili eta, gero, etxez etxe saltzen zuten. Juanik ez du uste ijito horiek euskara ikasi zutenik.

1.407. Euskararen erabilpena (ETX-037/025)

Etxarrin dena euskaraz egiten zen. Gero hasi zen euskaraz ez zekien jendea etortzen, eta galtzen hasi zen, izan ere norbaitekin erdaraz egiteko ohitura hartuz gero zaila da gero aldatzea. Aitak zuketan egiten zion, nesken artean aldiz noka erabiltzen zuten.

1.408. Udala (ETX-037/026)

Udalan "veintena" eta beste izen bat zuen batzarra moduko zerbait izaten ziren.

1.409. Loteak (ETX-037/027)

Lur komunalak baziren eta herrikoen artean partitzen ziren. Gaztainak, orbela, egurra... biltzera noiznahi joaten ziren Juaniren ustez.

1.410. Orbela estrabian (ukuiluan) (ETX-037/028)

Orbela ukuiluan uzten zen kametarako.

1.411. Ongarria (ETX-037/029)

Ganadua zegoen tokian "azpiontzak" egin eta ongarria ateratzen zen.

1.412. Soroetako lana (ETX-037/031)

Soroan zer landatzen zuten eta zertarako.

1.413. Eultzian (ETX-037/032)

Eultzian aritzen zireneko lana oso zakarra zen, baina egin beharrekoa. Garia garbitzeko Xapaterokoek makina alkilatzen zuten, garbitutakoan irina egitera eramaten zuten.

1.414. Gehiena etxerako (ETX-037/033)

Landatzen zuten gehiena etxerako uzten zen, agian noizbait patata pixka bat saldu izan dute.

1.415. Aziendak (ETX-037/035)

Behiak, normalean, ez ziren gaizkitzen. Gauean behiak Aritzalkora edota beheko basora eramaten zituzten. Txerriak mendian ziren zotoletan egoten ziren, ia negu osoa bertan pasatzen zuten.

1.416. Txerri-hiltzea (ETX-037/036)

Txerria hiltzeko orduan ilargiari ez zitzaion gehiegi begiratzen, egin beharrekoak hartzen ziren kontuan. Herrian bi "urdezale" ziren (txerri-hiltzaile)

1.417. Ezagutu dituen txanponak (ETX-037/038)

Ezagutu dituen txanponak aipatzen ditu.

1.418. Esne-saltzaileak (ETX-037/039)

Esnea saltzen zuten etxean. Erabiltzen zituzten neurriak aipatzen ditu. Behiak jezten ziren egunean bi aldiz, Juanik jezten zituen, eta beste etxeetara joan izan da.

1.419. Eguzkia erloju (ETX-037/040)

Orduan ez zen erlojurik; eguzkiari begiratzen zioten.

1.420. Onddoak, ehiza... (ETX-037/041)

Onddoetarako afiziorik ez zegoen, geroago hasi zen hori. Ehiza ere ez zaio gustatu aitari

1.421. Herrian ziren lanbideak (ETX-037/042)

Herrian jostuna (ikastera joaten zen jendea), herreroa, ferratokia... baziren

1.422. Guardia Zibila (ETX-037/043)

Guardia Zibilaren kuartela Osasun Zentroa dagoen lekuan zegoen. Lehengo guardia zibilak oso ezberdinak ziren eta, adibide gisa, pasadizo bat kontatzen du

1.423. Herrian baziren beste lanbide batzuk (ETX-037/044)

Herrian baziren beste lanbide batzuk: serenoa, zapatagilea (Karasatorre aritzen zen eta larrua lantzen zuen ere bai), hiltegia, ehungilerik ez du Juanik ezagutu, aldiz, haria egiten zuen amona bai, teileria (bere aita horretan aritu zen jubilatuta arte), ikazkinak...

1.424. Etxarriko feria (ETX-037/045)

Feriara ardiak, txerriak, zaldiak,... denetatik ekartzen zuten baina gero kendu zen. Juanik gogoratzen du tratanteak nora joaten ziren bazkaltzera, sortzen zen giro polita, beste herrietako jende asko etortzen zela,...

1.425. Herrira etortzen ziren saltzaileak (ETX-037/047)

Juanik gogoratzen du Erriberatik mahatsa ekartzen zutela, eta trukean aritzen zirela. Bestelako saltzaileak ere etorriko ziren

1.426. Gerraostea (ETX-037/049)

Juanik ez du goseterik ezagutu, taloa jaten zuten, ogirik ez zen, baina gosarik ez. Errazionamendua eta makiak entzun bai, baina ez ditu ezagutu. Estraperloari dagokionez, gogoratzen du Gipuzkoako emakumeak etortzen zirela gauzak erostera.

1.427. Etxarri herri karlista zen (ETX-037/051)

Etxarri, gehien bat, herri karlista zen. Juanik gogoratzen du Montejurratik itzultzen zirenean zalaparta handia izaten zela. Ezkerrak ez zuen pisurik herrian.

1.428. Apezak, mezak... (ETX-037/053)

Apezak orduko jauntxoak ziren. Esate baterako, urtero etxeak bedeinkatzera joaten ziren, eta etxerako ez ziren arrautzak eman behar zitzaizkien. Elizan gizonak aurrean jartzen ziren, eta emakumeak atzeko aldean, aulkietan. Apezak pulpitutik ematen zuen meza, zati batzuk latinez, beste batzuk gaztelaniaz eta baita euskaraz ere zerbait.

1.429. Hil-ezkilak (ETX-037/054)

Gizonentzako hil-ezkilak eta emakumeentzakoak ezberdinak ziren, gizonenak "don" hasten ziren eta emakumeenak "dan".

1.430. Buldak (ETX-037/055)

Garizuman haragia jan ahal izateko buldak erosi behar ziren; hau da, etxeko urdaia edota txistorra jan ahal izateko ordaindu egin behar zen.

1.431. Aste Santua (ETX-037/056)

Aste Santuko pasadizo bat kontatzen du Juanik, eta gogoratzen du aste horretan arau eta debeku asko izaten zirela: karrikaka txandak egin eta gaez elizara joan behar izaten zuten Kristoa zaintzera.

1.432. Prozesioak (ETX-037/057)

Herrian prozesio batzuk egiten ziren: Corpus Egunean, San Kiriko Egunean, San Adrian Egunean,... Juanik kontatzen du behin bere aita zigortu zutela prozesiora joan ez izanagatik.

1.433. Urriko aurorak (ETX-037/058)

Urrian, egunero, goizeko 07:00etan aurorak kantatzen zituzten herriko karrika guztietatik. Ondoren, mezara joaten ziren.

1.434. Corpus Eguna (ETX-037/059)

Corpus Egunean karrketan aldareak jarri zituzten, eta balkoiak apaintzen zituzten. Juanik gogoratzen du bere etxeko balkoietan Espainiako bandera jarri zueneko.

1.435. Aszensio eguna (ETX-037/060)

Aszensio eguna oso sakratua zen, gaur aldiz ez.

1.436. Ama Birjinaren agerpenak (ETX-037/061)

Ama Birjina agertzen zela esaten zuten, berari sekula ere ez.

1.437. Misioak (ETX-037/062)

Misioetan beldur handia sartzan zieten baina, halere, joan egin beharra zegoen.

1.438. Igandeetan ezin lanik egin (ETX-037/063)

Igandeetan ez zegoen lan egiterik eta, lanean hasi zenean, baten bati salaketa jarri zioten.

1.439. Ohitura erlijiosoak (ETX-037/065)

Etxean ez dute sekula arrosarioa errezatu edota ur bedeinkatua izan. Aldiz, ogi bedeinkatuarena, sua bedeinkatzera,... gauza guzti horietara joaten ziren.

1.440. Kandelaria eguna (ETX-037/066)

Kandelaria egunean kandelak eramaten ziren bedeinkatzera, eta, gero, Aste Santuan, kandela horiek elizan jartzen ziren.

1.441. Heriotzak (ETX-037/067)

Hileta kategoria ezberdinak izaten ziren, ordaintzen zenaren arabera. Etxean gau-bela egiten zen. Hileta eta lurperatzea arratsaldean egiten zen.

1.442. Erromeriak (ETX-037/068)

Herrian hiru erromeria egiten ziren: San Kiriko, Ama Birjina egunean eta San Adrian. Janaria eramaten zuten eta bertan bazkaltzen zuten. San Adriangoa handiena izaten zen, egun hartan musika izaten zen eta dantzakia dantzatzen zen.

1.443. Herriko festak (ETX-037/069)

Herriko festetan, goizean, Etxarriko Bandak kalejira jotzen zuen. Arratsaldean Jazz Banda ateratzen zen kalejiran eta jende guztia atzetik joaten zen, oso polita zen.

1.444. Inauteriak (ETX-037/071)

Juani ez da akordatzen.

1.445. Nesken papera Kintoetan (ETX-037/072)

Kintoetan neskek kolorezko kapelak egiten zizkieten mutilei, eta mutilek kapela jantzita egiten zuten parranda.

1.446. Komedianteak (ETX-037/073)

Komedianteak etortzen zirenean, etxetik aulkiak hartu eta ikustera joaten ziren.

1.447. Beste bizimodu bat zen (ETX-037/074)

"Freskua" hartzera ateratzen ziren ere udan. Herrian bizi ziren, etxe baxuetan eta segituan ziren kalean. Askotan egoten ziren karrikan kontu kontari, kartetan jolasten...

1.448. Gaztaina saltzailea (ETX-037/076)

Igande arratsaldeetan Beloki izeneko bat tabernaz taberna ibiltzen zen gaztaina erreak saltzen.

1.449. Izozkigileak (ETX-037/077)

Herrian bertan bazen oso izozki ona egiten zuena. Kanpotik Eliseo etortzen zen izozkia saltzera

1.450. Herriko banda (ETX-037/078)

Herriko musika bandak oso ongi jotzen zuen, eta giro oso polita sortzen zuen igande arratsaldeetan. Kanpoko jendea etortzen zen ere.

1.451. Izua sartzeko (ETX-037/080)

Izua sartzeko makiak, mantekeroa... erabiltzen ziren.

1.452. Arto-zuriketa ondoren mahatsa (ETX-037/081)

Artoa zuritu ondoren, askotan, mahatsa jaten zuten. Beste etxe askotan, zuritu bitartean, arrosarioa errezatzen zuten.

1.453. Medikua eta botikaria (ETX-037/083)

Medikua eta botikaria izaten ziren. Botikariaren kasuan, lehenago bere ama egon zen eta gero bera. Medikamentu batzuk berak prestatzen zituen.

1.454. Telefonoa (ETX-037/084)

Telefonoz deitu nahi izanez gero telefono-etxera joan eta konferentzia ordaintzen zen. Zuri deituz gero abisatzera etortzen ziren.

1.455. Lehen telebista (ETX-037/086)

Lehen telebista tabernaren batean jarriko zuten, Juanik gogoratzen du Frantziako Tourra ikustera Nabarroren etxera joaten zirela.

1.456. Bergarako biltzarra (ETX-038/002)

Ekainean Bergaran bilera bat egin zuten Euskadiko udaletxe guztiek eta Etxarriri gonbidapena egin zioten prozesu hartan parte hartzeko. Abenduan beste bilera bat egin zuten Etxarrin Nafarroako eta Euskadiko udaletxe guztiek. Eskatzen zuten Euskararen ofizialtasuna, amnistia eta foruen berritzea. Ondoren beste bilera bat egin zuten Altsasun inguruko udaletxe batzuekin, zortzi orduz egon ziren. Mozio bat prestatu zuten eta udaletxe guztietara bidali zuten. Handik aurrerako prozesu guztia kontatzen du.

1.457. Ikurrina onartzeko mozioa (ETX-038/003)

Mozio baten bidez ikurrina legeztatu zuten eta udaletxe guztietan jarri zuten. Batzuk ez ziren ados egon, baina gutxiengoak izan ziren.

1.458. Mozioa onartu zen eguna (ETX-038/004)

Mozioa onartu ondoren herria jendez beterik zegoen. Giroa nahiko lasaia egon zen. Venezuelatik, Argentinatik, Mexikotik... eskutitzak eta telegramak bidali zizkieten. Kanpoko kazetari asko ere egon ziren.

1.459. Javierrek mehatxuak jasotzen zituen (ETX-038/005)

Javierrek mehatxu asko jaso ditu alkate zegoen bitartean. Oraindik batzuk gordeta ditu.

1.460. Ikurrina jarri zuten eguna (ETX-038/006)

Mozioa onartu eta hurrengo egunean jarri zuten ikurrina udaletxean. Emakume batek josi zuen ikurrina. Orduan zaila izaten zen ikurrinak lortzea.

1.461. Bertsolariak etorri ziren (ETX-038/007)

Bertsolariak ere etorri ziren egun hartan.

1.462. Bergaran astero egiten zuten bilera (ETX-038/008)

Handik aurrera Bergaran egiten zuten "40 alkaldes" esaten zena. Astero bilera bat egiten zuten azkeneko preso eta errefuxiatuak libre gelditu arte.

1.463. Mozioaren ospakizun eguna (ETX-038/010)

Ospakizun eguna oso polita izan zen. Dena oso ondo antolatua zegoen.

1.464. Herri gehienek onartu zuten mozioa (ETX-038/011)

Sakanako herri gehienek onartu zuten mozioa, Arakil bailarakoak izan ezik. Ondoren udaletxe guztietan sesioak egin ziren mozioa onartzeko.

1.465. Partidu politikoak (ETX-038/012)

Garai hartan exiliatuen gutunak jaso zituzten. Orduan partidu politikoek ez zuten indarrik, bakarrik PNVek.

1.466. Suarezzen eskaria (ETX-038/015)

Suarezek esan zien 15 egun atzeratzen bazuten biltzarra bera ere agertuko zela, baina ez zuten onartu.

1.467. Auzonala eta igerilekua (ETX-038/016)

Garai hartan, auzolanak egiten ziren herrian. Igerilekua ere egin zuten boluntarioen artean. Hiru urtetan egin zuten auzolanean.

1.468. Herriko zinema (ETX-038/017)

Zinea frontoiarekin batera egin zen. Javierrek 15 urte inguru zeuzkanean.

1.469. Herriko festak (ETX-039/002)

Herriko festak urriaren 7an ospatzen ziren; gero, eguraldia tarteko abuztura aldatu zituzten. Festetan diru gutxirekin ondo pasatzen zutela dio. Festak janaren inguruan egiten omen ziren, ardiren bat hiltzen zen... Errondetan kantari ibiltzen ziren. Orduan, neskak ez ziren tabernetan sartzen. Dantzaldian bai elkartzen ziren neskak eta mutilak. Gaiteroak ere baziren eta jota, aurreku eta zortziko dantzatzen ikasi zuten. Festak lau egunetakoak izaten ziren, mutilek bosgarren bat antolatzen zuten.

1.470. Erromeriak (ETX-039/003)

Hiru erromeri ospatzen ziren Etxarrin, San Adrian, Abuztuko Ama Birjina eta San Kiriko. Hiruretan garrantzitsuena San Adrian zen dudarik gabe, besta handia egiten omen zen. Bertan axuria edo antxumea erretzen zuten eta herriak ardo barrika bat eramaten zuen gurdi batean. Mozkor handiak harrapatzen omen zituzten. Mozkorrenek buelta herriko gurdian egin behar izaten omen zuten. Emakumeek, berriz, ez zuten edaten.

1.471. Inauteriak (ETX-039/004)

Inauteriak ere ospatzen zituzten. Pasadizo bat gogoratzen du, zapatariak (gaita-jotzailea zen gainera) pintura batez biboteak egin omen zizkien, eta, gero, zapaten pintura hori ezin kenduz ibili ziren. Etxeko edozein arrokekin mozorrotzen ziren. Orduan inauteriak debekatuta egon zirela gogorarazten du.

1.472. Eguberriak (ETX-039/005)

Eguberrietan, orduan, Olentzerorik ez zen egiten, Erregeak ziren bakarrik. Urteberri egunean kantatzera ateratzen ziren, eta Gabon Gauean "Misa del Gallo" egiten zuten gauean, baina jende batzuk mozkorrak joaten ziren eta besteak haserre.

1.473. Musika banda (ETX-039/006)

Musika banda bazen Etxarrin herriko jendez osatuta. Orduan Etxarriko Udalak dirua bazuen, mendiko ustiapenetik aterata batez ere, eta holako banda mantendu ahal zuen. Orduan "sereno" edo gauzaina ere ba omen zuen herriak.

1.474. Kirolak (ETX-039/007)

Kirolei dagokienez, aizkoran zaletasuna handia izan dela dio. Pilotan, berriz, Nafarroan, garai hartan, bigarren mailako pilotariak ateratzen zirela bakarrik kontatzen du, profesionalak gipuzkoarrak eta bizkaitarrak ziren, orain aldatu da. Beste zaletasun ikaragarria izan omen zen "lucha libre" delakoarekin, herriko festetan eta guzti izaten omen zen. Baina zaletasun hori berehala desagertu zela dio. Kirol honetan aritu ziren hiru gizon aipatu eta gogoratzen ditu. Jendea erotzen omen zen; behin ikusle batek borrokalari bati aulkia bota omen zion. Apusturik ez zuten egiten.

1.475. Fermin Ijurko, begirale Antzinen eta etxe bila Agoitz aldean (ETX-042/002)

Fermin Ijurko. 1975an Antzinen hasi zen. Bi urtez begirale. Etxeak begiratzen Goñi eta Aoitiz aldean. Pablo: Urdirotz, baino lehen Zanduetan, Nagoren eta Itoitzen ikusi zituzten etxeak.

1.476. Zanduetan, Nagoren eta Itoitzen etxeak ikusten (ETX-042/003)

Pablo Zabala. Ferminekin batera etxe bila Agoitz aldean. Zanduetako Kamineroen etxea zegoen libre; gerora "Proyecto Hombre"koek hartu zutena. Ez zien eman diputazioak "reboltoso samarrak" zirelako. Nagoreko etxe bat ere begiratu zuten, egoera onean zegoena, baina ez zuten lortu. Itoitzen beste bat, baina txikia.

1.477. Pikatxoiz eta palaz Urdirotzeko bidea konpontzen (ETX-042/004)

Pablo: azkenean Urdirotzeko etxearekin geratu ziren. Bidea konpontzen lan ikaragarria. Fermin: Amadeo Marco diputazio-buruarekin ere egon ziren. Hitza eman zien bidea konponduko zuela, baina ez zuen bete. Pikatxoia, pala, zapalgailua... lan asko egin zuten bidea konpontzen. Errekatik hondarra atera eta bideko zuloak bete zituzten. Agoitzeko jendeak ere lagundu zuen. Gurdibidea zegoen herrira. Urtero berritu behar zuten, neguan hondatu egiten zen eta. Auto asko alferrik galdu zuten bide negargarri hartan. Izan ere, goraino zamatuta eramaten zituzten.

1.478. Etxarri aldeko jende asko lanean Urdirotzen (ETX-042/006)

Domingo Garzionandia Goñi, Etxarrikoa. Igeltseroa. Obretan jardundakoa. Mahaian ez dagoen jendea ere ibili zen. Igandero-igandero joaten ziren.

1.479. Udalekua martxan jarrita gero obretan lanean (ETX-042/007)

Patxi Auzmendi 'Gadafi'. Obretan ibilia Gaforekin batera, baina ez hasieran, Urdirotz martxan jarrita gero baizik. Bigarren fasean, 1988-89 inguruan.

1.480. 1977tik 1982ra arte atontze-lanetan (ETX-042/008)

Bost edo sei urte igaro ziren etxea hartu eta udalekua martxan ipini arte. 1977koa da alokairu-kontratua eta 1982an sartu zen lehen txanda. Ihazintok presa sartzen zieten, baina ezin zuten azkarrago joan. Zenbait anekdota eta kontu daten gorabeheran. Alokairu-kontratuei buruzkoak. 40 urterako alokatu zen.

1.481. Oso egoera txarrean zegoen baserria (ETX-042/011)

Paulo: baserria zaharra zen, oso gaizki zegoen. Sukalde txikia ganbaran. 'Estarbia' (ukuilua) eta ezkaratza batera. Bi metroko desnibela. Betelana egin zuten berdintzeko.

1.482. Etxea urez hornitzeko lanak (ETX-042/013)

Ur-depositoa garbitu, txukundu, zanga zabaldu, mila metroko plastikozko hodia sartu... Lan handia. Soroetan zanga sakon-sakon egin zuten, traktoreek ez ukitzeko. Eta buruzagia, lhazinto jauna, beti atzetik, ea noiz bukatu behar zuten esanez.

1.483. Hasieran dena norberaren poltsikotik (ETX-042/015)

Hasieran euren poltsikotik joaten zen dena, baina gero milioi bateko kreditua eskatu zuten 100 abaldunen bermearekin. Gerora, kilometroena eta abar, zerbait kobratzen zen.

1.484. Taberna eta tonbola dirua ateratzeko (ETX-042/016)

Herriko festetan taberna jarri zuten Urdirotzeko etxean. Oso giro ona jarri zuten eta gainera diru apur bat atera ere bai. Beste urte batean, tonbola jarri zuten Etxarrin Urdirotzerako dirua ateratzeko.

1.485. Etxea zabaldu aurreko lanak eta presak (ETX-042/018)

Agoitzeko jendearekin berehala egin zuten harremana. Bi etxarritar andereño zeuden Agoitzen eta horrek asko erraztu zituen gauzak. Zenbait Agoiztarren izenak. Martxan jarri behar zeneko garaian beste ganora bat egon zen obretan. Donostiako eta Lazkakoko jendea sartu zen. Izan ere, aurretik, ez zen halako presarik ikusten eta lana bai, baina parranda egitea ere nahi izaten zen.

1.486. Lurrean su eginda jatorduak prestatzen (ETX-042/022)

Pozo septiko berria, komunak, jangelak... egin zituzten. Lanean ari zirenean, jatorduak aldameneko borda batean egiten zituzten. Sua lurrean egin eta parrillan prestatzen zuten jana, ijitoak bezala. Lo zakuetan lurrean. Elizako Dorrean bazen ezquila, eta hura joz esnatzen zuten jendea.

1.487. Euskal giroa eraman zuten eskualdera (ETX-042/023)

Lan asko, baina oso ondo pasatzen zuten. Egundoko giroa sortzen zuten Auritzera (Burgete) joaten zirenean. Herriko eta Garraaldako jendearekin elkartzeko ziren, eta tabernaz taberna kantuan, guardia zibilak ere atzetik zituztela. Euskalzaletasuna eta abertzaletasuna euren bidez sartu zen neurri batean eskualdean. Gastu handia egiten zuten Agoitzen, han egiten zirelako erosketa gehientsuak. Larunbatetan joan ohi ziren gehienak lanera, urte guztian zehar.

1.488. Sakanar asko obretan lanean (ETX-042/025)

Sakanako asko ibili zen lanean. Iturmendiko talde bat ere bai. Arbizuarrak asko. Iturgina Iruñekoa zen. Hodiarekin izandako gorabeherak

1.489. Agoitzeko ikastolakoak eta Ortzadar Taldekoak egunak pasatzen (ETX-042/027)

Etxea ireki aurretik Agoitzeko ikastolako haurrak joan izan ziren inoiz egun bat edo beste pasatzera. Iruñeko Ortzadar Taldekoak ere bai.

1.490. Hasieran Lizarrako igeltsero baten laguntza izan zuten (ETX-042/029)

Hasieran Lizarrako 'kisuzgin' bat (igeltseroa), Etxarri abizenekoa, ibili zen lanean. Hormigonera ere laga zien. Oso jatorra. Baina gorabehera politikoak zirela bide, utzi egin zuen lana.

1.491. Urdirotzeko festak antolatzen (ETX-042/034)

Herriko jaiak antolatu zituzten urte batean. Irigarriak ipini zituzten inguruko herrietan. Musika, sokatira. Sekula ez omen da hainbeste jende bildu Urdirotzen. Gau batean 300.000 pezetako kaxa egin zuten tabernarekin.

1.492. Etxarrin tonbola jarri zuten (ETX-042/037)

Etxarrin tonbola jarri zuten dirua ateratzeko. Panpina pila bildu zuten. Festa guztiak tonbolari lotuta pasatu zituzten. Dirua eman zuen baina ez gehiegi.

1.493. Euskararen aldeko militantzia bultzagarririk handiena (ETX-042/040)

Patxi 'Gafo'. Berarentzat ilusioa bezain inportantea izan da euskararen aldeko militantzia. Obrako materialarekin apur bat "estraperloan" ibiltzen ziren.. Burgeteko dantzalekua eraikitzen ari zirenean, inoiz hango materiala eskuratzen zuten etxeko obrarako. Zenbait komeria.

1.494. Argia sartzea ez zuten lortu (ETX-042/042)

Argia sartzen ahalegindu ziren, baina ez zuten lortu. Nafarroako argindarraren buruarekin ere bildu ziren. Hitz onak, baina ez ziren gauzatu. Administrazioaren aurrean ez zuten inolako indarrik. Oztopoak bakarrik aurkitzen zituzten.

1.495. Ikurrina balkoian (ETX-042/045)

Etxearen hasierako irudiak, ikurrina eta guzti. Guardia zibilek tiroz bota omen zuten teilatukoa. Gero balkoian jartzen hasi ziren. Handik ere harrapatzen zuten. Sukaldeko gauzak ere eramaten omen zituzten.

1.496. Lehengoek ondo erantzun zuten, baina oraingo gazteek ere bai (ETX-042/047)

Gafo: jendeak oso ondo erantzuten zuen lanerako orduan, zahar eta gazte. Beste garai batzuk ziren, ezin dira gaurkoekin konparatu. Oraingo gazteak ere erantzuten dute, euskararen aldeko kontuetan, esate baterako.

1.497. Militantzia, ilusioa, gogoia... euskararen alde (ETX-042/049)

Paulo Zabala: militantzia, ilusioa, gogoia zegoen euskararen alde lan egiteko. Eta oso pozik dago egindakoarekin.

1.498. Abertzaletasuna gori-gori zegoen garaia (ETX-042/050)

Fermin: abertzaletasuna gori-gorian zegoen. Kantak, kartzelatuak... edozein gauza eskatu eta jendea prest zegoan. Paulo: Etxarriar asko Udaberri Taldekoak ziren.

1.499. Kobratuta izan balitz, agian ez zuketen egingo (ETX-042/052)

Txomin: adina ere ona zuten. Lana zegoen eta ilusioa. Egindakoarekin pozik, harro. Gero urte mordo batean jende askori ondo etorri zaio egindako lana. Ordaindutako lana izan balitz agian ez ziren joango.

1.500. Obretarako jende egokiaren falta, Urdirutz uzteko arrazoietakoa bat (ETX-042/054)

Txomin: oso deseroso zegoen Urdirutz; Ordubete baino gehiagoko bidea. Elkarrizketagileak dio Urdirutz uzteko arrazoietakoa bat obretarako jende aski eta egokia ez aurkitzea izan zela.

1.501. Egunez lan, gauez parranda (ETX-042/056)

Patxi: Esperientzia polita. Lan pila. Egunez lana eta gauez parranda. Baina zortzietarako esnaturik. Elizako ezquila zen iratzargailua. Lana asko eta ondo egiten zuten. Bazkaltzeko astirik ere ez zuten batzuetan hartzen.

1.502. Auzolanean egindako lana gelditu egiten da (ETX-042/058)

Auzolanean egindako lana gelditu egiten da. Eta ekonomikoki ere alde ederra. Eta ez eurak bakarrik, berdin Antzinen, Goñin... Giro hura ikusita, eurak ere zerbait egin beharra sentitzen zuten. Gafo: eta gauzak jarraipena du. Adibidez, une honetan elkarrizketagileak ezagutzeko aukera izan dute ordukoari esker. Fermin: oraingo gazteak ez dira horrelakoetara joango, baina bai beste gauza batzuetara. Gazte jator askoak ditugu.

1.503. Joseba eta Anaitzen zaletasun nagusiak (ETX-043/004)

Josebak eta Anaitzek beren zaletasunak zerrendatzen dituzte.

1.504. Mendirako aukera handia Etxarri Aranatzen (ETX-043/006)

Mendia eta basoa bertatik bertara dauzkate Etxarri Aranatzen, eta haiekiko zaletasuna areagotzen ari omen da.

1.505. Onddoak eta zizak (ETX-043/008)

Joseba geroz eta zaleagoa da onddoak eta zizak biltzeko; Anaitzek, aldiz, nahiago ditu platerean. Perretxikoak biltzeko hainbat aukera eskaintzen du Etxarri Aranazko inguruak.

1.506. Kalea topaleku I (ETX-043/010)

Kalea da herriaren topaleku naturala Etxarri Aranatzen, eta hainbatetan elkartu izan dira bertan Joseba eta Anaitz, izan herringintzari lotutako ekimenetan, izan parrandan. Joera horrek "betiko" kuadrillatik kanpo ere harremanak izatea ahalbidetzen du, eta oso positibotzat dute biek.

1.507. Kalea topaleku II (ETX-043/013)

Arbizun, Lakuntzan, Altsasun... horietan ere kale-giro polita sumatzen dute, Etxarri Aranazkoaren antzekoa edo.

1.508. Herriko plaza, Etxarri Aranazko bilgune nagusi (ETX-043/015)

Herritarren arteko hartu-emanak sustatzeko leku ezin aproposagoa da Etxarri Aranazko plaza. Bada, hala ere, topagune apropos gahiagorik herrian.

1.509. Etxarri Aranazko gaztetxea (ETX-043/017)

2006 urtetik da martxan gaztetxea Etxarri Aranatzen. Lehenago ere izan zen besterik.

1.510. Lehenengo gaztetxea "Círculo Carlista"n (ETX-043/020)

Nerabe ziren Joseba eta Anaitz Etxarri Aranatzek "Círculo Carlista" okupatua izan zenean. Gaztetxe hartan antolatutako Ska-p eta Latzen musika taldeen kontzerturen batean izanak dira, besteak beste. Orduko oroitzapenei tiraka jarduten dute pasarte honetan.

1.511. Gazte asanbladako garaia (ETX-043/023)

Elkarrizketa egin genuen garaian gaztetxea bazen Etxarri Aranatzek, eta Joseba Gazte asanbladako kide izan zen gaztetxe hura eraikitzekeo prozesuan zehar. Oso oroitzapen onak ditu garai haiez.

1.512. Gazte asanbladan (ETX-043/024)

Anaitz ere, Joseba bezalaxe, izan zen gazte asanbladako partaide. Gaztetxea gorpuzten hasi zireneko gertakarien kontaketa egiten du.

1.513. Gazte asanblada "maskulinoa" (ETX-043/025)

Atzera begira jarri eta Joseba eta Anaitzek diote hastapenean egun baino neska gutxiago zela gazte asanbladan.

1.514. Lagunartea zabaltzen (ETX-043/027)

Joseba eta Anaitz ez ziren betiko kuadrillarekin batera sartu gazte asanbladan. Harreman berriak egiteak aberastu egin zituela diote.

1.515. Gaztetxea sormena lantzeko bide (ETX-043/028)

Sormen artiskoa landu zalea da Anaitz, baina gaztetxekeo jardunak sormena era askotara lantzeko aukera eman diola dio.

1.516. Gaztetxetik abiatutako lorpenik handiena (ETX-043/030)

Herritarren arteko harremanak sendotzea izan da gazte asanbladaren lorpenik handiena.

1.517. Ardurak hartuz, arduratsu bihurtu (ETX-043/031)

gazte mugimenduetan parte hartzeak ardurak hartzea dakar, eta banakoen heltze prozesuan positiboki eragiten du.

1.518. Jende zaharra eta gaztetxea (ETX-043/033)

Jende heldua eta gurasoak hurbildu izan dira gaztetxera, baina zaharrik ez. Hala ere, zaharrenen aldetik ez da kontrako jarrera aipagarrik izan.

1.519. Etxarri Aranazko parranda giroa (ETX-043/035)

Parranda-ereduari dagokionez, Etxarri Aranatzek ez omen du berezitasun aipagarrik, inguruko herrietatik jendea maiz samar bertaratu ohi da, ordea. Gaueko parranda izaten da, gehinbat, Etxarri Aranatzekoa.

1.520. Parrandan beti betikoak (ETX-043/036)

Josebak gogoan du parrandan beti betiko jendearekin topo egin ohi zutela berak eta kuadrillakoek. Anaitz ohartu izan da parrandan sortzen direla belaunaldi ezberdinetako herritarren arteko harremanak.

1.521. Droga motak (ETX-043/038)

Alkohola eta tabakoa sozialki onartutako drogak direla uste dute Josebak eta Anaitzek. Bestelako presentzia ez da nabarmena, eta haien kontsumoa ez dago normalizatua.

1.522. Droga kontsumoa parrandan (ETX-043/040)

Droga kontsumoak eragin egiten du parranda giroan; konplizitatea sortzen da droga ilegal jakinak kontsumitzen dituztenen artean, baina joera hori bera gutxituz doa pixkana.

1.523. Drogaren gainean gutxi hitz egiten da (ETX-043/042)

Anaitz eta Josebaren ustez ez da behar beste hitz egiten drogaren kontsumoaren gainean.

1.524. "Normal" tratatuak izatetik urrun dauden gaiak (ETX-043/044)

Sexu kontuak ez dira normaltasun osoz tratatzen Joseba ta Anaitzen lagun taldean. Nesken artean gehiago, akaso.

1.525. Gazte mugimenduak eta generoa (ETX-043/046)

Genero aldetik berdintasuna oraindik ere kontu urruna izan arren, gazte mugimenduetan landu izan den gaia da.

1.526. genero berdintasuna, oso gai zabala (ETX-043/048)

Genero berdintasunaren gaiak "azpigai" asko dituela nabari da.

1.527. Genero berdintasuna lagunartean (ETX-043/050)

Anaitz berdin ibiltzen da mutil zein neska tartean, eta aukera ikusten du askotan genero berdintasuna urratzen duten egoerez naturaltasunez mintzatzeko.

1.528. Genero berdintasuna, umorea eta sare sozialak (ETX-043/052)

Emakumearen figura gizonezkoarena baino gehiago "zigortzen" da kalean eta lagun artean ibili ohi den umore "errazarekin". Sare sozialetan egiten den umore grafikoarekin berdintsu gertatzen da, eta gainera, halakoetan, genero berdintasuna zeharka urratzea ere ohikoa da.

1.529. Hezkuntza sistemaren hutsuneak (ETX-043/056)

Anaitzek uste du hezkuntza sistemak denbora eta baliabide gehiago jarri beharko lituzkeela hainbat gai nerabeekin lantzeko.

1.530. Ligatzea eta parrandak (ETX-043/058)

Lotuegi daude ligatzea eta parranda.

1.531. Txutxumutxu asko dabil bazterretan (ETX-043/060)

Txutxumutxua bazterrik bazter badabilela uste dute Josebak eta Anaitzek. Hala ere, bereizi egiten dituzte hirugarren pertsonen aritzeko moduak eta jarrerak.

1.532. Gaztelarako joera (ETX-043/062)

Umorea egiteko eta haserrea adierazteko garaian gaztelera jotzea ohikoa du Joseba eta Anaitzen inguru hurbilak. Hala ere, eurak kontziente dira hortaz, eta konponbidea jartzen saiatu izan dira maiz.

1.533. Irainak eta sinesgarritasuna (ETX-043/064)

Hiztuna konbentzimenduz ari denetan da sinesgarri; sinesgarritasuna landu daitekeen aspektua da.

1.534. Euskalkiak, hizkerak eta konplexua (ETX-043/065)

Sakanatik kanpo Etxarri Aranatzeko hizkera ez erabiltzeko joera sumatu izan du Josebak hainbatengan; gaur egun, aldiz, ez hainbeste.

1.535. Herriko zenbait esamolde eta hitz (ETX-043/067)

Herriko zenbait esamolde eta hitz esaten dituzte Josebak eta Anaitzek, eta diote, euren gurasoen belaunalditik eurenara halako asko eta asko bidean geratu dela, erabilerari dagokionean, behinik behin.

1.536. Euskal Herrian Euskaraz I (ETX-043/069)

Ziriketzen euskara taldean eta EHE-n arituak dira Joseba eta Anaitz.

1.537. Euskal Herrian Euskaraz leloari buruz (ETX-043/075)

Euskal Herriak euskalduna behar lukeela nahikoa onarpen duen baieztapena dela uste dute Josebak eta Anaitzek.

1.538. Urteberriko koplen oroimen urria Etxarrin (ETX-046/001)

Urteberri egunean etxerik etxe kopla-kantari aritzeko ohituraren inguruan hitz egiten du.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-04-05

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com